



*Sare 2004
Nazioarteko
Kongresua:
“Lein
herritartasun-
eredurantz?”*



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Sare 2004

Nazioarteko

Kongresua:

“Lein

herritartasun-

-eredurantz?”

EMAKUNDE/
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Gasteiz 2005

IZENBURUA: Sare 2004 Nazioarteko Kongresua: "Zein herritartasun-eredurantz?"
EGILEA: EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundea. Manuel Iradier, 36. 01005 Gasteiz
MAKETAZIOA ETA KOORDINAZIOA: Ana Rincón
DATA: 2005eko iraila
ALE-ZENBAKIA: 500
DESKRIBATZAILEAK: Herritartasuna, emakumeen eskubideak, ekonomia, politika, simposioak
IRUDI DISEINUA: Ana Badiola eta Isabel Madinabeitia
FOTOMEKANIKA: Esda Fotomecánica. Padre Larramendi, 1. 48008 Bilbao
INPRIMAKETA: Estudios Gráficos Zure, S.A. Crta. Lutzana - Asúa, 24 A - 48950 Erandio - Goikoa
ISBN: 84-87595-99-5
LEGE GORDAILUA: BI-2312-05

Salneurria: 20 euro

AURKIBIDEA

INAUGURAZIOA	7
Juan José Ibarretxe Markuartu Txaro Arteaga Ansa	
“HERRITARTASUNA EUROPAN: ESKUBIDE ZIBILAK ETA GIZARTE-, POLITIKA- ETA EKONOMIA-ESKUBIDEAK”	15
Pilar Folguera Crespo	
“EMAKUMEEK GIZARTE ABERASTASUNARI EGITEN DIOTEN EKARPENA” ..	39
Cristina Carrasco Bengoa	
“BIZI-BALDINTZAK, LAN ORDAINDUAREN BALDINTZAK, SEGURTASUN EZAREN BALDINTZAK: IKUSPEGI FEMINISTA”	53
Antonella Picchio	
“EMAKUMEZKO HERRITARRAK EUROPAN”	75
Teresa Montagut Antolí	
“HERRITAR AMAK, HERRITAR AITAK: BETEBEHARREN ETA ESKUBIDEEN MUGAK ETA ESANAHIAK MUGITU EGIN DIRA ONGIZATE-ESTATUKO ALDAKETA-AROAN”	87
Barbara Hobson	
“GENEROKO ARGILUNAK GLOBALIZAZIO NEOLIBERALEAN”	111
Idoye Zabala Errazti	
“HERRITARRAK BAZTERTZEA: GENEROA, ETNIA, ARRAZA ETA MAILA”	137
María Xosé Agra Romero	

“NORTASUNA, HERRITARTASUNA ETA PARTAIDE IZATEARI BURUZKO GENERO POLITIKA SEGURU ETA GARAIKIDEAK”	151
Nira Yuval-Davis	
“POLITIKA, DEMOKRAZIA ETA BERDINTASUNA”	167
Julia Sevilla Merino	
“GENEROAREN ERAGINA EGUNEROKO NEGOZIAZIOETAN ETA HERRITARTASUN OSOA LORTZEKO OZTOPO SUBJEKTIBOAK. BALDINTZATZEN AL DU EMAKUME GENEROAK HERRITARTASUN FANTASMA?”	219
Clara Coria	
“HERRITARTASUNA ZAINDU: ONGIZATEAREN ETA DESBERDINKERIAREN PARADOXA NEOLIBERAL BAT”	227
Joan Tronto	
“ZEIN ESKUBIDE ETA BETEBEHAR, ZEIN BALIABIDE MOTA? HERRITARREN IKUSPEGIAK GENEROAREN IKUSPUNTUTIK”	249
Chiara Saraceno	

**JUAN JOSÉ IBARRETXE
MARKUARTU**

**Eusko Jaurlaritzako
Lehendakaria**

TXARO ARTEAGA ANSA

**Emakunde / Emakumearen
Euskal Erakundeko zuzendaria**

Inaugurazioa

Etorritako guztioi, egun on. Gure agurrik beroena ere egun hauetan gurekin Euskadin zaudetenei. Bihotzez eskertzen dizuegu zuekin elkarrekin pentsatu ahal izatea, etorkizunerako proposamenak, ideiak eta gure ametsak landu ahal izatea.

Esan ohi da ikusten ez dena ez dela existitzen, eta hala da. Eta eztabaidatzen ez dena ez da konpontzen, baita ere. Eta ideia bat, zoragarria izanda ere, tartean azterketa prozesurik ez baldin badago, ez da inoiz burutuko.

Nortasuna eta berdintasuna eztabaida handienetako bi dira, honako bi eztabaida hauekin batera lotuta daudenak:

- Garapen iraukorrari buruzko eztabaida. Garapen orekatua, garapena ez soilik gugan pentsatukoa, baizik eta gure seme-alabetan pentsatutakoa; pentsatuta mundua ez zela hasi gu jaiotzean, eta bukatu ere, ez dela gu hiltzen garenean bukatuko. Ez.
- Gainera, bigarrenik, txirotasunari buruzko eztabaida dago. Xirotasunari buruzko eztabaida munduko ordena berria arautuko duen sakoneko eztabaida handia da; eztabaida horren oinarriak ezin dira izan gerra, zapalkuntza, nagusitasun fisikoa, edo gizonen nagusitasuna emakumeen aurka, baldintza fisikoak bitarteko.

Argi dago munduko ordena berria berdintasuneko espazio batean osatu behar dela, nortasunaren errespeturako espazio batean, eguneroko bizitza, bizitza soziala eta gizon eta emakumeen arteko bizitza politiko eta elkarbanatua kontuan hartuko dituen espazio batean. Eta soilik nortasunaren eta berdintasunaren binomio hori ongi jokatzen baldin badakigu egongo gara herri eta pertsonentzako osasuntsuak diren proiektuen aldeko apustua egiteko moduan.

Gainera, uste dut eztabaida une egokian egiten ari garela. Ez gai hau hain zuzen ere urte honetan lantzen hasi delako, azken hilabete hauetan, baina azken aldi honetan hainbat erabaki politiko, sozial eta ekonomiko hartu dira, gaur eta biharko jardunaldietan eztabaidatu ahal izango ditugunak, eta oso interesagarriak direnak. Nik neuk uste dut egun dugun herritartasunaren diseinua, gizarte diseinua, izenburu osatugabe hori duen adierazpen hartatik datorrela, 1789kotik hain zuzen ere, "Gizonaren eta herritarren eskubideen adierazpena" (1789). Eta 16. artikuluan ondorengo zioen gutxi gorabehera: "Eskubideen bermea ziurtatuta eta botereen banaketa erabakita ez duen gizarteak ez du konstituziorik". Beno, nik uste dut, urte askoren ondoren, urte mordoska baten ondoren, guztiz indarrean dagoen printzipio bat dela. Nik benetan uste dut XIX. eta XX. mendeetan, nahiz eta batzuetan nahi bai baina ezin, lehen paradigmari irtenbidea ematen saiatu garela, botere banaketari dagokiona, alegia, baina ez diogu bigarrenari erantzunik eman: gizakien eskubideak bermatzea. Eta XXI. mendeko auzia, inondik inora ere, nire ustez, konstituzioari eragiten dion auzia Europan, Espainian nahiz Euskadin, gizartea nola eraikitzea da, hain zuzen ere: gizartea botereetatik abiatuta eraiki, orain arte eramandako inertziari jarraiki, Europar Batasunaren osotasunaren barnean, gutxi asko, modu txukunean eraiki dugun botereen banaketaren ildotik, edota, bestela, gizarte berri horri erantzuna ematen saiatu eta eskubideak bermatu. Hor dago koska. Bai, oso erraza da. Eta zer gertatzen da? XIX. eta XX. mendeak lehen zatia erantzuten eman ditugula eta ez diogula bigarrenari erantzun. Eta gizarte eta botere publikoek erantzun bat eman beharko dugu, gizartea boteretik eraiki nahi dugu honela inertzia berberak izaten

jarraitzeko, edo gizartea pertsonen eskubideak bermatuz eraiki nahi dugun. Aski erraza da eta, era berean, aski zaila. Eta ikuspuntu horrekin eta egoera horixe bizi dugu une hauetan.

Ez dago demokraziarik eskubideak bermatzen ez badira eta, jakina, gizon eta emakumeen arteko berdintasunean aurreratzen ez baldin bada, ez dugu demokraziarik izango. Ezingo dugu esan gizarte demokratiko batean bizi garenik eta, batez ere, ez da giza garapenik egongo.

Globalizazioaren prozesuaren inguruan egiten dudan lehen hausnarketa da globalizatu behar ez direnak txirotasuna eta ezberdintasuna direla. Globalizazio eredu baten aldeko apustua egin behar al da? Bai, baina bakea globalizatu behar da, pertsona guztien eskubideak, guztienak, gizon eta emakumeenak; azken finean, giza garapena globalizatu behar da. Eta horretarako, nik uste, bi aldaketa handi egon behar dira, eta bi aldaketa handi horien aitzinean erantzun beharko dugu gizarte eta botere publikoak.

Lehena: Orain arte erabilitako garapen ekonomikoaren kontzeptutik giza garapenaren kontzeptura egin behar dugu jauzi. Jauzi horretan, garapen ekonomikotik giza garapenera jauzi egiteko, errentaz gain, badira gizartearen garapena azaltzen duten bestelako faktoreak. Zein dira? Funtsean, balio hezitzaileekin zerikusia dutenak. Balio hezitzaileak, bizitza-itxaropenak, garapen kontzeptuaren zati dira dagoeneko, garapenaren kontzeptua giza garapenaren kontzeptua izatea nahi baldin badugu, behinik behin. Hori da globalizazio kontzeptuen lehen erronka handia.

Eta bigarren erronka handia: baiezko erantzuna eman behar diogu gizartea eraikitzeko pertsona eskubideen bermea oinarri hartzeari, gizon eta emakumeen eskubideak oinarri hartuta, haurren eskubideak, mutiko zein neskatuenak oinarri hartuta, emakumeen eskubideak giza eskubideak direlako, beste guztiak bezala. Eta ezin esango dugu giza eskubideak bermatzen ditugunik, berdintasuna bermatzen ez badugu, berdintasun egoera batean jarduera politikorako, publikorako, sozialerako, ekonomikorako baina baita eguneroko jardueretarako sarbidea bermatzen ez badugu. Eta bigarren erronka handi horren aurrean, edota helburu handi horien aurrean, nola ari gara erantzuten? Ba nik esango nuke nahiko narras. Europar Batasunaren esparruan begiratzen baldin badugu, are konplexuagoa litzateke; arrazoiak begi bistakoak dira, ziur guztiek jabetzen zarete la, globalizazio prozesu hori begiratzea besterik ez dago, izan ere, geroz eta globalagoa den herri batean bizi gara, geroz eta hurbilago bizi gara, baina egunero gero urrunago. Egi bihurtu da Napoleonek, Orwellen "Baserria" eleberriko zerriak, esandako zorigaitzoko printzipio hori: "Gizaki guztiak gara berdinak, baijan batzuk beste batzuk baino berdinaoak". Bada hori da, hain zuzen ere, globalizazioak eragin duena, XX. mendean zehar mundua errentari dagokionez hamar aldiz haztea lortu baitu, baina herrialde garatu eta ez garatuen arteko ezberdintasuna ere hamar aldiz handitzea lortu du. Mundu mailako gaixotasun horren aurrean, erantzunak konplikatuak dira.

Zein erantzun daukagu Europar Batasunaren eskutik? Ziur nago geroago gai hauek gertuagotik lantzen ari diren pertsonak entzuteko aukera izango dugula, baina nik nire ikuspuntua aurreratu nahi dut eta esan konstituzioaren testuak aukera paregabea galdu duela gizon eta emakumeen arteko berdintasunean aurrerapauso sendo bat emateko, ez baitu testuan bertan berdintasun horri

dagokion izenbururik barne hartu. Beharrezkoa eta ezinbestekoa dela iruditzen zait berdintasunak konstituzioaren testuan izan duen trataera bestelakoa izatea.

Esparru hurbilagoetan so egiten baldin badugu, Espainiako Gobernuan genero indarkeriari dagokionez, horren aurka egingo duen lege oso baten aldeko apustua egin da; hori guztiz errespeta-garria iruditzen zaigun apustua da. Eta nola erantzuten diogu honi Euskadin? Betidanik pentsatu izan dugu gai hau jorrazteko gaiaren sakoneko erroetara joan behar dugula. Egia da emakumeen aurkako indarkeriaren gaia basakeri hutsa dela, XXI. mendean lotsatzeko arrazoietakoa bat da, inondik inora ere. Hemen ere jasaten dugu eta onartu beharra dago, beraz, hautsak harrotu behar dira, gizarteari indarkeria mota guztiekin aldarrikatzen dugun zero tolerantzia igorri behar zaio, baina kasu horretan, eta gaur hemen hitz eginez, bereziki emakumeen aurkako indarkeriarekin aldarrikatzen duguna. Baina azaleratzen den gertakari zital, umiliagarri eta beldurgarri hori gizon eta emakumeen arteko egiturazko ezberdintasunetik eratortzen den arazoa baino ez da, horregatik, ezberdintasunaren jatorriari aurre egiten dien neurriak garatu behar dira indarrez eta tinkotasunez. Eta guk nahiago izan dugu oinez abiatzea, eta tinkotasunez abiatu gara, honetan sinisten dugulako, gure konpromisoa herritar guztien bizitza-baldintzak hobetzea delako, Gizon eta Emakumeen arteko Berdintasunaren Legeren aurkezpena medio. Horixe da gure apustua. Honela zioen Butros Galik: "XXI. mendeko eztabaida politiko nagusia Berdintasunaren eztabaida da". Ni erabat ziur naiz hori hala dela, erabat ziur! Legealdi honetan gai oso interesgarriak daude azterteke eta nire azken hausnarketa parlamentuko eztabaida honetara dakarkit. Gizon eta Emakumeen arteko berdintasunaren Legea legealdi hau amaitu aurretik onartu behar da. Aurrera egiteko zutarri on bat delako eta eztabaida hau behar duen energiarekin jorratuko dugula espero dut, ideia eta proposamenak ekarriz, ikuspuntu ezberdinak, eta gizarteak eskatzen digun inplikazio politikoa.

Eta zer behar dugu? Aliatuak, emakumezko zein gizonezko aliatuak baina, batez ere, gizonezko aliatuak, gizonezkoak... Emakumeei gaur gauden tokira iristeko egin duzuen esfortzu handia onartu behar zaizue. Baina gaur inoiz baino gehiago gizonezkoen inplikazioa behar dugu proiektu honek aurrera egin dezan, programekin aurrera egiteko, berdintasunaren printzipioekin aurrera egiteko. Gizonezkoen geroz eta inplikazio handiagoa behar dugu. Gizakiak ezezaguna denaren beldur gara, baina oraingo honetan ez gara beldur izan behar, benetan zirrara-garria baita gure bizitzatik kendutakoa berriz ere berreskuratzea. Gizonei sentimen eta maitasunaren mundua kendu zaie, hein batean, emakumeei hainbat eta hainbat gauza kendu zaien moduan, besteren artean, historiari egindako ekarpenaren oroitzapena. Emakumeek anonimatatik bultzatu dituzte prozesu ekonomikoak, sozialak, historikoak. Berdintasunean parte hartzeko atea zabaldu behar dugu esparru sozioekonomiko, politiko eta kultural guztietan, baita eguneroko bizitza osatzen duten zeroginen multzoari erreferentzia egiten diotenetan ere. Guztiok irabaziko dugulakoan nago, gizon eta emakumeek, eta ez gara guztion protagonismoa eskatzen duen gizarte honen beldur izan behar. Gutako bakoitza altxor errepika ezina delako eta gure bizitzak eta gure ingurunea eraikitze-ko elkar behar dugulako.

Hainbatetan aipatzen dut Gertrude Mongellak 1995ean Pekingo konferentzian zirraraz beteta luzatutako gonbita hura eta gaur ere hori bera gogoratuko dut bukatzeko: "Emakumeek beti borrokatu izan dute gizonezkoen ondoan esklabutzaren aurka, kolonizazioaren aurka, Apartheid-aren aurka eta bakearen alde. Egin dezatela gizonezkoek emakumezkoekin bat berdintasunaren borrokan".

Orain, boluntarioz betetako armada baketsu bat behar dugu herri honetan gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren alde egiteko, Euskal Herrian, bai eta bizi garen kontinentearen osotasunaren ere, Europan.

Eta nik neuk esan nahi dizuet gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren alde borrokatzen ari den armada baketsu horren zati naizela. Lehendakari naizen aldetik, gizarte guztia eta, bereziki, euskaldun guztiak bertan militartzera gonbidatu nahi ditut, benetan merezi duen proiektu bat dela uste dudalako.

Eskerrik asko guztioi.

A handwritten signature in blue ink, consisting of a large, stylized initial 'J' followed by several loops and a long horizontal stroke at the bottom.

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU
Eusko Jaurlaritzako lehendakaria

Egun on guztioi. Gure ongi etorrikerik beroena eman nahi dizuegu SAREren 2. edizio honetara etorri zaretenoi.

laz izan genuen lehenengo topaketa, eta orduan bezala, aurten ere gure aurreko emakumeak omendu nahi ditugu, zeregin garrantzitsua izan baitzuten gure herrien kultura eta eraikitze-prozesuan. Erritueta eta mitologian argi ikusten da hori. Antzinako euskal baserrietako zibilizazioan ere emakumeen elkarrekin, nahiz eta isilpekoak izan, eragin handia izan zuten. Orain ez dugu isilpean ibili nahi, garaia bestelakoa da; emakume haien arteko elkartasunaren esperientzia bildu nahi dugu eta egungo errealitatean sareak ehuntzen jarraitu, gizartean egoteko eta esku hartzeko, egunen batean gizonak eta emakumeak maila bereko herritar izan gaitezten.

Hala bada, SARE topaketen bigarren edizio honekin aitzindari izan ditugun emakumeak omentzen jarraitu nahi dugu eta gure gizarte eta herriak eraikitzeko prozesuan izan duten ekarpena eskertu nahi diegu, askotan ikusi ez den eta ia inoiz onartu ez den esfortzua baita euren.

Eta adituen pare ehuntzen zituzten elkartasunaren sare horiek berak ehuntzen jarraitu nahi dugu. Aldaketa sakoneko uneak dira eta datozen gizarte aldaketetan esku hartu eta beroien gidari izan nahi dugu. Gizartea hobetzeko daukagun proposamenak adierazi nahi ditugu modu eraginkor eta egokian, horregatik proposatzen ditugu hau bezalako hausnarketarako espazioak, erronka berrien aurrean jarrera on bat hartzen lagunduko digutenak.

laz zainketaren gaia jorratu bagenuen, aurtengo edizio honetan herritartasunaren gaia joratzeko gai egokia dela iruditu zaigu, batez ere gaur egun, nola Europar Batasunean hala Estatuaren eta gure autonomia-erkidegoaren esparruan, prozesu konstituziogileak eta funtsezko legeen erreformak direlako eztabaidagai, etorkizuneko Europa eta Euskal Herriko gizartearen oinarri izango diren printzipio, arau eta balioak zehaztuko dituztenak eta hainbat belaunaldietako herritarren eskubideak osatzeko bide emango dutenak.


Gaur arte herritartasun kontzeptua parametro sexisten eta androzentrikoen arabera osatu da. Bizi dugun gizarte antolaketa honetan lan ordaindua da eskubide eta betebeharrak erdiesteko bitarteko nagusia eta, gehienetan, emakumeek egiten duten lan ez ordainduaren balio sozial eta ekonomikoa baztertu egiten da. Lan hori ez balioesteak eta emakumearen partaidetza lan-munduan gizonarena baino txikiagoa eta baldintza kaskarragoetan izateak, emakumeek euren eskubide politiko, zibil, ekonomiko, sozial eta kulturalak erabiltzea baldintzatzen du. Hori dela eta, SARE kongresua lan esparru ona izan daitekeela uste dugu lana sexuaren arabera banatzen duen eredu tradizionala zalantzan jartzeko eta datozen lege erreformek zein herritartasun eredu proposatzen diguten hausnartzeko, zein den guk nahi dugun herritartasun eredu eta zein den gizon eta emakumeek eredu horretan izango duten papera.

Ildo horretatik, Emakundek eta, oro har, Eusko Jaurlaritzak, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Lege Proiektuaren bitartez ekarpen garrantzitsu bat egin dugula uste dugu. Proiektu horrek bultzatu nahi duen gizartean pertsona oro da trebetasunak garatzeko eta erabakiak hartzeko libre, sexuaren araberako rol tradizionalak ezarritako mugez gaindi, eta modu berean hartzen dira kontuan, balioesten dira eta bultzatzen dira emakume nahiz gizonen jarrera, nahi eta beharrak. Horretarako, proiektu horrek, batetik, berdintasunari dagokionez euskal aginte publikoen

jarduketa arautuko dituzten printzipio eta arauak ezartzen ditu eta, bestetik, emakume eta gizonen aukera eta tratu berdintasuna sustatzea helburu duten neurri multzoa arautzen du, bereziki emakumeen autonomia sustatzea eta hauen egoera sozial, ekonomiko eta politikoa sendotzea helburu dituztenak.

Proiektua Eusko Jaurlaritzan dago dagoeneko eta legealdi honetan euskal Ganberak onartzea espero dugu, honela, lege-tresna horren bitartez gure Erkidegoak urrats sendoak ematen darrai dezan emakume eta gizonen berdintasunaren bidean.

Eskubide berberak izango dituzten emakume eta gizon askez osatutako gizarte berri bat eraiki nahi dugu, lehenengo mailako eta bigarren mailako herritarrik izango ez dituen gizartea. Ikuspuntu horretatik abiatuta, Kongresu honen helburua herritartasun kontzeptua arlo ezberdinetatik aztertzea da: ekonomiaren, politikaren, gizartearen eta eguneroko bizitzaren ikuspegitik. Azken finean, eskubide zibilak, sozialak, politikoak, ekonomikoak eta kulturalak finkatzean emakume eta gizonezkoengan generoak duen eragina aztertu nahi dugu. Horretarako ditugu gurekin munduko hainbat tokitatik etorritako adituak eta ziur gaude herritartasunaren gainean hausnarketa serio eta sakon bat egiten lagunduko digutela.

A handwritten signature in blue ink, reading 'Txaro Arteaga'. The signature is enclosed in a large, stylized oval shape that extends into a long, wavy line at the bottom.

TXARO ARTEAGA ANSA
EMAKUNDE / Emakumearen Euskal
Erakundeko zuzendaria

PILAR FOLGUERA CRESPO
Historia Garaikideko Saila.
Unibertsitate Autonomoa.
Madril

Herritartasuna
Europar:
estrubide
zibilak eta
gizarte,
politika- eta
ekonomia-
-estrubideak

Herritartasun- -kontzeptuaren dimentsio historikoa

Herritartasun-kontzeptuari buruz azken hamarkadotan makina bat azterketa egin dira eta, gehienetan, abiapuntu T.H. Marshallen proposamenak hartuz, era askotako kolektibo eta gizarte-klaseen bilakaera eta irismena definitzen dira. Esparru teoriko horretan, nire ustez, gogoratzekoak dira gizarte-zientziek herritartasun-kontzeptuari buruz egindako kritika garrantzitsuenetako batzuk, baita arlo horri buruz teoria feministak dauzkan ekarpen zorronetako batzuk ere.

Bai bada, Paul Closek oso ondo nabarmendu duenez (Close 1995), herritartasunari buruzko azterketa berriek kritika ugari jaso dituzte teoria feministaren aldetik, herritartasun-kontzeptua ikuspegi maskulinoetik aztertzen baita, eta ez dute kontuan hartzen emakumeak gizonenez bestelako eskubideen subjektu izatearen errealitatea. Ildo horretan, eskubideei, lortzeko modua izateari, erkidego edo nazio edo Estatu bateko partaide izateari lotzen zaie herritartasun-kontzeptuak, generoaren aldetiko azterketa bat du zor, gizonen eta emakumeen oinarritzko eskubide batzuen inguruan duten sarbide desorekatua adieraz dezan.

Claire Wallacek (Wallace 1993) adierazten duenez, emakumeak ez dira herritarrak gizonen zentzu berean; izan ere, gizonen onurak eta zerbitzuak lortzen dituzte familiaren izenean eta, beraz, hainbatetan, emakumeak euren ezkontideen bidez lortzen dituzten herritartasun-eskubideak.

Ildo beretik, O'Connor-ek (O'Connor 1996) gogorarazten digunez, herritartasunari buruzko kritika feministak nabarmentzen du ohiko azterketak berriro definitu behar direla, gaur egungo Ongizate Estatuaren kritikari genero-ikuspegi batetik heltzeko, emakumeek ez baitute gizonen bezalako herritartasun-eskubide osorik eta, beraz, horiek baliabideen banaketa desorekatuaren arabera dira definituak oraindik, eta banaketa hori botereari, kontrolari eta elkarren mendekotasunari lotuta dago; laburbilduz, horiek dira Claus Offek (Offe 1984) *politikaren subjektu hartzaileak* definitu dituenak.

Hizpide dugun gairako are interesgarriagoa da Alisa del Reren kritika (Del Re 1994). T.H. Marshallen azterketa klasikoa abiapuntu hartuta (Marshall, Bottomore, 1992), gogorarazten digu emakumei unibertsaltzat eta oinarritzotzat hartutako eskubide batzuk ukatu zaizkiela.

XVIII. mendetik sendotutako *herritartasun zibila*, emakumei dagokionez, genero femeninoak izate hutsagatik, askoz beranduago lortu zuten, Europako herrialde gehienetan XX. mendetik aurrera, eta eskubide zibilak, gehienetan, aitarien edo senarraren mende izan dira.

Herritartasun politikoari dagokionez, emakumeek ez zuten lortu XX. mende erdialde arte eta, beraz, alderdi politikoen sistema emakumeen gaiari muzin eginez eta, are, aurka eginez eraiki zen. Estatu Probidentziak antolatutako *gizarte- eta ekonomia-herritartasunari* dagokionez, XX. mendean gizarte- eta ekonomia-eskubide batzuk sortu ziren soldatako lanari lotuta. Gehienetan, emakumeak gizarte-eskubideen zerrenda luzetik baztertu egin zituzten, sexuaren arabera lan-banaketa egin baitzen: emakumei ugalketa-lana esleitu zitzaie eta gizonen, berriz, lan ordaindua. Elean

Vogel-Polskyk definitu duenez (Vogel Polsky 1997), gertaera hori herritartasun berantiarra eta bukatugabea da, eta Europar Batasuna osatzen duten Mendebaldeko demokrazietan ere gertatutakoa.

Ongizate Estatuaren eraikitze-prozesuan, herritarren eskubideen eta gizarte-bizitzan parte hartze-ko eskubideen hedapena batez ere lan-merkatuko gizabanakoen estatusari lotuta gertatu da. Hala, produkzio-prozesua arautu dute eta babes publikoa jaso; aldiz, ugalketa-prozesuak familieren mugen barnean jarraitu du eta ez du Estatuako erakundeen aitortzarik izan.

Denbora-sekuentzia horretan, gizonak gizarte-eskubideen hartzaile bihurtu dira eta emakumeak, berriz, eskubideen zeharkako hartzaile; gehienetan, eskubide horiek familia barnean eratutako senidetasun-loturekin erlazionatuta daude.

Emakumeak lan-merkatura samaldan (eta jarduera politikora) sartzearekin batera, ordea, hori aldatu egin zen neurri batean, nahiz eta maizegi maila baxuenetan eta gutxien kualifikatu eta ordainduetan jardun. Hala ere, gizarte-eskubideei buruzko ikuspegia genero-baldintzek zein gaur egun auzitan jarritako Estatuaren zerbitzu eta laguntza-hornitzaile izaerak baldintzatzen dute.

2.

Eskubide zibilien lorpena denboran

1796an Edmundo Burkek baieztatu zuenez, Iraultzak, inoiz izandako sistema zital eta lizunena, izugarri eta basatia ezarri omen zuen; izan ere, bereziki, emakumeen emantzipazioa ekarritako sistema izan zen. Gainera, matrimonio-harremanak lasaitu egin zituen eta sexuaren araberako lan-banaketaren lege aldaezinak urratu zituen, hainbestera ino Londreseko prostitutek ere lotsagarritzat joko zuten. Burkeren iritziak, Iraultzak, gainera, modua eman zien bostehun-seiehun emakumeri alkoholak harrotuta Asanblada sar zitezen eta, bertan, matrimonioa laidotu, kontratu soiltzat hartzeraino, dibortzioa eraginez (Fraise,& Perrot, 1993). Burke filosofoaren arabera, inongo erregimen ez zen ausartu ordu arte sexuen hierarkia naturala hausten, eta urradura hori Mendebaldeko gizartearen funtzionamendua ordu arte arautu zuten balioekiko erabateko hausturaren abiapuntutzat har omen zitekeen.

Neurri handi batean, Edmund Burkek asmatu egin zuen bere baieztapenetan: Iraultzak, idatziz behintzat, emakumeei gizabanako izateko eskubidea ematen zien, baita "askatasun-, jabetza-, segurtasun-, eta zapalkuntzaren kontrako erresistentzia-" eskubide besterenezinak erabiltzeko eskubidea ere. Era horretan, formalki bederen, emakume guztiek, gizon guztiek bezala, eskubidea zuten iritzia adierazteko, euren erabakiak hartzeko, pertsona diren aldetik segurtasun osoa izateko, eta jabetzarako.

Horrenbestez, Asanblada Konstituziogileak lege bat onartu zuen eta, bertan, ondasunen oinordekotzan eskubide berdinak bermatzen ziren; hartara, horri buruzko gizonen pribilegioak bertan behera utzi zituzten. 1791ko iraileko Konstituzioari dagokionez, eskubide zibilak era berean definitzen zituen gizonentzat eta emakumeentzat. Aitortzen zuen emakumeek eskubidea zutela ekitaldi

publikoetan lekuko aritzeko eta kontratuak sinatzeko (1792). Halaber, 1793tik aurrera, herri-jabetzetan parte hartzeko aukera eman zitzaien eta, 1793an Konbentzioan aurkeztutako Kode Zibil berriaren lehenengo bertsioan, amek aiten eskumen berdinak hartu zituzten guraso-agintea erabiltzeko orduan (Sledziewski 1993).

Dena den, dibortzioari buruzko 1792ko iraileko legeak jo zituen senar-emazteak erabat elkarren parekotzat, eta bientzat eskubide eta prozedura bera ezarri zituen dibortzioa gertatzekotan. Era horretan, bi alderdiak legearen aurrean era berean erantzule eta gai izatea matrimonio zibileko kontraturako oinarri bihurtu zen; horrenbestez, matrimonioa eta dagozkion betebeharrak elkarren adostasunaz ezarri behar ziren. Hori ez gertatzekotan, ordea, lotura hori hauts zitekeen, baita auzitegiatara jo gabe ere. Legeak dibortziorako aukera ematen zuen biak horretan ados baleude edo elkarrekiko bateraezinak izanez gero. Ados jarriko ez balira, auzitegiek esku har zezaketen, betiere, lehenengo, bi ezkontideek akordio batera iristeko ahaleginak egin badituzte.

Lege horiek garrantzi bizikotzat jo behar dira; izan ere, historian lehenengo aldiz, emakumeak benetako herritartzat joak izan ziren, alegia, izaki arrazionaltzat, euren gobernu baliatzeko libre eta gaitzat. Eskubide zibil horiek, ordea, ez zuten eskubide politikoen aitortzarik eragin, baina emakumeen iraultza-prozesuko parte-hartzea oso adierazgarria izan zen.

Dena den, iraultzaileen gehiengo handiak, jakobinoek barne, eztabaidagune publikoetan parte hartutako emakumeak etxera itzultzearen alde egin zuten. Hainbat ahots gaituren erantzuna (Olimpia de Gouges, Condorcet edo Mary Wollstonecraft), baina, berehalakoa izan zen: Condorcetek emakumeen eskubide juridikoak hartu zituen batez ere gogoan, Gougesek eskubide politikoak eta Wollstonecraftek gizarte-eskubideak.

Bada, Condorcetek 1790an proposatzen zuenez, emakumeak herritartasun-eskubideetatik kanpo izatea desberdinkeria testuinguru orokor batean kokatzen zen. Condorceten iritziz, emakumeen eskubideak arrazionaltasun politikoko arazo bat ziren eta, horiek behin aitortuta, Frantziako "zorigaiztokoa asimetria" zuzenketa bat egiteko modua egon omen zitekeen. Era horretan, emakumeak eskubide zibikoek erkidegoan integrazteari uko egitea ez zen ideologia edo arraza aldetiko bazterketez bestelakoa eta, horrenbestez, Condorceten iritziz, ez zegoen batere arrazoirik emakumei eskubide berdinak ez emateko, arrazoi batek ere ezin baitu desberdinkeria bat behin betikotzea justifikatu. Dena den, Condorceten proposamenek ez zuten teoria hutsa gainditzen eta ez zuen inoiz adierazi proposamen praktiko juridiko edo politikorik.

Olimpia de Gougesen proposamenek, berriz, guztiz bestelako tonua zuten. Condorcet ez bezala (bere ustez, emakumeentzat herritartasunik ez izatea desberdinkeria adierazpen bat gehiago zen), Olimpia de Gouges gizonen eta emakumeen arteko gatazka politikoaren esparruan kokatzen zen eta eskubide-desberdinkeria emakumeek jasaten zuten nagusikeriaren erakusgarri garbia zen. Planteamendu horren arabera, Iraultzak gizonen emakumeen boterea eta botere horrek sexu femeninoaren gaineko tirania betikotzeko balioko omen zuen.

Beraz, emakumeen borroka iraultzailea gizonen nagusikeriaren eta mendetan jasandako esplotazioaren kontrako aurrez aurreko borroka bihurtu behar zen. Testuinguru horretan, Emakumearen eta Emakumezko Herritarraren Eskubideen Deklarazioaren Hitzaurreak eta hamazazpigarren arti-

kuluak 1789ko abuztuko Gizakiaren eta Herritarraren Eskubideen Deklarazioaren ereduari lotu zitzaizkion. Bertan, martxan jarritako neurri politikoak salatzen zituzten eta gizonak bultzatzen zituen euren eskubideak emakumeetara ere hedatu zituzten, argudiatuz ezin zela ontzat eman gizateria osoarentzako eskubide unibertsalen existentzia baldin eta kontuan gizonetzako soilik hartzen baziren. Bere Deklarazioa argitaratu eta bi urtera, ordea, Olimpia de Gouges burua moztu zioten gilotinaz, eta emakumeen aldeko bere kausari azken egunetaraino eutsi zion.

Mary Wollstonecrafti erreparatzen badiogu, argudioak nabarmen aldatzen dira. Giza Eskubideen Deklarazioaren inguruko bere poza, Thomas Painerena bezalakoak, batez ere morala zen, ingeles zibilizazioaren balio aristokratikoen arbuioa zen bezala. Frantziako Iraultzari buruz interes garbia zeukan arren, herritartasun politikoa lortzea ez omen zen emakumeen emantzipazioaren helburu behinena. Emakumeak Asanblada Konstituziogiletik baztertua gaitzestekoa zen inondik ere, baina, bere iritziz, emakumei eskubide politikoak ukatzea joera askoz okerragoaren zantzu bat besterik ez omen zen: emakumezkoak eskusiban emakumetzat hartzea eta ez gizakitzat. Emakumeentzako lehenengo iraina, gizaterian gizakien nolakotasunak dituzten bi sexu daudela onartzeari uko egitea zen eta, horrenbestez, gizarteak eta berak antolatzen zuten erakundeek sistematikoki baztertzen zituztela.

Emakumearen Eskubideen Defentsa Mendebaldeko gizarteetan indarrean zeuden sexu-desberdinkeriei buruzko tratatua da gehiago programa politikoa baino. Bere helburua ez zen emakumeek prozesu politikoan parte hartu ahal izatea aldarrikatzea, euren erantzukizun zibilak aitortu zituzten baizik. Horregatik, emakumeen erantzukizuna zen komunitateari buruzko euren betebeharrak artikulatzeko era erabakitzea. Wollstonecraftek ez du amatasunari uko egiten, gorenak baizik, eta nabarmendu egiten du emakumeek etxe barnean duten rola, baina ordu arte gizarteak esleututako esklabo-roletik oso urrun, eta, horretarako, herritar ilustratu bihurtu behar omen dira. Testuinguru horretan, amatasuna eskubide zibikotzat hartu behar zen eta ez adimenaren eta ezagutzaren kontrako zerbaite. Ildo horretan, Wollstonecraften pentsamendua ezin da jarduketa politikorako programatzat jo; izan ere, bere ekarpen nagusia ideien arlokoa da: emakumeentzat arrazionaltasuna, ezagutza eta euren adimenaz zein eskubideez osoki jabetzen diren izaki moduan jokatzeko gaitasuna aldarrikatzen ditu (Sledziewski 1993).

*Emakumeen
herritartasuna
XIX. mendeko
liberalismotik ikusita*

XIX. mendeko emakumei buruzko diskurtso filosofikoa, XIX. mendean Europako herrialde gehienetan izandako aldaketa politiko eta ekonomiko garrantzitsuen bidegurutzan kokatzen da. Mende horren definizioan biztanleria osoarentzako herritar-eskubideen ezarpenean eta sendotzean gertatutako aurrerapenak eta atzerapenak aipatzen diren arren, zalantzarik gabe, gizabanakoen askatasun eta autonomiari buruzko idealetan izandako aurrerapenaren ondorioz, emakumeentzat nolabaiteko aldaketa-ikuspegi bat agertu zen. Hori dela eta, emakumeak eskubide politiko-en subjektu aitortzearen aldeko jarrerak zabaldu egin ziren. Noski, hemeretzigarren mendeko filosofoak arduratuta zeuden emakumeen emantzipazioa ikusita, gizabanakoak eskubide politiko-en subjektu agertzearen ondorio logiko moduan.

Hemen, filosofo ingelesen pentsamendua aukeratu dugu, ezin bestekotzat jotzen baitugu XIX. mendeko pentsamendu politiko liberala definitzeko orduan (Genevieve Fraisse. Michelle Perrot). Jeremy Bentham utilitaristak duda egiten zuen emakumei herritartasunik eman behar ote zitzaien. 1830ean idazten zuenez, interes indibidualak giza eskubideak baino ezin bestekoagoak badira, eztabaida-gai zen boto unibertsala ez zegoen hain argi, pertsona batek beste askoren interesak ordezkari omen baitzitezakeen. Beraz, emakumeen berezko mendekotasuna nahiko arrazoi zen emakumei berdintasun politikoa ukatzeko. Hala ere, bere zalantzak gorabehera, Bentham, geroago, boto unibertsalaren printzipio demokratikoarekin bat etorri zen. Aldiz, James Mill, hasiera batean Benthamek baino ideia askoz demokratikoagoetakoa, 1820ko bere *On Government* idazlanean zioenez, era eztabaidagarrian besteei lotutako interesak zituzten gizabanakoak boto-eskubidetik bazter geratu behar ziren. Horrenbestez, emaztearen (eta seme-alaben) interesak senarrarenei (edo aitarenei) lotuta zeuden eta, beraz, emazteak ez omen zuen boto-eskubiderik behar. Millen pentsamenduari aurre egiteko, William Thompsonnek (Benthamen eta Robert Owenen adiskidea) *Giza arrazaren erdia diren emakumeen deia, beste erdiak, gizonek, esklabotasun politikoan eta, horrenbestez, zibilean eta etxekoan edukitzeko asmoen kontra* idazlana argitaratu zuen 1825ean (Fraisse&Perrot 1993). Hala ere, feminismoaren aroak legitimazio handiagoa lortu zuen James Millen semearen bidez (John Stuart Mill); bere ibilbide filosofiko osoan sexuen arteko berdintasun-printzipioaren alde inplikaturik egon zen.

Bere autobiografiaren bidez, badakigu aitarekin desadostasunak zituela, aita emakumeentzako boto-eskubidearen kontra baitzegoen. Halaber, Harriet Taylor-ekin zuen harremanari buruzko hainbat xehetasun ezagutzen ditugu eta berak eragin nabarmena izan zuela John Stuartengan.

Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko John Stuart Millen ideia-multzoa hiru alderdi-motatan sailka daiteke: sexuen arteko harremanen eta desberdintasunaren historia; botoaren

gaia eta gizonen eta emakumeen herritartasun-eskubideak; eta gizabanakoen matrimonio barneko eskubideak.

Millen arabera, biologiak ez ditu sexuen arteko harremanak definitu behar; emakumeak, izan ere, gizonak bezala, heziketaren produktu dira eta, beraz, heziketa aldatu egin daiteke. Maiz emakumeen egoera esklabotasunarekin parekatzen du eta, horren aurrez aurre, askatasuna defenditzen du. Ondorioz, zorrozki agertzen da aitaren baieztapen baten kontra: emaztearen interesak eta senarrarenak berdinak omen direla eta, beraz, bigarrenak besterik ez duela gai publikoetan parte hartu behar. Bere hitzetan, askatasuna existitzen bada, ezin zaio beste gizabanako bati eskuordetu eta gizaki guztiek, gizonak zein emakumeak, dena partekatu behar dute: hala politikan nola gizarte zibilean, hala esparru publikoan nola etxean. Beraz, matrimonioak ezin ditu emakumeen eskubideak bertan behera utzi.

Emakumeen herritartasun-eskubideei buruzko pentsamendu politikoaren pertsonaia nabarmenen artean, Harriet Taylor Mill da aipatzekoa. John Stuart Millekin adiskidetasun emankorreko hogeitun urte igaro ondoren, berarekin ezkondu zen, bere lehenengo senar John Taylor hil zenean. Bere ideiek pentsamendu liberalaren ezagutza sendoa eta Estatu Batuetako emakumeen orduko lorpen berriak zituzten euskarri. 1851tik aurrera, Harriet Millek emakumeen herritartasun politikoa eskatzeari eman zion. Bere garaiko emakume estatubatuarrek bezala, Harriet Millek gizonak esklabojabeekin parekatzen zituen eta emakumeak esklaboekin; izan ere, adierazten zuenez, "ohituraren aurreritziak" eskubideak ukatu dizkie esklaboei mendetan zehar, baita era berean emakumeei ere. Esklabotasunak hala jabea nola esklaboa usteldu egiten ditu eta, era berean, emakumeen esklabotzak bi sexuak usteltzen ditu. Ildo beretik, esklabotasuna gai moral eta politikoa den bezala, emakumeen zapalkuntza ere halakoa da.

Egoera horretarako konponbidea, Harriet Millen iritziz, heziketan, legeetan eta politikan bilatu behar da. Berak emakumeak goi-mailako hezkuntzan jarduteko aukera aldarrikatzen du, baita ezkondu ondoren jabetzei eusteko modua emango zieten lege berriak eta matrimonio barneko gizonen indarkeriaren kontrako babesa ere. Gainera, John Stuart Millek egin bezala, gizonen herritartasun-eskubide berdinak exijitu zituen emakumeentzat, eta adierazi justizia-kontu hutsa besterik ez zela.

4.

Herritartasun politikoa. XIX. mendeko aurrerapen eta atzerapenak

Frantziako Iraultzak behin-behinean onartu zuen emakumeak eskubide zibilen subjektu zirela, baina ez inondik ere eskubide politikoaren subjektu zirela, herri-klaseak agertoki politikoetik baztertuak izan ziren bezalaxe.

Europako herrialde gehienetako emakumeen abiapuntua emakumeek erakunde politikoetara sartzeko edo ekitaldi politikoetan parte hartzeko debekua zen; gainera, ekonomia aldetiko murrizpenak oso zorrotzak ziren. Ez zuten jabetza edukitzeko modurik, oinordekotza-eskubideak senarrari zegozkion, eta semeei, alargun geratuz gero, eta murrizpen larriak zituzten lanbide batean jarduteko edo negozio bat zuzentzeko, baita familiakoa bazen ere.

Hala ere, lege-eragozpenak ziren emakumeentzako oztopo gogorrenak; legeak oso lotuta daude erlijio-tradizioei eta herrialde bakoitzean forma desberdina hartzen dute. Britainia Handian *Common Law* zuzenbide publikoko sistema bat da eta batez ere esparru pribatuari eragiten dio. Tradizio katolikoko herrialdeetan, Erromatar Zuzenbideak oso zuzenean esku hartzen du esparru pribatuan. Frantziari dagokionez, herritartasun-eskubideak oso murriztu zituen Napoleonen Kodearen ezarpenak; izan ere, 213. artikulua argi eta garbi zehazten zuenez, emazteak senarren mendeko dira, 214.ak debekatu egiten zion etxebizitza aukeratzea, 217.ak ezartzen zuen ezin zutela diru-sarrerarik izan aitarien edo senarraren baimenik gabe eta 267.ak eragotzi egiten zion seme-alaben gaineko guraso-aginterik izatea dibortzioa gertatuz gero. Adulterioa gertatuz gero, senararentzako zigorra maitalearekin ezkontzeko debekua zen eta emaztearentzako zigorra, berriz, hiru hilabete eta bi urte arteko espetxea.

Hirugarren lege-tradizio mota Eskandinaviako herrialdeetan aurkitzen dugu eta, bertan, Zuzenbidearen oinarriak ohiturazko zuzenbidean daude. Horrenbestez, herrialde horietako emakumeen aldarrikapenak aurre egiten behar zieten jokabideei buruzko tradizioetan eta tokiko ohituretan oinarritutako arau pribatuei. Horrek esan nahi zuen mendetako tradizioei aurre egitea eta, beraz, arazo taktiko espezifikoak agertzen ziren.

Emakumeen emantzipazio-maila aztertzeke orduan, kontuan hartu beharreko beste aldagai bat herrialde bakoitzeko erlijio-tradizioa da. Oro har, emakumeek lege-eskubide gehiago zituzten erreforma (batez ere Kalbinismoa) gailendutako herrialdeetan: Britainia, Herbehereak eta Eskandinaviako herrialdeak dira horren eredu. Italia, Frantzia eta Espainiari dagokionez, Eliza Katolikoak emakumeen emantzipazio-mugimenduen kontrako etengabeko oposizioa egin izanaren adibide garbiak dira.

Eskubide politikoak erdiestea ez da feminismoaren lehenengo aldeak lehenetsitako helburua; al-diz, herrialde bakoitzeko testuinguru politikoak definitu zuen neurri handi batean, emakumeen es-

kubide politiko eta zibilen aurrerapena edo atzerapena. Zalantzarik gabe, liberalismoaren aurrerapenak, konstituzio-erregimenen ezarpenak eta klase ertainaren hazkundeak mugimendu feministak eta euren helburuen lorpena bultzatu zuten.

Baldintza horiek batez ere Eskandinaviako herrialdeetan eta Britainia Handian aurkitzen ditugu; aldiz, Austriar Inperioan, Tsarren Errusian edo Mediterraneoko herrialdeetan konstituzio-erregimenen aurrerapena berantiarragoa da eta, zalantzarik gabe, aurrerapenak eta atzerapenak izan zituen; ondorioz, mugimendu feministak ahulago garatu ziren eta era askotako joeretan eta taldeetan banatuta zeuden.

Hala ere, arian-arian, emakumeen hezkuntza hobetu behar zelako ideia Europako herrialde gehienetan nagusitu zen. Hala gertatu zen Ingalaterran: 1864an, Taunton Batzordeak neskentzako eskolak eraikitzea proposatu zuen; Frantzian, berriz, 1882ko Ferry Legeak emakumeen hezkuntzan hobekuntza txiki batzuk ezarri zituen. Nolanahi ere, 1850etik aurrera, neskentzako eskolak sortu zituzten Londresen eta, 1860tik aurrera, neskentzako hainbat lizeo ireki.

Hezkuntza-eskubideak lortzeak errotik aldatu zituen emakumeen aukerak. Lehenengo hezkuntza ezin bestekoa izan zen emakumeak etxe-zerbitzuetatik lan kualifikatuagoetara pasa zitezen. Klase ertaineko emakumeek, ordudunik, etxetik kanpoko lan errespetagarriak betetzeko modua izan zuten, eta hezkuntzaren beraren hedapenak aukera profesional berrietan jarduteko aukera eman zien; ondorioz, emakumeen lana defenditzeko erakundeak sortu ziren luze gabe.

Eskubide politikoen aldeko borrokari dagokionez, emaitza askotarikoa da Europako herrialdea zein den. Botoa ez zitzaien egoera guztietan ukatzen; adibidez, 1830 eta 1848ko iraultzen inguruan, eskualdeko edo tokian tokiko barruti jakin batzuetan, emakumeei aukera ematen zien bozkatzeko, betiere botoa ondasun jakin batzuen jabetzari eta klase jakin batekoa izateari lotuta, adibidez, Austriako komuna batzuetan, boto-eskubidea jabeen klaseko emakumeetara hedatu zuten (Prusian eta Westfalian 1856an).

Britainia Handian, 1832ko Hauteskunde Erreformen sufragisten agitazioa hasi zen. "Male persons" eta zehazkiago "male" hitzaren erabilerak lehenengo erasoak piztu zituen eta mugimendu sufragistak era egonkorrean antolatzen hasi ziren. 1835ean, udal-kontseiluen osaera arautzen zuen legeak zehazten zuenez, bertako kideak gizonak izan behar ziren eta, beraz, ukatu egin zieten emakumeei herri batzuetan mendetan izandako eskubidea. 1851n, John Stuart Millen *Wensminster Review*-n gaiari buruzko eztabaida horiek utzi zituen agerian. Urte berean, *Sheffield Female Political Association*-ek emakumeek Parlamentuan botoa izateko lehenengo eskaera aurkeztu zuen. Millen argudioak argiak ziren: "emakumeei botoa ematea justizia-kontua da; eta justiziak exijitzen digu ezin diegula eskubide politikoak apetzat batzuei eman eta beste batzuei ukatu". Tokian-tokian begiratuta, Ingalaterran, zergak ordaintzen zituzten emakumeek gizonen zeregin berdinak burutzen zituzten, bereziki higijene-, gizarte-asistentzia, hezkuntza- eta erlijio-gaietan. Agiri ofizialak sinatu eta ardurako postuak betetzeko baimena zuten. Hala ere, Parlamentuak uko egin zion ia mende batez estatu osoan emakumeen botoa baimentzeari. Boto-eskubidea konderrietan, herrietan bezala, familiako buruetara eta maizterretara hedatu zenean, emakumeek, artean, baztertuta jarraitu zuten, irakurtzen eta idazten ez zekiten gizonekin batera. Dena den, udale-

rrietan, eskubide garrantzitsuak irabazten jarraitu zuten: 1869an, udalerrietako botoa lortu zuten; 1882an, Eskozian, eskola-batzordeetan hautatzeko eta hautatuak izateko eskubidea; 1907tik aurrera, konderrietako kontseiluetan bozkatzeko eskubidea. Estatu osoan botoa onartzeari uko egiteak urte luzetan iraun zuen, alderdi politikoen zati bat ez baitzegoen prest emakumeen eskubide politikoak ontzat emateko.

Frantziari erreparatzen badiogu, XIX. mendea Zuzenbide Erromatarraren eta Napoleonen Kodearen eragin nabarmenaren pean izan zen eta, ondorioz, emakumeek murrizpen handiak jasau zituzten "gizonen ofizioak" direlakoetan Frantziako Iraultzaren ostean; adibidez, emakume frantsesa lekuko aritu zitezkeen agiri publikoetan 1792az geroztik, baina eskubide hori bertan behera geratu zen 1803an. Aldiz, horrekin erabateko kontraesanean, emakumeak XIX. mende osoan lekuko izan zitezkeen epaiketetan. Boto-eskubideari dagokionez, nabarmen dezagun, 1880tik aurrera, emakumeek Instrukzio Publikoko Kontseilu Nagusian kide moduan bozka zezaketela; 1898an, berriz, merkataritzan ziharduten emakumeek Merkataritza Auzitegietan bozkatzeko aukera zuten.

Lan-legediari dagokionez, gogoratu behar da liberalismoak enplegatzaile eta enplegatuen arteko lan-harremanak arautzeko orduan izandako eragina. Ildo horretan, lan-jardueran emakumeak eta haurrak babesteko ekimenak XIX. mendeko hirugarren herenetik aurrera hartu ziren soilik, eta ekimen horiek langileen borondatearen kontra hartzen ziren, ikusten baitzuten emakumeen lan-eskua lehiatzaile irmoa zela gizonen langabeziaren aurrean. Hala ere, Frantzia, ildoko horretan, beste herrialde batzuen oso aurretik joan zen: emakumeek lau asteko baimena zuten umeaz erditu ondoren. Frantzian, 1874ko ekainaren 3ko legearen ondoren, emakumeen eta haurren mehatzetako lana debekatu zen, baina 1892ko azaroaren 2ko legeak debekatu zuen emakumeek eta hamazortiz behereko umeei giro osasungaitzetan eta arriskutsuetan lan egin zezaten; horrek, ordea, praktikan emakumeek enplegu kualifikatuetan jardun zezaten galarazi zuen. Neurri horiek praktikan balio izan zuten eskubideak galarazteko, bereziki emakume ezkongabeenak, soldata askoz baxuagoak jasotzen baitzituzten gizonen baino, gehienetan lanaldi berdinak bete behar zituzten arren.

5.

*XX. mendearen
hasiera eta
Lehenengo
Mundu Gerraren
eragina*

Lehenengo Mundu Gerra latzaren eragina, paradoxikoa dirudien arren, ona izan zen emakumeentzat; izan ere, handitu egin ziren ordu arte eragotzitako jarduera batzuetan aritzeko emakumeen sektore batek zituen aukerak. Gizon gehienak borroka-zelaietan zirela, administrazio-lanetara eta administrazio publikora sartu ziren emakume frantsesen, ingelesen edo alemanen kopurua bikoiztu egin zen gerra-urteetan.

Hizpide dugun gaiari dagokionez (herritartasun-eskubideak lortzea), Europako herrialde gehienak emakumeek boto-eskubidea izatearen aldekoago agertu ziren: Weimarko Errepublikak 1919an emakumeen botoa onartu zuen; Errusiako Gobernu berriak emakumeen botoa 1917an onartu zuen; Belgikak, ordea, berriz ez ezkonduetako gerrako alargunentzako, gerran hildako semeak zituzten alargunentzako eta alemanen preso eroritako emakumeen boto-eskubidea ezarri zuen soilik; Suediak, Herbehereek, Austriak eta Luxenburgok bat egin zuten Britainia Handiarekin eta Alemaniarekin eta emakumeei botoa eman zieten 1918 eta 1919 urteetan.

Herrialde batzuetan erdietsitako boto-eskubideak, hezkuntza-eskubideak, sexu-askatasun handigokak eta modako aldaketek aldaketa garrantzitsuak eragin zituzten emakume europarren bizitzetan eta ordu arte aitortu gabeko eskubideen lorpenean. Gerraren ostean, ordea, politika-zein gizarte-gaietako kontserbadorismo olde berri batek emakumeak berriz etxeratzearen aldeko jarrerak eratu zituen Europan. Gerraren ondoren, hala formalki eraturako demokrazietan nola ideologia autoritarioko Estatu sortu berrietan (eta, neurri txikiagoan bada ere, herrialde sozialistetan), emakumeak rol tradizionalenetara itzultzeko ahalegina egin zen, sarritan lege berrien ezarpenaren bidez sendotuta.

I. Mundu Gerraren ostean, Errusian izan ezik, emakumeak gerra-urteetan betetako "maskulinoztat" jotako lanetatik bota zituzten. Gobernuak, lehenago ondasunak eta zerbitzuak ekoizteko beso guztiak baliatu behar zirela adierazi zuten eta gero, ordea, zehapen eta sarien nahasketa bat erabili zuten emakumeak esparru publikotik egozteko; adibidez, 1918tik aurrera, Frantziako Gobernuak bonu batzuk eskaini zizkien emakumeei gerran lortutako lanpostuak utz zitzaten. 1919tik aurrera, Weimarko gobernuak Desmobilizazioko Dekretuak direlakoak onartu zituen eta, bertan, emakumeei lanpostuak uzteko deia egiten zieten, lehentasun-ordena bat jarraituz. 1923an, Weimarko gobernuak administrazio publikoan enplegua zuten emakume ezkondu guztiei agindu zien lanpostuak utz zitzaten, adieraziz horretarako arrazoiak premia ekonomikoak zirela. Gero, 1930ean, Alemaniako alderdi guztiek, Alderdi Komunistak izan ezik, bozkatu zuten

administrazioan enplegatutako emakume ezkondu guztiek euren lana utzi behar zutela senarrek jada enplegurik baldin bazeukaten. Britainia Handian ere berdina gertatu zen, eta hala Alderdi Laboristak nola Alderdi Kontserbadoreak, hurrenez hurren, neurriak ezarri zituzten emakumeak lanpostuetatik bota eta langabeziako diru-laguntzetatik bazter gera zitezten.

Eliza Katolikoak ere gerra arteko giro hori sortzen lagundu zuen. Pio XIk, 1931n, deia egin zien emakumeei euren enpleguak utz zitzaten, argudiatuz etxetik kanpoko lana kontraesanean zegoe-la emazte- eta ama-zereginekin eta izaera femeninoarekin berarekin; horrenbestez, lanak emakumeen moralitasuna eta euren integritasun fisikoa kolokan jartzen omen zuen larriki.

Eskubide politikoei dagokienez, gerra arteko aldian, horien lorpena geldiarazi egin zen. Herrialde jakin batzuek, esate baterako, Frantziak, Italiak, Suitzak edo Bulgariak uko egin zioten emakumeen botoa onartzeari Bigarren Mundu Gerra oste arte. Beste batzuek, aldiz, murrizpen handiak jarri zituzten, adibidez, Hungariak (herrialde horretan, emakumeek bozka zezaketen baldin eta hogeita hamar urtetik gora bazituzten edo hiru semeren ama baziren edo bigarren hezkuntzako eskolako diploma bazuten). Belgika eta Portugal bereziki murriztaileak izan ziren emakumeen botoari buruz eta, beste herrialde batzuetan, berriz, erregimen autoritarioen ezarpenak eragotzi egin zuen eskubide politikoak erabili izatea hala gizonei nola emakumeei. Horrenbestez, Alemaniako emakumeek 1919tik 1933ra bozkatu ahal izan zuten, Poloniakoek 1921etik 1932ra, Greziakoek 1929tik 1936ra eta Espainiakoek 1931tik 1939ra.

6.

Europako Ekonomia Erkidegoko gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasunaren aldeko politiken sorrera

1945etik aurrera, Europak alboratu ezineko exijentzia berrietako aldi bati egin behar zionaurre: kontinentea berreraikitzeke premia (giza galera larriak, produkzio-gaitasunaren suntsipena eta inoiz ez bezalako kalte morala, nola edo hala hamar milioi pertsonaren sarraskia uzteaz jabetzearen ondorioz). Testuinguru horretan, Erromako Itunak ematen zion premia bati: Bigarren Mundu Gerran elkarren etsai izandako herrialdeen arteko ulermenaren aldeko giroaren beharra.

Denok badakigunez, hala 1952ko CECA Itunak nola 1957ko EEE eratzeko Itunak oinarritzko helburu batzuk zituzten: esparru egokia sortu Erromako Itunaren herrialde sinatzaileen artean (Frantzia, Alemania Federala, Italia, Herbehereak, Belgika eta Luxenburgo), Bigarren Mundu

Gerra ostean euren ekonomiak suspertzeko aldi luzearen ondoren, elkartruke ekonomikoen aldeko giroa sor zedin, bereziki ikatzari eta altzairuari dagokionez. Izan ere, 1945az geroztik, Europak aldi berri baten exigentziei aurre egin behar zien eta, horietan, ezin bestekoa zen kontinenteak Mendebaldeko munduaren testuinguruan zuen beheraldiari aurre egitea.

Hala ere, Erromako Itunaren aurreko negoziazioetan, agerian geratu zen helburu behinena, zalantzarik gabe, Ituna sina zezaketen herrialdeen arteko harreman ekonomikoak erraztu eta bultzatzea zen arren, negoziatzaileek, bereziki Frantziak, hareago aurreratzeko borondatea zutela, merkataritza libreko eremutik aduana batasunera; horrenbestez, Erromako Itunak "batasun ekonomikoaren" edo "merkatu bateratuaren" oinarriak ezarri behar zituen. Errealitate berri horrek esan nahi zuen sei herrialde sinatzaileek, aduana-hesiak eta merkataritza-kontrolak desagerrarazi ez ezik, gune ekonomiko bateratua sortuko zutela eta, bertan, gizarte-aurreikuspenen nolabaiteko harmonizazioari aurre egin beharko zitzaioela, baita horren kostuari ere. Ildo horretan, Frantziaren ordezkartza bereziki sentikorra izan zen gai honi buruz: tarifen jaitziera saihestezina gertatzen bazen, ordainsarien berdintasun-printzipioa aplikatu behar zen konpentsazio moduan EEE osoan, herrialde sinatzaileen arteko lehia desleialeko egoerak gerta ez zitezten.

Testuinguru horretan kokatu behar Erromako Itunean genero-aldagaiari egiten zaion aipamena; izan ere, 1957. urtean, aipamenak ez dio erantzuten europar emakumeen eskaerari, baizik eta batez ere Frantziaren ordainsariaren berdintasun-printzipioa eta herrialdeen arteko lehia librearen printzipioa ez distortsionatzeko beharra bateratzeko premiari, betiere lan-esku merkearen herrialde batetik besterako lekualdaketa galarazte aldera, batez ere emakumeen lan-eskuarena (Hoskyns 1996).

Zalantzarik gabe, Europar feminismoa garatu egin zen hirurogeita hamarreko urteetan, eta hori izan daiteke, neurri batean, EEEen gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-politikak garatzeko azalpena, baina gertaera hori bakarrik ez da arrazoi nahikoa lehenengo lege-neurriak sor zitezten eta, geroago, hala Erkidego osoan nola 1957an Europako Ekonomia Erkidegoa osatu zuten sei herrialdeetan gara zitezten.

Nolanahi ere, nabarmen dezagun 119 eta 120. artikuluen azken erredakzioa arrazoi funtzionalak zehaztu zutela batik bat, Itunaren helburu nagusia bermatzera bideratuta: etorkizuneko "merkatu bateratua" martxan jartzea. Era horretan, Europaren gizarte-politika artikuluetan integratuta agertzen zen (Folguera 1998).

Bada, nabarmendu beharrekoa da 119. artikuluari dagokionez, berari buruzko negoziaketak eta geroko garapena, zehazki bi faktoreren inguruan harilkatzen zela: batetik, II. Mundu Gerra ostean nazioarteko erakundeetan egindako ordainsari-berdintasunari buruzko eztabaida eta, bigarrenik, berrogeiko eta berrogeita hamarreko urteetako Frantziako emakumeen egoera, Erromako Itunaren negoziazioko testuinguruan Frantziaren eskaerak bultzatu zituena.

Hala da, gizonen eta emakumeen ordainsari-berdintasunaren printzipioa, berrogeiko eta berrogeita hamarreko urteetako nazioarteko deklarazio eta hitzarmen handietan definitutako berrogeiko hamarkadako giza eskubideen multzoaren zati bat zen. 1951n, LANEK 100. Hitzarmenean printzipio hori bere egin zuen, baita emakume eta gizon langileen balio bereko laneko ordainsa-

ri-berdintasunari buruzko Gomendioa ere. 100. Hitzarmena aurrekari garrantzitsua izan zen geroko 119. artikulua osatzeko.

Berrogeiko eta berrogeita hamarreko urteetan, Europako herrialde gehienetako errealitatea, gizonentzat eta emakumeentzat soldata-tasa desberdinak edukitzea zen. Horiek existitzeko argudioa emakume-biztanleria aktiboaren lan-absentismoa zen, baita espezializazio txikiagoa zutela ere, ibilbide profesional zatikatuagoa omen baitzuten (betiere amatasunak eta beste gertaera biologiko batzuek baldintzatuta) eta, azken batean, emakumeek gizarte- eta ekonomia-beharrizan gutxiago baitzituzten. Horregatik, 100. Hitzarmenak lana balioesteko premia nabarmentzen zuen, zein pertsonak egiten zuen gorabehera. Ildo horretan, "balio bereko lana" formulazioaren bidez (eta ez "lan berdina"), nabarmendu nahi zuten ebaluazioa lan-motaren arabera izan behar zela eta ez pertsonen arabera. Dena den, formula horrek luze gabe agerian utzi zuen modua ematen zuela izendapenaren bidez era askotako lanbide-kategoriak ezartzeko, eta emakumeei okerren ordaindutako kategoriak esleitzen zitzaizkiela. Eztabaidaren beste alderdi bat, ordainsari-kontzeptua sartzea izan zen: gogora ekartzen zuen berdintasun-printzipioa emakume langileek kobratu beharreko guztizko kopuruari aplikatu beharrekoa zela eta ez zorrozki, batzuek bilatzen zuten bezala, oinarritzko soldadari. Hala sindikatu-erakundeetako nola LANEren barneko eztabaida horien emaitza moduan, Erromako Ituna negoziatzen zuten ministroei sindikatu-etako eta nazioarteko erakundeetako eztabaida-alderdi batzuk oso ezagun egin zitzaizkien, Michel Gaudetek gogoratzen duen bezala (Hoskyns 1994).

Frantziari dagokionez, hogeita hamarreko urteetan sartua zuen, ordurako, ordainsariaren berdintasun-printzipioa eta, gerraren ostean, alderdi politiko ezkertiarrek programetan bildu zuten. Eskaera hori boto-eskubidearen aurrekoa zen eta 1944 eta berrogeiko urteak arte ez zuten lortu, bereziki gogoan izanik 1946ko Konstituzioa: bertan, *esparru guztietako eskubide-berdintasuna* bermatzen zen eta, negoziazio kolektiboa arautzeari buruzko 1950eko legearen arabera, hitzarmen kolektibo guztiek ordainsariaren berdintasun-printzipioa bete behar zuten. Horregatik, Itunaren negoziatzaileek defenditu zuten ordainsariaren berdintasun-printzipioa bertan sartu behar zela.

Erromako Ituna sinatu ondorengo urteetan, 119. artikulua ez zuen ia arretarik jaso Erkidegoko erakundeen aldetik urte horietako EEEn sei herrialde kideetan aplikatua eta garatua izan zedin (izan ere, arrazoi taktikoengatik eta herrialdeen arteko akordioetarako hartu zuten kontuan Itunean, emakumeen gizarte-eskaerengatik baino).

Hala ere, hainbat gertaera erabakigarriak izan ziren Europako Batzordeak EEEn barnean gizarte-politika bultzatzea, baita 119. artikulua herrialde kideen barneko politiketara egokituta aplikatzeko programa ezar zedin. 1960ko maiatzetik aurrera, Ministro Kontseiluak Itunaren garapenaren lehenengo etapa bizkortzea erabaki zuen, barne-tarifak murriztuz; horretarako, baina, beharrezkoa zen gizarte-politikaren definizioan aurreratzea eta, besteak beste, ordainsariaren berdintasun-printzipioa aplikatzea. Horregatik, Batzordeak Gomendio bat prestatu zuen eta 1960ko uztailera Ministro Kontseilura igorri zuen. Gomendioan lan berdina egiten zuten gizonen eta emakumeen soldatetan diskriminazioa gertatutako egoerak nabarmentzen ziren, aipatu gabe

kontzeptua; gainera, ez ziren neurriak hartu sei herrialde kideetan behar bezala aplika zedin. Kontseiluak, ordea, ez zuen erantzunik eman eta, ondorioz, Batzordeak Kontseilura Ebazpen bat igortzea erabaki zuen. Bertan adierazten zenez, herrialde kideek "neurri egokiak" hartu behar zituzten 119. artikulua aplikatzeko (Heynig 1965). Dena den, neurri horiek ondorio eskasa izan zuten Europako gizarte-errealitatean; izan ere, ez estatuetakoko gobernuak eta ez sindikatuek ez zuten batere interesik agertu Erkidegoan edo estatuan-estatuan presiorik egiteko ordainsariaren berdintasun-printzipioaren alde.

Erromako Itunaren 119. artikulua geroko eragina, ordea, handiagoa izan zen bere bultzagileek espero zutena baino. Hurrenez hurreneko Erregelamenduek, Zuzentarauak, Erabakiek eta Gomendioek diskriminazioaren kontrako benetako lege-multzoa osatu zuten eta, gero, oso zuzenean eragin dute estatuetakoko legedietan eta jarduketa-esparru berri bat eratu dute gizarte-herritar-tasuna eraikitzeke prozesuan. Arau horien eragina agerikoagoa egin zen hirurogeiko urteetako emakume-mugimenduaren ekintzagatik, eta horrek eragin zuen urte horietan gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-gaiei buruzko hiru Zuzentarau eta hainbat Erkidegoko Ekintza Programa onartzea.

1966tik aurrera, 119. artikulua aldeko lehenengo mobilizazioak egin ziren. 1966ko otsailaren 15ean, Herstalen (Belgika) 3.000 emakumek greba bat egin zuten 119. artikulua aplika zedin, hiri horretako fabriken hitzarmenek gizonen eta emakumeen ordainsari-berdintasuneko klausula ez baitzuten kontuan hartzen. Mobilizazioek oihartzun handia izan zuten Belgikako prentsan eta, ondorioz, mozioak aurkeztu ziren orduko EEEn sei herrialde kideetako hitzarmen kolektiboetan klausula hori aitortzeko.

119. artikulua aplikatzeko eta garatzeko beste pizgarri bat Defrenne kasua izan zen. Bertan, Sabena aire-lineetako azafata batek apelatu egin zuen, lehenengo, estatuko erakundeetara eta, gero, Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegira berrogei urterekin erretiroa hartu behar izateagatik, gizarte-kontraprestazioak ere galdu egin baitzituen eta konpainia bereko langile gizonetik ageriko diskriminazio jasaten zuelako. Kasua 1968. urtean aztertu zuten Belgikako auzitegiek eta, gero, 1970ean, Luxenburgoko Auzitegiak aztertu zuen, baita epaitza eman ere, adieraziz 119. artikulua bere osoan aplikatu behar zela (Hoskyns 1996). Edonola ere, esan daiteke bi kasuak baliagarri gertatu zirela hirurogeiko urteetan berdintasun-gaieetako Erkidegoaren politikak bultzatzeko.

Hirurogeita hamarreko urteetan, ekonomia- eta gizarte-arloko aldaketa garrantzitsuak gertatu ziren EEEn testuinguruan: 1968ko maiatzean, mobilizazio garrantzitsuak gertatu ziren Europa osoan; 1973an, berriz, EEE Britainia Handira, Irlandara eta Danimarkara hedatu zen; 1969an SPD boterera iritsi zen Alemanian; eta 1973an petrolioaren krisia gertatu zen, munduko ekonomia kaltetu zuena eta milioika langabe eragin zituen.

Gizarte-arloari erreparatzen badiogu, gogoan izan behar dugu Maiatza Frantsesak mobilizazio garrantzitsuak eragin zituela, baita Europa osoko bigarren feminismo-oldea deitutakoaren garapen nabarmena ere. Testuinguru horretan, EEEk hiru Zuzentarau onartu zituen: 1975eko otsailaren 10ekoa, langile gizon eta emakumeen ordainsariaren berdintasun-printzipioa aplikatzeari buruz-

koa; 1976ko otsailaren 9ko Zuzentaraua, enplegu, prestakuntza eta sustapen profesionalean gizonen eta emakumeen berdintasun-printzipioa aplikatzeari buruzkoa; eta 1978ko abenduaren 19ko Zuzentaraua, Gizarte Segurantzako gaietan gizonen eta emakumeen berdintasun-printzipioa aplikatzeari buruzkoa. Adieraz dezagun, Zuzentarau horiek ez bezala, gizarte-politikako gaietako beste proposamen batzuek, adibidez, Erkidegoko sei herrialdeetako migrazioa arautzeko, ez zutela ia oihartzunik izan Europako erakundearen eztabaida- eta onarpen-prozesu korapilatsuan; horrek, zalantzarik gabe, agerian uzten du emakumeen urte horietako aldarrikapenak iritzi publiko gero eta nabarmenagoa sortzen zutela.

Zuzentarau berriak, lan-baldintzei eta gizarte-segurantzari lotuta, berdintasun-kontzeptuan oinarritzen ziren edo, bestela esateko, tratu-berdintasunean zeharkako zein zuzeneko edozein diskriminazio hartzen zen kontuan. Zeharkako diskriminazioaren kontzeptua, berdintasun formala egon bai baina errealak ez zen egoeretan aplikatzen zen, eta aurrerapen garbia zen gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-politikak formulatzeko orduan; izan ere, aurreikusten zuen aldeak gertaitezkeela esparru ekonomikoan merkatu-askatasuna bermatzen zuten gizarte- eta ekonomia-baldintzetan berdintasuna aplikatzeko orduan, berdintasun formalarekiko. Tratu-berdintasunaren kontzeptua sartu izanak (ordainsari-berdintasuna ezartzen zuen aurreko Zuzentaruaren aldean) agerian uzten zuen Erkidegoko erakundeak jarrera ulerkorra zutela mugimendu feministaren eta alderdi politikoaren eskaerak ikusita. Horiek argudiatzen zuten, kontzeptu berri horrek emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren aplikazio egokia bermatzeko kontingentzia guztiak kontuan hartzen zituen. Bigarrenik, baina ez garrantzi gutxiagokoa, Erkidegoko erakundeak jabetzen ziren beharrezkoa zela lan-merkatuaren benetako berdintasun-baldintzetan gero eta emakume gehiago erakartzea.

Erkidegoaren barnetik, EEEK Erromako Itunaren berrikuspenari heldu behar zion eta 1986ko Agiri Bakuna izan zuen emaitzatzat. Horrek erabakiak hartzeko prozesuan arintasun handiagoa izateko modua ematen zuen, gehiengo kualifikatuaren bidez. 1986an, berriz, Espainia (ezkerreko gobernuak) eta Portugal gehitu zitzaizkion, eta hamabi herrialde kideen taldera dimentsio hegoalde-tarra ekarri zuen. Europako erakundeetan, Europako Parlamentuko Emakumearen Eskubideen Batzordea nolabaiteko pisua izaten hasi zen politikak definitzeko orduan, eta Europako Batzordean "Women's Bureau" Erkidegoko politiken multzoan berdintasun-politikak bultzatzeko emateko modua eman zuen.

Testuinguru horretan, emakumeen erakundeek, sindikatuek eta alderdi politikoek gero eta eragin handiagoa izan zuten. Urte horietan, Europako herrialde gehienetan, berdintasunaren aldeko erakundeak sortu ziren estatu bakoitzean berdintasun-gaiei buruzko Erkidegoko politikak aplikatzeko. Urte horietako "Estatu Feminismoa" delakoak (Folguera 1988) bere eragina administrazio publikoetara hedatu zuen, hala estatu osokoetara nola autonomikoetara.

Urte horietan, legegintzako proposamen batzuk egin zituzten, adibidez, emakume autoenplegatuen eta lehenengo sektoreko emakumeen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzeko Zuzentaraua eta gurasotasun-baimenari buruzko Zuzentaraua, onartzeak urte asko joko zituenak. Laurogeiko urteetako lehenengo Zuzentaruaren asmoa emakume ugari, batez ere nekazaritzan,

zuten ez-soldatako lana definitzea zen. Bertan, etxeko lan ez-ordainduaren eta familia-enpresetan egindako lanaren arteko aldeak ezarri nahi ziren; izan ere, bigarrena beste edozein soldatako lan-motari parekatu behar zitzaion. Testuaren bidez, familia-enpresetako euren rola nabarmendu nahi zen eta lanbide-estatusa eman, era horretan, geroago, jarduera profesionalean aritutako denboraren arabera, gizarte-babesa izan zezaten. Zuzentaraua osatzeko orduan, nabarmentzekoak dira emakumeen erakundeek eta, oso bereziki, COPAko Emakumeen Batzordeak izandako garrantzia. COPA da, hain zuzen, nekazarien Europako erakunde indartsuena.

1989an Europako Gutun Soziala onartu zen. Bertan, tratu-berdintasunari buruzko aipamena laburra zen arren, argi eta garbi ezartzen zen aukera-berdintasunaren eta tratu-berdintasunaren printzipioa garatzeko premia, eta bigarren hori kontzeptu zabalagozat hartzen zuen, emakumeak, desberdinkeria-egoera abiapuntu izanik, gizonen lan-baldintza berdinetan aritzea neurri handiagoan segurtatzera bideratuta. Gainera, ordu arte ia ikusi gabeko dimentsio berri bat agertu zen: hala gizonen nola emakumeen familia- eta lan-ardurak bateratzeko beharra. Hain zuzen, feminismoak integrazio hori defenditu zuen laurogeiko urteetatik, pribatuaren eta publikoaren arteko banaketa faltsua salatu zuen era berean. Gutun Soziala hamaika herrialdek (Erresuma Batuak salbu) onartu zuten 1989ko abenduaren 7ko Europako Kontseiluan.

7.

Europar Batasuna

Laurogeita hamarreko urteetan Zuzentarau batzuk onartu ziren eta, horietan, emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriak desagerraraztearen aldeko Europako gizartearen eta Europako erakundearen kezka gero eta handiagoa geratzen zen agerian. Zehazki ondorengoak onartu ziren: *1992ko urriaren 19ko Zuzentaraua, emakume haurdunaren laneko segurtasuna eta osasuna sustatzeko neurriak aplikatzeari buruzkoa; 1996ko ekainaren 3ko Zuzentaraua, aitaren edo amaren hiru hilabeteko gurasotasun-baimenari buruzkoa seme-alabak zortzi urte arte zaintzeko.*

Gainera, hainbat urtetako eztabaidaren ondoren, Gizarte Gaietako Ministro Kontseiluak Zuzentarau hau onartu zuen: *1997ko abenduaren 15eko Zuzentaraua, sexu-diskriminazioan oinarritutako kasuetan frogaren zama alderantzizatzeari buruzkoa.* Bukaerako testua, ordea, eskasztat jo zuten emakumeen erakundeek, ez baitzuen zeharkako diskriminazioaren definizio zorrotzik ematen.

Maastrichteko Ituna berrikuntza garrantzitsua izan zen Erkidegoko sisteman, Europar Batasunarentzako eskumena berriak ezarri baitzituen, esate baterako, hezkuntzan, osasunean, gizarte-kohesioan eta gizarte-bizitzan, eta horrek eskubide politiko berrien bidea urratzen zuen. Bertako 119. artikuluan berretsi egiten da *lan berdineko langile emakumeen eta gizonen ordain-sariaren berdintasun-printzipioa bermatzea.*

Are adierazgarriagoa da 1997an herrialde kideek sinatutako *Amsterdameko Ituna*; bertan, ez-diskriminazioko printzipioa eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-printzipioa hurrenez hurreneko hainbat artikulutan agertzen dira.

Zehazki, Europar Erkidegoa Eratzeko Itunaren 2. artikulua ezartzen duenez, Erkidegoaren egitekoetan *gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzea* egongo da. Bertako 3. artikuluan, berriz, Erkidegoak burutu beharreko ekintzen artean ondorengoa adierazten da, besteak beste: *kontuan hartutako jarduera guztien artean, Erkidegoak gizonen eta emakumeen arteko desberdineriak desagerrarazteko eta euren arteko berdintasuna izateko helburua finkatuko du*, eta, beraz, ordudanik, zeharkakotasun-printzipioa ezarri zen. Guztiz aipatzekoa da 141. artikulua, lehengo 119. artikulua errepikatzen duena. Bertan zehazten denez, Estatu kide bakoitzak langile gizonen eta emakumeen ordainsariaren berdintasun-printzipioa bermatu behar du lan berdinean *edo balio bereko lanean*.

Europar Erkidegoak aukera-berdintasunaren printzipioaren aplikazioa bermatzeko duen berariazko borondatea, 141. artikuluko 3. idatz-zatian bertan biltzen da; izan ere, bertan ezartzen da Kontseiluak behar neurriak hartuko dituela printzipioa aplikatu dadin.

Bestalde, Itunaren testuinguruan, ekintza positiboko neurriak ematen dira aditzera; adibidez, 141. artikuluko 4. idatz-zatian (lehengo 119) ezartzen denez, Estatu kide bakoitzak *neurriak izan edo har ditzake jarduera profesionaletan jarduteko edo euren karrera profesionaletako desabantailak ekiditeko edo konpentsatzeko kopuru txikieneko sexuari abantaila zehatzak eskain ditzakion*.

Amsterdameko Itunera gehitutako beste artikuluko bat, etorkizunean berdintasunaren aldeko politikak artikulatzeko bitartekoa izan daitekeena, 13. artikulua da, ondorengoa dioena: *Kontseiluak, aho batez, Batzordeak hala proposatuta eta, lehenengo, Europako Parlamentuari kontsulta eginda, sexuaren araberako diskriminazioaren kontrako ekintza egokiak onar ditzake*,..

Erakunde feministak ez ziren Ituna Prestatzeko Gobernu Arteko Konferentziatik at geratu eta bertako kideei proposamenak egin zizkieten, baita herrialde kideen ordezkariak eta Europako erakundeak ere. Ildo horretan, nabarmentzekoa da gizarte-ordezkariek, lehenengo aldiz, era nahiko naturalean finkatu direla gizarte-erakundeetan: sindikatuak eta erakundeak; horiek, izan ere, era askotako kolektiboak ordezkatzeko dituzte, adibidez, ekologistak, zaharrak, emakumeak eta kontsumitzaileen eskubideen defendatzaileak (Folguera 1998).

Zehazki, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa Itunean sartzeari eta Erkidegoko erakundeek berdintasunaren aldeko politiketan izandako jarduketari dagokienez, horiek aurrerapauso garrantzitsutzat jo dituzte erakunde feministek. Erkidegoaren ekintzei egokitutako artikuluetan gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-printzipioa sartzeko Erkidegoaren eskumen bihurtzen duela jotzen da. Hala ere, jarduketa horiek Kontseiluak *aho batez* onartu behar ditu eta hori muga larria da berdintasunaren aldeko politikak martxan jartzeko orduan. Auzitan jartzen den bigarren arazoa Ituneko testuari buruzko interpretazioa da, proposatutako neurri bakoitzari herrialde kideek ematen dioten dimentsio politikoaren arabera baita batez ere.

141. artikuluari dagokionez (lehengo 119), osatzen duten erakundeek aurrerapausotzat eta emakumeen erakundeen lorpenetzat jotzen dute Itunaren testuinguruan ekintza positiboko neurriak buruzko erreferentzia sartzeko, muga garrantzitsu bat duen arren: 141. artikulua aplikazio-esp

rrua arlo profesionalari dagokio hertsiki eta, gainera, neurri horiek ez dira zentzu hertsian emakumeei aplikatzekoak, *kopuru txikieneko sexuari baizik*.

Europako Konbentzioak etorkizuneko Europar Batasunarentzako Konstituzio-proiektu bat prestatu du eta bere lanak 2003ko maiatzean amaitu zituen. Bada, Estaturburuek et Gobernuburuek sinatu dute iragan urriaren 29an Erroman. Testuan, Konbentzioaren, estatuetako zein Erkidegoko erakundeen eta gizarte zibilaren era askotako ekarpenak biltzen dira; izan ere, inoiz ez bezalako gardentasun-prozesua izanik, gizarte zibilak bere proposamenak helarazteko modua izan du.

Konstituzioaren eduki eta egiturak, neurri handi batean, Konbentzioaren lan-multzoan agertutako joera desberdinen arteko eztabaida eta tentsioak uzten ditu agerian: era askotako erlijio-taldeen presioak, Europaren sustrai kristauak aipa zitezten; hainbat herrialderen arteko tentsioak ordezkari handiagoa edukitzeari buruz; egitura federal posible baina gaur gaurkoz oso urrunaren inguruko proposamenak; herritar guztientzako testu ulergarria proposatzeko ahaleginak;... Hori guztia lau zatitan banatutako testu batean adierazten da: I. Zatian, Batasunak defendatu beharreko balioak eta helburuak biltzen dira; II. Zatian, EBko Oinarrizko Eskubideen Gutuna agertzen da, lehenengoz 2000ko Nizako Europako Kontseiluan aldarrikatutakoa (behin berretsita, bertan aipatutako eskubideek izaera juridikoa hartuko dute eta auzitegiei horiek erreklamatzeko modua izango da); III. Zatiari dagokionez, bertan, Batasunaren politikak eta funtzionamendu-egiturak biltzen dira; eta, azkenik, IV. Zatian, xedapen orokorrak eta azken xedapenak agertzen dira.

Hizpide dugun gaian (generoaren ikuspegitik herritartasuna eraikitzekeo prozesua), konstituzioa eratzekeo proiektuko alderdi garrantzitsu bat I-7. artikuluan agertzen da. Bertan, aitortzen da Nizan 2000. urtean aldarrikatutako EBko Oinarrizko Eskubideen Gutunean adierazitako eskubideak, askatasunak eta printzipioak konstituzio-testuko zati direla eta, gainera, artikulua berean ezartzen denez, ahalegina egingo dela Europako Kontseiluaren *Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenera* gehitzeko.

Europako Konstituzioak gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-printzipioari buruzko hainbat erreferentzia egiten ditu. Zehazki, Batasunaren balioak lantzen dituen I-2. artikuluan adierazten denez: *Batasuna giza duintasuna, askatasuna, demokrazia, berdintasuna, Zuzenbide Estatu eta giza eskubideen errespetua ditu sorrera-balioak*. I. Tituluan egindako berdintasunaren aipamenak lege-oinarri oso sendoa ematen dio, eta konstituzio-testu osoak babestu behar du. Artikulu hori bereziki garrantzizkoa da kontuan hartzen badugu herrialde kide guztiei zuzenduta dagoela, baita oraindik orain sartu direnei ere.

Oso adierazgarria gertatzen da Batasunaren helburuak definitzen dituen I-3. artikuluan, ondorengo adierazten dela: *"Batasunak gizarte-bazterketaren eta diskriminazioaren kontra borrokatuko da eta justizia eta gizarte-babesa sustatuko du, baita emakume eta gizonen arteko berdintasuna..."*. Halaber, III. Zatian, Batasunaren politika eta funtzionamenduari buruzkoa, I. Tituluan, III-2. artikuluan ezartzen denez, *"Zati honetan aipatutako ekintza guztietan, Batasunak gizonen eta emakumeen arteko desberdinkeriak desagerrarazteko eta euren arteko berdintasuna izateko helburua finkatuko du"*. Erredakzio horren bidez, genero-dimentsioa Batasunaren politika guztietan integratzeko printzipioa sendotu egin zen; izan ere, printzipio hori, Amsterdameko Itunean ere

agertu arren, orain kanpo- zein segurtasun-politikara eta justiziakora eta barne-gaietara hedatzen da.

Hemen gogoratu beharrekoa da, halaber, EBko Oinarrizko Eskubideen Gutuna, Nizako Europako Kontseiluak bere egindakoa, etorkizuneko Konstituzioan sartuko dela eta, beraz, emakumeen eta gizonen arteko ez-diskriminazioari eta berdintasunari buruzko artikulua bereziki indartuak izango dira Konstituzio-testuan. Zehazki, II-21.1. artikulua ezartzen duenez, *“Diskriminazio guztiak debekatu egiten dira eta bereziki sexu, arraza, kolore eta abarrengatik egindakoak...”*. II-23. artikuluari dagokionez, *“gizonen eta emakumeen berdintasuna arlo guztietan bermatu behar da, enplegu-, lan- eta ordainsari-gaietan barne. Berdintasun-printzipioak, ordea, ez du eragozten kopuru txikieneko sexuaren aldeko abantaila zehatzak ematen dituzten neurriak izatea edo hartzea”*.

Gizarte-eskubideei dagokienez, Konbentzioaren XI. lan-taldearen proposamenak Europaren gizarte-eredua sendotu eta garatzera bideratu dira, eta horretarako oinarri erabakigarriak berdintasuna (lehenenik eta behin generokoa), elkartasuna, enplegu betea eta gizarte-babesa dira. Lan-taldearen proposamen ugari Konstituzio-proiektura gehitu dira, honakoen sustapena: enplegu betea, gizarte-justizia, gizarte-bakea, garapen iraunkorra, ekonomia-kohesioa, gizarte-kohesioa, gizarte-babeseko maila altua, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna, haurraren eskubideak, osasun publikoko maila altua eta kalitate handiko gizarte-zerbitzu zein interes orokorreko zerbitzu eraginkorrak.

Konstituzio-testuan generoari lotutako edukiak ez ditu emakumeen erakundeen multzoaren nahiak ase; izan ere, hilabetetan, *“Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna”*ri buruzko Titulu koherente eta oso bat sartzeko eskatu dute, etorkizuneko Konstituzioan politikei buruzko zatira sar zedin. Era horretan, oinarri sendo bat sartuko litzateke Europako lege-esparru integratua osatzeko eta neurri eraginkorrak hartzeko behar bitartekoetarako esparrua ezartzeko. Laburbilduz, proposatutako titulu horretan sartuko lirateke: emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko Europaren politika baterako lege-esparrua definitzen duen neurri orokor bat, Europar Batasuna emakumeen kontrako indarkeria-mota guztien kontra borrokatzeko bitartekoak, erabateko berdintasuna lortzeko ekintza positiboen sarrera eta, azkenik, enpleguaren eta bizitza profesionalaren esparruko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko neurri espezifiko bat (LEF 2003).

Gizarte-kohesioari eta elkartasunari dagokionez, emakumeen erakundeen ustez, Batasunak gizarte-babeseko sistema unibertsalak, bizitzako etapa guztietan gizarte-babes altua izateko emakumeen eskubidea, gizarte-babeseko neurriak familien forma askotarikoetara eta forma aldakorretara egokitzeko beharra eta etengabeko aldaketan dagoen lan-merkatuan aldi baterako zein lanaldi partzialeko langileen segurtasuna sendotzeko premia (LEF 2003).

Dena den, Europaren eraikuntza ez da lege-testuen kontu soila. Etorkizuneko Europar Batasuna gizarte-eragile guztien eta Europak dituen giza baliabide guztien parte-hartze aktiboan oinarritu behar da ezin bestean. Ildo horretan, ezin dugu onartu Europar Batasunean herritartasun-eskubideen aitortza osorik dagoenik gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasunaren printzipioa politika-, gizarte- eta ekonomia-bizitzako era askotako alderditan errealitate egiten ez bada.

Gauzak horrela, nabarmen dezagun Europar Batasuneko herrialdeen historia eta Europar Batasunaren historia bera bazterketen historia bat dela: emakumeak ez dira eskubide osoko herritartzat hartuak izan, eskubide zibil eta politika-, gizarte- zein ekonomia-eskubide berekotzat.

Europako gizartearen errealitatean, gaur egun ere, erabakimen politikoko postuak lortzeko orduan, ez zaie emakumeei berdintasunik aitortzen, eta *gizonek botere politikoa bahituta dute* (Vogel Polski 1998).

Bestalde, Europan, gaur egun ere, emakumeen kontrako indarkeria baliatzen da eta berdintasun-printzipioa ez da gizonen eta emakumeen arteko bikote-harremanetan islatzen, artean, harreman horiek menderatze bidezkoak, desberdintasunekoak baitira.

Gizarte-herritartasunari lotuta, Europar Batasunak ez ditu aitortzen gizarte-babeseko sistema unibertsalen garrantzia, bizitzako etapa guztietan gizarte-babes altua izateko emakumeen eskubidea, gizarte-babeseko neurriak familien forma askotarikoetara eta forma aldakorretara egokitzeko beharra eta etengabeko aldaketan dagoen lan-merkatuan aldi baterako zein lanaldi partzialeko langileen segurtasuna sendotzeko premia. Era horretan, emakumeek bereziki, gizarte-eskubideen etorkizuneko iraupena auzitan jartzen dute, kontuan hartzen badugu Europan 65 urtetik gorako pertsonen %60 eta 75 urtetik gorakoen bi heren inguru emakumeak direla.

Bestalde, Europako eremuan, gaur egun ere, txirotasuna errealitate nabarmena da, onartzen baita munduko toki garatuenean 50 milioi pobre daudela, eta txirotasun horrek emakumeei eragiten die neurri handiangoan.

Bitarteko juridikoak eta politikoak eduki arren, gizarte-eskubideak izateko emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ez da benetan gertatzen. Lan-merkatuko lanbide-segregazioak lan-merkatutako ezaugarri nagusietako bat izaten jarraitzen du, enpleguaren egituran eta mailan aldaketak gertatu diren arren. Merkatu horretako sexuagatiko bereizketek bere horretan jarraitzen dute eta, batzuetan, areagotu egin dira enplegua zerbitzu-sektorerara gehiago bideratu ahala.

Ordainsariari erreparatzen badiogu, gaur egun lanpostu ordainduak dituzten EBko emakumeen kopurua duela hamarkada batekoa baino askoz handiagoa da, herrialde bakoitzeko sexuagatiko ordainsari-desberdintasunak oso gutxi aldatu dira. Europan, Eurostateg emandako datuen arabera, emakumeek batez beste %20 gutxiago irabazten dute jarduera berdinetan.

Emakumeak ordainsari txikiko lanpostuetan biltzea eta lan-merkatuko lanbide-segregazioa, EBn sexuagatiko ordainsari-desberdintasunek lehengo horretan jarraitzea eragiten duten bi oinarritzko faktoreak dira.

Laburbilduz, lan-merkatuko sexuagatiko desberdinkeriak emakumeen parte-hartze mailan, euren lanpostu-motetan eta, besteak beste, prestakuntza-, adin- eta amatasun-faktoreen eraginean gertatzen dira agerian. Gauzak horrela, Europako enplegu-egitura gertatzen ari den bilakaera, erabakigarria da emakumeentzat, baita herritartasunaren gizarte-eskubideentzat ere.

Europar Batasunaren testuinguruan, Emakumeentzako herritartasun-eskubide osoak lortzea urrun dago, artean, errealitate bihurtzetik. Europar emakume eta gizon herritarrek politika-, gizarte- eta ekonomia-arloko eskubideak eskatzen dituzte gero eta gehiago, Europako biztanleria osoan gertatzen ari diren eta gertatuko diren aldaketa garrantzitsuetara egoki daitezten.

Laburbilduz, etorkizuneko Europar Batasunak, hogeita bost herrialde kide izanda, herritartasun-eskubideak bete-betean aitortu behar ditu eta, politikoak eta ekonomikoak ez ezik, gizarte- eta kultura-arlokoak ere, hala emakumeenak nola gizonenak.

Aipamenak

- Anderson, B. S. Zinsser, J.P. (1988): *A history of their own. Women in Europe. From Prehistory to the Present*. Harper and Row. New York.
- Bridenthal & Koonz (1977): *Becoming visible: Women in European History*. Houghton Mifflin Co. Boston.
- Carrasco, C. Alabart, A. Mayordomo, M. Montagut, T. (1997): *Mujeres, trabajos y políticas sociales: una aproximación al caso español*. Instituto de la Mujer. Madrid.
- Close, P. (1995): *Citizenship, Europe and change*. Mac Millan Press. London.
- Comisión de las Comunidades Europeas (2003): *Igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres*. 2003. Informe anual de la Comisión. Bruselas.
- Europako Konstituzioa (2004)*.
- Del Re, Alisa (1994) "Droits de citoyenneté, une relecture de T.H. Marshall. In *Women's Studies: Manuel de Ressources*. 1994.
- Duby, G. Perrot, M. (1993): *A history of women. Emerging feminism from Revolution to World War*. Harvard University Press. Cambridge Mass.
- Folguera, P. (1998): "La instauración del modelo social" in Oreja Aguirre, Marcelino: *El Tratado de Amsterdam. Análisis y comentarios*. Madrid.
- Folguera, P. (1988): *El feminismo en España. Dos siglos de historia*. Ed. Pablo Iglesias. Madrid
- Heynig, E. (1965) " L'égalité des salaires de travailleurs masculins et de travailleurs féminins dans le Marché Commun" *Revue Marché Común*.
- Hooloway J. (1981): *Social Policy. Harmonisation in the European Community*. Gower Farnborough. London.
- Hoskyns, C. (1996): *Integrating gender:women, law and politics in the European Union*.
- Lovenduski, J. (1986): *Women and European politics. Contemporary Feminism and Public policy*. Harvester Press. Sussex.
- Mc. Crudden Ed. (1987): *Women, employment and European Equality Law*. Eclipse. London.
- Marshall, T.H. Bottomore, T. (1992): *Citizenship and social class*. Pluto Press London.

-
- O' Connor J.S. (1996): "Citizenship, Welfare State and Gender Stratification" From women in the Welfare States to gendering Welfare States Regimes. *Current Sociology*. Vol. 44 n° 2 . Summer Sage Pub. London.
- Offe, C. (1984): *Contradictions of the Welfare State*. Ed. John Keane Hutchinson. London.
- Kaplan, G. (1992): *Western European Feminism*. UCL Press. London.
- Rossi, A. S. Ed. (1970): John Stuart Mill and Harriet Taylor Mill. *Essays on Sex Equality*. University Chicago Press. Chicago.
- Rover, C. (1967): *Women's suffrage and party politics in Britain 1866-1914*. Routledge and Paul Kegan. London.
- Shanks, M. (1977): *European Social Policy. Today and Tomorrow*. Pergamon Press. Oxford.
- Sledziewski, E. (1993): " The French Revolution as a turning point" en Fraisse, G. and Perrot M. Eds.: *A History of Women in the West. Emerging Feminism from Revolution to World War*. Harvard University Press. Cambridge Mass.
- Vogel-Polsky, Eliane (1994): "La citoyenneté revisitée" Les femmes et le citoyenneté européenne. Commission Européenne. Luxembourg.
- Wallace, C. (1993): "The concept of citizenship. An overview". *Slovak Sociological Review*. March.

CRISTINA CARRASCO BENGOA

**Ekonomi Teoria Saila.
Bartzelonako Unibertsitatea**

Emakumeek

gizarte

aberastasunari

egiten dioten

ekarpena

*Gizarte-aberastasunaren
ideiara hurbilduz*

Hitzaldi honen helburua aberastasunaren edo gizarte-aberastasunaren kontzeptua eztabaidatzea ez baldin bada ere, emakumeek gizarte-aberastasunari egindako ekarpenean sakontzeak termino horren lehen hurbilketa bat egitera bultzatzen gaitu. Ekonomian aberastasunaren ideiak hainbat eztabaida sorrarazi ditu, bai kontzeptuaren beraren inguruan eta baita azterketa-gai gisa duen garrantziagatik ere. Horregatik, ekonomian aberastasunaren kontzeptua ezinbestekoa bada ere (diziplinaren hastapeneko kontzeptua da), ez du esanahi argi eta sendorik.

Adam Smith eta pentsamendu klasikoaren ustez, aberastasuna gizakiak egindako lanetik zetorren eta jarduera horretatik eratorritako objektu ukigarri oro zen. Hala, ondasunen balioa ideia objektibo baten arabera zen: objektu horiek beren gain zuten lan kantitatea. Dena den, batzutan argi eta garbi esaten ez bada ere, pentsamendu klasikoek, aberastasunaz ari direnean, ordaindutako lana dute soilik gogoan. Hala eta guztiz ere, etxean egindako lanaren garrantzia onartzen dute, batez ere seme-alabak hazi eta heztearena, horiek ondoren “langile produktibo” bihurtuko baitira eta “nazioen aberastasunari” egingo baitiote ekarpena. Baina jarduera horri ez zaio inondik inora ere balio ekonomikorik ematen. Horrela bada, etxeko lanak eta zainketa lanak ekonomiaren eremutik kanpo uzteak, jarduera horri gizarte eta giza ugalketa prozesuetan parte hartze-ko aukera ukatzea ere esan nahi du. Horrela hasi zen soilik merkatu prozesuetan oinarritutako azterketa ekonomikoaren tradizioa. Horrek guztiak dualtasun zurrun bat sortu du ekonomiaren diziplinan, ekonomikoa eta ez ekonomikoaren artean, publikoa eta pribatuaren artean, merkatuaren eta familiaren artean, lana eta ez lanaren artean, maskulinoa eta femeninoaren artean.

Eskola marjinalistaren sorreraren eraginez —ondoren eskola neoklasiko deituko dena— aztergaia ekoizpen kapitalista izatetik, merkatu kapitalista izatera pasako da eta, beraz, bi arloen arteko banaketa erabat ofiziala egingo da. Aipatu banaketa gauzatzeko prozesuan pentsamendu klasikoak ordura arte mantendutako balioaren ideia objektiboa “erabilgarritasunaren” ideia subjektiboan bihurtuko da, hots, ondasunek balioa dute erabilgarri zatzaizkigulako. Horrela, pentsamendu neoklasikoaren arabera, ondasunek sortzen duten erabilgarritasunak eragiten du aberastasuna, ez ondasunek bere horretan. Erabilgarritasuna ez da klasikoek ulertzen duten moduan, “erabiltzeko balio” gisa ulertzen, baizik eta norberaren kontzeptu subjektibo gisa, funtsean ideia tautologiko bat. Ondorioz, paradigma neoklasikoak merkatuaz kanpo burutzen den jarduera oro jarduera ekonomikoa ez dela ulertzen du eta, horrenbestez, emakumeek egiten duten ekarpenaren zati handi bat aberastasunaren kontzeptutik at gelditzen da erabat.

Gaur egungo ekonomiaren ikuspegitik, aberastasuna definitzeko garaian badira merkatuaren ideia nabarmentzen dutenak, “merkatu balioa duen eta diruz aldatu daitekeen edozein ondasun”, edota badira stock aldagarriaren ideia nabarmentzen dutenak, “denbora jakin batean ekonomian dauden aktiboen balio osoa”. Edonola ere, definizio guztiek nabarmentzen dute merkatu balioa

duten ondasunen ideia. Gauza jakina da estatistika ekonomikoek eta nazio kontabilitateak ekonomikotzat jotzen den hori bakarrik besarkatzen dutela, hau da, merkatutik zuzenean edo zeharka igarotzen dena (zerbitzu publikoen moduan, produktuak preziorik ez baldin badu ere, zerbitzua sortzen duen lanak badu).

Bestalde, lerro batzuk erabili nahi nituzke “gizarte” ideia jorratzeko (gizarte-aberastasunari dago-kionez). Ekonomian, gizarte-aberastasunaz baino, gizarte-kapitalaz hitz egiten da. Kontzeptu horrek gizarte bateko balio, jarrera, arau, ezagutza eta harreman sareen multzoari egiten dio erreferentzia, horiei esker garatzen baita ekonomia baldintza hobeetan —ekonomia lehen aipatu moduan definitua—. Horrela bada, gizarte-kapitala hazkunde ekonomikorako garrantzizko aktiboa dela uste da. Dena den, hazkunde ekonomikoaren ideia horrek ez ditu pertsonak lehenesten. Egileren batek esan izan duen moduan, ohiko ekonomia eredu “mekanika klasikoarena da”. Ez da onartzen ekonomia, funtsean, pertsonak osatzen dutenik eta, beraz, pertsonak izan beharko lirakeela interesgune, eta ez aldagai ekonomikoak. Beraz, nahiz eta “gizarte” terminoa erabiltzen den, ez gara guk ekonomia eredu sozial batetaz ulertzen dugunaz ari, ez baitira pertsonen ongizaterako burutzen diren lan jarduera guztiak kontuan hartzen.

Azken finean, ekonomiak, diziplina gisa, bizitza ekonomikoaren muga faltsuen arabera funtzionatu du, eta hori publikoa denaren mesedetarako izan den bitartean, pribatua/etxekoa dena gutxietsi egin da. Ekonomiako prozesuak “autonomoak” direla ulertu da, eta ez da kontuan hartu merkatuak bestelako sektore eta jarduerak dituela euskarri, merkatuan edo mundu publikoan sartzen ez direnak, hain zuzen ere. Ekonomia neoklasikoak jorratzen dituen mendekotasun eta autonomia kontzeptuak ere —homo economicus eredura lotuak— gizonezkoek gizartean eta ekonomian izandako jarduketa balioetsi eta emakumezkoen jarduera ikusezin bihurtzeko erabili dira. Modu horretan, azterketa merkatuaren esparrura mugatzen duten ikuspegi ekonomikoen ohiko itxutasunaren eraginez, lan ez ordaindua ez da kontuan hartu eta ez da azterketan sartu, ondorioz, emakumeek gizarte-aberastasunari egindako ekarpena alde batera utzi da.

Ekonomia feministak proposatzen dituen ikuspegi berriek eta estatistika berri batzuek ematen duten informazioak azterketa modu berriak proposatzen lagundu digute, emakumeek gizarte-aberastasunari egindako ekarpena kontuan hartzen duten eta ikuspegi tradizionalen mugak zein diren agerian uzten dituzten azterketa moduak. Izan ere, aipatu ikuspegi tradizional horiek emakumeek ekonomiari egindako ekarpenaren zati handi bat kontuan hartzen ez dutenez, emakumeek betidanik izan dute gizonek baino askoz ere aukera txikiagoa eskubide ekonomikoez gozatzeko.

2.

Emakumeek gizarte-aberastasunari egindako ekarpena

Gizarte-aberastasunaz ulertzen duguna azaltzeko, esan genezake giza ongizatera zuzendutako ondasun, zerbitzu eta harremanak direla, nola naturak emandakoak hala gizon eta emakumeen lanaren bitartez lortutakoak. Gizarte-aberastasun horren helburua giza beharrei erantzutea da eta, zentzu horretan, gizartea ugaltzea eta bizitzak jarraitzea eragiten du. Noski, definizio mota horrek lan mota oro hartzen du kontuan, ordaindua nahiz ez ordaindua, edozein gizarte-harremetan burutua. Emakumeek gizarte-aberastasunaren ideia horri egiten dioten ekarpena anitza da eta, gainera, ezinbestekoa. Emakumeek hainbat lanetan hartzen dute parte, hala nola, merkaturkoetan, etxekoetan, herritarren partaidetzari dagozkienetan; biztanleriaren eguneroko bizitzak aurrera egiteko zainketa jarduerak burutzen dituzte batez ere, hots, pertsona helduak, pertsona nagusi edo gaixoak nahiz haurrak zaintzen dituzte. Jarduera horiek guztiak egiteak denbora eta energia asko eskatzen du, eta askotan sentimenak izaten dira tartean, hautematen ez badira ere, baldintza gizatiarretan bizitzeko guttiz ezinbestekoak direnak. Emakumeek gizarte-aberastasunari egindako ekarpena zehaztea ez da gauza erraza. Batetik, informazio gutxi dago ekonomia ofizialak lan gisa hartzen dituen jardueren inguruan eta, are gutxiago jarduera horien alderdi subjektiboen inguruan. Bestalde, emakumeek burutzen duten merkatu-lanaren zati handi bat ezkutuko ekonomia da (etxe-zerbitzua, esaterako) eta, beraz, kontabilizatzeko zaila da. Gainera, soldataren arabera balioetsita, emakumeen lana beti izango da gutxietsia, hain zuzen ere, emakumeen soldatak txikiagoak direlako. Edonola ere, saia gaitezen hurbilketa batzuk egiten.

2.1

EMAKUMEEN EKARPENA LAN ORDUTAN

Lehen taulan (1) Espainia osoan 2002ko urriaren eta 2003ko irailaren bitartean Denboraren Erabilerari buruz burututako Inkestaren emaitzetatik ateratako informazioa azaltzen da.

(1) Denboraren erabilerari buruzko Inkesta Espainiako Estatu osoan egiten den mota horretako lehen inkesta da. Era berean, inkesta bera burutu zen 2003an Europar Batasuna osatzen zuten 15 herrialdeetan. Hau ez da uea inkestaren inguruko eztabaida metodologikoa egiteko, baina puntu bat gutxienez nabarmendu nahi genuke: "lana" kategorian merkatu-lana bakarrik hartzen da kontuan, eta etxean egiten diren lanei "etxea eta familia" izena eman zaie. Horrela, hizkuntzak, duen indar sinbolikoaz baliatuz, berriz ere gutxietsi egiten du etxeko eta zainketa lana.

1. TAULA. Batez besteko gizarte-denbora eguneko orduetan eta %tan

	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
Merkatu-lana	1,77 (33,0) (28,8)	3,60 (67,0) (71,3)	5,37 (47,9)
Etxeko eta zainketa lanak	4,38 (75,1) (71,2)	1,45 (24,9) (28,7)	5,83 (52,1)
GUZTIRA	6,15 (54,9)	5,05 (45,1)	11,20 (100)

ITURRIA: Denboraren erabilerari buruzko 2002-2003 Inkestatik ateratako informazioa erabiliz landua

Datuen arabera, pertsonen batez bestekoari jarraiki, emakumezkoek gizonezkoek baino lan gehiago egiten dute (6,15 eta 5,05 hurrenez hurren), merkatu-lan erdia burutzen dute eta etxeko eta zainketa lanen hirukoitza.

Estatu osoan burutzen diren lan guztiak lortzeko, pertsona bakoitzaren batez besteko denbora eta 10 urte edo gehiagoko emakumezko eta gizonezkoak biderkatuko ditugu, 2001eko erroldaren arabera 18.970.848 emakume eta 18.047.346 gizon. Emaitzak 2. taula honetan dauzkagu.

2. TAULA. Espainiako Estatuan egun batean egiten den lanaren denbora guztira (ordutan eta %tan)

	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
Merkatu-lana	33.578.400 (34,1) (28,8)	64.970.445 (65,9) (71,3)	98.548.845 (47,4)
Etxeko eta zainketa lanak	83.092.314 (76,0) (71,2)	26.168.651 (24,0) (28,7)	109.260.965 (52,6)
GUZTIRA	116.670.714 (56,1)	91.139.096 (43,9)	207.809.810 (100)

ITURRIA: Denboraren erabilerari buruzko 2002-2003 Inkestatik ateratako informazioa erabiliz landua

Portzentajeak aurrekoen oso antzekoak baldin badira ere, emakumezkoenak gizonezkoenak baino pixka bat handiagoak dira, emakumezko biztanle gehiago dagoelako, eta etxeko eta zainketa lanen kantitatea ere merkatu-lanena baino altuagoa da. Azken datu hori da, hain zuzen ere, interesgarri guretzat. Izan ere, datu horren arabera, Espainiako Estatuan burutzen den lan guztiatik (2),

(2) Herritarren partaidetzari dagozkien lanak aipatu baditugu ere, merkatu-lana eta etxeko eta zainketa lanak bakarrik aipatuko ditugu, horiek baitira gure aztergaiak.

%52,6 ez da merkatuko lan ordaindua, eta lan guztiari emakumezkoek egiten dioten ekarpena %56,1 da. Horrek guztiak dagoeneko badakiguna berresten digu: emakumeek garrantzizko gizarte-ekarpena burutzen dute, batez ere lan ikusezinaren bitartez eta, bestalde, homo economicus eredu sinbolikoa dugu, merkatu-lana baita onartutako jarduera eta horrek gure gizartean duen pisua hainbestekoa da, ezen gizarte-denbora antolatzen duen jarduera dela.

2.2

LAN EZ ORDAINDUAREN EKARPENA TXANPONETAN

Jakin badakigu oso zaila dela lan ez ordaindua merkatu preziotan balioestea, batetik, preziotara murriztu behar delako merkatu preziotan balioesteko ezinezkoa den harreman multzo oso bat eta, bestetik, erabili beharreko balioespen metodoagatik. Metodori ohikoena herrialde jakin batean burututako etxeko lan guztiak balioestea izan da, ondoren dagokion Satelite Kontuan sartzeko. Hain zuzen ere, Satelite Kontua duen eskualdeetako bat Euskadi da. Ebaluazio metodo horiek ematen dituzten emaitzek erakusten dutenaren arabera, herrialde industrializatuetako etxeko lana Barne Produktu Gordinaren %40 da gutxi gorabehera.

Orain etxeko lanaren baliora hurbiltzeko beste modu batetaz hitz egin nahi dut. Helburua ez da etxeko lanak nazio produktuan sartzea, baizik eta etxearen ugalketan sartzea. Oinarrizko ideia litzateke etxe orok, biziraupena eta ugalketa segurtatzeko, hiru elementu hauek nahasten dituela: diru errentak (soldatakoak eta soldatakoak ez direnak), Administrazio Publikoak eskaintako zerbitzuak (gizarte-soldata), etxeko lana. Osagai horien pisua aldatu egiten da, etxeko errenta mailaren arabera. Horrela bada, diru errenta gehiago izanez gero, zerbitzu pribatuak gehiago erabiliko dira (osasuna, hezkuntza, ...) eta etxeko lan gutxiago egiten da eta, noski, merkatuan ondasun eta zerbitzu kopuru handiagoa eskuratu daiteke. Horretaz gain, etxeko lanaren egitura ere aldatu egiten da: baliteke etxe batzuetan seme-alabekin denbora gehiago pasatzea, beste batzuetan denbora gehiago eskainiko zaio garbitasunari eta beste batzuetan antolaketa eta kudeaketari eskainiko zaio gehien. Horrela bada, etxeko lanak osaera ezberdinak izan ditzake, etxea zein gizarte-taldekoa den arabera. Horregatik, etxeko lanak ebaluatzeko errealista den edozein baloraziok etxeko lana gizarte-taldeetatik banatzea eskatzen du, lan mota horren beharrak zein diren talde horien arabera erabakitzeko.

Azterketa mota hori burutzeko behar den informazioa lortzeko, froga moduan Bartzelonako hirian (3) egin genuen inkesta bat. Inkesta horren bitartez, familiek jasotzen dituzten hiru "errenta" moten balioaren gutxi gorabeherako bat kalkulatu zen, hau da, diru-errentak, zerbitzu publikoak edo diruz lagundutakoak (gizarte-soldata) eta etxeko lana. Gizarte-soldatari dagokionez, familiek

(3) Kuoten araberako lagin batetik abiatuta, Bartzelonako metropoli guneko 250 emakumeri egin zitzaion elkarrizketa, 16 urte baino gutxiagoko bi seme-alaben amak eta euren bikotearekin bizi direnak. Familia zikloko aldi hau ugaltze prozesuaren aldi gorena delako hautatu zen.

Administrazio Publikoetatik jasotzen dituzten doako edo diruz lagundutako zerbitzuak hartu ziren kontuan, hots, bide horretatik ez balitz familiek merkatutik eskuratu beharko lituzketen ondasun eta zerbitzuak. Kontuan hartutako zerbitzuak hiru ataletan banatu ziren: irakaskuntza, haurrentzako bestelako zerbitzuak (udako kanpaldiak, eskolaz kanpoko jarduerak, etab.) eta osasuna. Oro har, baloraziorako merkatuan ezaugarri antzekoekin eskaintzen den zerbitzuaren prezioa hartu zen. Familia nahiz etxeko lanaren baliorako hurbilketa “zerbitzuen kostuak” metodo gisa ezagutzen denarekin burutu zen. Egokiena zela zirudien, izan ere, etxeko lan guztia merkatuan eskuratzen diren zerbitzuekin ordezkatu nahi baldin bada, zentzuzkoa da pentsatzea gutxienez horietako zerbitzu batzuek espezializazio bat izango dutela. Hori horrela dela maila altuko familiek erakusten digute: etxeko lanak egiteko langile bat baino gehiago dituzte, zereginak banatuta daude (kudeaketa edo administrazioa, sukaldea, etab.).

Hirugarren taulak gizarte-taldea egindako familia errenten balorazioa laburtzen du; parentesi artean guztiaren portzentajea adierazten da.

3. TAULA. Etxeetako hileko “errentak” (eurotan)

	ERRENTA BAXUKO TALDEA	ERRENTA ERTAINEN TALDEA	ERRENTA ALTUKO TALDEA
Diru-errentak	796 (31,3)	1.603 (50,1)	3.811 (77,3)
Gizarte-soldata	454 (17,9)	286 (8,6)	109 (2,2)
Etxeko lanak	1.292 (50,8)	1.309 (40,9)	1.013 (20,5)
GUZTIRA	2.542	3.198	4.933

Aurreikusten zen moduan, diru sarrerak igotzen diren heinean, gizarte-soldata eta etxeko lana murriztu egiten dira. Etxeko lana nahikoa egonkor mantentzen da errenta baxu eta ertaina duten taldeen artean eta errenta altuko taldean, berriz, %22 inguru murrizten da. Kantitateari dagokion ezberdintasun horri kalitateari dagokion beste bat gehitu behar zaio (lan honen aztergai ez dena): gizarte-piramidean zehar igotzen den heinean, etxeko lanaren osaera ere aldatu egiten da. Dena den, ez litzaiguke harritu beharko etxeko lanak nahiko egonkor mantentzea, gutxienez kontabilitzatzen diren orduei dagokienez. Hori lan mota horren oinarritzko ezaugarri baten isla da: egun osoan zehar luzatzen dela. Etxeko lanen papera ere argi eta garbi geratzen da, behin eta berriz errepikatzen den mendekotasun erritua, giza talde batek (emakumeak) zeregin multzo bat egokitua dueneko.

Dena den, etxeko lanen balioa talde batetik bestera eta balio absolutuetan ez aldatzeak ez du esan nahi etxeko lanek balio ekonomiko bera dutenik gizarte-talde guztientzako. Lortutako emaitzen arabera, guk errenta baxua duela hartzen dugun taldeak 2.542 eurotako “soldata” orokorrekin bizirauten du; soldata horretatik %50,8 etxeko lanei dagokie, %31,3 diru errentei (soldatakoak gehienetan) eta %17,9 gizarte-soldatari. Ez litzateke gehiegi esatea kalkulaturako soldata orokorra aipatu gizarte-taldearen ugalketa sortzen duen soldatarekin bat datorrela, klasikoek ai-

patzen zuten biziraupenerako soldatarekin bat, alegia. Edonola ere, datu garrantzitsua etxeko lanekin estaltzen den familia beharren %50,8 hori da. "Biziraupenerako soldata" oso doitua ez bazegoen ere, etxeko lanen %50,8 nahikoa portzentaje esanguratsua da errenta baxuko taldeak bizirauteko eta ugaltzeko nahitaez lan hori behar duela ondorioztatzeko.

Errenta ertaineko taldearen egoera ez da, funtsean, errenta baxuarenaren oso ezberdina etxeko lanen beharrari dagokionez. Diru-errentaren igoera Administrazio Publikoak eskaintzen dituen zerbitzuak modu pribatuan kontratatzeko eta bestelako kontsumoa ugaritzeko erabiltzen da. Horrela bada, errenta orokorrak errenta baxuko taldearenak baino %26 altuagoak baldin badira ere, etxeko lanak portzentaje adierazgarri bat dira oraindik orain, %40,9. Horrenbestez, ondorioa ez da aurrez ateratakotik oso bestelakoa: errenta ertaineko taldeak ezin dezake etxeko lanak burutu gabe biziraun, ez eta ugaltu ere.

Errenta altuko taldeko ezberdintasunak bereziki zorrotzak dira —eta adierazgarriak— errenta orokorra kontuan hartzen diren diru sarreraren artean nola banatzen den ikusten dugunean: gizarte-soldata ia hutsala da (%2,2), etxeko lanak nabarmen murrizten dira (%20,5) eta diru errentek portzentajerik altuena hartzen dute (%77,3). Horrela bada, ezin esan daiteke errenta altuko taldeek etxeko lanen beharra dutenik euren ugalketa bermatzeko. Ziurrenik beharrezko zerbitzu guztiak merkatuan eskuratuko dituzte (4).

Ondorioz, burututako ebaluazioek egiaztatu diguten moduan, familia nahiz etxeko lana —batez ere emakumeek burutzen dutena— ezinbestekoa da sistema sozioekonomikoaren ugalketarako. Horrela bada, ezin uka daiteke emakumeek gizarte-aberastasunari egiten dioten ekarpena hitzaldi eta zifra ofizialek sinistaraz nahi dugutena baino askoz ere handiagoa dela.

Ondorio horrek berretsi egiten du familia eta etxeko lana ugaltze eredueta sartzeko dagoen behar larria, baldin eta errealitatea islatu nahi bada, eta errealitate horrek gizartean eta ekonomian dituen harremanak aztertu nahi baldin badira.

2.3

EMAKUMEEK GIZARTE- -ABERASTASUNARI EGITEN DIOTEN EKARPEN HAUTEMANEZINA

Beste zenbaitetan esan izan ohi dugun bezala, zainketaren lanean osagai subjektibo garrantzitsu bat dago, hautemanezina eta kontatzeko ezinezkoa da, eta hain beharrezkoak diren maitasun eta sentimenekin du zerikusia. Maitasun osagai hori giza bizitzaren, harremanen eta, beraz, giza aberastasunaren ezinbesteko zatia da. Jarduera horretan ere emakumeak daude batez ere tartean.

(4) Noski, lehen ere esan den moduan, merkatuan ordezkoa duten ondasun eta zerbitzuez ari gara.

Bi lagunekin (5) burututako artikulua batean pentsamendu ekologistaren eta pentsamendu feministaren artean analogia zegoela ezarri genuen. Ikuspegi ekologistatik ateratako ondorioetako bat izan zen sistema ekonomikoa autonomoa dela eta naturaren mendeko ez dela dioen ideia faltsua dela. Bizi dugun iraunkortasun eza islatzeko hainbat adierazle garatu dira ekonomia ekologikoan, hala nola, “aztarna ekologikoa” eta “defizit ekologikoa”. Ikuspuntu feministaren arabera, argi dago sistema ekonomikoa autonomoa dela faltsua den bezala, gizona autonomoa dela ere faltsua dela: biziraupena eta zainketa emakumeen esku utzi izanak itxuraz autonomoa den mundu publikoa sortu du, gizakien mendekotasun beharraren aurrean itsu, askatasunaren premisa faltsua oinarri duela; gorputzik gabeko mundua, ezer asetzeko beharrik gabe; nekazekin diren pertsonen osatutako mundua, beti osasuntsuak, ez gazteegi ezta helduegi ere, zainketa lanetatik aske, laburtuz, “gizon ekonomikoa edo gizon arrazionala edo gizon politikoa” deritzana. Dena den, pertsonaia hori nahiz sistema ekonomiko ofizial hori emakumeen lan ez ordainduak euren oinarriko beharrak asebetetzen dituztelako daude hor —banakako beharrak, gizartekoak, fisikoak eta emozionalak—. Horrela bada, zainketaren ekonomia da gizakiaren bizitza sozialaren bilbearen euskarri, ekonomiako sektoreen arteko tentsioak doitzen ditu eta, ondorioz, ekonomia den eraikinaren oinarrian kokatzen da. Emakumeek “egokitze aldagai” gisa dihardute, etxeko pertsonen bizi-kalitatea emateko, eta euren pertzepzioa da ziurrenik pertsona horien bizi-kalitatearen neurri ona.

Gizonak emakumearen mendeko direla adierazteak ekonomia ekologikoa garatutako “aztarna ekologikoa” eta “defizit ekologikoa” bezalako kontzeptuak sortzera bultzatu gaitu, “aztarna zibilizatzailea” eta “defizit zibilizatzailea” (6) deituko ditugunak.

“Aztarna zibilizatzailea”, aztarna ekologikoaren antzera defini dezakegu, horrela, bizi-maila jakin bat duen biztanleria bateko belaunaldiak jarraipena izan dezaten ezinbestean izan behar dituzten bizi-kalitatea, segurtasun emozionala eta oreka psikoafektiboa lortzeko behar diren denbora, maitasuna eta energiak dira. Biztanleriaren azpimultzo bakoitzerako, berriz, “defizit zibiliza-

(5) Anna Bosch, Cristina Carrasco, Elena Grau, “Verde que te quiero violeta” (laster argitaratzea). Atal hori jatorrikoaren oso antzekoa da.

(6) “Zibilizatzaile” terminoa emakume italiarretatik hartu dugu (Milango Emakumeen Liburu denda, 1996). Termino horrek emakumeen zeregina ongi islatzen duela iruditu zaigu —zerbait positiboa balitz bezala— emakumeak eraikitzen baititu gizadia edo zibilizazioa. Hasiera batean “aztarna patriarkal” deitza otu zitzaigun, baina terminoa gure ideiarekin bat ez zetorrela ikusi genuen: patriarkal konnotazio negatiboa duen terminoa da, gizonen boterea islatzen du, horregatik, terminoa bera kontraesankorra litzateke “aztarna” hori ez balego. Hala ere, Ca la Dona-ko lagun batzuekin izandako eztabaidan, Encarna Sanahujak adierazi zigun moduan, “zibilizatzaile” terminoa oso kutsatua dagoen terminoa ere bada, izan ere, “zibilizazioa” hasi zenean, teoriarik “basakeria” ordezkatu zuen prozesua, orduantxe hasi ziren konkista eta basakeri handiak. Bat gatoz Sanak egindako aipamenarekin eta adierazi nahi diogunari gehiago egokitzen zaion terminoaren bila gabiltza. Edonola ere, hausnarketa horrek erakutsi zigun emakumeen esperientzia izendatzeko zein hitz gutxi dagoen.

tzaila” aztarna zibilizatzailearen, hots, taldeak behar dituen denbora eta energiaren, eta taldeak ematen duen denbora eta energiaren arteko aldea da. Ezinezkoa litzateke biztanleriaren talde guztiek defizit zibilizatzaileak izatea: nork zainduko luke giza bizitza? Ekologian bezala, biztanleriaren talde jakin batzuek defizita ageri baldin badute, besteen kontura sortutako defizita izango da. Horrela bada, defizit zibilizatzaileak, giza eta gizarte-iraunkortasunari dagokionez, giza taldeen artean dagoen ezberdintasuna erakusten digu.

Aztarna zibilizatzailearen kontzeptua argiago ikus daiteke banaka aplikatzen baldin badugu, hau da, per capita aztarna adierazten baldin badugu, hots, gizaki batek bizitza osoan zehar behar dituen denbora, maitasuna eta energia. Horrela bada, per capita defizita per capita aztarnaren eta gizaki horrek biztanleriari bizitzan zehar egiten dion ekarpenaren arteko aldea litzateke.

Egungo gizon eta emakumeen arteko harremanean, bizi diren erkidegoko eremu geografiko eta kulturala edozein dela ere, gizonak, ematen dutena baino maitasun eta zainketa energia gehiago kontsumitzen dute euren bizitza modua mantentzeko. Gizonak euren bizitza modua mantentzeko behar duten energia hori emakumeengandik dator, ordea, emakumeek ez dute maitasun eta zainketa energiarik jasotzen ordainetan, edo ez proportzio berean behintzat. Baina, horretaz gain, adina edo osasun egoeraren arabera igotzen den mendekotasuna kontuan hartuta, aztarna zibilizatzailea are urrunago doa: aztarna hori emakumeek gizonak zaintzen dituztelako nabari da baina baita gizonezkoek (mundu parekatu batean) zaindu beharko lituzketen gainerako mendeko pertsonak zaintzen dituztelako ere.

Horrela bada, iraunkortasunaz hitz egin ahal izateko —iraunkortasuna guztion bizi-kalitate gisa definitu dugun moduan—, gutako bakoitzak euskarri diren sareen harremanetik jaso nahiz bertara egin beharko lituzke ekarpenak, bizitza zikloaren une bakoitzean ezberdinak izango litzatekeen maitasun eta zainketa fluxu horretatik eta horretara, hain zuzen ere. Gure bizimoduan aurkitzen dugun “defizit zibilizatzailea” gizonak emakumeenganako duten mendekotasun ezberdinaren isla litzateke. Bi kontzeptuak —aztarna eta defizit zibilizatzaileak— batera zenbatzeko zailak direla ohartzen gara, esan dugun bezala, zainketaren oinarri diren harremanak ez baitira zenbakarriak. Dena den, lan horiei eskainitako denbora kalkula genezake, baita kalitateari dagozkion bestelako alderdiak ere, baina ez gaude kantitate adierazle baten bila. “Aztarna eta defizit ekologikoarekin” paralelismo hori egiten baldin badugu, funtsean termino horiekin dagoen antzekotasun sinbolikoagatik da.

Edonola ere, aztarna eta defizit zibilizatzaileak emakumeek gizarte-aberastasunari egiten dioten ekarpen garrantzitsuaren isla dira berriz ere.

3.

Gizarte-aberastasunari egindako ekarpena eta eskubide ekonomikoaren estrukturazioa

Emakumeek gizarte-aberastasunari egindako ekarpenari buruzko ibilbide labur horretan ezinbestean egin beharreko hausnarketa batera iritsi gara: emakumeek egindako ekarpenen zati handi bat ikusezina da oraindik orain edota gizarteak ez du onartzen, eta hori sistema patriarkala mantentzearen ondorio baino ez da, sistema horrek feminismoak egiten dion kritika baztertzen baitu, alegia, gizarte duala dela, eta publikoa dena pribatua/etxekoa denaren aldean balioesten jarraitzen du.

Publiko/pribatu dikotomiak berezkoa duen anbiguotasunak ezaugarri espezifikoak hartzen ditu ekonomiaren eremuan. Sektore publikoaz edo pribatuaz hitz egiten da erakunde publikoek (jabetza publikokoak) edo jabetza pribatuko enpresez ari garenean. Baina etxeko kanpoko dena ere publikoa dela esan daiteke, eremu horretan sektore publikoa nahiz merkatuaren eremua sartzen baitira; horrela bada, pribatuak etxe barnean burutzen den jarduerari egiten dio erreferentzia. Lehenengo kasuan, hots, jabetzari dagokionez egiten den bereizketak, muga argiagoak ezartzen ditu. Bigarren kasuak, ordea, zerikusi handiagoa du gizarte-harremanekin eta, beraz, askoz anbiguoagoa da.

Etetik kanpoko espazioan jabetzari dagokionez, publikoa denaren eta pribatua denaren arteko mugak ezartzen direnean, banaketa gizonen munduan burutzen da, gizonen espazioan. Ordea, publikoa etetik kanpoko denean eta pribatuak etxeei (etxekoa denari) erreferentzia egiten dituztenean, gizonen eta emakumeen arteko banaketa gertatzen da, lan ez ordainduaren eta ordainduaren artean. Horrenbestez, tradizio patriarkalari jarraiki, aurrez ikusi dugun moduan ekonomian pentsamendu klasiko eta neoklasikoak sustatua, batez ere emakumeek burutzen duten lan ez ordaindu hori ikusezina izango da kategoria ekonomiko gisa.

Ondorioz, gizarte patriarkal kapitalista batean eskubide ekonomikoak ez dira herritarren eskubideak, soilik merkatuaren eremu publikoan burututako jarduerari dagozkien eskubideak baitira herritarren eskubideak. Gainerako jarduerak ez dute eskubiderik sortzen eta ez dira eskubide gisa ikusten.

Jarduera ez ordainduak ez dituzte eskubideak sortzen, eta bi zentzutatik ikus daiteke hori. Lehenik eta behin, eskubide sozial ekonomiko guztiak lan merkatuaren bitartez ematen dira, funtsean diru transferentziak dira: pentsioak, erretiroak, langabeziagatik egiten diren transferentziak etab. Horiek guztiek aurrez lan merkatuan baldintza jakin batzuetan parte hartu izana eskatzen dute. Lan ez ordainduak ez du eskubide mota horietarako bide ematen. Bigarrenik, jardueran bertan parte hartzeko moduagatik. Emakume izate hutsagatik eta zainketa lanen arduradun izateagatik (hertsiki lotuta dauden baldintzak) emakumeen partaidetza lan-merkatuan prekarioagoa, ez hain

ziurra, gutxiago ordaindua, etab. da gizonezkoenarekin alderatzen badugu. Emakumeek ez dute lan merkatuan gizonen baldintza beretan parte hartzeko eskubiderik.

Baina jarduera ordainduak ere, batez ere zainketa lanak, ez dira eskubidetzat jotzen. Pertsonak ez dute zainduak izateko eskubiderik. Oro har, esan beharko genuke gizonen eskubide hori dutela emakumeek gizarteetan lan hori burutzeko ardura dutelako. Baina, nork zaintzen ditu emakumeak?

Horregatik da funtsezkoa etxeko familia lanari bere balioa onartzea, bizi-baldintzak antolatzeko ezinbesteko jarduera delako, zerbitzu publikoekin eta merkatuko ondasunekin eragiten baitu bizi-tza gizatasun baldintzetan garatu dadin. Horrela bada, aipatu jarduerari gizarte-prozesuetan toki nagusi bat eman beharko litzaioke. Lehenetsunean dagokienez, aldaketa sakon bat egin beharko litzateke, balioak aldatu, helburua ahalik eta etekin gehien ateratzea izan beharrean pertsonen bizi-baldintzak izateko. Gizakiak zaintzea emakumeen ardura bakarrik ez dela onartu behar da, lehen mailako gizarte eta politika gaia dela eta gizarte osoaren konpromisoa eskatzen duela.

ANTONELLA PICCHIO

**Ekonomi Politiko Saila.
Modena eta Reggio Emiliako
Unibertsitatea. Italia**

Bizi-

-baldintzak,

lan

ordainduaren

baldintzak,

segurtasun

eraren

baldintzak:

ikuspegi

feminista

Sistema ekonomikoaren ikuspuntu feminista

Gaur ekonomiaren zientzian erroturik dagoen zailtasun bat aztertu nahi dut, sistema ekonomikoaren barnean hezur eta haragizko izaki moduan, denbora eta espazioak baldintzatutako testuinguruan, bizi diren gizon eta emakumeen bizi-baldintzen arazoa jorratzeko gaitasunarena, hain zuzen ere. Bizitzearen esperientzian, denboran kokatzen den prozesua den neurrian, gorputza ezinbestekoa da, bizitzaren iraunkortasun baldintzak definitzen baititu, ezagutzeko pasio eta desioen egoitza da, baita gainerakoekin dugun harremanaren gakoa ere.

Ikerketa honetan lan egiteko nire modua, zeharkakoa eta ez sistematikoa bada ere, pentsamendu ekonomikoaren historia igarotzean datza, gizakiaren bizitzaren eta bizitza horretako tentsioen konplexutasunari buruzko kontzientzia berreskuratuz. Nire ikuspuntua nire gorputzaren eta harremanetarako esperientziak zehazten dute gogorki, eguneroko zailtasun eta xarmak, bai eta zailtasun eta xarma horiek bere ekimen politikoaren oinarri hartu dituen mugimendu feministak ere.

Azterketa ekonomikoan gorputzak ezabatu ohi dira edo, gutxienez, euren konplexutasuna nabarmenki murrizten da eta ekoizpen modu gisa eta/edo abstrakzioen gardentasuna eta lan-merkatuaren arintasuna "zikintzen" duen enbarazu gisako trataera jasotzen dute. Oro har, gorputzak izorramendu teoriko bat dira, teoriak ez baitute lortzen horien konplexutasuna jorratzea eta sistemaren egiturazko loturak eta dinamika markatzen dituzten oinarriko alderdien artean kokatzea. Ez dute ikusten, hain zuzen ere, ekoizpen bide den gorputzaren eta beste gorputzaren, giza existentzia sentiberaren muin den eta, horregatik, giza harremanen sare batean sartu behar izan den gorputzaren arteko tirabira.

Gizon eta emakumeen bizitzaren prozesu eraginkorra nabarmentzeko gai den sistema ekonomiko baten ikuspegia eraikitzeko, gizon eta emakumeen ugalketa fisiko eta soziala errealitatearen bestelako alderdiekin jarri behar da harremanetan, esaterako, ondasunen ekoizpenarekin (bizitzeko beharrezkoak, erabilgarriak eta komenigarriak) eta baliabideen, lanen eta arduren banaketa-arauekin. Gainera, bizi-baldintzak bezalako errealitate konplexu bat ulertzeko, mundu ikuspegiak kanporatu behar dira, kontzeptuak zehaztu, gertaerak deskribatu eta balizko loturen eta ausazko harremanen inguruko uste onargarriak egin behar dira. Horrek dimentsio kuantitatibo batzuk ere argitara ateratzea eskatzen du, neurri, adierazle eta indize egokiak hartzea.

Hala bada, bizitzaren konplexutasuna ulertzeko hainbat maila analitiko izan behar dira kontuan: 1) ikuspegia, 2) azterketa, 3) neurria. Ikuspegiak giza bizitzari, prozesu indibidual eta soziala den neurrian, egokitu zaion perspektiba eta zentzua zehazteko balio du; azterketak, ikuspuntu horren arabera, ausazko lotura posibleren bat zehazteko balio du eta, azkenik, neurriak dimentsio kuantitatibo batzuk nabarmentzeko eta horiei dagozkien proportzioen ideia bat izateko balio du. Maila horiek guztiak beharrezkoak dira biztanleria osoaren bizi-baldintzak hobetu eta mantenduko dituzten politika ekonomiko eta sozialak osatzeko.

Ikuspegiak giza generoari buruzko hausnarketa filosofiko bat zehazten du; giza generoa gizabakoek osatzen duten neurrian, gizonezko eta emakumezkoak, komunitatean bizi direnak, harre-

man elkarreragileak dituztenak eta historia eta oroitzapena dutenak. Beraz, ez da kasualitatea ekonomiaren zientzia sortzean (oinarriak zehaztu eta helburua definitzeko unean) ikuspegi eta metodo analitikoak filosofian errotzea eta, batez ere, filosofia moralean. Beranduago, erro hori ezabatu egin zen baina, oraindik orain, ezinbestekoa da herritarren bizi-baldintzen arazoa jorrazteko eta politika publikoak eraikitzeko. Izan ere, bizi-baldintzak giza baldintzaren (1) konplexutasunaren isla dira.

Azterketari dagokionez, gogoratu beharra dago denbora joan ahala, sistema ekonomikoaren azterketa lehenik ekoizpenaren eta bitartekoen banaketaren azterketara murriztu zela eta, ondoren, merkatuen azterketara; gaur egun gizartearen funtzionamenduaren eredu gisa hartzen dira biak. Denborarekin, ekoizpenaren eta ondasunak trukatzearen helburu eta zentzuari buruzko hausnarketak galdu egin da. Batez ere, langile biztanleriak lan ordainduaren merkatuko mugen barnean bizi dituen baldintzen azterketa joan da ixten, hain zuzen ere, lanaren eta biztanleriaren (2) bizi-raupenaren arteko harreman mota berezi eta historikoa den hori. Eskola guztietako ekonomiariek funtsezko ekoizpen bitartekotzat hartu dituzte langileak; hori ekonomia, zientzia autonomo gisa, XVIII. mendean jaio zelako da, eta arreta analitikoa ekonomia sistema kapitalistan oinarritu zelako.

Baina pentsamendu ekonomikoaren historiak azterketarako aukera zabal bat eskaintzen du, behin eta berriz errepikatzen diren oinarriko arazoak argitara atera eta berrikusi beharreko hainbat metodologia erabiltzen dituztenak, honela bizi-baldintzen gai konplexua jorrazteko oraindik ere erabilgarri diren ezagutza eta tresnak bilatzeko.

Esate baterako, ekonomilari klasikoek (3) soldata giza ugalketaren kostu arrunt moduan definitzen zuten eta langile "arraza" lanerako eta ugaltzeko baldintzetan egon ahal izateko beharrezko ondasunak (janaria, arropa, etxebizitza, etab.), berriz, ekoizpenerako beharrezkoak diren kontsumo gisa tratatzen zituzten, hots, kapital gisa, ekoizpen kostuen eta zaldi eta makinak mantentzearen arteko analogia eginez. Ondasun horien kalitatea eta kantitatea denboran eta espazioan zehaztutako gizarte-testuingurua oinarri hartuta zehaztu ohi zen. Metodo analitiko klasikoa garai zehatz historiko (4) bateko ekoizpen eta ugaltze prozesu errealean oinarritzen zen kostu fisikoen metodo gisa defini liteke. Ekonomia klasikoak etekina ekoizpen fisiko baten prozesu batetik sortzen den

(1) Giza baldintzari buruz pentsatzeko zailtasun tragikoari buruz eta zailtasun horri ihes egiteko tentazio zientifikoei eta zientzia-fikziozko tentazioei buruz gehiago jakiteko, ikus Arendt, 1964, 1-6 or.

(2) Langile biztanleria terminoa darabilkidanean adin ezberdinetako gizon eta emakumez osatutako biztanleriaren zati batetaz ari naiz, lan-merkatuan aktibo eta ez aktiboak direnak eta biziraupenerako zuzenean edo zeharka soldata baten mendeko direnak. Biztanleriaren gehiengoak osatzen du.

(3) Hemen, ekonomilari klasikotzat batez ere superabit ekonomikoaren teoriagileak hartzen dira (Quesnay, Smith, Ricardo, Marx). Egia esan, interesgarria litzateke Petty merkantilistatik abiatzea; horrek ondasunen balioaren adierazle gisa helduen lanerako gaitasuna eta langile biztanleriaren arraza ugaltzeko beharrezkoa zen janaria erabiltzen zituen.

(4) Teoria klasikoaren alderdi hauetan sakontzeko, ikus Picchio 1992, 2004.

hondakin gisa definitzen du; horren arazo teorikoa ekoizpen prozesu fisikoen arteko proportzioak mantenduko dituzten prezio erlatiboak zehaztean datza, erakundeen indar-harremanek araututako klase-banaketa batean. Superabit ekonomikoaren teoria klasikoan merezimendua da nabarmen erakusten dutela langile biztanleriaren bizi-baldintzen eta etekinak osatzeko eta biltzeko prozesuen arteko harreman kapitalista eta gatazkatsua.

Egun oraindik nagusi den ekonomia neoklasikora pasatzearekin batera, ikuspegia, sistema ekonomikoaren azterketa eta balioaren kontzeptua guztiz aldatuko dira. Ekoizpenaren prozesu errealek batetik eta banaketa indar-harreman multzo baten moduan ikustetik, trukea helburu duen eta hipotesi abstraktuen oinarrietatik eratorritako ikuspegi batera pasa gara. Hipotesi horietan banakako eragileek baliagarritasun marjinala ahalik gehien zabaltzen dutela suposatzen da, nahikoa kontzeptu hauskorra, oinarri axiomatikoari jarraiki eztabaidagarria ez dena eta gorputzekin loturarik ez duena, beraz, ezta espazioarekin ez eta denbora historikoarekin ere. Teoriaren oinarrietan erabilgarritasunak ez du, definizioz, bizitza mantentzeko balio eta ez da gizarte sareen ez eta ohiko arau kondarren arabera: erabilgarritasuna gehitzeko balio du, merkatal trukean banakako interesen dimentsio bakarra oinarri hartuta definitutako erabilgarritasuna gehitzeko, hain zuzen ere. Eskema analitiko horretan, bizitzaren konplexutasuna, hezur eta haragizko pertsonen prozesu errealek den neurrian, teoria orokorraren (5) muga marjinal gisa bakarrik har daiteke. Gizarte antolakundea salgaiak antolatzeko merkatu kapitalista batera murrizte hori, murriztailea izateaz gain, faltsutua ere izan da, izan ere, bizitzaren iraunkortasunerako beharrezkoa den guztia ez da merkatutik pasatzen, eta merkatutik pasatzen den oro ez da iraunkorra bizi-baldintzen ikuspuntutik. Egia esan, azterketa ekonomiko nagusiak egiturazko ahuleziak, tentsioak, gatazka eta kontraesanak ezkutatzen ditu, horrela, horiek guztiak ez dira analitikoki tratatzen eta politika ekonomikoetan zeharka bakarrik sartzen dira, benetan larria den eragin bati irtenbidea eman behar zaionean. Esate baterako, bizi-baldintzen konplexutasuna noizik behin sortzen da gizarteko benetako prozesu gisa, txirotasunaren aurkako analisi eta politiketan, gainerako biztanleriarentzat irtenbidea merkatu-funtzionamenduaren eskutik baletor bezala, prezio eta kantitateak modu ez pertsonalean ezartzetik.

(5) Bizi-baldintzak teoria ekonomiko neoklasikotik ezabatzeari buruz, ikus Robins, 1932, 3-27 or.

2.

Ikuspegi feminista

Bizi-baldintzen gaia guztiz feminista den gaia da, emakumeak azken bermatzailearen papera betetzeko eremua definitzen baitu. Batetik, historian zehar euren ardura izan da bizitzak modu eraginkorrean egokitzea errentetara, lan baldintzetara eta gizarteko segurtasun ezari eta, bestetik, gizarteko arauen erabakiguneetatik kanpo uzten zaie, baita ekoizpen eta banatze prozesuetako gobernuetatik kanpo ere. Emakumeek, beraz, interes politiko eta teoriko handia dute bizi-baldintzak behar bezala aztertu, eta konplexutasunari eta sakoneko tentsioei buruz hausnartzeko. Halaber, bizitza iraunkortasunari dagozkien zereginen banaketa garbi bat egiteko interesa dute (ordainduak, etxeokak eta zaintzekoak), bai eta banakako arduren nahiz gizarte ardurena ere.

Bizitzaren konplexutasuna, denboran kokatutako prozesu den neurrian, batetik eta, batez ere, espazio multidimentsionalean gorputza, burua eta gizarte-harreman gisa definitzen diren banakako gaitasun anitzen ondorio da; bigarrenik, norbanakoek, nola gizon hala emakumeek, gizarte antolaketaekin duten elkarreragin aktiboaren ondorio; azkenik, jarrera-arauak barneratzen laguntzen duten ohiturazko jarrera arruntak finkatzen denborak duen garrantziaren ondorio. Konplexutasunaren alderdi horiek begi-bistako gizarte-sistema deritzoguna definitzen dute, eta gizarte-sistema horren gain osatzen dira ekoizpen eta elkartrukatze prozesuak, denboran eta espazioan zehaztutakoak. Sistema hori zehatz-mehatz definitzeko, ezinbestekoa da gorputzaren eza-gutza, bizitzako pasioak eta emakumeen zainketa-esperientzia osatzen duten harremanak erabiltzea. Transzendentzia nagusienak nahiz euren tentsioak jasotzeko, emakumeak partaide diren gatazkak biltzea ere garrantzitsua da. Lehenik eta behin, gizon eta emakumeen arteko gatazka bat da, buruaski ez diren biztanleekiko dituzten zereginen, baliabideen eta ardura komunaren banaketari buruzkoa. Gene-gatazka hori emakumeak berak buruz buru jartzen dituen belaunaldien arteko gatazka ere bihurtzen da askotan. Familia-gatazka oso berezia da, orokorrean maitasun harremanen testuinguru batean jorratzen baita, baina irrika oso sendoek ere eragiten diote, etxeok elkarbizitzan ezkututzen eta kanporatzen diren mailen eta interes-taldeen arteko bestelako gatazketatik banandu ezin daitezkeenak. Gatazka horiek eragin suntsigarria dute askotan gizon eta emakumeen arteko harreman estuetan, belaunaldien artekoetan... (6)

(6) *Familia nukleoetan bada beste gatazka bat ere, tradizioaren eta berehala bihurtzen diren gizarte testuinguruetan bizitzeko egokitutako kultur eta nortasun ereduen etengabeko bilaketaren artekoa, alegia, subjektu nomadex betetako mundu batean eta masen komunikabideen eraginpean.*

*Emakumeak berez dira subjektu nomadak, euren nortasuna korrontearen kontra eraikitzen baitute, *** botere batek ezarritako paperen kontra.*

2004ko *Human Development Report* txostenak, PDNUk kaleratua, kultura aukeratzeko banakako oinarrizko askatasuna du helburu, horretarako gizarte nahiz adierazpen jarrera-kodeak egokituz, banakako bizitzatik abiatuta, ez esperientzia bakartutik, baizik eta espezifikotik, gizon eta emakumeak bizitzen dituzten egoera eta estimuluen ugaritasuna kontuan edukitzeko gai direnak.

Gatazka horiek negoziatzeko gaitasunean, ez gatazkek ukatzeko, baizik eta sentimenezko esparruan eta esparru materialean jasangaitz izatera iristen diren irtenbide suntsikorrek konpontzea ekiditeko asmoz, *polis* eta *oikosen* arteko harremanaren etorkizuneko planteamenduak hartzen dira kontuan, hau da, eremu publikoaren eta eremu pribatuaren artekoa. Garapen iraunkor eta aurreratukoak bilatzeko, emakumeentzako indartsua den erakunde publiko bat behar da eta ez emakumeak berak sakrifizioarako prest dauden egoera. Horretarako, emakumeek autonomia handia izatea ere behar da, eguneroko praktikan planteamendu berriak bilatzeko, gatazka ez hain suntsitzaileak dakartzatenak. Hori guztia ahuleziak eta sakoneko tentsioak ez gordetzeko prest baldin bagaude bakarrik egin ahal izango dugu. *Polis* eta *oikosen* arteko harreman berrian, hots, ondasun eta zerbitzuak ekoizteko prozesuaren eta biztanleria ugaltzeko prozesuaren artean kokatzen da aukera berdintasuneko politikak gaintzeko aukera. Politika horien ezintasuna eta eraginkortasun eza gauza nabaria da, izan ere, asmo onetaz haratago eta genero arteko ezberdintasuna bazterteaz haratago, ez dituzte ezberdintasun horiek euskarri dituzten botereen egiturak zalantzan jartzen.

Bizitzarako beharrezko, erabilgarri eta komenigarri diren baliabide, ondasun eta zerbitzuak ekoiztu eta banatzea ezinbesteko elementua da gizarte sistema guztien iraunkortasunerako; baina ekoizpen eta banaketa horiek subjektu eta erakundearen arteko elkar mendekotasun sare batean barneratzen dira, ondasun eta zerbitzuen elkartrukea eta biztanleriaren ugalketa (7) mantentzen duen sarean, hain zuzen ere. Dena den, kontua ez da soilik onartzea pertsonen bizitzan badirela merkatu elkartrukera murrizten ez diren garrantzizko alderdiak, baizik eta, giza garapenaren ikuspegia oinarri hartu eta ulertu behar da giza dimentsioen zabalera eta subjektuen arteko elkarreraginen indarra direla sistema ekonomikoaren gako dinamikoa, eta ez alderantziz (8).

Emakumeak ikuspegi analitikoa definitzen duen begirada gisa hartzen baldin baditugu eta euren bizi-baldintzak azterketa ekonomikoaren abiapuntu gisa hartzen baldin baditugu, oinarritzko alderdi berriak atera daitezke argitara, oro har ezkutaturik egon direnak.

Inoiz ikusi ez diren eta, bestalde, gaizki ikusiak izan diren beste lanak ere deskubritu daitezke baina, batez ere, salgaien ekoizpenaren eta biztanleen ugaltzearen arteko tentsio batzuk ezagutu daitezke. Esate baterako, emakumeen bizitza-esperientziatik abiatu eta familian lan-karga handia egin dutela dakusagu, pertsonak zaindu eta espazio eta ondasun fisikoak mantentzeko, eta lan-karga hori ordaindutako lanean kontabilizatzen dena baino handiagoa dela (inoren kontura eta nork bere kontura lan egiten denean baino handiagoa). Lan-karga izugarri hori modu sistematiko-

(7) Hala da, 1990ean PDNUK (Nazio Batuen Garapenerako Programak) kaleratutako Giza Garapenari buruzko Txostenetan islatzen den moduan, alde handia egon daiteke BPGaren (Barne Produktu Gordinaren) eta giza garapenaren indizeen artean.

(8) Dagoeneko oso zabala da "wellbeing" delakoari buruzko literatura, "wellbeing" egin eta izateko banakako gaitasunen zerrenda batek definitzen duen dimentsio anitzetako espazio gisa ulertua. Ikuspegi berri horren aitzindari diren, Amartya Sen eta Martha Nussbaum-en ekarpen batzuen berri izateko, ikus (1985, 1987) Nussbaum (2002, 2003).

an alde batera uzten da azterketa makroekonomiko tradizionalan, azken batean, azterketa horrek, biztanleen ugaltze prozesu osoa salgaien oinarritzko prozesu-saretik ezabatzen du (ekoizpena, banaketa eta elkartrukatze saretik). (9)

3.

Ikuspegi eta azterketa ekonomikoa

Emakumeen bizitza-esperientzia dela eta, eta gizarte-ekintza eta negoziaketetarako ikuspegia emakume eta gizonen eguneroko bizitzan errotuta dituen mugimendu feminista berreskuratzea dela eta, azterketaren ikuspegia aldatu egiten da. Errealitatearen maila, oro har, sistema ekonomikoaren ikuspegietan soilik iraganeko alderdi gisa kontuan hartzen baldin bazen, aldaketa horrek gorputzaren pasioak eta harreman estuak partaide dituen esparru pribatu gisa hartzen du. Maila horretan, eguneroko bizitza ulertzeko moduak kognizioaren oinarri garrantzitsu dira, “eguneroko bizitza” gorputzen ugalketa eta harreman pertsonalak nahiz etxeko ingurunea zaintzea eskatzen duen prozesu gisa ulertuta, baina, oinarri hori sistema ekonomikoaren ikuspegi eta azterketatik at gelditzen da, izan ere, salgai eta zerbitzuen eremu publikoaren esperientzia eta ezagutzak (merkatua eta Estatua) etxeko esparruan garatzen den ugaltze esparruan barneratu ahal izateko behar diren loturak falta dira. Bi esparruen arteko harremana ulertzeko zailtasuna salgaiak ekoiztearen eta biztanleak ugaltzearen artean dagoen hizkuntza, denbora eta motibazio aldearen ondorioa da. Etxeko eremuan hizkuntzek beharrak, nahiak eta sentimenak adierazi behar dituzte eta jarduerak zuzenean daude segurtasunari eta bizitza-kalitatea hobetzeari zuzenduta; merkatuaren eremu publikoan, hizkuntzak jabetza pribatuko interesen hierarkiaren adierazle dira eta etekinaren motibazioak, berriz, ekoizpen jarduera kapitalistak zuzentzen dituzten irizpideak dira. Banaketa horretan, Estatua merkaturako salgaiak ekoiztearen eta biztanleak ugaltzeko baldintzen artean gerta litezkeen gatazken arteko bitartekari bihurtzen da. Teoria ekonomikoek ez dituzte salgaiak ekoiztearen eta biztanleak ugaltzearen arteko kausazko loturak eta harremana zuzeneko helburu, eta oraindik ere biztanleak ugaltzeko prozesuaren inguruan kontzientzia analitiko bat izatea falta da, bai eta prozesu horren eta lan ordaindua oinarri duen sistema kapitalista batean salgaiak ekoiztearen arteko harremanean dauden tentsio sakonenei buruzko kontzientzia ere. Beraz, hizkuntza analitiko egokiak falta dira, bizi-baldintzak prozesu zehatz gisa adierazteko. Prozesu horrek analogikoki ere, salgaien ekoizpenaren barne dauden prozesuetara murriztu ezin daitezkeen jarduerak, harremanak eta gatazka zehatzak dakartza; dena den, horiek guztiak salgaien

(9) Lan hori sistema ekonomikoaren ikuspegian sartzeko saiakera bat Picchio-ren lanean dago (2001, 2003).

ekoizpenari lotuta daude harreman dinamiko eta tentsiodun baten bitartez, eta harreman hori nabarmendu egin behar da gizarte-sistemaren errealitatearen ikuspegi argi bat izateko. Ugaltze prozesua sistemaren ikuspegi orokorrean modu agerian barneratzen ez baldin bada, emakumeak partaide diren bizitzako esperientziak eta gatazkek ere ikuspena galtzen dute, eta ez dira errealitatea bihurtzeko ezinbesteko diren beste esperientzia kognitibo eta politikoekin harremanetan jartzen.

Emakumeek ekonomiaren mundurako duten begiradak fenomenoaren dimentsio eta proportzioak agerian uzteko hain erabilgarri diren datu kuantitatiboaren bilaketa empirikoa ere aldatzen du. Horrela bada, familiarentzat etxeko lan moduan egindako lan ez ordainduaren datu estatistikoak, ondasunen bihurtetarenak, pertsonen administrazioa eta zainketarenak, berrikuntza oso garrantzitsuak izan dira, horrela, arrazoiketarako egiterako orduan, lan osoa, ordaindua eta ez ordainduaren arabera egin daitezke eta soldatapeko lanaren eremu publikoa etxeko eta zainketaren eremu pribatuarekin erlaziona daiteke. Horrela, gizakiak jokatzeko dituen bi arrazoi nagusiak jartzen dira harremanetan: bizitzea eta ekoiztea. Harreman horietatik errealitatearen ezagutza zabala goa jasotzen da baina baita tentsio ea ahulezi sakonen kontzientzia ere, oso modernoak ere direnak, buruaski ez den biztanleriaren proportzio geroz eta handiagoan pentsatzea besterik ez dago.

Denboraren erabilerari buruzko ikerketek biztanleen ugalketara bideratutako lan-karga handia erakusten dute. Horrek herrialde industrializatuak ere eragiten diete eta horietan, gainera, planeta mailan gizon eta emakumeen arteko banaketaren ezberdintasuna izugarri handia da denborari eta ugaltze ardurei dagokienez (10). Sistema ekonomikoaren eremuan ordaindu gabeko lan-karga handia eta langile biztanleriaren ugaltze prozesua sartzeak sistema ekonomikoaren ikuspegi zabal bat eraikitzen ekarri gaitu. Zabaltze horrek egiturazko alderdiak sistemaren iraunkortasunaren oinarri gisa ikustea ekarri du eta ez emakumeak duen lanerako eta bizitzeko denbora berdintzearen arazo gisa. Etxeko eta zainketa lanak eta gizartea ugaltzeko prozesua barne hartzen dituen ikuspegi makroekonomiko batean ekonomia monetarioaren jarduerak nahiz ez monetarioarenak sartzen dira. Eremu zabal horretan familia, Estatuak eta enpresak gizarte aberastasunaren zirkuituan harremanetan jartzen dituen erakunde sarea ere ikus daiteke (Budlender 1996). Eremu zabalean erakundearen arteko tentsio ildoak eta horien barnekoa ere aurki daiteke, langile biztanleriaren bizi-baldintzen eta etekinak sortu eta pilatzearen arteko harreman kapitalistak agertzen duen egiturazko tentsio sakona islatzen dituztenak. Tentsio horiek ulertzeko eta ekoizpenaren eta ugalketaren arteko loturen ausazko eremua ulertzeko, gizarte ugalketa oinarritzko prozesu gisa hartuko duen sistema kapitalistaren eremu analitiko bat formulatu behar da (Picchio 2001).

(10) 1995eko *Giza Garapenari buruzko Txostenak* lan ez ordainduari buruzko nazioarteko estatistikak aurkeztu ditu eta ekarpen handia izan da lanari buruzko Pekingo Plataformarako. Prestakuntza-azterketa ikusteko: Goldschmidt-Clemont & Aligisakis (1996).

Ekoizpen eta ugaltze eremuak banatzen dituzten analisi tradizionalak, oro har, gizon eta emakumeen jarduera eta langabezi tasak ikusten dituzte. Estrabismo analitiko eta politiko mota oso markatu bat da eta merkatua, batez ere lan ordainduaren merkatua, azterketa gune eta gizarte dinamikaren esparru da. Bizi-baldintzak modu pasiboan egokitu behar dira eta emakumeek egokitza-pen prozesu hori eremu pribatuan sakrifizio mugagabeko izpirituarekin eta, eremu publikoan, baliabideen banaketa eta prestakuntza arauak negoziatzen diren horretan, ekimen politikorik gabe mantentzen lagundu behar dute.

Familia barnean burututako funtzioak asko dira, eta guztiak ezinbestekoak ekoizpen eta banaketa prozesuek funtziona dezaten. Lan-merkatuaren eta salgaien bitartez familia eta enpresak batzen dituen errentaren zirkuitua zabaltzen baldin bada (enpresek lana erosi eta salgaiak saltzen dituzte, familiek lan gaitasunak saltzen dituzte eta salgaiak erosten dituzte), gizarte ugalketaren lana ez ordainduzat hartu arte zabaldu ere, familian egindako lan horrek soldata igotzen duela ikusten da, eskuratutako salgaiak bihurtu eta bizitza maila igotzen baitu (arropa garbitzen du, janaria egiten du, etxea garbitzen du, etab.), bizitza maila ongizate bihurtzen du, eta familiakideak gizartearen testuinguruan egin, izan eta jarduteko gaitasun multzoak osatzen eta mantentzen laguntzen du. Janariak, hain zuzen ere, kantitatea, kalitatea eta prestatzeko modua, erabakigarriak dira osasun egoerarako eta bizitza osasungarri eta luzea izateko. Janaria harreman pertsonal eta sozialak izateko aukera gisa erabiltzen da eta harreman horiek eremu publikoan hain erabilgarri diren norberaren izaera, trebetasunak eta gaitasunak osatzeko balio dute. Azkenik, hautatzaile bihurtzen da, edo gutxienez merkatuari iragazten laguntzen dio, langile biztanleriaren eta lan merkatuan sartzen diren horien artean (gizon eta emakumeak, gazte eta zaharrak, prestatu eta ez prestatuak, trebeak eta ez trebeak). (Picchio 2001, 24-31 or.).

Etxeko eta zainketa lanek, egunero biztanleriaren zati ahulez gain, lan-merkatuaren zati sendoen lan energiak ere ugaltzen ditu (adibidez, gizon helduak, prestatuak, hiritarren eskubide guztiekin), horrela, ahitutakoa konpontzen dute eta tentsioak xurgatzen dituzte lanean berriz hasteko prest egon daitezen. Norberaren ardurak betetzeko ere balio dute, ez buruaskiak ez diren familiako ki-deenganako bakarrik, baizik eta baita norberarenganako ere, gorputzari, buruari eta harremani dagokionez. Banakako ardurak emakumeei egozteak gizon eta emakumeen arteko harremanen kalitatea markatzen du, ezkutuko lana da eta ez da azterketa ekonomikoetan agertzen. Nire ustez, hauxe da gizonen benetako errua eta horretatik eratortzen dira gainerako guztiak. Lana beste-teei ematen zaie, norberaren bizi-baldintzei buruzko negoziaketetan porrota ezkututzen da eta sendotzat hartzen den lan ordainduaren merkatuko arauak hain maila ez iraunkorretan ezartzen dira, ezen emakumeen lan-karga handia erabili behar dela; horrek guztiak ahulenak diren subjektu guztiak lan ordainduaren merkatuko normaltasuna ezin jasan izatera kondenatzen ditu. Gizonak hain dira euren gorputzen eta euren harremanen beldur, oldarkorrak izatera iristen direla, lan-merkatuan sortutako neke eta tentsioak jasateko behar duten euskarri gisa emakumea erabili ahal izateko pribilejioa defendatzeko. Izan ere, patriarka-boterearen eta kapitalismoaren botereen arteko lotura sortzen da, familian emakumeen aurka jarduten duena. Egiturazko baldintza horietan gizon eta emakumezkoen arteko aukera berdintasuna ilusio hutsa edo amarru erretoriko

bat da, emakumezkoak familian eta lan-merkatuan partaide diren gatazkak xurgatzeko, bizitza-eta lan-baldintzak zentzuzko harreman batera gidatzeko.

4.

Pisuak eta neurriak

Hartutako ikuspegiaren oinarriak bizi-baldintzak eta salgaiak ekoizteko prozesuaren eta biztanleak ugaltzeko prozesuaren arteko harremana nabarmentzen duen eremu analitikoa baldin badira, ikuspegi horrek jakin-min eta galdera berriak sortzen ditu, datu berriak bilatzera eta familia, Estatua eta enpresak bezalako erakunde-espazio ezberdinetako fenomenoaren arteko harremanak modu enpirikoan ikertzerantz bultzatzen dituztenak. Bizi-baldintzak aztertzeak ikerketa kualitatiboak maizago erabiltzea ere eskatzen du, jarrera eta gertakizunen arrazoiak, harremanak eta esanahiak hobeto ezagutzeko.

Azterketa enpirikoa bizi-baldintzen eta lan-baldintzen arteko jo mugan oinarritzen baldin bada, gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak nabarmen azaleratzen dira. Gainera, harreman horretan, gizartearen hainbat ahulezi-puntu aurki daitezke, ekonomia aurreratu eta aberatsen egituretan ere agertzen direnak. Esate baterako, laneko soldatak eta bizi-baldintzak harremanetan jarri eta ikus dezakegu soldata altuak eta berdin banatuak baldin badira ere, zailtasun larriko egoerak sor daitezkeela lan-karga osoari dagokionez (ordaindua eta ez ordaindua) edota soldatak modu onargarrian bizitzeko beharrezkotzat ezarritako gastuei egokitu behar izaten dela. Lan-merkatuaren azterketa, giza garapenaren aldetik eta ikuspegi feminista batek definituta, zabaldu egiten da ugaltzeko prozesuan egindako eta langile aktiboek xurgatutako lana barne hartzeko, eta lan-gaitasunak osatu eta ugaltzen dituzten gizarte-harremanak barne hartu arte ere zabaltzen da. Ikuspegi horretatik abiatuta, ikerketa enpirikoak datu-bilketa berriak eskatzen ditu, datu horiek lantzeko metodologia berritzaileak eta kategoria egokiak sartzeari, hala nola, denbora-osoaren kontzeptuak (ordaindua eta ez ordaindua), soldatak egokitzeko adierazleak, gizarte-harremanen sareak balioestea, etab.

Bizi-baldintzen eta soldata izateko baldintzen arteko harremanak modu enpirikoan ulertzeko, erabilgarri diren datuekin artisau lanak egin eta/edo galdera eta behar kognitibo berriak oinarri dituzten ikerketa berriak burutu behar dira, bizi-baldintzak zuzenean oinarritzko gizarte-prozesu gisa kontuan hartzen dituztenak, eta ez azken ondorio gisa eta bestelako ekonomia-magnitudeen aldaeren egokitzapen gisa (inbertsioak, errenta, lana, teknologiak, ondasun eta zerbitzuen merkatuak, etab.). Esate baterako, honako hauek hartu behar dira kontuan: 1) errenta mailak beharrezkotzat jotzen den bizitza-ereduarekin lotuta egon behar du modu sistematikoan, lan-merkatuan sartzeko eta bertan geratzeko baldintzetan egoteko; 2) errenta, garrantzizkoa bada ere, bizi-baldintzen dimensio bat besterik ez da; 3) merkatuko eta ugaltzeko lanera bideratutako jardueren denborak pilotatu egiten dira; 4) erakunde-planoak (familia, merkatua eta estatua) elkar gurutzatzen dira bana-kako eta gizartearen arduren sarea islatzen duten ildoen arabera. Bizi-baldintzen eta lan ordain-

duaren baldintzen arteko harreman horretan ere gizon eta emakumeen arteko ezberdintasun makroskopiko batzuk nabarmentzen dira, lan, errenta eta arduren banaketari dagokionez (11).

Ikuspegi zabal hori Modenako udalerrri eta probintzian bizi diren gizon eta emakumeen ongizate baldintzak aztertzeko erabili da, eta datuen iturri gisa *Modenako probintziako familien Baldintza Ekonomiko eta Sozialen Ikerketa* (ICESmo) erabili da. Azterketa hori alderantzizko ibilbide bat egiten saiatzen da, ohiko azterketak merkatutik lanera abiatzen baitira eta ugaltze lan, denbora, eta arduren arteko harremanean emakumeek familia-arazo zehatz bat identifikatzen dute, euren lan-eskaintzan zerbait zurruna bezala definitzen dena (12).

Datu horiek Modenako probintziako genero ezberdintasunetan gehiago sakontzeko balio digute. Ere hori Italiako aberatsenetako bat da eta esan daiteke errenta-banaketa bidezkoenatariko bat ere baduela. Lehenengo grafikoan ikus daitekeen bezala, Modenan, emakumezkoen jarduerata-sak Italiako beste tokietan baino altuagoak dira netoan eta Europako batez bestekoarekin dago parekatuta. Hala ere, lan ez ordaindua eta gizon eta emakumeen lan osoa ere aztertzen baldin badugu, probintzia eta hiria Italiako datuekin parekatuta daudela ikusten dugu, are gehiago, Modenako emakumeek Italiako beste eskualdeetako emakumeek baino lan gehiago egiten dute guztira.

ICESmo ikerketak familia barneko lanaren banaketa ere aztertzen du eta, horrela, Italiako Bankuak familia italiarren aurrekontuei buruz bildutako datuekin [IBFI 2000] erka daiteke. Arloen arteko erkaketa erabilgarriak ere egin daitezke, hala nola, Modenako udalerrria eta probintzia, probintziako eta Italiako beste udaletxeak (2. taula). Emaitzen arabera, "probintziako gainerako udalerrietako bizi diren gizon eta emakume okupatuaren lan osoaren ordu kopuruaren aldea Italian dagoenaren antzekoa da: emakumeek batez beste 9 ordu gehiago egiten dute lan astean ordaindu gabe, nola Italian hala probintziako gainerako udalerrietan okupatuaren artean, lan ez ordainduari dagokionez, batez beste 17 ordu gehiago egiten baita lan, eta lan ordainduari dagokionez batez beste 8 ordu gutxiago". (Addabbo eta Picchio 2004, 105 or.).

Ikerketak erakusten duenaren arabera, Modenako probintziako aberastasun gehiena emakumeek burutzen duten lan ordainduaren bolumen handienaren ondorio da. Izan ere, soldatak (gizonezko eta emakumezkoenak) Italiako beste tokietakoenen berberak dira. Baina errenta-banaketa generoaren arabera zatikatuta aztertzen baldin badugu, 4. taulan ezberdintasunak ikaragarriak direla ikusten dugu eta, batez ere, emakumeen errentekin ezin dela alokairua ordaindu, batez bestekoa lehenengo kuartilekoa baita, 5. taulan ikus daitekeen bezala, alokairua/errenta harremana %61ekoa duena. Normalean aipatutako harreman horrek %30 gaintzen duenean txirotasun

(11) Paragrafo honek eta hurrengo zatiak Addabbo eta Picchioren lanean jorrotutako gaiak lantzen dituzte (2004, 103-135 or.).

(12) Ikerketa 2002an burutu zuen CAPP elkarteak (Centro de Análisis de las Políticas Públicas del Departamento de Economía Política de la Universidad de los Estudios de Módena y Reggio Emilia) Modenako probintzian bizi ziren 1.235 familien laginari zuzendutako galdeketa egituratu baten bitartez. Lan osoak bizitza-kalitatearen ekoizpenean duen garrantziari buruz ikus Picchio [2003a] eta Italiako neurketaren berri izateko, ikus Addabbo [2003].

egoeratzat hartzen da alokairurako. Alokairu txirotasun hori dramatikoa da adineko emakumeen kasuan.

Etxebizitza egoki eta seguru bat lortzeko gaitasunen ikuspegia erabiliko bagenu, espazio multidimentsional gisa balioetsiko bagenu eta horri dagokionez dauden genero ezberdintasunak egiaztatuko bagenu, ikusiko genuke emakumeek, alokairua ordaindu ezin izanagatik, etxebizitza bat lortzeko arazo gehiago izateaz gain, emakumeentzat etxea ez dela gizonezkoentzat bezain seguru. Izan ere, etxean emakumeek euren aurkako istripuak eta indarkeria jasateko arriskua dute. Etxeko istripuei dagokienez, Italian urtero 8.000 hildako izatera iristen dira, eta horietatik %70 emakumezkoak dira. Indarkeriari dagokionez, kriminaltasunari buruzko estatistikek etxeko hilketen gehikuntza bat ageri dute eta biktimak, hein handi batean, emakumeak dira. Ikus daitezkeen bezalaxe, toki egoki eta seguru batean bizitzeko aukera txikiagoa dute emakumeek gizonezkoek baino, baina, behar bada, banakakoen ongizatearen espazioan balioetsi beharreko funtzioen zerrandan maila altuago bat bete beharko du, izen ere, etxeak askatasun eta segurtasunerako espazio baita, ezinbestekoa batez ere emakumeentzat, bestela, bizikidetzaren lan erantsi baten ordean eta euren gorputzaren eta denboraren kontrol handiagoaren ordean aldatu behar baitute.

Euren eskaintza lan-merkatuan aurkezten duten emakumezkoen tasa altuek ez dituzte gizon eta emakumeen bizi-baldintzen oinarritzko alderdi batzuk kontuan hartzen. Lan-merkatuko oinarritzko baldintza batzuk ere ez dituzte jasotzen. Beste behin ere, ekonomilari klasikoek ikuspegi eta azterketek, sistema kapitalistari buruzko argitasuna lagun, zerbait gehiago ikusten uzten digute. Batetik, bizi-baldintzen iraunkortasunerako behar diren ondasunak lortzeko segurtasun eza endemiko hori da, azterketan, lan ordaindua kontrolatzeko oinarritzko gakoak, eguneroko jarrera eta irriketan barneratutakoa. Bigarrenik, soldata langileak lan egiteko moduan jartzeko behar den prozesuarekin lotzearekin batera, ekonomilari klasikoek bizitzeko beharrezkotzat jo ohi diren ondasunen zerrenda darabilte (elikagaiak, arropa, etxebizitza, etab.) ekoizpenaren baldintza gisa, *ex ante* moduan adierazia, eta ez ondorio gisa, *ex post* moduan adierazia. Horrela, praktika antropologikoak eta generoa eta klasea nahasten diren botere harreman historikoak oinarri hartuta, erreza da emakumeek lan-merkatuan bizi duten desabantaila erlatiboa azaltzea, lan-merkatuan sartzen diren lotura kapitalista espezifikotik ezin banatzekoa, salgaiak ekoiztearen eta giza ugalketaren artean, hain zuzen ere (eskubideak eta askatasunak barne). Dena den, gizarte desabantaila gainditzeko ez dira nahikoak aukera berdintasunerako politikak, ez eta legezko ohore feminista batek eragindako norbere buruarenganako konfiantza sendoa. Giza garapenari dagokionez, beharrezkoak diren ondasunen zerrenda lan egiten duenaren gizatasunerako ezinbestekotzat jotzen diren giza gaitasunak zein diren adierazi ondoren lortzen da, eta ez soilik langileak lan-baldintzetan jartzen dituzten gaitasunak zein diren adierazita; ikuspuntu hori gizon eta emakumeen artean nagusi izan dadin, ezinbestekotzat jo behar diren giza gaitasunen zerrendari buruzko gizarte-negoziaketa ireki beharra dago, eta, oinak lur gainean jarrita, esan beharra dago zerrenda hori emakumeek gorputzari, buruari eta ahuleziei buruz dituzten eskumenen eta ezagutzen arabe-ra osatu beharra dagoela.

Emakumeen ahuleziaren zati handi bat eta gizonen oldarkortasunaren zati handi bat lan ordain-
duaren egiturazko baldintzekin daude lotuta eta, normalean, bizikidetza nukleoetan kanporatzen
dituzte lan-merkatuan jasotako tentsioak, izan ere, lan-merkatu horretan langileen bizitzak, defini-
zioz, murriztu beharreko kostua dira eta banakako gaitasunak, makurtu beharreko askatasun es-
pazioa, baldin eta salgaiak ekoizteko giza kapital gisa kontsumitu beharreko energiekin bat ez
badatoz. Pilaketa kapitalistaren prozesuan beharrezkoa den gizatasuna murriztearen zeregina la-
neko kontrolari, diziplinari eta agintea barneratzeari dagokio, baita bizi-baldintzei buruzko se-
gurtasun eza endemikoari ere. Horrela, biztanleriaren gehiengoaren giza bizitzaren betetasuna
merkatal produktibitate kontzeptura eta oso ezberdinak diren klase eta, generoen botere harrema-
nen bitartez ezarritako arauen arabera, biziki ezberdina den errenta banaketara murrizten da.
Bizi-baldintzak, denboran iraunkorra den prozesu baten egoera gisa ulertuta, ekonomiko eta poli-
tikoki negoziatu egiten ez baldin badira, benetako soldaten bitartez banatutako baliabide urrieta-
ra egokitzeko prozesua etxeko inguruneari egozten zaio, eta horrek ondorio suntsikorrak dakartza
genero eta belaunaldien arteko harremanetarako eta gizon eta emakumeen pertsona-zentzurako.

5.

Udal erakundeen politikak genero eta giza garapenaren ikuspegitik

Giza garapenaren ikuspuntuak ondorio oso garrantzitsuak ditu politika publikoen osaera eta ba-
lionespenerako, izan ere, ikuspegia aldatzen du, eta arreta analitikoa giza dimentsioen isla diren
gaitasun multzo baten arabera jarduten duten norbanakoen bizi-baldintza eraginkorretara alda-
tzen du. Zabaltze analitiko horren arabera, honako hauek muturreko aldaketa eragiten dute siste-
ma ekonomikoaren azterketan: 1) ikuspegia zuzenean gizon eta emakumeen bizi-baldintzetara al-
datzea, emakumeen sakontasunetik ikusita, 2) egiturazko prozesuak agerian uzten dituen azterke-
ta berreskuratzea. Egiturazko prozesu horietan gizarte-ugalketaren prozesua eta langile biztanle-
rian etekinen eta bizi-baldintzen arteko tentsioak daudela onartzea sartzen dira, 3) lan ez ordain-
duaren eta bizi-kalitateari buruzko datu enpirikoen erabilgarritasun berria, 4) Mendekotasun sare-
ak daudela adieraztea erakundeen (familia, Estatua eta enpresak) eta merkatuaren eta ez merka-
tuaren sektorearen artean. Alderdi horiek guztiak garrantzizkoak dira politika publikoentzat, esku
hartzeko eremua eta arduraren pribatu zein publikoaren eremua zehazten baitute, biztanleriaren bizi-
baldintzen iraunkortasun baldintzen arabera.

Horrela bada, aipatzekoa da Emilian burututako saiakera, aurrekontu publikoak giza garapenaren aldetik eta generoaren ikuspegitik egitea, alegia (13).

Esperientzia hori Emilia Romagna eskualdean burutu zen, Modenako Udalarekin eta probintziarekin 2003an eta Emilia Romagna eskualdean, Modenako probintziarekin 2004ean (14). Emilian egin ziren generoaren araberako aurrekontuen lehen esperientzia horietan giza garapenaren ikuspuntua balioespen eremua zehazteko metodologia gisa erabili da, dimentsio anitzetako banakakoen eta udal erakundeen egoeraren arteko loturak definitzen duen metodologia (15). Abiapuntua da onartzea erakunde publikoak bere gain hartzen dituela erakundeak berak administratzen duen lurra bizi den biztanleriarenganako dituen ardura argiak. Ardurak bere gain hartze hori Estatuarekin burututako negoziaketei buruzko tokiko historia eta historia nazionalaren ondorio da. Erakunde publikoen egiturak berak, kasu honetan Emiliako udal administrazio batzuenak, lurraldeko bizitza sozialaren alderdi garrantzitsuei eragiten dieten funtzio batzuk islatzen ditu departamentu eta altxortegietan, esate baterako, osasuna, garraioa, hezkuntza, prestakuntza, kultura, etab. Erantzukizun banaketari dagokionez, udal administrazioak bata bestearekin lotuta daude eta euren artean zehatz-mehatz aztertu beharreko hainbat erakunde-harreman dago (16). Halaber, nazio mailan Estatu administrazioarekin lotuta daude, baita Europar Batasunarekin ere; azken hori politika publikoak genero ikuspegi batetik barneratzea bultzatzen ari da.

Emiliako generoaren araberako aurrekontuetan erabilitako ikuspuntuan administrazio publikoko moneta-gastuen kontabilizazioa lurraldean bizi direnen hizkuntzara eta ongizate ikuspegira pasatzen da, eta ondoren agerian geratzen dira eraginak ezberdinak direla gizon eta emakumeen-

(13) Aurrekontu publikoei buruz ikus: Addabbo (2004), Budlender (1996), Elson (1998), Himmelweit (2002), UNIFEM (2000).

(14) Esperientzia Europako fondoak finantzaturako hiru proiektuen eremuan burutu zen. 2003ko proiektuak Emilia Romagna eskualdea, Modenako Udala eta Modenako probintzia hartzen ditu eta www.capp.unimore.it helbide elektronikoa aurki daiteke, amaizutako ikerketen atalean. Modenako eskualde eta probintziarako burutzen ari diren bi proiektuak bukatzeke daude oraindik.

(15) Italian badira generoaren araberako beste esperientzia batzuk Sestri Levanteko Udalean eta Genova eta Sienako probintzietan.

Esperientzia horietarako metodologia tradizionala erabili da, gastuak eta, modu mugatuago batean, sarrera publikoak sailkatzeko nazioarteko esperientzia oinarri, horrela, adierazle egokiak erabiliz, generoaren gaineko eragina nabarmentzeko.

Aurrekontu publikoak generoaren ikuspegitik aztertzekeo ideia Rhonda Sharp-ek izan zuen, Australiako Adelaida Unibertsitateko *Research Center for Gender Studies* zentroko kide den ekonomilari feministak. Ideia Diane Elson ekonomilariak gidatzen duen Commonwealth Secretariat taldeak jaso zuen. Diane Elsonek denbora asko daroma makroekonomia-erantzako genero ikuspegi bat lantzen (Budlender, 2000, Elson & Cagatay, 2000).

(16) Udal administrazioek erakundearen artean dituzten eta etengabeko bilakaera jasaten ari diren harremanen egoerari buruz, ikus Vandelli (2000).

tzat (17). Metodo hori bestelako gizarte taldeekin ere erabil daiteke, edota modu gehigarrian, baina ongizatearen definizioa oraindik ere giza ugalketaren esperientziaren argitara osatzen da, bizi-baldintzen lagungarri den lan ez ordaindua barne. Sen eta Nussbaum autoreek proposatutako metodoaren arabera, ongizatea gaitasun multzo bat bezala definitzen da. Lurraldeko biztanleen ongizatea balioesteko garrantzizkotzat jotzen diren gaitasunen zerrenda osatzearen arazoa konpontzeko (18), udal erakundeen aurrekontuen kasuan, administrazioaren funtzio eta politika espezifikoekin eta emakumeen ongizate-ardatz garrantzitsutzat jotzen direnen arabera zerrenda osatzen da. Horrenbestez, funtzio publikoak gaitasunen hizkuntzara itzuli dira eta taldeka jarri dira, Emiliako aurrekontuen kasuan, gorputzaren, buruaren eta gizarte-harremanen ardatzen arabera (Regione Emilia e Romagna, 2003; Addabbo, Lanzi, Picchio, 2004). Hori oinarri hartuta, gastu politikak gurutzatzeko matrize batzuk eraiki dira. Aipatu gastu politikak Azken Balantzea bezalako dokumentu publikoetan islatzen dira, gaitasunak gorputzeko, buruko eta gizarte-harremanen banakako gaitasun-ardatzen arabera taldekatuta. Esate baterako, Modenako generoaren arabera proposamenean, hauek dira udal administrazioen funtzioei dagokienez garrantzizkotzat jo diren gaitasunak: gorputzaren osasuna eta osotasuna, lurraldearen mugikortasuna, denboraren erabilera, ezagutza eta kulturarako sarbidea, baliabide pribatueterako sarbidea, baliabide publikoetarako sarbidea (transferentziak eta zerbitzuak), ordezkari politikoak eta parte hartzea gizartearen (RSO, 2004). Funtzioak probintziako departamentuetatik lortzen dira eta honako hauek dira: 1) Hezkuntza eta Prestakuntza, 2) Ingurumena eta Babes Zibila, 3) Errepideak, Garraioak eta Obra Publikoak, 4) Elikagaiak eta Nekazaritza, 5) Politika ekonomikoa, Giza Baliabideak eta Aukera Berdintasuna, 6) Turismoa, Kultura eta Kirola, 7) Lurralde eta Hiri Antolamendua, 8) Lana, Laguntza eta irabazi-asmorik gabeko sektorea, 9) Aurrekontuak, Administrazioa, EB, Erakunde gaiak.

Probintziako administrazioaren gastuak, altxortegiaren arabera adieraziak, aipatutako gaitasunen arabera sailkatzen dira. Bigarren grafikoko matrizeak azken gastuen koadroa erakusten du eta balioespen-espazioa banatzen du generoaren gaineko eragina zein izan den ikusteko. Grafikoan ikus daitezkeen eremuak Modenako probintziako gastu guztiak adierazten ditu, 2003ko azken balantzean agertzen diren bezalaxe. Goiko laukizuzenak emakumei soilik bideratutako gastuak adierazten ditu (aukera berdintasuna, ugalketa-osasuna, etab.), gastu osoaren %0,8. Ondoren adierazten diren gastuak, %66 gutxi gorabehera, gizon eta emakumeen politiken gaineko eragin berezia kontuan edukita aztertu beharko lirateke. Eremu horretan burututako ariketan prestakuntzarako gastua aztertu da zehatz-mehatz, eta genero ikuspegia erabili da eragin ezber-

(17) Gutxi dira generoaren ikuspegi batetik sarreren kontabilizazioari buruz egindako esperientziak. Emilia Romagna eskualdean 2003an generoaren arabera egindako aurrekontuan saiakera batzuk egin ziren zentzu horretan (Regione Emilia Romagna, 2003).

(18) Zerrenda osatzeko eztabaidari buruz, ikus Robeyns (2000) eta Alkire (2002).

dina agerian utziko zituzten adierazle erabilgarriak osatzeko. Hala ere, interesgarria da ikustea prestakuntzarako gastuak, administrazio egituran hezkuntzari, prestakuntzari, enpleguari eta gizarte gastuari dagozkien gastu diren horiek, ezagutzaren sarbidera dagokion gaitasunean sartu direla, baina, dena den, baliabideetara iristeko gaitasunean ere sar daitezke. Gainerako %30 administrazioaren aparatuen euskarri izateko bideratu diren gastu proiektu eta programei dagokie. Berez, gastuaren zati hori aztertzeko generoaren ikuspegia giza garapenaren ikuspuntuarekin ere uztartu daiteke. Lehenik eta behin, politika publikoak biztanleen ongizatearen arabera balioetsi behar baldin badira, administrazio aparatuen langileak balioespen-planoa aldatzeko moduan hezi behar dira, plano hori dagoeneko ez baita administrazioarena soilik eta multidimentsionala da. Horrek guztiak departamentuen arteko lankidetzara harremanak ezartzera eta herritarrei galdeketa parte hartu dezaten bultzatzera garamatza. Lan-antolamenduari dagokionez ere, pentsa daiteke administrazio langileen bizitza-kalitateari bideratutako ikuspuntuak bizitzeko eta lanerako denbora, gorputzaren, buruaren eta harremanen ongizatea kontuan eduki litzakeela, zerbitzuaren produktibitatean aparteko eraginik izan gabe.

Horrenbestez, politika publikoen emaitzen egiaztapena burutzeko, moneta gastuak edo administrazioak emandako zerbitzuen zerrendaz gain, motibazioak eta emaitzak ere izan behar dira kontuan, gastuek (eta sarrerek) biztanleen gainean, pertsona dimentsio anizdunak diren heinean, jarduteko eta izateko gaitasunen potentziazio eraginkorrean duen eragina balioesteko. Soilik gastu publikoa ikuspuntu zentzudun batean kokatu ondoren eta erreferentzia egiten zaien subjektuak zein diren adierazi ondoren balioetsi daiteke zein den gastu publikoa eta zein den gastu horrek gizon eta emakumeengan duen eragina. Balioespen-espazioa giza garapenaren arabera definitzen da eta, beraz, ongizate dimentsioak banakako gaitasunen konbinaketa moduan adierazteko gai den metrika erabili beharko luke. Beraz, lehenik eta behin, gastua aitortutako helburuetarako eta hartutako erantzukizunerako erabiltzea egoki dela egiaztatzea behar da. Ikuspuntu hori modu sistematikoan "diruaren zentzua, kolorea eta pisua" dela esan liteke.

Bibliografia

- Alkire S., 2002, "Dimensions of Human Development", *World Development*, 30. lib., 2, 181-205 or..
- Arendt, H., 1964, *Vita attiva, la condizione umana*, Milano, Bompiani.
- Addabbo, T., and Picchio, A., "L'intreccio tra condizioni di vita e di lavoro: una prospettiva di genere", in M. Baldini, P. Bosi, P. Silvestri, *La ricchezza dell'equità. Distribuzione del reddito e condizioni di vita in un'area a elevato benessere*, Bologna, il Mulino.
- Addabbo, T., Lanzi, D., Picchio, A., 2004, *Gender Auditing in a Capability Approach*.
- Budlender, D., 1996 *Women's Budgets*, Statiscs South Africa, Cape Town.
- Budlender, D., 2000, The Political Economy of Women's Budgets in the South, in *World Development*, 28. lib., 7. zk., 1365-1378 or.
- Carrasco, C., 2004, *Trabajo con Mirada de género*.
- Elson, D., Cagatay, N., 2000, "The Social Content in Macroeconomic Policy", in *World Development*, 28 lib., 7. zk., 1347-1364 or.
- Elson, D., 1998, "Integrating gender issues into national budgetary policies and procedures: some policy options", *Journal of International Development*, 10. lib., 929-941 or..
- Himmelweit, S., 2002, "Making visible the hidden economy: the case for gender-impact analysis of economic policy", *Feminist Economist*, 8. lib., 1. zk., 49-70 or.
- Nussbaum, M., 2002, *Giustizia sociale e dignità umana*, Bologna, Il Mulino.
- Nussbaum, M., 2003, "Capabilities as Fundamental Entitlements: Sen and Social Justice", forthcoming in *Feminist Economics*.
- Picchio, A., 1992, *Social Reproduction: the Political Economy of the LABOUR Market*, Cambridge, Cambridge University Press.
- Picchio, A., 1992, "Un enfoque macroeconómico "ampliado" de las condiciones de vida", in C. Carrasco, ed., *Tiempos, trabajos y género*, Barcelona, Universitat de Barcelona.
- Picchio, A., (2005). "Hay, carrots, bread and roses: subsistence and surplus wages in Sraffa's Archive Papers", in R. Ciccone, G., Mongiovi, ed., *Sraffa and Modern Economics*, London, Routledge, forthcoming.
- L., Goldschmidt-Clermont & E. Pagnossin Aligisakis, "Measures of Unrecorded Economic Activities" in Fourteen Countries, in *Background Papers, Human Development Report 1995*, New York, UNDP.
- Robbins, L., 1932, *Saggio sulla natura e l'importanza della scienza economica*, Torino, UTET.

Regione Emilia Romagna, 2003, Studio di Fattibilità per la costituzione del bilancio delle amministrazioni pubbliche secondo un'ottica di genere, *Fondo Sociale Europeo- OB 3- ASSE E- Misura E.1- F.S.E. Determina N° 1734 del 31/07/2001*, Report finale.

Robeyns, I., 2002.

Sen, A., 1985, *Commodities and Capabilities*, Delhi, Oxford University Press.


Sen, A., 1987, *The Standard of Living*, Cambridge, Cambridge University Press.

Vandelli, L., 2000, *Il governo locale*, Bologna, Il Mulino.


UNDP, 1995, *Human Development Report 1995*, New York.

UNDP, 2004, *Human Development Report 2004*, New York.

1. IRUDIA. Jarduerak guztira eta emakumeek burututakoak




2. IRUDIA. Lan osoaren denbora-banaketa Italiako gizon eta emakumeen artean




ITURRIA: Addabbo eta Picchio, 2004, 110 or., SHIW 2000-ko datuak (Banca d'Italia, 2002)

3. IRUDIA. Lan osoaren denbora-banaketa Modenako probintziako gizon eta emakumeen artean



ITURRIA: Addabbo eta Picchio, 2004, 110 or. ICESmo-ren datuak

4. IRUDIA. Lan osoaren denbora-banaketa herrialde industrializatueta gizon eta emakumeen artean



ITURRIA: PDNU 1995

1. TAULA. Zeregin guztien banaketa sarrera bikoitza eta seme-alabak dituzten ezkontideen artean (Modenako Udala eta Probintzia eta Italia)

SARRERA BIKOITZA ETA SEME-ALABAK DITUZTEN FAMILIAK

	MODENAKO UDALA			MODENAKO PROBINTZIA		
	ORDAINDUA	EZ ORDAINDUA	GUZTIRA	ORDAINDUA	EZ ORDAINDUA	GUZTIRA
Gizon ezkonduak/bikotedunak	44	19	63	44,3	17,1	61,4
Emakume ezkonduak/bikotedunak	34	38	72	34,4	37,7	72,1
Ordu-kopuru aldea	-10	19	9	-9,9	20,6	10,7

SARRERA BIKOITZA DUTEN FAMILIAK

Gizon ezkonduak/bikotedunak	44	16	60	44	14	58
Emakume ezkonduak/bikotedunak	34	33	67	35	33	68
Ordu-kopuru aldea	-10	17	7	-9	19	10

SARRERA BIKOITZA ETA SEME-ALABAK DITUZTEN FAMILIAK

	ISTAT MULTISCOPO 1998		
	ORDAINDUA	EZ ORDAINDUA	GUZTIRA
Gizon ezkonduak/bikotedunak	44	7,9	51,9
Emakume ezkonduak/bikotedunak	34	30	64
Ordu-kopuru aldea	-10	22,1	12,1

2. TAULA. Urteko banakako errenta gordinen batez besteko balioa eta balio ertaina

	GIZONAK		EMAKUMEAK		GIZON ETA EMAKUMEEN BATEZ BESTEKO ERRENTAK %
	ERTAINA	BATEZ BESTE	ERTAINA	BATEZ BESTE	
Errenta jasotzaile guztiak	20.337	23.075	11.057	12.481	54
Lan-errenta jasotzaileak	15.494	18.188	11.414	11.948	66
Erretiroko errenta jasotzaileak	12.085	12.376	7.385	8.926	72

ITURRIA: Addabbo eta Picchio, 2004, 127 or.

3. TAULA. Alokairuan bizi diren familien laneko eta alokairuko batez besteko errenta, errentaren arabera

	ERRENTAK	ALOKAIRUA	KOBRATZEKO KONTUAK (%)	OSAGAI ZK.	HILEKO HONDARRA	GUTXIENEKO ERRENTA	GEHIENGO ERRENTA	GUTXIENEKO ALOKAIRUA	GEHIENGO ALOKAIRUA
14.460 arte	6.563	336	61	1,8	117	100	14.461	26	697
14.600-24.790 bitarte	19.555	433	27	2,7	443	14.701	24.790	73	1033
24.790-33.570 bitarte	28.876	462	19	2,8	695	24.997	33.570	207	775
33.570 baino gehiago	52.428	445	10	2,9	1.353	34.086	185.924	145	930

ITURRIA: Addabbo eta Picchio, 2004, 123 or.

4. TAULA. Azken balantzea Modenako probintzia, 2003.urtea

Guztira (eurotan)	210.456.767,06	%100
Bereziki emakumeentzat	1.583.319,80	0,8
Genero gaineko eragina duten programak	140.524.710,00	66,8
Administrazio aparatuarentzako programak	69.499.652,74	33,0

ITURRIA: RSO, 2004.

TERESA MONTAGUT ANTOLÍ
Teoria Soziologiko, Filosofia eta
GG.ZZen Metodologia Saila.
Bartzelonako Unibertsitatea

Emakumezko

herritarrak

Europar

1.

Pertsonen arteko ezberdintasuna murrizten joan da gizarte modernoetan. Hala ere, berdintasunarako bide konplexu eta heterogeneoak pribilegio, botere eta bazterketa modu berriak azaleratu ditu. Bizitzako esparru batzuetan ezberdintasuna murriztu egin da baina, beste batzuetan, sendotu egin da. Horregatik dira gaur egun hain ezberdinak eskura ditugun baliabideak nahiz gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna.

Gure mendeko gizarte-aldaketa gizarte- eta politika-egitura berrien eskutik etorri da, beste arrazoien artean, emakumea esparru publikoan sartu delako. Batetik, emakumea lan-merkatuan sartu da eta, bestetik, emakumeek politikan partaidetza eta lotura modu berriak dituzte, herritar aktibo eta parte hartzaile gisa, hain zuzen ere (baita, nahiz eta neurri txikiagoan, boterearen esparru batzuetan erabakiak hartzeko arduradun gisa). Ondorioz, agertoki berriak azaldu dira eta, ezarizarian bada ere, bi generoek tradizionalki bete dituzten zereginak aldatzen ari dira.

Emakumearen eta ongizate-estatuaren arteko harremanaz hitz egitea emakumeek XX. mendearen bigarren erditik aurrera bete duten paperaz hitz egitea da. Gaur egun, oraindik ere sexuen arteko berdintasuna erdietsi beharreko helburuetariko bat den arren, giza historiaren beste ezekin garaieran ez da helburu horren bidean hainbeste aurrerapauso eman. Historian lehen aldiz, berdintasuneko kultura nagusitu den gizarteetan bizi gara, berdintasunaren aldeko mugimendua bizi duen gizarteetan. Aurrerapenak, ordea, ezberdinak izan dira, izan ere, aurrerapenak herrialde bakoitzaren gizarte-egituren, balioen eta modernizatze mailaren arabera izan ohi dira. Europan begiratuz gero, ezberdintasun horiek erakusten digute erritmo ezberdinak egon direla, aldaketak lortzeko prozesu ezberdinak egon direla. Hala eta guztiz ere, Europako herrialde guztiek norabide berari jarraiki doaz.

Nire ustez, ezin daiteke esan ongizate-estatuak emakumeak baztertzeko dituztenik, baizik eta gizarte modernoek oraindik ez dutela bi generoentzako aukera berdintasuna lortu. Ongizate-estatuak ez dira gobernuek hartutako aurre-diseinatutako gizarte-ereduak, baizik eta alderantziz, mendebaldeko gizarteetan sortutako ekonomia eta politika dinamikien ondorio izan dira. Ongizate-estatuak gizarte kapitalisten antolatze prozesuaren aldirik helduena dira. Estatu horietan oraindik ere bizi den bazterketak erro historikoak ditu.

Lortutako aurrerapenak lortuta ere, oraindik orain zailtasun handiak eta eragozpen anitz dago gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna egi bihurtu dadin. Alderdi politikoen euren hitzaldi eta programetan berdintasunaren gaia sartu badute ere, oraindik ere sakonki errotutako ezberdintasunak daude gizarteko ohitura eta praktiketan. Ezberdintasuna ordena ekonomiko, politiko eta kulturalaren ondorio da, baina esan beharra dago gainerako herritarren aldean gizarte-maila pribilegiatua duten horien jarduketek ezberdintasun hori mantendu eta sendotu ere egiten dutela (1). Ikuspegi hori familia esparruan euren senarraren boterearen mende geratzen diren hainbat

(1) "gizarte-itxitura" moduan ezagutzen den alderdia. Hianbat soziologok aztertu zuten, hala nola, K.Marx, M.Weber, V.Pareto edo J.Schumpeter-ek. Gehiago jakiteko, ikus Salvador Giner "Clase, poder y privilegio en la sociedad corporativa", *Ensayos civiles* lanaren 3. atala. Bartzelona: Península, 1987.

eta hainbat emakumeri aplika dakioke (familia espazioa lege eta araudi bitartez aldatzeko zaila da). Lan-merkatuari dagokionez, banatua mantentzen dela ikus dezakegu. Emakumeek betetzen dituzten enpleguak askotan prestaketa gutxi eskatzen dituztenak izan ohi dira, gaizki ordainduak, eta ezegonkortasun maila altua pairatzen dute (Europako herrialde gehienetan gizon eta emakumeen arteko soldata ezberdintasuna mantentzen da; emakumezkoen langabezia-tasa ere gizonetzkoena baino altuagoa da). Azkenik, politikaren esparruari dagokionez, kudeaketa eta ordezkaritza mailatan dauden emakume kopurua gizonetzkoena baino askoz txikiagoa da. Alderdi horiek guztien ikusita, garbi dago emakume oso gutxiak duela erabakiak hartzeko eta askatasun espazioaz gozatzeko aukera, hau da, boterea izateko aukera.

2.

Europako ongizate- -estatuak eta herritartasuna

Ongizate-estatuak edo laguntza-estatuak, beste tokietan aztertu den moduan, gizarte liberalen eta kapitalismo aurreratuen gizartea antolatzeko modua dira. Funtsean, Europan sortu eta orokortu ziren bigarren Mundu Gerra ostean. Ongizate-estatuak berritzailea zen formula baten ondorio izan ziren; formula horren arabera, bidezkoa den gizarte baten helburuak lor zitezkeen, garapen bidean zegoen kapitalismoan esku hartuz gero. Ongizate-estatuaren programek ekarritako bizi-zikloan nagusi zen irudia familia burua den gizonetzko langilearena zen, familia nukleoaren ugaltzea mantentzeko ordain eta bermeak ekarritako lortutako postua, hain zuzen ere. Horrela, garai hartan kapitalismoaren eta demokrazia liberalaren garai berri bati eman zitzaion hasiera, eta garai hartan estatu-nazioek nahitaezko konpromiso bikoitz bat hartzen zuten: bermatzea, batetik, gizarte eskubideak (famiaren bitartez) eta herritarren eskaerak eta, bestetik, ekonomiak hazkunde iraunkor eta jarraikia izango duela. Horretarako, sektore publikoak ezinbesteko papera jokatu du bi alderdi hauetatik begiratuta: (a) ekonomia indarren erregulatuak gisa eta (b) biztanleriari garrantzizko zerbitzuak ematen dizkion mailegu gisa.

Ongizate-estatuaren gizarte behar jakin batzuk onartzea herritartasunaren kontzeptuaren beraren oinarria den gizarte-eskubidea da. Banakakoari erreferentzia egiten dioten eskubideak etengabe aldatu dira XVIII. mendetik hona, Tomas Marshall-ek esan zuen moduan (2). Herritartasuna etengabeko prozesua izan da eta da. Horrela bada, ezberdintasunen testuinguru historikoan, herritartasunak hainbat zehaztasun eta zentzu ezberdinak hartzen ditu. XX. mendeko herritartasun berriak aurrez onartuta dauden eskubide zibil eta politikoei gizarte eskubideak gehitzea eskatzen du.

(2) Marshall, T.H. (1950) *Citizenship and Social Class*. Cambridge: Cambridge University Press.

Herritarrak, pertsona aske eta berdineko eskubideaz gain eta, beraz, herrialdeko bizitza politikoan parte hartzea deitua izateko eskubidea izateaz gain, haren beharrak asebeteko izateko eskubidea du osasunaren, hezkuntzaren esparruan, etxebizitza bat izateari dagokionez eta ongizate orokorrari dagokionez. Estatuak, ongizate-estatuak, da estaldura hori ematearen bermatzailea eta arduraduna, eta herritarra herritartasun eskubideak dituen subjektua da.

Ongizate-estatuari buruzko azterketa zorrotzenak lege onartuta dauden eskubide horien jabe den herritar hori babesteko zereginean oinarritu dira. Azken azterketek (horien artean Gösta Esping-Andersen egileak egindako da aipagarria (3)) nabarmen lagundu dute ongizate-estatuaren arteko ezberdintasunak ulertzen, horretarako eskema sistematiko bat erabiliz, ondoren azterketa konparatibo bat egiteko. Ikerketa horiek garrantzizko ekarpenak izan badituzte ere, ez dute hainbeste informazio eman bizitza sozialeko erakundeek gizon eta emakumei dakartzkien ondorioei dagokienez.

Ongizate-estatuari buruzko eskema analitiko gehienetan generoaren aldagaia falta izan da. Erabilitako kontzeptuak nabarmen neutroak izan badira ere, erabilitako kategoriak, esate baterako, langilea, merkatua-estatuaren harremanak, herritartasuna, desmerkantilizatzea, gizonen bizitza estandarrean oinarrituta daude. Oro har, ia literatura osoan erabili den azterketa-unitatea ez da banakakoa izan, baizik eta taldeak-. Ordea, emakumeak betetzen duen tokia ulertzeko ezinbestekoa da pertsonatik abiatzea eta herritartasun sozialaren kontzeptuari buruz hausnartzea, feminismoak adierazi digun moduan. Feminismoak, plurala den pentsamendu eta praktika gisa, ikuspegi ezberdinak besarkatzen ditu, jakintza ezberdinak eta hainbat jarduketaren proposamenak, baina guztiak ere iturri beretik datoz: emakumeek gizartearen duten mendekotasuneko papera. Azken urte hauetan, garatu egin dira ikuspegi ezberdinak (funtsean liberala, muturrekoa eta sozialista) eta batasun prozesuak jasanez, ondorioz, gaur egun, politika berraztertu eta familiaria, ekoizpen eta ugalketari eta horien arteko loturei buruzko alderdiak hartzen dira kontuan. Eragin horren adibide garbi bat emakumea herritar gisa hartuta egiten diren eztabaida eta gogoetak dira. Ongizate-estatuaren herritartasun sozialaren ideia garrantzizkoa da, eta ideia horretatik eratorritako eskubide zibil, sozial eta politikoen gozatzearen egoera kritikatzeko ezinbestekoa da gizarte horietako generoen arteko ezberdintasunak ulertzeko. Eskubideak baldintza bat dira herritarrentzat eta emakumeek, lege baldin badituzte ere, eskubide horiek erabiltzen dituztenean agerian geratzen dira arazoak. Emakumeek ez dituzte euren eskubideak gizonen maila berean, ez eta haien ondorio berberak lortzen ere, tartean zapalkuntzak baitaude, generoaren arabera egokitu-tako betebeharrak espezifikokoak eta aukera berdintasuna eragozten dituzten baldintza materialak. Pentsamendu politikoak, oro har, herritartasunaren unibertsaltasuna onartu izan du eta herritarren mailak banakakoaren eta ezberdintasunaren maila gaitzen duela. Herritarren artean gizarte edo taldeko ezberdintasunak edozein direla ere, gizarte zibileko eguneroko jardueretan abe-

(3) Esping-Andersen, G. (1990) *The Three Worlds of Welfare Capitalism*. Cambridge: Polity Press [gaztelaniazko itzulpena: *Los tres mundos del Estado del Bienestar*. Valentzia: Alfons el Magnànim Ed., 1993]

rastasanari, gizarte-mailari eta botereari dagokionez diren ezberdintasunak direla ere, politika publikoaren esparruan herritarra izateak kategoria parekatu berbera dakarkio herritar orori. Herritar eskubideak berberak dira orain legez gizon eta emakumeentzat. Benetako ezberdintasuna eskubide horiek erabiltzeko aukeran datza. Nahiz eta eztabaidaren zatirik gehiengoa eskubide politiko-en ezberdintasunean oinarritu den, oraindik ere zailtasun handiak daude eskubide zibil eta sozialetan. Askotan, emakume askori ez zaizkio eskubide zibilak —funtsean berdintasuna eta askatasuna— familiaren esparru pribatuan bermatzen. Herritar sozialaren eskubideak ere —hala nola, langabetuen dirulaguntza, erretiro eta gizarte segurantzak— askotan baztertu egiten dira, herritarrek, eskubide horiek jaso ditzan, langile ordaindua izan behar baitu.

Herritartasunaren kontzeptua eztabaidagai sakona izan da 1980. eta 1990. urteen artean. "Herritarra" neutrala dela dioten ohiko ideien kontrako ahots kritikoenetariko bat Carole Pateman egilearena da (4). Egile horren iritziz, aro modernoa hasi zenetik, emakumeak estatuan sartzerakoan ez dira sartu gizonezkoak bezala, herritar gisa, baizik eta senide gisa, eta familia gizarte zibiletik eta estatutik bananduta dagoen esparru gisa sartu da. Feminismoaren beste teoriagile askok ere, filosofoek, eta gizarte-zientzialariek kritikatu egin dute herritartasun liberala, itxura neutrala baldin badu ere, generoaren araberrako aurreiritzien bidez eraiki baita. Herritartasunaren ideiak definitzen duen herritarrek maila bereizita du, langile gisako herritarren ideiatik eraikia, batez ere langile gisako eskubideak onartzen zaizkion herritar horretatik. Ideia horixe izan da azterketa feministen eta Esping-Andersen-ek ongizate-estatuari buruz proposatutako ereduak nahikoa azalgarriak ote ziren erabakitzeke eztabaiden abiapuntua. Kritika nagusien ardatza da ez dela onartzen gizarte-ongizatearen alde familia eta emakumeek burutzen duten lan ez ordainduaren garrantzia. Hona erabiltzen dituzten argudioak: (a) ongizatearen (edo asistentziaren) hornikuntza publikoa eta pribatua dena bereizten denean, ez da onartzen familia dela ondasun eta asistentzia zerbitzuak ematen dituzten hornitzaile nagusia; (b) ongizatearen hornikuntza estatuak edo merkatuak ematen duenean soilik kontabilizatzen da, eta emakumeen lan ez ordaindua alde batera uzten da; (c) ez da aipatzen estatuetan, merkatuetan eta familietan egiten den laneko sexu-bereizketa. Argudio horiek guztiak zuzenean daude gizarte guztietan emakumeek betetzen dituzten paperekin lotuta. Beraz, argudio horiek azterketetan sartuz gero, herrialde taldeei edota ongizate-estatuaren taxonomiari buruzko osaera ezberdina lortuko genuke.

Hutsune teoriko horri egindako kritika eta ongizate-estatuaren emakumeek bete duten papera jasoko duen taxonomia bilatzea izan dira idatzi diren garrantzizko hainbat lanen helburu nagusi, beste artean, Ann Orloff, Jane Lewis, Diane Sainsbury edota Barbara Hobson bezalako egileenak. Hainbat azterketen abiapuntua da herrialdeek, maila eta intentsitate ezberdinetan, emakumeak lan-merkatutik kanporatzen dituzten gizarte-ereduak islatzen dituztela, eta emakumeak euren senarraren mende geratzen direla gizarte segurantzako eskubideak lortzeko, etxean zainketa la-

(4) Pateman, C. (1988) *The Sexual Contract*. Cambridge: Polity Press. Halaber, (1988) "The Patriarchal Welfare State" in A. Gutmann (Ed.) *Democracy and the Welfare State*. Princeton: Princeton University Press.

nak egiteko prest —haur eta mendekoak diren beste pertsonentzat— laguntza publikorik jaso gabe. Egileetako batzuek proposatzen dutenaren arabera, ongizate-estatuak hornitzaile nagusitzat senarra duten familia-ereduetan oinarritzen direla hartu behar da kontuan eta, hortik abiatuta, eredu horrek herrialde bakoitzean duen sendotasuna ikusi beharko litzateke. Beste batzuek, berriaz, aurreko tipologietan ahazten diren aldaerak identifikatzea proposatzen dute, herrialdeen beste banaketa bat egiteko.

Baina taxonomia berrietako proposamen batzuk ahaztu egiten dute ezin dela gizarte ordena zehatz bat “azaldu” errealtate horretako botere eta pribilegioen banaketa-modua eragin duten mekanismo historikoak kontuan hartu gabe. Gainera, nire ustez, herrialdeak definitu eta taldekatzeko zailtasunak erakusten du zein puntutaraino dagoen generoen arteko ezberdintasuna gizarteetako bakoitzeko gizon eta emakumeen eguneroko ohituretan errotuta, bizitza sozialean zein modu ezberdinetara agertzen den eta zein zehaztapen hartzen dituen. Hainbat elementuk, hala nola, tradizio katolikoa, merkatuan oinarritzen den liberalismo sendoa edota botere korporatiboa (adierazgarrienerako batzuk aipatzearen), estatu modernoetako egituretan aipatu balioak modu batera edo bestera konbinatzea eragin dute eta, beraz, emakumeen egoera ezberdinak aurkituko ditugu. Horregatik da zaila —edo ezinezkoa— hainbat zehaztasun jasotzen dituen eta, era berean, asebetetzekoa den tipologia bat aurkitzea.

Prozesuetako ezberdintasunak azalduko dituen taxonomia bat osatzeko zailtasunak aipatu baditut ere, ezberdintasun horien berri emango diguten aldaerak identifikatu daitezke. Esping-Andersenek identifikatutako *ongizatearen erregimenak* ongizatearen bidean egindako aurrerapenak orokorrean ulertzeko balio dute. Gainera bada ere, hiru munduetako bakoitzean ezberdintasun nabarmenak daude herritarren eskubideei dagokienez, eta guri gehiago interesatzen zaiguna, baita gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunari buruzko sentsibilizazio “mailen” artean ere. Aukera berdintasuna ere beste modu batera ulertzen da mundu bakoitzean, baita lan-merkatuko edo ordezkartza politikoak jasaten duen eragina ere. Eta ezin aipatuko gabe utzi belaunaldi berrien hezkuntza eta sozializazioa ere. Hauek dira gizarte prozesu horiek azaltzen dituzten aldaera batzuk:

- 1) Eskubideak langile gisa eskuratzek, eta ez herritar gisa, eragin negatiboa du emakumeen eskubideengan.
- 2) Emakumea lan-merkatuan sartzeko familia-lana eta lan ordaindua batzen dituzten politikak egitea bultzatu eta lortu da.
- 3) Hezkuntza maila hobea dutenez, emakumeek prestakuntza hobea dute eta, beraz, esparru publikorako gaitasun eta kezka gehiago dituzte.
- 4) Mutiko eta neskatoak modu parekatuago batean gizarteratzeak familia demokratikoagoa izatea eta betebeharren banaketa parekatuago bat izatea bermatzen du.
- 5) Politikaren kudeaketan emakume gehiago egoteak boterea ulertzeko eta erabiltzeko modu berriak sortzen ditu, eta aplikatzerakoan emaitza ezberdinak eman ditzake.
- 6) XXI. mendeko gizarte irekietan, ezin ahantz dezakegu demokrazia politiko gehiagok fanatismo erlijioso gutxiago eta askatasun gehiago esan nahi duela.

3.

Ongizate-estatueta haratago: “Gizon zein emakumeentzako den herritartasun errepublikar baten bidean”

Europako emakumeen herritartasun mailak kontuan hartzen dituen taxonomia murrizteko dauden zailtasunak ikusita, eraginkorragoa deritzot emakumeen eta eskubide horien arteko harremana aztertzeari, harreman horretako hiru elementuen azterketa jorratzeko, hots, eskubide zibilak, eskubide politikoak eta gizarte eskubideak, eskubide horiek gizarte jakin batean gizon eta emakumeetan nola zehazten diren ikusteko. Hiru elementu horiek aztertzerako garaian modu analitikoan banandu ahal badaitezke ere, hertsiki lotuta dauden elementuak dira, hau da, pertsonen arteko askatasun eta berdintasuna onartzeak pertsona subjektu politikoa dela onartzea dakar eta, era berean, pertsonari gizarte eskubide batzuek gozatzeko aukera ematea.

Herritartasuna erkide politiko bateko kideei banakako eskubide eta betebeharrak onartzea da. Eta gizarte ongizatea banakako aske horiek euren erkidegoarekiko erakusten duten konpromisoa da (zuzena edo zeharkakoa). Ikuspegi horretatik, ez da gizarte ongizaterik izango herritartasun osorik gabe, eta ez da herritartasunik izango askatasunaz modu parekatuan gozaten ez baldin bada. Askatasuna berdintzea da gizarte on baterako lehen urratsa. Beste behin, errepublikanismoa atera da eztabaida politikoan eta gizarte-eredu bat proposatzen du, gai publikoetan parte hartzen duten eta nagusitasunik gabeko askatasunaz gozaten duten herritarren bertutean oinarritzen dena. Pertsona guztiei hautatzeko gaitasuna emateko proposamen politiko berriak egin behar dira. Eredu errepublikarren bitartez, herritarrek ongizate-estatuan lortutakoa eztabaida dezakegu.

Aristoteleren arabera, gobernatu dezakeen eta gobernatua izan daitekeen oro da herritarra. Konstituzio batetik bestera aldatu daiteke baina estatu ideal batean, herritarra, bizitza bertutetsua helburu izanik, gobernatu eta obeditu dezakeen eta nahi duen oro da. Herritar-bertutea du interes orokorren arabera hauteman, aukeratu eta gidatu dezakeen orok. Gaur egun, herritarra, gizon zein emakumea, esparru publikoa elkarbanatzeko eskubidea duena da. Herritar ona legedian edo gai publikoetako erabakietan parte hartzen duen hori da. Erabaki politikoez ari garenean, zentzurik zabalenean ari gara, hau da, baita bestelako ekonomia eta gizarte esparruak barne hartzen dituen, hala nola, lan-merkatua. Ezin ahantz daiteke, bestelako esparruetan erabakiak hartzea prestaketa ona dela ondoren gobernuan, terminoaren zentzurik hertsiarenean, parte hartzeke. Horri gizarte-partaidetza deritzo. Herritartasun osoa izatea ez da soilik erabakiak hartzen par-

te hartzea, baizik eta baita politika-kultura hartzea eta epai politikoak egiteko gaitasuna izatea ere. Horrela, burutzen ditugun ekintzekin subjektuak ez ezik, herritarrak ere bagarela frogatzen dugu; frogatzen dugu ez garela aginduak betetzen ditugun esklaboak, baizik eta, gainerakoekin batera, bizitza publikoaren etorkizuna erabakitzeko gaitasuna dugun subjektuak. Maila hori erdiesteko, herritar aktibo gisa parte hartu baino lehen, baldintza jakin batzuk behar dira: askatasuna, eskubideak, gutxieneko baliabide batzuk izatea eta estatuaren babesa izatea.

Isaiah Berlin-ek egindako bereizketaren arabera, partaidetza handiagoa lortzeko honako bi modu hauek daude: askatasun positiboa edo askatasun negatiboa. Hannah Arendt (5) egileak askatasuna partaidetza gisa hartzea proposatzen du. Askatasun positiboa animalia politikoak garen heinean eta, beraz, askatasuna demokratikoa eta parte hartzailea da. Erabakiak hartzeko prozesuan parte hartzea askatasunaren adierazle garrantzitsu bat izango litzateke bere horretan. Biderik sakonenetariko bat da eta bide horri jarraiki, gizaki gisa osatuko ginateke. Ikuspuntu horren arabera, zuzeneko demokrazia edo demokrazia asanblearioa litzateke aukera sistematiko gogokoena. Baina badirudi demokrazia industrial bat berak ere ezin duela Arendt-ek proposatutako herri demokrazia bezalako bat lortu, hots, herritar guztiek benetan parte har dezaketeneko demokrazia. Beste proposamenak, askatasun negatiboak, bideragarriagoa dirudi eta, nire ustez, emakumeek betetzen duten tokiaz hausnartzeko ere interesgarriagoa bada. Askatasun negatiboa, interferentzia eza moduan ulertua, banakakoak hautatzeko prozesuan kanpo eragozpenik ez egotea da.

Horrela azalduta, interferentzia ezak botere edo mendekotasunerako nolabaiteko axolagabetasuna erakusten du eta, beraz, harreman askorenganako tolerantzia erakusten du, nola etxean hala beste tokietan. Errepublikanismoaren inguruan sortzen ari den eztabaida filosofikoaren barnean bada askatasun positiboaren eta negatiboaren artean lotura bat dagoela pentsarazten duen ikuspegi bat. Philip Pettit (6) egileak askatasuna ez-menderatzea dela pentsatzea proposatzen du; horrek pertsona askearen hautaketetan inork nolana ere ez esku hartzea eskatzen du. Askatasuna ez-menderatze moduan proposatzeak jendeak bizitzan nolana ere esku hartzeetatik babestua dagoela esan nahi du.

Ongizate-estatu modernoetan emakumeentzako ez-menderatze gisako askatasuna lortzetik oso urrun gaude oraindik ere (baita gizarteko beste taldeei dagokienez ere). Edozein emakumek se-narraren nolana ere tratatu txarrak jasan ditzakeen neurrian, emakumea izatea ahuleziaren adierazle da. Pettit-ek dioen moduan, oraindik orain, emakumeak bereziki ahulak dira etxeetan, hainbat eta hainbat lanpostuetan eta hiri askotako kaleetan. Ahulezia hori emakumeen paperari buruz

(5) Arendt, H. (1961) *Between Past and Future. Six Exercises in Political Thought*. London: Faber & Faber. [aztelaniazko itzulpena: *Entre el pasado y el futuro. Ocho ejercicios sobre la reflexión política*. Bartzelona: Península, 1996].

(6) Pettit, Ph. (1997) *Republicanism: A Theory of Freedom and Government*. Oxford: Clarendon Press. [Itzulpena, Paidós Ed., Bartzelona, prentsan].

sakonki errotuta dauden aurreiritzi multzoaren ondorio da, eta emakumeek, banaka nahiz taldeka, euren egoera hobetzen saiatzen direnean gizarteko erakundeek bizkarra ematen dietela dakusate.

Hori ez-menderatze gisako askatasunaren alderdietako bat litzateke. Beste alderdi bat independentzia sozioekonomikoarena litzateke. Maila teoriko zein historikoan independentzia izan da herritarren oinarri nagusia eta, ongizate-estatuetan, lan ordaindua ezinbestekoa da herritarrentzat. Aitzitik, gizartekide guztiek ez dute lan-merkatuan sartzeko aukera bera. Horregatik da garrantzitsua gizon eta emakumeen artean lan ordaindua eta ez ordainduaren banaketari buruz hausnaritzea. Lana aztertzen denean, lana enplegu hitzaren sinonimotzat hartzen da, hau da, lana, lana eta ordaina lotzen dituen eta, beraz, nolabaiteko autonomia ekonomikoa ematen duen jarduera soilik dela uste da. Baina lan ordaindua lan egiteko dauden modu guztien artean bat besterik ez da. Familia gehienek —bereziki emakume gehienek—, ordu asko pasatzen dituzte lan ez ordaindua burutzen, banakako guztien biziraupenerako beharrezkoa den lana burutzen. “Bigarren” lan mota horrek berea den arau-sistema du eta, askotan, arau-sistema hori lan ordainduaren printzipio orokorrei kontrajartzen zaie. Ezin ahanztu dezakegu lan ordainduak soldatuen eta kapitalaren arteko borroka eta gizarte-hitzarmenetako emaitzak hartu dituela, eta soldatarik gabeko langileek, berriz, ez dituzte gainerako langileek dituzten eskubide sozial eta politiko asko. Oraindik orain, garrantzitsua da gizarte berdintasunean pentsatzea, baina ez soilik partaidetza politikotik abiatuta, baizik eta baita gizarte partaidetzatik abiatuta ere. Gizarte partaidetak lan ordaindua duten herritarrek sortzen ditu eta, beraz, dirua, nork bere errespetua, prestakuntza, jarrera arduratsua eta autonomia gaitasuna.

Herritartasun eskubideak ezin dira askatasunik gabe garatu. Nire ustez, askatasuna eskubide guztiak gozatzeko oinarrizko balioa da. Pertsonak aukeratzeko askea izan behar du. Ordea, ez dago aukeraketarik aukeratzeko gaitasunik ez baldin badago. Herritar askeetan oinarritutako gizarteak guztien konpromisoa eskatzen du, askatasunak bermatzeko behar diren baliabideak izateko. Askatasun eskubidearen sakontze horrek eredu errepublikarrera garamatza: askatasuna hautaketak egiteko aukera gisa ikusia, inolako menderatzerik gabe. Horrela bada, berdintasun errepublikarrak ez ditu soilik eskubide zibil eta politikoak besarkatzen. Herritarrek gizarte-ekonomia- eta kultur baldintzak izango dituztela bermatzea ere eskatzen du, guztiak duintasun eta errespetuz bizi ahal daitezen. Berme horiek lortu nahi baldin baditugu, ongizate-estatu liberalek aurrerapauso bat eman eta balio errepublikarrak hartu behar dituzte. Izan ere, estatu errepublikarrak herritar bat bera ere menderatu ez dela bermatzeko esku har dezake eta esku hartu behar du.

4.

Laburpen gisa

Publikoaren eta pribatuaren arteko dikotomiak itxuraz unibertsala, parekatua eta indibidualista den ordena batean emakumeak gizonezkoen mende direla ezkututzen du batzutan. Teoria liberalak pribatua denaren eta publikoa denaren arteko bereizketa pertsona guztiei modu berean aplikagarria balitz bezala aurkezten du. Argi dago emakume eta gizonak bizitza pribatuan eta mundu publikoan duten kokaleku ezberdinaren gaia konplexua dela. Dena den, esan beharra dago etxeko bizitzaren esparrua gizarte zibilean dagoela, ez da aparteko edo bananduta dagoen zer-bait. Bizitza pribatua gizarte zibileko bizitza da, ez da aurre-soziala den gizarte. Familia arazo sozialetako bat izatea garrantzitsua da, soziala dena gizarte zibilari atxikita dagoen kategoria baita. Gizartean bizi garen pertsonak garen neurrian, “pertsonala dena politikoa da” lema feminista oinarritzat hartu eta esan dezakegu genero berdintasuna kontuan hartzen duen herritartasun kontzeptuak publikoa eta pribatuaren arteko bereizketa hautsi beharko lukeela. Garrantzitsua da pribatutzat jotzen diren gaiak politizatzea eta interes publikoak heterogeneoak direla onartzea. Esan den moduan, badirudi benetan ez dagoela herritar mota bakar bat. Pertsonak hainbat markotatik jarduten dute ongizate-estatuarekin, gizarteko hainbat tokitatik eta hainbat gizarte-mailetatik. Azterketa moduaren arabera, gizarte-maila horiek beharren eta/edo bezeroen arteko harremanak barne hartzen dituztela ikus daiteke, edota zerbitzuen eta/edo kontsumitzaileen eskubideen harremanak, baita zainketa lan ez ordainduen eta/edo profesionalen arteko harremanak ere. Binomio horien artean toki zehatz bat izateko probabilitatea gizarte-mailaren, generoaren eta jatorrizko etnia edo kulturaren arabera aldatzen da. Gizarte-maila horien guztien arteko elkarreragina, eta pertsonen independentzia edo autonomiarako elkarreragin horietatik eratortzen diren ondorioak dira herritartasunaren gakoak.

Ongizate-estatuak, geruzatze bitarteko gisa, gizarte-mailen nahiz generoaren egituran eragiten dute. Baina, hasieran nioen moduan, gure gizarteetan dirauten usadio eta ohituren isla dira. Badirudi garrantzitsua dela gizarte modernoek —ongizate-estatuak— dituzten benetako egiturazko zailtasunak nabarmentzea, herritar guztientzat askea bezain parekatua den unibertso batetantz aurrera egiteko. Estatu horietan burutzen ari diren aldaketek (zerbitzuak pribatizatzea, enplegu falta, beste kulturetako migrazioak hartzea) ziurrenik zaildu egingo dute emakumeek esparru guztietan berdintasuna lortzea.

BARBARA HOBSON

**Soziologia Saila. Genero
Ikerketa Programaren
zuzendaria. Stockholmeko
Unibertsitatea. Suedia**

*Herritar amak,
herritar aitak:
betebeharren eta
estrubideen
mugak eta
esanahiak
mugitu egin
dira ongizate-
-estatuko
aldaketa-arloan*

Laburpena

Munduaren berregituratzeak, ongizatearen murrizketak eta europartzeak herritartasunaren mugak birmoldatu dituzte emakumeentzat eta gizonentzat, baita euren estatu, merkatu eta familiarekiko harremanak ere. Ongizate-estatu aurreratu ia guztietan ikusten dugunez, gizonaren ekonomia-euskarriko soldata eta berau nabarmentzen duten suposamenduak ahultzen ari dira: gizonen enplegu osoa eta bi gurasoko familia egonkorrak. Europar Batasuna eragile erabakigarria izan da gizonaren ekonomia-euskarriko eredua desagertzea bizkortzeko orduan; horretarako, genero-berdintasunaren aldeko legedia, kodeak eta arteztarauak sortu dira Europar Batasunean, eta presio ekonomiko neoliberalak erabili ditu etxeko amen aldeko gastu publikoa murriztzeko. EBren autosufizientziari buruzko diskurtsoak langile indibidualizatuko eredurantzko bidea ireki du eta araudiaren aldaketa bat uzten du agerian. Horren arabera, lana betebeharrak bat da hala gizonentzat nola emakumeentzat. Halaber, diskurtso horrek pertsonak mobilizatu ditu familia-eskubideen alde, hala amek nola aitek aitatasuna edo amatasuna enpleguarekin bateragarri egin dezaten.

Gaztelaniarako itzultzailearen oharra: Amartya Sen 1998ko Ekonomiako Nobel Sariaren iritziz, eragiletza-gaitasuna ondorengoa da: gizakia garapenaren xedea dela onartzea, bitarteko bat da gizabanakoak bere aukerak zabaldu eta bere etorkizuna zein errealitatea alda ditzan, hala indibidualki nola era kolektiboan. Horri eragiletza-gaitasuna deitzen dio. Ingelesez baliatutako terminoa "agency" da, eta gaztelaniarako bibliografian itzulita "agencia [eragiletza]" edo "capacidad de agencia [eragiletza-gaitasuna]" erabili da.

Artikulu honetan, herritarren eskubide eta betebeharren mugetan gertatutako mugimendua aztertu nahi dut, herritarren lan-eskuaren eta herritar aita eta amen testuinguruan. Lehenik eta behin, lau rogeita hamarreko urteetan gertatutako aldaketaren ildo orokorrak zirriborrotutako ditut: garai horretan, ongizate-estatu berregituratu egin zen eta zainketa eta enplegua bateratzen zituen lana-familia orekari lotutako Europako eskubideak hedatu egin ziren. Geroago hartuko dut hizpide eskubide eta betebeharren konfigurazio horiek aita-amen era askotako taldeei nola eragiten dieten. Horrekin guztiarekin, adierazi nahi dudana galdera da emakume eta gizon banakoek zainketako eskubidea erabiltzeko aukerak edo behar eragiletza ba ote dituzten. Eragiletza, gizabanakoen gaitasunei buruzko eremu teoriko bati lotzen zaion esparru teorikoa da; kontzeptu hori Amartya Sen ekonomistak eta 2003ko Nobel-saridunak sortu zuen (Nussbaum 2003; Sen 2003). Artikulu honen hirugarren atalean, ongizate-estatu berrietako guraso / herritar berrien aukerak eta mugak aztertuko ditut. Kasu honetan, nabarmenduko ditut gizonen aita izateko duten funtzio aktiboa areagotzeko eta zainketa herritarren eskubide eta betebeharrak den aldetik desnaturalizatzeko politika eta diskurtso espezifikoa; horretarako, Herbehereak eta Suedia baliatuko ditut eredutzat. Gurasotasunaren eta zainketaren arlo politikoan, Herbehereak eta Suedia hainbat arrazoirengatik kasu interesgarriak dira. Gurasotasun-politika eta -kanpaina proaktiboak baliatu dituzte, maskulinitasunei irudi berria emate aldera. Hala ere, amen enpleguari buruzko historia zein ibilbidea eta ama ezkongabeei buruzko politika desberdinak dituzte. Bi kasuetan, ekonomia globalaren proze-

suak eta nazioz gaindiko diru-gobernamenduak, gizonen zainketan parte hartzearen aldeko politika proaktiboak ahuldu dituzte azkenean.

1.

Laurogeita hamarreko hamarkadako ongizate-estatu eskubide eta betebeharren ildoak aldatu

Laurogeita hamarreko urteak hamarkada erabakigarria izan ziren ongizate-estatuak aldatzeko orduan, eta aldi horretan herritarren enplegu eta zainketari buruzko eskubideak eta betebeharrak berriro definitu eta adierazi ziren. Lehenik eta behin eta nagusiki, gizonen ekonomia-euskarri bakarrari aurre egiteko diskurtso- eta politika-erronkak ditugu (Hobson 2000). Gizonen ekonomia-euskarriko eredu oinarritzen zen gizonen eta emakumeek etxera egiten duten ekarpenei buruzko suposamendu-multzo batean: gizonen erantzukizuna batez ere dirua irabaztea zen eta emakumeena, berriz, gazteak eta hirugarren adinekoak zaintzea. Emakumeak eta umeak gizarte-aseguru-tako programetan gizonen ekonomia-euskarriaren mendeko agertzen ziren. Aldiz, ongizate-eredu hori prestatzeko, erabakigarriak ziren hala gizonen enplegu osoa nola bi gurasoko familia egonkorak (Lewis 2002)

Mendebaldeko Europako herrialde gehienetan, gobernuak laurogeita hamarreko urteetan hasi ziren pentsatzen pertsona heldu guztiak lan-merkatuan parte hartuko zutela. Goodinek nabarmendu duenez (Goodin 2001), garrantzizkoa da lanari eta ongizateari lotutako aldagaien aukera berriak sortu izana (39. or.). Mendebaldeko ongizate-estatu ia guztietan ikusten dugunez, pizgarriak eta presioak daude emakumeak lan-merkatu ordaindura sar daitezen. Gizonen soldata-euskarriaren heriotza adierazten duten araudi gero eta gehiago egon ez ezik, hainbat presio ekonomikorik ongizate-estatuaren hala barruko nola kanpoko zenbait politika ahuldu egiten dituzte, adibidez, matrimonioentzako diru-laguntza fiskalak eta emakumeei etxean lanaldi osoz geratzeko modua ematen dieten abantailak (Knijn y Kremer 1997) ; (Taylor-Gooby 1996).

Berregituratze globalak eta ongizate-estatu-tako murrizketak ere gizonen soldata-euskarria ahultzen lagundu dute. Presio ekonomiko orokorrek lan-merkatuko emakume eta gizon enplegatuen-tzako babesak gutxitu egin dituzte, eta familian diru-sarreraren iturri bakarraren mende egoteak ekonomia-arriskuak dituela frogatu (Huber 2003). Gizonen ekonomia-euskarri bakarreko eredutik

urrutiratzeko mugimendua mailakakoa da eta herrialde askotan ez da artean amaitu; nolana ere, laurogeita hamarreko urteak inflexio-puntu izan ziren emakumeen laneko parte-hartzeari dagokionez gizonen euskarri-ikuspegi handia zuten gizarteetan (2002): Alemania, Herbehereak, Erresuma Batua eta Irlanda. Garrantzizkoa da nabarmentzea generoaren aldetik lan-merkatuko parte-hartzea parekatuz Europa iparraldeko herrialde batzuetan soilik iritsi direla eta han ere, dena den, diru-sarrera bikoitzeko familia 1^{3/4} eredukoa da: emakume gehienek euren adin ugalkorreko lehenengo urteetan hogeitahogeita hamar ordu ematen dituzten ordaindutako lanean, baina etxean ez ordaindutakoaren zati handiena egiten jarraitzen dute (Hobson 2003).

Europar Batasuna erabakigarria izan da gizonen ekonomia-euskarri bakarreko familiaren akabera bultzatzen, hala genero-berdintasuneko kodeak eta arteztarauak sortzeko orduan nola ekonomia-esparru neoliberalak ezartzeko orduan. EBren legediaren bilakaerak jarraitu egiten du, dena den, merkatuari lotutako gaien inguruan; rol bikoitz anbigua jokatzen du, ordea: merkatuaren zako gobernatzaile eta merkatuaren gobernatzaile.

Laurogeita hamarreko urteak hamarkada erabakigarria izan ziren EBren gobernamenduaren zabalpenean eta merkatuaren arautzean, eta horri EBren politikak ezartzeko gizarte-aldaketa deitu izan zaio (Carson 2004). Genero-berdintasunari buruzko bi zuzentarau, zuzenean eta zeharka, lan- eta familia-erantzukizunak bateratzeko ahaleginak direla esan daiteke. Gurasoen Bajei buruzko Zuzentaraua, enplegua umeak edukitzearekin bateragarriagoa izateko familia-politika zuzena da. Helburu horrekin batera, diskurtso politiko bat zabaltzeari ekin zioten eta, bertan, gizonen familia-bizitzako inplikazioa bultzatzen zen; horrenbestez, zuzentarau-esparrua, generoari dagokionez, neutrala da (Hobson 2002).

Lanaldi murriztuko lanaren kasuan, berau defendatzeko arrazoiak lan-merkatuan oinarritzen ziren (malgutasuna areagotze aldera) eta lanaldi murriztuko postuetan ziharduten emakume eta gizon langileen eskubideak babestera bideratuta zeuden, nahiz eta gehienetan emakumeak ziren EBko herrialde guztietan. Zuzentarauko klausula batek emakumeei ordutegia murrizteko modua ematen die, betiere lanpostua galdu gabe eta lanaldi osora itzultzeko aukera emanez; bideratuta dago amatasuneko lehenengo urteetan euren ordutegia murriztu nahi duten emakumeentzat. Hala ere, eskubideak aita edo ama / herritar testuinguruan aztertzen ditugunean, garrantzizkoa da kontuan hartzea, EBren legediak orain lanaldi murrizketa babestu arren, estatu kideei ez diela exijitzen lanaldi murriztuko postuak sortzeko enpresaburuak eta sindikatuak presiona ditzaten. Era horretan, ordutegi murriztuko lan gutxi dituzten herrialdeetan, adibidez, Espainian, Italian, Grezian eta Irlandan, amen enplegu-maila baxuenak aurki ditzakegu. Gainera, lanaldi murriztuko babesak eta eskubideak, herrialde gehienetan, asteko 15 orduko atalaren bueltan daude eta, horrenbestez, langileek (batez ere emakumeek) ezin dute eskubide horren babesik jaso (Eklund 2001).

Gurasoen bajei buruzko EBren zuzentarauak hala aitei nola amei 14 asteko baja hartzeko eskubidea eman zien, nahiz eta ez zuen baja ordaindua izatera behartzen. Oraindik, EBko bost herrialdek ez dute bajako gizarte-eskubiderik, hau da, horietan ez dago estatuak ordaindutako preziaziorik, ezta enpresa horiek ordaintzera behartzen ere. Aita ekonomia-euskarri nagusizat duten familietan, horrek esan nahi du aitek ezin dutela zainketako eskubidea erabili; enplegua eta ama-

tasuna konbinatzea bilatzen duten amei, berriz, prestaziorik (gurasoen bazarako eskubiderik) ezak ez dio modurik ematen emakumeen eragiletzari lana / bizitza oreka garatzeko.

Europako legediak ere ez du bermatzen haurrak zaintzeko sisteman toki bat edukitzeko eskubidea, herrialde batzuetan (adibidez, Suedian), bizitzako lehenengo urtearen ondoren toki bat bermatzen duten arren. Izan ere, Europako Auzitegiaren laurogeita hamarreko urteen amaierako berediktu batek ateratako ondorioa izan zen haurrak zaintzeko zerbitzu-sisteman toki bat ez edukitzea ez zela lanpostua uzteko "arrazoi garrantzitsua" (1).

Haurren zainketaren esparruan, EBk estrategia biguna aukeratu du; Bartzelonako goi-bilerak ardetzara batzuk ezarri ditu haurrak zaintzeko eta, horien arabera, 2010. urterako, estatu kideek haur-zainketa eskaini beharko liekete 3 urtetik beherako umeen ehuneko 33ri gutxienez eta hiru urte eta derrigorrezko eskolatze-adin arteko haur guztien ehuneko 90i gutxienez. Gero eta adostasun handiagoa dago uste izateko EB legedi bigun baterantz doala, koordinazioko metodo irekian negoziatzeko estrategia nagusian antzeman daitekeen bezala: arabei buruzko adostasuna lortzen ahalegintzeko era da, hobekuntza praktikoak gerta daitezten (Guillen 2004 eta Pelier 2004.) Hori aldi baterako estrategia baten adierazgarri izan daiteke, herrialde berrien sarrera erraztu dezan, baina izan daiteke ere zainketa-eskubideak eta merkatu-eraginkortasuna areagotzearen arteko gatazkaren seinale. Bestalde, diru-batasunean konbergentzia bat gertatzeko baldintzaren ondorioz, gobernuari presio handiagoa egin zaie zorraren muga batzuei eta gastu publikoaren murrizketari eutsi diezaieten.

Are garrantzitsuago, EBk amatasun-enpleguko politikak osatzeko rol informala bete du. Familia eta enplegua bateratzeko EBren diskurtsoa, enplegua eta amatasuna zein aitatasuna bateratzen dituen familia-eskubideak mobilizatzearen aldeko diskurtsoa izan da. Dena den, ez guke ahaztu behar diskurtso hori, EBren barruko autosufizientziari buruzko diskurtso zabalago baten zati dela. Jane Lewisek deitu duenez, pertsonak gizabanako buruaskiengoak eta independenteagoak adierazten dituen langile helduaren eredia da (Lewis 2002). Dena den, merkatuan gizonak eta emakumeak betetako era askotako posizioei muzin egin ez ezik (neutrala da genero-kontuetan), arraza-/etnia-gaietan ere neutral agertzen da. Ez ditu kontuan hartzen gizon eta emakumeak autosufizientziara iristeko dituzten mugak, euren era askotako hezkuntza- zein errenta-mugaren arabera edo emakume eta gizon etorkinen lan-merkatuko kolokako estatusaren arabera (horiek lan-merkatu malgu eta informaletan laneratzen direla, lan-esku informalaz).

(1) Ikus *Gabriele Gruber v Silhouette International Schmied GmbH & Co. KG*. C-249/97. Kasu horretan, kontua zen amatasun-bajaren ondoren umeak zaintzen etxean geratu behar zela eguneko zainketa-zerbitzurik ez zegoelako; interpretatu zuten, egoera hori zen "lan jarraikia egiteko ezintzea. Auzitegiaren arabera, zainketarik ez egotea ez zen Austriako legedian bildutako beste egoera batzuen parekoa; izan ere, egoera horietan prestazioak eskaintzen zituzten pertsona enplegatuek euren enplegu-erlazioari eutsiko ziotela espero zitekeen kasuetan" eta, horrenbestez, Guber-i baja osoko prestazioa ukatu egin zioten.

Langile helduaren eredu eta gure ama edo aita herritarrei buruzko eztabaidarako horren inplikazioak aztertzen ditugunean, prozesu eta presio kontraesankorrei aurre egin behar diegu, lan egiteko eskubide eta betebeharrekin eta zainketako eskubide eta betebeharrekin zerikusia dutenak. Ama ezkongabeak eta zainketako euren eskubideak zein betebeharrak indarrean jartzeak ageriko adibidea dira. Hurrengo atalean, presio kontraesankor horiek aztertu nahi ditut, era askotako gurasoek zenbateko eragiletza-askatasun duten, aita langile herritar edo ama langile herritar diren aldetik.

1.1

AMAK ETA LAN EGITEKO BETEBEHARRAK

Langile helduaren ereduari eta horren generoko ondorioei buruz egindako ikerketaren zati handi batean enplegua eta familia edukitzea bateratzeko arauetan izandako europartzeari eta lan ordainduan emakumeek izandako parte-hartze gero eta handiagoari erreparatu diet (Rubery et al 1999). Antzematen denaren arabera, hori emakumeek euren gobernuei Europako maila eta arauetara egokitzea eskatzeko diskurtso gaitzaile bat da (Liebert 2003). Hala ere, autosufizientziari buruzko diskurtsoak lan-merkatua aktibatze politikak neoliberalak bultzatu ditu, ama ezkongabeak merkatu horretako parte-hartzaile bihurtzeko. Maiz horrek esan nahi izan du ume txikidun emakumeak txiroago izatea, lan-merkatura sartzen baitira kolokako eta soldata baxuko lanak egitera edo, bestela, gizarte-laguntzaren mendeko bihurtzen baitira Erakundeen laguntzarik ez dutelako enplegua eta eure zaintzaile-lana batera ditzaten (Christopher 2002).

Emakume guztiak, ama ezkongabeak barne, lan-merkatura sartzeko aurreikuspenak ahuldu egin du ama ezkongabeentzako gizarte-soldataren ideia Mendebaldeko ongizate-estatuetan. Herbeheretako adibide paradigmaticoa izan zen. Laurogeita hamarreko hamarkadaren hasiera arte, Herbeheretako gobernu zen ideia horren antzekoena: emakume ezkongabe herbeheretarrek maila altuko gizarte-prestazioak zituzten, betiere denbora-mugarik gabe eta enplegua bilatzeko betekizunik gabe (Hobson, 1994; Knijn y Kremer). Orain, berriz, bere aktibatze-politikak presio itzela eragiten die ama ezkongabeei lan-merkatuko kide bihurtzeko ala, bestela, prestazioak galdu eta prestazio-maila txikiagoak izan ditzaten; ondorioz, txirotasuna biziki areagotu da. Ikusi dugunez, herrialde ia guztietan emakume ezkongabeen txirotasuna handitu egin da azken hamar urtean. Prestazioak murriztu eta, aldi berean, aktibatze-politika martxan jarritako herrialdeetan handitu da nabarmenen, adibidez, Herbehereak eta Britainia Handia. Alemania, ordea, salbuespena da, gutxitu egin baitira ama ezkongabeen txirotasun-tasak, Ekialdeko Alemaniako ama ezkongabeen proportzioa altua dela eta. Dena den, tasak bereziki altuak dira. Ama ezkongabeen txirotasun-maila altuenak ama ezkongabeen proportzioa altuak eta, aldi berean, bateragarritasun-politika ahulak dituzten herrialdeetan gertatzen dira; izan ere, hartara, familia eta lan ordaindua konbinatzea ezinezko bihurtzen da. Esan dezakegu, beraz, aktibatze-politikak egon bai eta lana eta familia-ardurak bateratzeko zerbitzurik zein prestaziorik ez duten herrialdeetan, emakume herritarrei ez zaiela lan egiteko eskubidea aplikatzen, lan egiteko betebe-

harra baizik. Hala da, bereziki, herrialde neoliberaletan, esate baterako, AEB, Zelanda Berria eta Australia (Shevik 2005), baina arau bihurtzen ari da Erresuma Batuan, Alemanian eta Herbeheretan. Lan egiteko betebeharra ezinezko egoera bihurtzen da ama ezkongabe gehienentzat, heziketa-maila altuena dutenentzat izan ezik. Prestakuntza eta heziketa gutxien dutenak txirotasunaren mugan bizi dira, eta prestazio txikiak jasotzen edo ordutegi oso luzeetako lanpostuak onartzen dituzte; hartara, euren seme-alabak zaintzeko ahalmena galdu egiten dute.

Diru-sarrera bikoitzeko gizarteetan ere, adibidez, Suedian, gizarte-ama ugari daude, gizarte-laguntzarik gabe pobre izango lirakeenak (etxebizitza esleitzea, errentarako mantentze-ordainketa aurreratua senarrek pentsioa ordaintzen ez dietenean). Suedian, ama ezkongabeen txirotasun-maila oso baxua izaten jarraitzen du, baina antzeman dugu txirotasun hori nabarmen hazi dela, baita errenta erabilgarriari dagokionez ere, laurogeita hamarreko urteetan (Björnberg 2001) ama ezkongabeak galtzaileen artean izanda ere (Sainsbury 2002). Hamarkadaren hasieran, ama ezkongabeen batez besteko errenta, batezbestekoa baino ehuneko 27 baxuagoa zen; hamarkadaren amaieran, berriz, ehuneko 39 baxuagoa. Ama ezkongabeek murrizketa etengabea izan dute errentan, euren adina, jatorrizko herrialdea eta seme-alaben kopurua zein den gorabehera (Fritzell 2001).

Ez da harritzekoa; izan ere, hori da berregituratze globalak gehien erasandako emakume-taldea; enpresak langileak kendu eta plantilari lan-ordutegia handitzeko eskatzen zaion aldietan lanpostuari eusteko gaitasun gutxiena dutenak dira (Sainsbury 2000). Laurogeita hamarreko hamarkada arte, lan-merkatuko parte-hartzean desberdintasun gutxi zeuden ama ezkongabeen eta bikotea zeukatenean artean, ama ezkongabeek ordu gehiago lan egiteko joera bazuten ere (Hobson eta Takahashi 1997). Ama suediar gazteek, lan ordainduari esker, txirotasunari ihes egiten zioten, baina egia da ere diru-sarreraren zati nabarmen bat prestazio eta laguntzetatik zetozkiela (ehuneko 56 eurek irabazitakotik eta ehuneko 31 gizarte-laguntzetatik). Ama ezkongabeen diru-sarrerak gutxitu egin dira euren lanpostuak hondatzearen ondorioz, eta ama ezkongabeen enplegu-tasak baxuagoak dira orain bikoteenak baino; beraz, iraganen gertatzen zenaren kontrakoa da; izan ere, laurogeita hamarreko urteetan, bigarrenak langabezia-tasa altuagoa eduki ez ezik, aldi luzeagoetan izaten ziren langabezia eta enplegu-maila txikiagoa zuten, baita lan-merkatutik urrutia-go egon ere, hori laurogeita hamarreko urteetako ama ezkongabeen esperientziaren ezaugarria baitzen (Björnberg 2000; Suediako Estatistika Institutua 1998; Sainsbury 2000). Diru-sarrera bikoitzeko gizartearen testuinguruan, lan ordainduak emakumeen autonomia eta independentzia adierazten du eta, emakume ezkongabeen ustez, euren lan-merkatuko zaurgarritasun-egoerak eskubide-galera eragiten du (Takahashi 2002).

Gaitasunen esparruaren alderditik, ama ezkongabeek dute eragiletza-askatasun gutxien. Lan-merkatutik kanpo izan direnak, bertan sartzera behartuak izaten ari dira orain, maiz eskolaurreaz aurreko adineko haurrak zaintzeko bitarteko egokirik eman gabe eta ia eskola-orduz kanpoko zainketa-programarik gabe. Alternatiba moduan, ama ezkongabe ugariak lana zuten eta ezin izan dute horretan iraun, lan-ingurune lehiakor globalizatuaren ondorioz; izan ere, etxean ume gaixoak

zaintzen geratutako edo lan-ordu luzeak lan egin ezin duten pertsonak dira langileak gutxitzen dituzten enpresetatik eta erakundeetatik desagertzen lehenengoak.

1.1.1

AITA EDO AMA / LANGILE / HERRITARRA ETA BATERAGARRITASUN- -ESKUBIDEAK

Era orokorragoan, zainketa eta lan-merkatuko lana bateratzeko gurasoen eskubidea areagotzera bideratutako politikei erreparatzen badiegu, ikusten dugu bateragarritasun-politikek (zainketa-eskubideek), zainketarako gizarte-eskubiderik gabeko emakume eta gizon askorentzat ez dutela zentzurik.

Janet Gornickek (Gornick, Meyers et al. 1997; Gornick 2003) politiken ondorio espezifikoen eta horien emaitzen azterketa eguneratu bat eskaini digu amek enplegua eta familia-ardurak konbinatzeko dituzten aukeren inguruan. Gornickek 14 herrialderi aplikatzen dien ahalegin politikoen indize bat osatu du eta, bertan, hamalau herrialdeetako haur-zainketa, gurasoen bajak eta eskola-orduak hartzen dira kontuan. Gai izan da zehazteko zein instituzio-testuinguru motak babesten duten aita eta ama langileen herritartasuna (gurasoen bajak, haurren oso adin goiztiarreko zainketa eta hezkuntza eta lan-ordutegia barne). Ez da harriztekoa Eskandinaviako herrialdeek lehenengo postuak betetzea eta erregimen liberaleko herrialdeak, Kanada, AEB eta Erresuma Batua barne, ahalegin politikoen indizeko azken tokietan izatea.

Herrialdeen arteko aldaerez gain, horietako bakoitzaren barnean eta ahalegin politikoei eta bateragarritasun-politikei eragindako ondorioei dagokienez. Oraindik oraingo azterketa batean, bikoteko amak hartzen ziren aztergai (Hobson eta Oláh, 2004, argitaratzeke) euren hezkuntza-mailaren arabera, eta aurkitu genuen hezkuntza-maila altuko eta baxuagoko emakumeen artean alde handiak zeudela. Hori Eskandinaviako herrialdeetan ere gertatzen zen. Dena den, gure emaitzek erakutsi zuten, alde handienak Espainian eta Italian gertatzen ziren. Bigarren hezkuntzako eskolara joateko adinik gabeko seme-alabak zituen ama espainiar batek hamar aldiz aukera gehiago zituen lan-merkatutik kanpo egoteko maila altuagoko hezkuntza zutenek baino; Italian, berriz, maila baxuagoko hezkuntza zutenek 14 aldiz aukera gehiago zuten lanik ez edukitzeko maila altuagokoek baino. Hezkuntza-maila altuko emakumeek merkatuan zerbitzuak lor ditzakete. Beraz, bigarren hezkuntza duten amak eta hirugarrenera iritsi direnak konparatzen direnean, alde nabarmenak antzeman daitezke gure 13 herrialdeetako gehienetan, nahiz eta desberdintasun horiek Eskandinaviakoetan eta Ekialdeko Europan txikiagoak diren.

Lan-ordutegiak garrantzizkoak dira emakumeen eragiletza-askatasunerako enplegua antolatu, umeak eduki eta zaintzeko orduan. Kontua da ordutegi murriztuak eta lanaldi malguak edukitzea. Ordutegi murriztuko lanpostu-kopurua eta lanaldi ez osoetan lan egiten duten emakumeen kopurua aztertzerakoan, aurkitzen dugu ordutegia murrizteko aukera gutxien eskaintzen dituzten herrialdeak izan ohi direla emakumeek lan-merkatuan parte hartzeko tasa txikiak dituztenak (ikus

Sundström 1987; Rubery, Smith et al. 1999). Beste adierazle bat lan-ingurunea edo lan egiten den tokiko kultura da. Kasu horretan, sektore publikoan lan egiteko aukera aldagai erabakigarria da, bertan izaten baitute familia-bajak hartzeko tolerantzia handiena eta zorrotasun gutxieneko lan-ordutegiaren erregimena. Zainketa eta enplegua bateratzeko gizarte-eskubideak, diruz lagundutako eguneko zainketa eta gurasoentzako konpentsazio adierazgarriak barne, garrantzikoagoak dira hezkuntza eta errenta baxuagoko emakumeentzat. Merkatuan ezin dute zerbitzurik eskuratu eta erraztasun txikiagoa dute familia-ekonomian izandako diru-sarreraren galerei aurre egiteko. Lanpostuko lan-ordutegiak eta lan-kulturak erosoak eta familiaren lagungarri izatea garrantzikoak dira lana eta bizitza orekatu nahi duten emakume guztientzat. Gero eta garrantzi handiagoa dauka, halaber, lan eta bizitzaren arteko oreka bilatzen duten gizonentzat ere, aita aktiboen rola euren nortasunen zati erabakigarria bihurtu denean (Hobson 2003).

2.

Aita herritarrak: zainketako betebeharrak eta eskubideak

Familiatan gizonak egiten dutena kate-maila galdua da lan eta bizitzaren arteko oreka zein aita eta langile rola bateratzea aztergai hartzen duten ikerketetan. Ongizate-estatuaren gizarte-politiken eta genero-berdintasunen arteko erlazioak aztertu ditugunok oso jabetuta gaude familien barneko desorekei aurre egin behar diegula. Generoa eta gizarte-ongizatea ikertzen duten gero eta pertsona gehiago gure *Making Men into Fathers* liburuan ateratako ondorio berera iritsi dira: gizonak genero-desberdinkeria eta emantzipazio-proiektuaren ikerketa-gai izatera pasa dira (Björnberg, 1998; (Bruning G 1999); Byggren eta Duvander 2004).

Aitatasunaren betebehearren alderditik aztertzen badugu, ikusiko dugu laurogeita hamarreko urteetako diskurtso politiko nagusiak dibortzio ondorengo gizonen erantzukizun ekonomikoak hantitzeko ahaleginei eta aita nagi edo absenteei erreparatzen ziela (zainketako betebeharren definizio oso mugatua; ikus kapituluak in Lewis, Muncio, Orloff eta Mansson; *Making Men into Fathers*, 2002). Horrek Mendebaldeko ongizate-estatu askotako agenda politikara bere bidea urratu zuen. Aurkitu dugunez, gizonak finantza-erantzukizun handiagoa hartzera behartzeko diskurtso eta politika nagusi bat zegoen herrialdeetan ere (Erresuma Batuan, Espainian eta AEBetan), bereziki zaila gertatzen zen horiek errespetaraztea, gizonen mobilizazio politikoak zirela eta, baita ama dibortziatu ugari hainbat arrazoiengatik politika horren kontra zeudelako. Arrazoi nagusietako bi, hauek ziren: ama ugari beldurra zuten lehengo bikotekideekin eta senarrekin harremanik izateko, azkenean euren buruaren eta seme-alaben kontrako indarkeria gerta zitekeelako.

an, eta are garrantzitsuago, aitortzen zutelako politika horiek ez zutela eurentzako egoera ekonomiko hobea eragiten, kontrakoa baizik, estatuak kostuak aurrezteko neurria zen; izan ere, kasu gehienetan, gizonak uko egiten zioten ordaintzeari edo ezin zuten egin, kartzelaratzen zituzten eta, hartara, ezin zuten dirurik edo zainketarik eskaintzen seme-alabentzat.

Gai hori ez zen jada aitatasunari buruzko Europako diskurtsoaren kezka nagusia. Ongizate-estatu askotan eta, zalantzarik gabe, Europar Batasunaren agendan, zainketaren finantza-betebeharrak (herrialde gehienetan, hori da aiten erantzukizunentzako ohiko lege-formula) ez zuten jada toki nagusia hartzen, zainketako eskubide eta betebeharrak baizik (alegia, aita jokatzeari de-zekeguna). Lehenik eta behin, esparru moduan, lan eta bizitzaren arteko oreka, bat dator gero eta gehiago aita jokatzeko garrantziarekin, zentzu formalenean gutxienez. Hori gurasoen bajen EBko zuzentarauan adierazia izan zen: bertan, zainketa desnaturalizatu egiten da eta hala amei nola aitei eskaini baja hartzeko modua ematen du; horrek, ordea, Europar Batasuneko Auzitegiaren aurreko erabaki bat bertan behera uzten zuen. Kasu horretan, aita batek erreklamazio bat bideratu zuen laurogeiko urteetan EBko Auzitegira eta, bertan, aitak Alemaniako legea salatzen zuen amatasun-baja amek soilik har zezaketelako, hori genero-diskriminazio mota bat zela argudiatuta (ikus Hofmann C-184/83). Orain aita guztiek dute aitatasun-baja hartzeko eskubidea. Herrialde guztiek dute derrigorrezko amatasun-bajako prestazio ordaindua, soldataren ehuneko 45 eta 100 artean kokatutakoa, baina aitatasun-bajako prestazioen mailei dagokienez, era askotako gizarte-arteetan alde nabarmenagoak daudela geratzen da agerian: batzuek eskubideak soldataren proportzioan oinarritzen dituzte eta, aldiz, beste batzuek prestazio zuzen txiki bat dute; beste toki batzuetan, prestazioak baliabide erabilgarrien arabera ebaluatzen dituzte; gainera, lehen aipatu dugun bezala, oraindik bost herrialde daude batere ordaintzarik gabe. Herrialde gehienetan, prestazioa ordainketa finkoa da eta prestazio gutxi dituzte (Brunning eta Plantenga 1999).

Rotterdamen egin berri den bilera batean izan naiz, aitatasunari buruzkoa, eta EBk babestu du. Bertan, jakin dut Europar ekimen ugari daudela aitak zainketaren euren betebeharrak jabe daitezkeen. Bat aipatzearren, udal-ordenantza batek ez zien gizonari ostegun gabez kalera irteten uzten, seme-alabekin etxean geratu behar baitzuten, amak irteteko gaua zelako. Komunitate txiki batean aplikatzea zaila izan zen; pentsa, orduan, zein zaila izango litzatekeen estatu osoan ezartzea. Esperimentu horien xedea da zainketa-lanetan gizonen inplikazio-faltari buruz gehiago kontzientziaztea.

Dena den, artikulu honetan, aldaketa instituzionala hartuko dut hizpide, bereziki gizonen zainketan duten erantzukizuna aregotzeko estatu osoko politika proaktiboak. Bi ekimen politiko proaktibori erreparatuko diet: lan partekatua eta aitarantzako gurasotasun-baja. Biak boluntarioak dira eta aitak ez daude derrigortuta horiek erabiltzera. Den den, pizgarrien egiturak dituzte zainketa-eskubide horiek erabil ditzaten eta, Suediako kasuan, prestazio-galera eragiten dute gizonen probetxua ateratzen ez badiete: ordainketa zuzena eta finkoa da soldata-mailaren ehuneko 80aren aldean. Nik politika proaktibo horiek aztertzen ditut, ez penalizazioak bilatze aldera, baizik eta gizonen enpresarekiko eta bikotekideekiko harremanetan euren negoziatio-boterea aregotzeko eragiletza-era moduan. Politika horiek defendatzeko orduan, bi herrialde eredugarriak dira:

Herbehereak (lan partekatua) eta Suedia (gurasotasun-bajako bi hilabete aitari gordetzen zaizkio). Hurrengo atalean, Herbeherei buruzko ordaindik oraingo ikerketa bat laburbilduko dut, Suediako nire ikerketaren azterketa xeheagoa aurkeztuko dut".

Hala Herbeheretako nola Suediako politikak, Estatuak hedabideetan sustatutako kanpaina batzuk dituzte bidelagun. Badago Gizarte Gaietako Ministerioak babestutako Herbeheretako telebista-iragarki ezagun bat. Trudie Knijnek eta Peter Steltenek gure liburuan laburbiltzen dute.

Iragarkian estilo zaharreko familia bat agertzen da, berrogeita hamarreko urteetako orrazkera eta arropak gogorarazten dizkigutenak eta familia tradizionalaren ohiturak eta formak dituztenak. Eskenan ondorengo erakusten zaigu...

"Aita bat, bi alaba eta seme bat jangelako mahai baten inguruan daude eserita. Hitz bat entzun da. Bat-batean, emakume bat, ama zalantzarik gabe, jangelan sartu da eta aitari haragi-plater bat eskaini dio. Berak haragia zatikatu du. Une horretan, semearen ahots batek dio: "Nor da igandero haragia zatikatzen duen gizon hori?" Orduan, testu idatzi bat agertzen da: "Gizonak lanean bezain beharrezkoak dira etxean".

Mezu horrek gurasoen errutasunarekin jokatzeko argi eta garbi, eta hedabideetako kanpainak gizonak lan ez-ordainduaren bere zatia ez egitearen alde txarrak nabarmendu ditu. Beste telebista-iragarki batean, gizon bat, informatikako aholkularia, etxean dago, umeei egiten dituzten oihuei ezentzuna eginez; emazteak, aldiz, jo eta ke etxeko lanetan dihardu, aldi berean, seme-alabek aitari enbarazu egin ez diezaioten ahalegina eginez. Ikuspegi horrek aurrez aurre egiten du talka aita jokatzeko Suediako kanpainen atzeko mezuarekin. Ondorengo bi adibideak gure liburutik atera ditut. Bi irudi horiek, aitek baja hartzeko Gizarte Ongizateko Kontseilu Nazionalak egindako ahaleginak ziren eta, aztertu egiten baditugu, era askotako deiak eta garaiak geratzen dira agerian.

Lehenengoa borrokalari ospetsu bat da: Hoa Hoa. Kotoizko estalkiko aitaren ikono bihurtu zen, leuntasunez estalitako maskulinitasun gogorra. Irudi horrek adierazten duen bezala, langile-klaseko gizonak erakartzea zuen helburu (oso maskulinoak eta aberkoiak, koroa suediarrek marraztuta dituen kamiseta honek erakusten duen bezala).

Bigarren irudia enpresaburu iheskorriari aurre egiten dion sektore pribatuko bulego-enpleguarena da. Laurogeita hamarreko urteetan baja hartzeko joera gutxienera zuen aita adierazten du; emakumeek eta beste gizonak presionatuta, ordea, hartu egiten du, aita aktiboa eta konprometitua dela erakusteko. Garrantzizkoa da gogoan izatea aitatasun-bajen politikak, era aktiboan aita jokatzeko aldeko Suediako diskurtso eta politiken bi hamarkadaren erpina direla, Herbeheretako kanpaina eta politika berriagoak ez bezalakoak.

Herbeheretako gobernuak, aita jokatzeko aiten rola areagotzeko ahaleginean, estrategia zuzen bat aukeratu du: familiako zereginak eta lana era bidezkoagoan banatzea bilatzen duten bikoteei aukerak sortzen dizkien politika bat burutu du, herrialdean ordutegi malgua eta lan partekatuko eskemak ezarri (ikus Knijn eta Selten 2003). Enpresak ez daude behartuta euren lan-eskuari horrelako aukera eskaintzera, baina hala egin dezaten animatzen dituzte eta ez dago zigorrik egi-

ten ez badute. Datuek erakusten dutenez, ordea, ez dira asko aukera hori hautatu duten bikoteak. Gizon gazteak eta ezkongabeak (asko ikasleak) dira lan-orduak murrizten dituztenak eta ez karerra profesionala eta familia bateratu behar duten gizonak. Amak dira, eta ez gizonak, lan partekatua eta ordutegi murriztuen aukerari etekina ateratzen diotenak. Aitek zainketa euren gain hartzearen aldeko politika espezifikoak gutxi eta eskasak dira Europako gainontzeko herrialde gehienetan; izan ere, sarritan, umea jaio osteko egun gutxi batzuetakoa besterik ez da izaten. Knijnek eta Wan Welek burututako azterketa batean, 1998 eta 2000ko familiak alderatu ziren eta, frogatu zutenez, seme-alabak dituzten gurasoen ehuneko 9k baino ez dute banaketa ekitati-boaren aukera baliatu: BIEK ASTEKO GEHIENEZ 32 ORDU LAN EGITEA. Diru-sarrera bakarria duten familien kopurua ehuneko 29tik 9ra jaitsi da; hala ere, horrek ez du eragin familiako berdintasun handiagoa. Aldiz, gero eta emakume gehiagok lan egiten dute lanaldi murriztuan; familien ehuneko 61ek 1 ¹/₂ familia-eredua segitzen dute: aita bat familiaren euskarri, asteko 32 ordutik gora lan egiten, eta emakume bat asteko ohiko ordutegia (32 ordu) baino gutxiago lan egiten. Erakutsitako estatistikek adierazten dutenez, Europako ongizate-estatuen artean, emakume herbeheretarrek dute lanaldi oso murriztuko enplegatuen proportzio handiena (Rubery et al. 1999; Tijdens 2002). Emakumearen ekonomia-euskarria duten familiak ehuneko 2 baino ez dira, eta ia ez dago diru-iturri berdineko bikoterik (lanaldi osoko enplegua duten hala gizonak nola emakumeak, lan-denbora partekatuko aukera sortu zenetik ordu-kopurua gutxitu dutenak).

Suedia eta Herbeheretako politika proaktiboek jomuga berdina dute luzera begira: zainketa desnaturalizatu herritarren eskubide eta betebeharrak den aldetik; lan ez-ordainduaren banaketa partekatua, aurreikusten baita etxean seme-alaben zaintzaile bakarrak diren gizonak lan ez-ordainduaren euren gaitasunak eta ardurak ere areagotuko dituztela.

Nolanahi ere, alde nabarmenak daude bi herrialdeetako ingurune instituzionalen eta atzeraelikatuta politikoko zirkuluetan: Suedia gizonen ekonomia-euskarri ahuleko gizartearen eredia dugu, lan-merkatuan diharduten emakumeen proportzio handikoa eta bereziki indibidualizatutako gizarte-politiketako; Herbehereak, berriz, gizonen euskarri sendoko gizartearen adierazgarri dira (Lewis 1993) eta, bertan, duela gutxi arte, emakumeen lan-merkatuko parte-hartzea Europako baxuenetakoa zen.

Emakume herbeheretarrek senarrekiko mendekotasun ekonomiko altuenetakoa zuten (Hobson 1990). Beraz, gurasoen lan partekatuetako eskemak gizonen ekonomia-euskarriaren soldatak babesten zituen ingurune instituzionalari zein politikoari eta zerga-sistemari egin behar zion aurre (izan ere, azken horrek diru-sarreraren iturri bakarrek familiantzako diru-laguntzak eskaintzen ditu oraindik).

2.1

AITAREN HILABETE SUEDIARRAK

Gurasoen bajei buruzko Suediaren politikak bilatzen du familiek zainketa-lanak antolatzeke erari zuzenean eragitea. Aitak baja hartzen ez badu, bikoteak eurretako baten soldataren ehuneko

80ko gurasotasun-prestazio ekonomikoa galtzen du bi hilabetez; beraz, erabili ala uzteko politika bat da. Hilabeteetan ordainketa zuzen bat lor daiteke, baina eguneko 70 eurokoa da soilik. Nik Suediaren eredu baliatu dut, ez herrialde horretan bizi naizelako, iraupenari eta prestazio-mailari dagokionez gurasotasun-baja oparoenetakoa izan delako baizik. Suediar familiek 13 hilabete dituzte erabilgarri ehuneko 80ko ordezkapen-mailarekin. Dena den, Suediak aiten hilabetea bira luzatu du, eta hirura edo seira ere zabaltea aztertzen ari dira (2).

Gizonek gurasotasun-bajaz egiten duten erabilera era egonkorrean hazi da, bereziki euren aita-eskubideak baliatzen dituzten gizonen kopurua. 1988an, gurasotasun-bajak aprobetxatzen zituzten gizonen kuota ehuneko 6koa baino zertxobait handiagoa zen; 1997ko aiten hilabeteko politika ezarri eta hiru urte ondoren, baja hartzen zuten gizonen kopurua pixka bat baino ez zen hazi (guztizko 360 egunen ehuneko 9,9).

Gurasotasun-bajen malgutasunak modua ematen die gurasoei denbora nahi erara erabiltzeko haurraren zortzigarren urteurren arte. Adibidez, laneko egun-erdiak har daitezke, baita asteburu luzeagoak eta iraupen luzeagoko oporrak ere. Gurasoek euren bajak erabiltzeko denborei buruzko estatistikek iradokitzen dutenez, bajak udako hilabeteetan biltzen dira eta horrek udako oporren luzapena eragin dezake emakumearekin; aldiz, emaitza horrek gizonek haurrak zaintzeko rola hobetzeko politikaren alde ideologikoa ahuldu egiten du, xedea gizonei gaitasuneko guraso diren aldetik ahalmenak ematea baitzen, eta hori izan zen gurasoei denbora gorde behar zelako arrazoiei buruzko aita-multzo aditu batek defendatutako arrazoibide nagusia.

Hala ere, ezin gara ere zinikoegiak izan, aldaketa gertatu egin baita. Zenbaki berriek erakusten dutenez, gizonen ehuneko 50 baino gehiagok aprobetxatzen dituzte aitatasun-hilabeteak eta euren parte-hartzea ehuneko 17koa da lehenengo bi urteetan (familia gehienetan, zainketa-aldi kritikoa). Ikerketak adierazten duenez, aldaketa bat gertatu zaie gizon suediarren jarrera eta identitatei azken hamarkadetan. Galdetzen zaienean euren identitate pertsonalari gehien zer hurbiltzen zaien, laurogeita hamarreko urteetako gizon galdekatuen %50 baino gehiagok familia-bizitza erantzun zuten; ehuneko 32k, berriz, lana eta familia esan zuten eta ehuneko 9k soilik komentatu zuten identitate nagusia lan-merkatua zutela (Björnberg 1998). Baja hartzen ez duten gizonek aitzakiak ematen dituzte eta defentsa-jarrera dute.

Bajak nortzuk hartzen ari diren eta nortzuk ez adierazgarria gertatzen da jakiteko presio politikoek gizonen ohituretan zein neurritan eragin dezaketen. Zeharka, gizonen eragiletza-askatasunari buruzko zerbait esan diezaguke, zainketako eskubideari buruzko euren gaitasunei buruz.

Enpresetako / erakundeetako gurasotasun-bajen oraindik oraingo azterketa batean, Byggren eta Duvander-ek (2004) baja hartzeko aukera zeukaten aita ezin hobeen bi eredu osatu zituzten. Michael eta Magnus deitu zituzten (azkenekoa, Suediako izen tipikoa eta azterketaren egilearen

(2) Danimarkak politika hori bertan behera utzi zuen gobernu-aldaketa batean ostean. Norvegian hilabeteko baja dute; Islandian, berriz, baja hiru hilabetera luzatu dute.

deitura da). Bi gizonak aita izan ziren 1997an: batetik, Magnus Suedian jaio zen eta 30 urte ditu, unibertsitateko hezkuntza du eta hilabeteko 2.600 euro inguruko soldata on bat; gainera, duela 5 urte sektore publikoko lanpostu batean ari da lanean. Bestetik, Michaelek adin berbera du, baina atzerrian jaio zen; oinarrizko hezkuntza-maila du eta 1.600 euro irabazten du soilik hilabeteko; bestalde, enpresa berri batean hasi da lanean.

Bi adibide horiek aditzera ematen duten bezala, gizon-talde batzuek eragiletza-askatasun gutxiago dute euren aita-eskubideak erabiltzeko. Gizarte-laguntza jasotzen duten gizonek dute eragiletza txikien, eta ez dute baja-egun bakar bat hartzen. Hori logikoa gertatzen da; izan ere, sei hilabeteko lanean aritzeko baldintza dute soldataren ehuneko 80ko prestazioko goi-mailako prestazio bat jasotzeko. Suediatik kanpo jaiotako aiten ehuneko 30 baino gehiagok ez dute aitatasun-bajarik hartzen, alegia, Suedian jaiotako eta hartzen duten aiten batez beteko kopurua (ehuneko 22) baino portzentaje askoz altuagoa. Suediako etorkinen zati nabarmen bat herrialde musulmanetatik dator, eta guztiz bestelako arauak dituzte genero-roleri eta aitaren aginteari buruz, Suediako berdintasunezko familiaren kontrakoa; izan ere, bajak hartzeko joera txikiena duten gizonak, emakume etorkinekin ezkonduko gizon etorkinak dira.

Dena den, kultur desberdintasunek ez dute guztiz balio bajak hartzen ez dituzten aita etorkinen proportzio altuaren arrazoia aurkitzeko. Azken garaiotan, gertaera hori nabarmen handitu da laurogeita hamarreko urteen hasieratik eta, segur aski, laurogeita hamarreko urteen erdialdean izandako ekonomia-krisialdiaren isla da. Riskförsäkringsverket (Gizarte Segurantzako Kontseiluak) azterlan bat egin du aitek aitatasun-baja hartu ondorengo 1993 eta 1996ko aprobetxamendutasei buruz, aldagai anitzeko analisia baliatuz, eta bere ondorioa izan zen bi gurasoak atzerritarak zituzten etorkin-familiatan aitek ehuneko 4 gutxiago erabiltzen zituztela bajak Suedian jaiotako aiten oinarri-kategoriak baino, adin, umearen sexu eta errentari erreparatu ondoren. 1993an ia ez zegoen alderik (Nyman eta Pettersen, 43-46. or.), eta orduko aprobetxamendu-tasa bajuak etorkinen kolokako egoera ekonomikoaren adierazgarri izan zitezkeen, enpresetako plantila-murrizketen eta lan-merkatuko euren posizio ahularen ondorioz. Ideia hori argi eta garbi geratu da agerian goian aipatutako bi eredu ezin hobeetan. Laurogeita hamarreko azkeneko aldean, biztanle etorkinen enplegu-tasak bertako suediarrenak baino askoz altuagoak ziren (ehuneko 5etik 18ra), bereziki Eskandinaviar kanpoko etorkinen artean, eta euren langabezia-tasak laurogeita hamarreko urteetako ehuneko 75etik 1998ko ehuneko 64ra jaitsi ziren (Sainsbury 2000). Azterketek erakusten dutenez, laurogeita hamarreko urteen hasieran, aitentzako baja-politika ezarri baino lehen, gizon etorkinak ziren aitatasun-bajak gehien erabiltzen zituztenak (RFV, 1993) eta, segur aski, gizon horiek lan-merkatuarekin erlazio sendoagoa zuten emakumeekin ezkondu zezuten. Aldiz, gauzak ez dira horrela gehiago: emakume etorkinek jasan dute enplegu beheraldi larriena (1990eko ehuneko 74tik 1998ko ehuneko 43ra; AKU 1000: 2, 216 eta 1998: 2, 225). Aita etorkinengan eta euren familitan, kultur testuinguru jakin batean indarrean dauden muga estruktural batzuk aurkitzen ditugu.

Gurasotasun-bajen aprobetxamendu-tasa baxuak zituen beste talde bat errenta oso altuko aitek osatzen zuten (gurasotasun-bajako diru-sarreraren sabaiaren gainetiko errenta: hilabeteko 2.400

euro). Gehienetan, sektore pribatuan eta aitatasunaren ez oso aldeko tokietan lan egiten zuten gizonak ziren. Adibide honetan, aitatasun-baja erabil lezaketen gizonak mugatzen dituzten lan-kultura edo erregimenei erreparatzen diegu (gogora dezagun nagusiak irribarre egin dezan bilatzen duen gizonaren irudia). Gertaera hori gurasotasun-bajei buruzko gobernuaren azterketa berriago baten aurkikuntzak sendotzen du: azterketak erakutsi zuenez, zaharragoak diren eta, sarritan, euren karrera profesionaletan hobe finkatutako gizonak baja hartzeko joera handiagoa dute gizon gazteagoek baino. Hori sektore pribatuan bereziki hala gertatzen da, eta arriskuak txikiagoak dira antolakuntza-hierarkiaren barnean zenbat eta gorago izan.

Lantokietako eta lan-erregimen kulturak alderdi erabakigarriak dira gizonak zainketako euren eskubideak erabiltzeko gaitasuna ulertzeko orduan. Jill Rubery et al-ek (1999) duten lan-erregimenen kontzeptuan (lan-erregimena praktikan lan-ordutegian sartzen duten lege-araudi boluntario zein tradizionaltzat definitzen dute), bitarteko erabilgarria dira gure arlo honi buruzko arauak eta ohi-turak planteatzeko. Genero eta ongizate-estatuaren gure konparazio-ikerketagatik dakigunez, gizonen lan-ordutegiek ezartzen dituzte arauak; halaber, familiako zainketa-lanen banaketa egituratzen dute (Brunning eta Plantenga, 1999). Europan, lan-ordutegien erregimen intentsuenak dituzten herrialdeek, lan-ordu luzeko lan-esku kuota handiena dutenek, dute lanaldi murriztuko lanpostuko emakumeen portzentaje handiena izateko joera (3).

Suediako datu batzuek agerian uzten dutenez, enpresetako lan-kulturak aitatasuna erabiltzearekin konpromiso handiagoa nahi duten gizonentzako oztopo ere bihur daitezke. Lanpostuetako kulturatan, kontuan hartu beharrekoa da gizonak aitatasun-baja hartzeari buruzko lankideen babes edo kontrako jarrera. Hainbat froga kualitatibok erakusten dutenez (adibidez, Eisabet Näsmanek 1995an garatutako ikerketa), sektore pribatuan lan egin eta gurasotasun-baja hartu zuten gizonak enpresaburuen eta lankideen aurreiritziak jasan zituzten. Suediako lan-merkatuan aitek euren bajei buruz egiten duten erabileraz burututako oraindik oraingo inkesta batean aurkitu denaren arabera, faktore erabakigarrietako bat enpresako beste gizon batzuek lehenago egin ote duten da (ikus Byggren eta Duvander 2004). Lehenago baja hartu duten gizonen proportzioak, neurri handi batean, areagotu egiten du aita batek baja hartzeko joera, ezaugarri indibidualak (adibidez, adina, hezkuntza eta lan-esperientzia) kontrolatu ondoren.

Oztopo batzuek uxatu egiten dute suediar familietako zainketaren antolakuntzaren eta lan ez-ordainduaren aldaketa. Bada zerbait garrantzitsuagoa: gizonak emakumeek baino gehiago irabazten dute eta, beraz, kontua ez da soilik baja-hilabeteetako diru-sarreraren galera. Suedian, diru-sarreraren galera gainontzeko herrialdeetan baino txikiagoa da (zergen aurretik, ehuneko 20koa gutxi gorabehera, eta gutxiagokoa errenta-aitorpenaren ondoren). Bada, bertako gurasotasun-bajek gizonentzat zainketak dituen kostuak hobe aztertzeko modua ematen digute. Zenbait enpresak, adibidez, Eriksonen, lan-eskuei konpentsazioa eman diete soldata-galeragatik, soldatetan muga bat baitago prestazioetarako orduan. Hala ere, enpresa horietako gizonak bajak hartu gabe ja-

(3) Hori, ordea, ez da hala gertatzen AEBetan eta Japonian, bertan ordutegiko murriztuko lan-eskuak ez baitu prestaziorik edo lan-segurantzarik jasotzen.

rraitzen dute. Aita izateko konpromiso txikiagoa al dute? Ala, besterik gabe, aurre egin beharko duten ondorioez jabetzen dira? Azterketek erakusten dutenez, zainketako euren eskubidea erabiltzen duten gizonak, zainketa euren gain hartzen duten emakumeek baino zigortuagoak gertatzen dira maiz: azterketa batek aurkitu zuenez (Albrecht et. al. 1999), gurasotasun-baja hartzen zuten gizonak ondorio kaltegarriagoa aurkitzen zuten geroko soldatetan emakumeek baino, hezkuntza, diru-sarrera eta lan-esperientziari erreparatu ondoren. Hala ere, hori nahasgarria gertatzen da; izan ere, emakumeek lan-merkatuan zainketagatik ordaintzen duten zigorra diskriminazio estatistikoak uzten du agerian: lanpostuetarako hautatzeko aukeraketan, lanpostuetako hierarkian eta soldata-desberdintasunetan. Ironikoa bada ere, diskriminazio estatistikoa agerikoagoa da eta onartuago dago Suedian, ugazabek ez dutelako arriskatu nahi urtebetetik hiru urtera lan-merkatutik kanpo geratuko den norbait kontratatuz. Horrek gurasotasun-bajako prestazioak uzten ditu agerian: emakumei euren prestazioak ahalik eta gehien luzatzeko modua ematen diete. "Abiadura-primari"ri dagokionez, prestazioen arabera, emakumeek prestazio-maila handienak eduki ditzakete hurrengo umea aurrekotik bi urte igaro baino lehen edukitzen badute.

Gary Becker-en etxeko ekonomiaren ereduak (Becker 1991), gizonak lan ordainduko eta ez-ordainduko lanaren antolakuntzako subjektu egiten ditu, baina ekonomia-euskarri moduan euren jarduerak gehien aprobetxatzen dituzten gizonak dira, ideologia aldakorrek eta genero-berdintasuneko ohiturek aldatu gabeak. Ez du ikusten zainketari gizonak egindako ekarpena lan ordainduaren banaketarako eta emakumeen irabazi-gaitasun posibleetarako faktorea denik. Gizonak eta emakumeak euren zainketa-lanean konpentsaziorik ikusten duten ala ez eta, zein neurritan, ordea, ez da ereduan kontuan hartzen. Catherine Hakim-ek, emakumeen arteko lehentasun egonkorrei buruz hitz egiten duenean adierazi dituen arazo berdinak dira (Hakim 2003). Egia izan daiteke hainbat emakume, familia- eta lan-ardurak bateratzeko gizon eta emakumeentzako pizgarriak eta sustapen politikoak zein diren gorabehera, etxean geratu (Etxera Bildutakoak izenez sailkatzen ditu) edo lan-merkatuara irtengo lirakeela (Lanera Bildutakoak izenez sailkatzen ditu), baina datuak aztertzen baditugu, ikus daitekeenez, emakume gehienak (Egokitzeko Joeradunak izenez sailkatutakoa) bi talde horien artean kokatzen dira, ehuneko 60 inguru (hala ere, ehuneko 40 eta 80 artean izan daitezke Hakim 2003ren arabera). Interbentzio politikoak emakumeen eta gizonen eragiletzarako axola du zainketari eta enpleguari dagokionez, gizarteak genero-berdintasuneko arauekin hartutako konpromiso zabalagoek axola duten bezalaxe (Folbre 1994; England 1998; Takahashi 2003). Lan ordaindua eta haurren eta zaharren zainketa bateratzearen aldetik, eragiletza genero-ekitate eta -berdintasuneko eskubidea (familietan ez ezik, lantokietan eta politikak finantzatzeko zirkuluetan) eskatzen duten pertsonen boterea eman edo kendu diezaiekeen ingurune instituzionalen zati da. Suediaren kasuak agerian uzten duenez, gizonak euren aita-eskubideak erabiltzeko dituzten gaitasunak edo ezgaitasunak, hala enpresaburu banakoen tolerantziaren nola enpresa-kulturen zein lan-ordutegiko erregimenen mende daude (Rubery et. al 1998; Hobson 2002).

3.


Betebeharren eta eskubideen esparrutik haratago begiratzen badugu, nire ustez, baliagarriagoa da gaitasunez eta eragiletzaz hitz egitea. Zein dira aita-ama herritarrek zainketa-eskubideak erabiltzeko edo enplegua eta euren zainketa-ardurak konbinatzeko dituzten gaitasunak? Amartya Senek adierazitako eragiletza-askatasunaren ideia (Sen 1985) pertsonak duen benetako aukera-askatasunari lotuta dago: baliabideen desberdinkerietatik haratago doa, baina lortzeko gaitasunak hartzen ditu. Senen arabera (2003), gaitasun horiek (edo horien multzoa) gizarte- eta ingurune-faktoreen pean daude.

Ongizate-erregimenei buruzko bibliografia profesionalean, pertsonen gaitasun-multzoak eta eragiletza-askatasunak aztertzen dituzte, betiere estatuetako, merkatuetako eta familia-harremanetako triangelu instituzionalako harremanei erreparatuz. Adibidez, zein puntutaraino lotu dezake estatuak merkatuaren boterea lan-eskuaren baldintzak ezartzeko orduan? Zein neurritan lan-eskuak merkatuekiko mendekotasun gutxiago izatea izan zen gizon eta emakume enplegatuen eragiletza-askatasunerako ezin besteko osagai (ikus Esping-Andersen 1990; Esping-Andersen 1999); Korpi y Palme 1998)? Ikerketa feministak inspiratuta, bigarren triangelu bat gehitu zitzaion ama, aita eta seme-alabaren ereduari (etxeko triangelua), triangelu instituzionalaren eta gizonen euskarri ekonomikoaren mendekotasunaren emaitza diren familien barruko harremanen artean gertatzen diren harreman dinamikoen berri eman zezan (Lewis 1992; Knijn eta Stelten 2002; (Hobson 1990); Orloff 1993; Connor et. al 1999). Gaitasunen esparru bat baliatuz, Walter Korpik (2000) defendatu du emakumeak lan-merkatuko partaide bihurtzeko modua eman duten estatuak emakumeen eragiletza areagotu dutela; eragiletza txikiagoa gizonen mendekotasun ekonomikoaren emaitza da. Hala ere, Korpik ez zuen emakumeen eragiletza etxeko triangeluan aztertzen familien lan ez-ordaindua birbanatzeko. Gizarte gehienetako ama ezkongabeen txirotasunak eta lanaren eta bizitzaren arteko desorekak aditzera ematen dutenez, eragiletza-askatasuna ez da benetan gertatzen enplegua eta zainketa bateratzea bilatzen duten emakume gehienentzat.

Gizonak subjektu eta eragile izateko ikuspegi batek hirugarren triangelu bat edukitzeko premia eragiten zuen (Hobson and Morgan 2000) eta, triangelu horretan, gizonak aita jokatzearen aldeko diskurtso, politika eta praktikak eratzten dituzten erakunde- eta gizarte-harreman konplexuak azalera-irratetako lirakete. Aitatasun-eskubideak erabiltzeko politika eta arau proaktiboak dituzten gizarteetan ere, gizonak ez dira gai eskubide horiek ondorioen beldur izan gabe erabiltzeko (aitatasun-eskubideak erabiltzera arriskatzen ez diren beste gizon batzuen aldean lanpostua ez galtzeko beldurrez).

Gure garai honetan, ezin ditugu bereizi amatasun- eta aitatasun-molde aldakorrek berregituratze globalak eta europartzeak egindako zuzeneko zein zeharkako presioetatik. Horregatik, aurkezpen honetara laugarren triangelu bat gehitu dut: nabarmentzen ditu nazioz gairik merkatuek zein merkatu globalak, eragile globalak eta nazioz gairik erakundeek estatuaren maila instituzionalera sartzeko dituzten erak, baita familien eguneroko elkarreraginetara eta gizonak aita konprometitua izateko duten aukeretara ere (Hearn 2002).

1. IRUDIA. Erakundeko, Etxeko eta Aitatasuneko triangelua



Hitzaldi honen testuinguruan, EB da kontinente honetako biztanleen eguneroko bizitzetan eta erabakietan eragin zuzena duen nazioz gaindiko erakunde nagusia. Neure gogoz, EB triangeluaren oinarrian jarri dut eta, bertan, merkatuen eta eragile globalen presioekin elkarreragiten du (baita Nazioarteko Diru Fondoarekin eta Munduko Bankuarekin ere). Prozesu ekonomiko globalek gizonak aita eta zaintzaile aktibo bihurtzera bultzatzen dituzten politika proaktiboek kontra egiten dute; politika horiek epe luzera familietan genero-berdintasun handiagoa sortzeko helburua dute, lan ez-ordaindua familiako kideen artean birbana dezaten. EBko prozesu ekonomiko globalek eta nazioz gaindiko diru-gobernamenduak pizgarrien politikak eta egiturak bultzatu nahi izan dituzte gizonek zainketan gehiago parte har dezaten. Zalantzarik gabe, hori Suedian gertatzen da, bertan gero eta ezinezkoagoa baita merkatua arautzea, eta gizarte-gastuaren murrizketak izan dira. Beraz, garrantzizkoa da nabarmentzea aitentzako bajen politika krisi ekonomiko larriko eta lan-gabezia altuko aldietan sortu zela (laurogeita hamarreko urteen erdialdera). Herbeheretan, estatuen politika neoliberalak eta ongizate-estatuaren berregituratzeak bikoteen lana konpartitzeko gogo bizia epeldu egin dute.

Europako emakume ugariarentzat, lan eta bizitzaren arteko oreka lortzeko gaitasunak enpleguari lotutako gizarte-eskubideen faltak baldintzatuta daude, eskubide horiek emango bailiekete enplegua eta zainketa-lanak bateratzeko modua. Hori bereziki eremu latinoko herrialdeetan gertatzen da, adibidez, Espainia, Italia eta Grezian. Ez dute koherentziarik ekitate eta genero-berdintasun asmoen eta eragiletza indibiduala zapuzten duten Erakundeek jarritako mugen artean, eta hori Europako hego eta ekialdeko herrialdeen ugalkortasun-indize baxuetan geratzen da agerian (McDonald 2000; Hobson eta Oláh 2004). Eskandinaviako herrialdeetan, lanari buruzko gizarte-eskubideak daude, baina lan-merkatuko diskriminazio-ereduak aplikatzen jarraitzen dituzte (sektore batzuetan, emakumeentzako soldata baxuko ghettoak daude, baita soldata altuko sektore pribatuetako postuak lortzeko modurik eza ere). Beraz, euren lorpen-gaitasuna / eragiletza-askatasuna soldata baxuek baldintzatzen dute bizitza osoan, eta horrek posizio ahulagoan jartzen ditu familiako berdintasun handiagoa negoziatzeko orduan. Bestalde, lanaldi murriztuan aritzearen eta soldata baxuen ondorioak, bikote-banaketa edo dibortzioaren ondoren emakumeek dituzten ekonomia pobreetan eta txirotasunean geratzen dira agerian.

Enplegua eta aitaltasunaren erabilera bateratu nahi duten gizonek (aitatasunaren erabilera eta lan ez-ordaindua euren gain neurri berean hartuz) lanaren eta bizitzaren arteko oreka erdiestea mugatuta dute, gizonen lan-ordutegien erregimenagatik (gainera, ekonomia globalizatuetan areagotu egin dira). Horrenbestez, azken hamar urtean gizonen zainketa-eskubideak handitu egin badira ere (bereziki aitaltasun-bajarako eskubideak), plantilak murrizteko eta lanpostua galtzeko mehatxuak ere aurrera egin du.

Politika proaktiboek amei eta aitei benetako eragiletza-askatasuna eman baino lehen, lan-ordute-giak eta enpresa-kulturak berriro egokitzeko behar aldaketan aldeko politikak onartu behar dira, baita zainketarako era askotako gizarte-eskubide berriak ere, eta hori guztia estatuetako mugen gainetik dauden indarren mende dago; izan ere, eragile eta merkatu globalek aiten eta amen herritasun berriko aldaketa-haizeak kontrolatzen dituzte. Hori EBko gobernamentuen aldaketen ereduetan antzeman egiten da, baita EBn lege gogorretatik bigunetara pasatzeko aldaketetan, gizarte-arloan merkatuaren aurrez aurre zuhertasunez mugitzeko joeran (Carson 2004) eta EBko Konstituzioan genero-berdintasuneko ekimenek hartzen duten posizio ahulean ere.

Aipamenak

- Albrecht, J. W., P-A Edin, M. Sundström y S. B. Vroman 1999. "Career interruptions and subsequent earnings: A re-examination using Swedish data," *Journal of Human Resources* 294: 294-321.
- Björnberg, U. 2001. "Women and family in post war Sweden," in Carl le Grand eta Toshiko Tsukaguchi-le Garnd (eds.), *Women in Japan and Sweden - Work and Family in Two Welfare Regimes*, Stockholm: Asia eta Bareko Aztertoa.
- Björnberg, U. 1998. "Family orientation among men: A process of change in Sweden," eta Eileen Drew, Ruth Emerek eta Evelyn Mahoon (eds.), *Women, Work and the Family in Europe*, London: Routledge, 200-207. or.
- Becker, G. S. (1991). *A treatise on the family*. Cambridge, Mass., Harvard Univ. Press.
- Bruning G. a. Plantenga., J. (1999). "Parental leave and equal opportunities: experiences in eight European countries." *Journal of European Social Policy* 9: 195-209.
- Christopher, K. 2002. "Welfare State Regimes and Women's Poverty." *Social Politics*. 9:160-86.
- Carson, M. (2004). *From common market to social Europe? Paradigm shift and institutional change in European policy on food, asbestos and chemicals, and gender equality*. Stockholm, Almqvist and Wicksell.
- Esping-Andersen, G. (1990). *The three worlds of welfare capitalism*. Princeton, N.J., Princeton University Press.
- Esping-Andersen, G. (1999). *Social foundations of postindustrial economies*. New York, Oxford University Press.
- Goodin, R. E. (2001). "Work and welfare: Towards a post-productivist welfare regime." *British Journal of Political Science* 31: 13-39.

- Gornick, J. C., M. K. Meyers, et al. (1997). "Supporting the employment of mothers: Policy variation across fourteen welfare states." *Journal of European Social Policy* 7(1): 45-70.
- Gornick, J. C. a. M., M.C. (2003). *Families that work: Policies for reconciling parenthood and employment*. New York, Russell Sage Foundation.
- Hakim, C. (2003). "A new approach to explaining fertility patterns: Preference theory." *Population and Development Review* 29:3.
- Hobson, B. (1990). "No Exit No Voice: women's economic dependency and the welfare state." *Acta Sociologia* 33(3): 235-50.
- Hobson, B. (2000). *Gender and citizenship in transition*. Nueva York, Routledge.
- Hobson, B. (2002). *Making men into fathers: men, masculinities and the social politics of fatherhood*. Cambridge, Cambridge Univ. Press.
- Hobson, B. (2003). "The individualised worker, the gender participatory and the gender equality models in Sweden." *Social Policy and Society* 3: 75-83.
- Hobson, B.. and M. Takahashi 1997 "The Parent-Worker Model: Lone Mothers in Sweden." in *Lone Mothers in European Regimes: Shifting Policy Logics*, (ed). Jane Lewis, London: Jessica Kingsley Publishers. 121-139. or.
- Hearn, J. "Men, Fathers and the State: national and global relations," in *Making Men into Fathers: Men Maculinities and the Social Politics of Fatherhood*. ed. Barbara Hobson. Cambridge: Cambridge University Press.
- Huber, E. a. Stephens, J.D. (2003). Determinants of welfare state approaches to old and new social risks. Lan-estatistikei buruzko datu-basea, LANE ILOren Estatistika Institutua. Geneva.
- Knijjn, T. and M. Kremer (1997). "Gender and the caring dimension of welfare states: Toward inclusive citizenship." *Social Politics* 4(3): 328-361.
- brian
- Kremer, M. (2001). " A Dutch Miracle for Women? *Social Politics*. 8:2: 182-86.
- Lewis, J. (2002). "Gender and Welfare State Change" *European Societies*, 4: (4): 331-57
- Lewis, J. (1992). "Gender and the development of welfare regimes," *Journal of European Social Policy* 2(3): 159-173.
- Liebert, U. (2003). *Gendering Europeanisation*. Brussels ; New York, P.I.E-Peter Lang.
- Nussbaum, M. (2003). "Capabilities as fundamental entitlements: Sen and social justice." *Feminist Economics* 9: 33-59.
- McDonald, P. (2000): "Gender Equity in Theories of Fertility Transition," *Population and Development Review*, 26 (3): 427-439.

-
- Orloff, A. S. (1993). "Gender and the Social Rights of Citizenship - the Comparative-Analysis of Gender Relations and Welfare States." *American Sociological Review* 58 (3): 303-328.
- Rubery, J., M. Smith, et al. (1999). *Women's employment in Europe: trends and prospects*. London, Routledge.
- Sen, A. (2003). *Capability and well-being. The quality of life*. A. Sen and M. Nussbaum, A. Oxford, OUP.
- Shevik, A. 2005. "Women's Citizenship in the time of activation: the case of lone mothers. *Social Politics*. 11:1 Forthcoming.
- Sundström, M. (1987). *A study in growth of part-time work in Sweden*. Stockholm, Arbetslivscentrum.
- Taylor-Gooby, P. and V. George. (1996). *The response of government. Fragile convergence? European policy: Squaring the welfare circle*. Basingstoke, Macmillan.
- Valiente, Celia. (1997). "The Regulation of Sexual Harassment in the Workplace in Spain: the Role of State Feminists in the Elaboration of Gender Equality Policies." In *Gender and Citizenship in Transition*. Ed. Barbara Hobson Basingstoke: Macmillan, 84-116. or.

IDOYE ZABALA ERRAZTI

**Ekonomia Aplikatua I Saila.
Euskal Herriko Unibertsitatea**

Genero

argilunak

globalizazio

neoliberalatean (1)

1.

Globalizazioa esparru neoliberal batean gertatu da. Horren ezaugarriak dira merkataritza ireki eta liberalizatu egin dela, kapitalen mugimenduari bultzada eman zaiola, sektore publikoa pribatizatu egin dela eta Estatuaren rola murriztu egin dela. Esparru horren lehenengo aplikazioak Egonkortze eta Egokitzapen Estrukturaleko Programen bidez burutu zituzten. Programa horiek nazioarteko finantza-erakundeek sustatu zituzten garapen-bideko herrialdeetan; aldiz, herrialde garatuetan gobernu kontserbatzaileek aplikatu zituzten lehenik errezeta neoliberalak. Politika horiek, ordea, ekonomia eta gizartea hondatu dituzte eta, horrenbestez, bere alderdi eztabaidagarrienetako batzuk birplanteatu egin behar izan dira, baita konpentsaziorako gizarte-politikak ezarri ere, nahiz eta funtsean esparruak indarrean jarraitzen duen. Politika neoliberalen 25 urte ondoren, horien ondorioak emakumeen bizitzetan eta lanetan antzeman daitezke, baita genero-harremanen eraketan ere.

Globalizazio neoliberalaren laneko eta autonomia ekonomikoko aukerak ematen ari zaie emakume askori, baina, aldi berean, lan-indarraren zati handi baten lan-baldintzak kolokakoagoak egiten ditu, batez ere emakumeena. Globalizazioak emakumeen lan-zama handitu egiten du eta gizarte-ugalketako lana zailagoa egin, estatuak gizarte-zerbitzuak hornitzeari uzten dion neurrian.

90eko urteetan, emakumeen nazioarteko mugimendua Nazio Batuen goi-bilera guztietan izan zen eta bere ahotsa entzunarazi zuen hainbat gaitan: ugalketa-eskubideak, gizarte-eskubideak, ingurumen-ingurunea, genero-ekitate eta abar. Gai horiek guztiek ondorioak dakartzkio emakumeen ongizateari eta euren gaitasunen hedapenari. Hamarkadaren amaieran, munduko herrialde gehienek Beijiingeko Ekintza Plataformaren eta Emakumearen Aurkako Bazterketa Ekiditeko Hitzarmenaren genero-ekitateko proposamenak sinatu zituzten (CEDAW).

Ingurune hori eta legediko zein emakumeen eskubide formalei buruzko aurrerapena gertatu arren, ez da eskubide horiek benetan erabiltzeko gizarte- eta ekonomia-politikarik burutu.

Esparru neoliberalak bultzatzen duen diskurtso demokratikoak aurrerabidea eragiten ari da emakumeen eskubideetan eta euren herritartasunean; beste alde batetik, ordea, eskubide eta herritartasuneko kontzeptu horiek era indibidualistan birdefinitzen ari da, betiere merkatuari lotuta, gizarteek, euren gobernuak eta nazioarteko erakundeek batera hartu beharreko erantzukizun izan behar diren gizarte- eta justizia-alderdi izan ordez. Giza eskubideei buruzko erretorika areagotu ahala, planetako toki anitzetan zaugarritasuna, txirotasuna eta desberdinkeria handitzen duen gizarte- eta ekonomia-ingurunea sortzen ari da, eta horrek gaitasunak hedatzea eta emakume askok eskubideak erabili ahal izatea zailagotu egiten du.

Hitzaldi honen bidez, bi alderdi aztertu nahi ditugu. Horiek elkarri hertsiki lotuta egon arren, neurri batean, desberdindu egin daitezke. Alde batetik, esparru neoliberalaren eta eredu horren ezaugarriak edo joerak: horiek globalizazioak funtzionatzeko jokoaren arauak ezarri dituzte eta talde zaugarrientzat izan dituzte ondorio kaltegarrienak. Bestetik, globalizazioa dago, herrialdeen arteko merkataritza-korronteen zabalpen eta herrialdeen arteko inbertsio moduan hartuta, baita produkzio- eta finantza-prozesuen mundu-integrazio moduan ere. Globalizazioak emakume askoren ekonomia- eta gizarte-eskubideetan eragindako aukerak ikusiko ditugu, baita aukera horiek

izandako mugak ere (esparru neoliberaletik sortuak). Azkenik, esparru ekonomiko alternatibo baterantz aurreratzeko behar irizpideak adieraziko ditugu.

2.

Esparru neoliberalak

2.1

WASHINGTONGO

ADOSTASUNA

Politiken esparru neoliberalak 80ko urteetan nagusitu zen, Nazioarteko Diru Fondoak eta Munduko Bankuak garapen-bideko herrialdeen finantza-zailtasunak ikusita bultzatutako egonkortze eta egokitzapen estrukturaleko programa aplikatu ondoren, eta zorraren inguruko krisia eragin zuen. Urte batzuetan programa horiek aplikatu ostean, hamarkada amaitzerakoan, aholkuen multzo bat ezartzeko ahalegina egin zuten: Washingtongo Adostasuna deitutakoa. Agenda hori, erreforma ekonomikoa egiteko erari buruz AEBetako gobernuak eta nazioarteko finantza-erakundeak intelektualki bat etorri izanaren emaitza zen.

Washingtongo Adostasuna testuinguru zehatz batean gertatu zen; izan ere, Ekialdeko Europako sozialismo errealeko ekonomien porrotak sendotu egin zuen plangintza zentrala baliabideak esleitzeko era moduan lur jo zuelako ideia, eta merkatu-ekonomia, sistema kapitalista bihurtu zuen izan daitekeen ekonomia bakar. Horrenbestez, komeni zen funtzionamendu makroekonomiko onaren arauak zein ziren ezartzea. Beste alde batetik, herrialde industrializatuetako gobernu askok kontserbatzaile izaten jarraitu zuten, eta hori nazioarteko finantza-erakundeek aholkuetan geratu zen agerian. Gainera, hainbat urtetan egonkortze- eta egokitzapen-politikak aplikatu ondoren, gomendagarria zen funtzionatu zuena eta, beraz, gorde beharrekoak ziren preskripzioak aztertzea. Hasieran, irizpideak Latinoamerika eta bere egoera gogoan izanda ezarri zituzten; gero, ordea, edozein une eta tokitan bete beharreko jokaera ekonomiko onaren errezeta bihurtu ziren. Washingtongo Adostasuna, 1990ean argitaratutakoa, 10 proposamenetan laburbil daiteke (Williamson 2000):

1. Zerga-arloko diziplina: BPGaren %1 edo 2 baino gehiagoko defizita, inflazioaren arabera egokituta, arazoa da.
2. Gastu publikoaren lehentasunak mozkin ekonomiko handiak ematen eta diru-sarreraren banaketa hobetzen dituzten esparruetara bideratu (adibidez, lehen mailako osasun-arretara, lehenengo hezkuntzara edo azpiegiturara). Diru-laguntzak ezabatzea eta administrazio publikoaren gastuak murriztea aholkatu zuten.
3. Zerga-erreforma: tasa marjinala murriztu eta oinarri zergagarria zabaldu.
4. Interes-tasaren liberalizazioa: merkatuaren mende egoteko moduan.
5. Truke-tasa lehiakorra merkatuaren arabera, kontuan hartuz truke-tasa bateratua hobea dela truke-sistema anizkoitza baino.

6. Merkatuaren liberalizazioa: oztupoak ezabatu eta gutxituz joango diren muga-zergak soilik erabili. Produkzio esportagarriko inputak muga-zergetatik libre geratu behar dira.
7. Atzerriko inbertsio zuzeneko fluxuen liberalizazioa: horiek hartzearen aldeko baldintzak ezarri.
8. Pribatizazioa: estatu-enpresak ez dira efizientetzat jotzen eta, horrenbestez, Estatuak ez du produkzio-zereginik bere gain hartu behar.
9. Arauak kendu, sarrera-irteera libreentzako eragozpenak bertan behera uzteko, eta lehiakortasun-esparru bat ezarri.
10. Jabetza-eskubideak segurtatu: arautze efizienteen sistemak sortu.

Gero, aholkuak zenbateraino bete ziren aztertzean, Williamsonek aitortu zuenez, emaitza txarre-na gastu publikoaren lehentasunak birbideratzeko orduan gertatu zen; izan ere, ondorioz, erreforma ekonomikoan osasun- eta heziketa-baldintzak okertu egin ziren.

Dokumentuan agertu ez baziren ere, finantza-erakundeek ere aholkatu zuten garapen-bideko herrialdeetako kapital-kontuak liberalizatzea eta lan-merkatua malgutzea, kaleratzeko kostuak eta lan-eskubideak murriztuz.

Washingtongo Adostasunak ordena ekonomiko liberala ezarri zuen mundu osorako, eta merkatu-ara bideratutako politiken aldeko aldaketak aldaketa sakonagoa ekarri zuen garapen-arazoak kartzeko erari eta politika horiek arrazoitzeko azalpenei dagokienez.

Ordena ekonomiko liberalak konpromiso bat zuen merkatu libreekin, jabetza pribatuarekin eta pizgarri indibidualekin, Estatuaren rol txiki bat onartuta. Ordena liberal hori orokorra izan zen erreferentzia-esparruari dagokionez, emandako preskripzioek herrialde guztiei eragiten baitzieten era berean, baina metodologiaren aldetik nazionalista ere bazen, herrialdeetako ekonomien joeren eta emaitzen arrazoitzat estatuan estatuko edo barneko politikak hartzen baitziren. Joera horiek eragin zitzaketen kanpoko faktoreei, ordea, ezikusiarrena egin zieten (adibidez, munduko eskariaren baldintzek merkataritza-irekierako estrategia baten emaitzetan eta esportazioetara bideratutako hazkundean nola eragiten zuten; Gore 2000).

2.2

DESBERDINKERIAREN ETA TXIROTASUNAREN GAIN IZANDAKO ONDORIOAK

Duela urte gutxi batzuk, Munduko Bankuko gaur egungo presidente Wolfensohn erreforma ekonomikoak txirotasuna gutxitzen eta desberdinkeriak handitzen izandako ondorioak argitzen ahalegindu zen; horretarako, egindako landa-azterketan gizarte zibila sartzea erabaki zuen (2).

(2) Munduko herrialde askotako 30 GKEk eta GKEen elkartek parte hartu zuten, eta herrialdeari zein bere maileguei buruzko era askotako dokumentuetako informazioa izan zuten erabilgarri, baita politika makroekonomiko eta sektoria-leri buruzko gobernuen informazioa etab. Azterketa bateratuak egindako herrialdeak hauek dira: Bangladesh, Ekuador, El Salvador, Ghana, Hungaria, Uganda eta Zimbabwe, baina gizarte zibilak Mexikon eta Filipinetan ere ikerketa independenteak egin zituen metodologia hau bera baliatuz.

Azterketa horretan, Bankuko, gobernuetako eta gobernuz kanpoko erakundeetako funtzionarioek parte hartu zuten, egokitzapen estrukturaleko programak edukitako Latinoamerika, Asia eta Afrikako herrialde garrantzitsuenen lagin bat baliatuz. Bankua, gero, azterketen emaitzetatik urrundu egin zen, baina Egokitzapen Estrukturaleko Politiken Berrikuspen Partehartzailerako Gizarte Zibilaren Nazioarteko Sareak (SAPRIN 2002) azterketen ebaluazio bateratua argitaratzea erabaki zuen. Ebaluazio horretan, genero-alderdiei erreparatu zieten, egokitzapenak emakumeengan izandako eragina 80ko urteen amaieratik dokumentatuta dagoen arren.

Egokitzapenak era askotan eragin du txirotasuna eta desberdinkeria handiagoa aplikazioko biztanlerietan.

Lehenik eta behin, merkataritzaren liberalizazioak industrian eta enplegu nazionaletan izandako ondorioak daude. Inportazioetarako eragozpenak ezabatzeko, lehiakortasun- eta efizientzia-irizpideak hartu dira arrazoibide, eta enpresa lehiakor nazional batzuen oinarriak ezarri gabe aplikatu dira; horrenbestez, enpresa nazionalak behea jo dute eta enplegu formala suntsitu.

Bigarrenik, finantza-sektorearen erreforma dago: bertako interes-tasa altuek eta berme zorrotzen exijentziak bereziki enpresa txikiak ahuldu ditu, baita landa-eremuetako emakumeak eta produktore indigenak ere. Mailegu gehienak esportazio-sektore eta produkziozkoak ez diren jarduretara bideratu dira. Esportazio-sektoreko enpresek, gehienez enpresa eta produktore nazionalekin lotura sendorik ez duten neurrian, hazkundera eta enplegua sustatzeko gaitasun gutxi dute eta, beraz, merkataritzaren liberalizazioaren ondorioak ez dituzte konpentsatu.

Hirugarrenik, nekazaritza eta abeltzaintzako erreformek (esportazioa handitzeko eta nekazaritzan dihardutenen diru-sarrerak hobetzeko diseinatutakoak) barne-merkatara bideratutako lantzeko lur egokiak gutxitu dituzte eta elikadura-segurtasuna kaltetu, baita landa-eremuetako txiroen komunitateak baztertu ere. Erreforma horiek emakumeen lan-zama handitu dute, inputen kostuak areagotu eta esportazioko nekazaritzan ez dihardutenentzat produkzio-baliabideak lortzea zailagotu. Biziraupeneko laboreak lur urrutiagoetan eta ez hain emankorretan egiten dira eta, ondorioz, laboreen nekazaritza-etekinak gutxitu egin dira (horiek, Afrikan gutxienez, emakumeen eskuetan izan ohi dira).

Laugarrenik, lan-merkatuaren erreformaren eragina dago. Horren bidez, enpresek erabakimen handiagoa dute soldatari eta enpleguari buruz. Soldaten erosteko ahalmen gutxitu egin da eta diru-sarreraren banaketa areago desorekatu da. Soldatek produktuan duten partaidetza gutxitu egin da eta mozkinak, berriz, handitu; aldi berean, gizarte-prestaziorik gabeko eta sindikatu-esku-bideak gutxitutako kolokako kontratuak orokortu egin dira. Emakumeak lan-merkatara nabarmen sartzen ari diren honetan, egoera horrek negoziazio-posizio txarrean uzten ditu, enplegu onak aurkitzeko aukera gutxiago dituzten neurrian.

Azkenik, zerbitzu publikoen pribatizazioaren eragina eta gastu publikoaren erreforma dugu. Zerbitzuen pribatizazioak ur- eta elektrizitate-horniduraren tarifak igotzera bultzatu du, eta horrek familia txiroenei presioa egin die. Gizarte-ongizateari dagokionez, estatuaren rola birdefinitu egin da eta, era horretan, hezkuntza- eta osasun-zerbitzuetara sartzeko modua unibertsalki hornitu eta bermatu ordez, sektore baztertuetara bideratu dira. Horren ondorioz, sektore horietarako esleitu-

tako baliabideak murriztu egin dira, kostuak berreskuratu edo diru-sarrerak sortzeko tasak aplikatu dira eta zerbitzuen hornikuntza deszentralizatu da (behar beste baliabide esleitu gabe egiten da). Osasun eta hezkuntzako gastuen murrizketak horien kalitatea okertu egin du eta, eskola-kuotak sartzearen ondorioz, eskola-uztea nabarmen areagotu da; bestalde, osasun-zerbitzuak ordaindu behar direla eta, gero eta pertsona gehiagok hartzen ditu botikak bere kabuz eta zainketak etxean jaso, eta osasun-arretara jotzen dute gaixotasunak oso larriak direnean soilik. Zerbitzuen murrizketak eta pribatizazioak, bereziki eta era larrienean, emakume txiroei erasaten die; izan ere, eskola-tasek emakumeen eskola-uztea sustatzen dute; gainera, emakumeek euren gain hartzen dute ugalketa-lana, zerbitzuen mugak gainditze aldera, eta gutxiago jotzen dute osasun-zentroetara kostuak igotzen direnean.

Munduko Bankuak defenditzen duenez, lortutako irabazi makroekonomikoek epe motzera biztanleriaren sektore batzuentzat gerta daitezkeen galerak konpentsatzen omen dituzte, egokitzapenak hazkunde iragankorraren bidean jartzen baititu herrialdeak. Hala ere, hori eztabaidagarria da, sektore txiroenentzako galerak ez baitira izan epe motzekoak eta, egokitzapenen bi hamarkadaren ondoren, nabarmendu daiteke ezarritako politikek ez dutela txirotasuna eta desberdinkeria murriztu, areagotu baizik.

2.3

WASHINGTON ONDORENGO ADOSTASUNA ETA BERE GIZARTE ETA GENEROKO ONDORIOAK

Egokitzapen-politikaren aplikazioko arazoak direla eta, alderdi eztabaidagarrietako batzuk beraztertu egin ziren. Bigarren belaunaldiko erreforma ekonomikoak edo Washington Ondorengo Adostasuna delakoak rol handiagoa ematen dio estatuari hainbat arlotan, adibidez, giza baliabideetan, merkatuaren aldeko erakundeen sorreran eta teknologiaren transferentzian (Stiglitz 1998). Dena den, politika makroekonomikoen muina ez dute auzitan jartzen; aldiz, ondorio negatiboak konpentsatzen dituzten gizarte-politika batzuk gehitzen dituzte eta, hartara, txirotasunari buruz orokortutako kezkarri aurre egin. Hala ere, gehigarri hori adabaki bat baino ez da, eta gutxi egin dezake politika propioen emaitzak konpentsatzeko, ez baitituzte horiek auzitan jartzen. Ekonomia feministak “politika makroekonomiko onen” muinean txertatutako ezaugarri eta joera batzuk nabarmendu ditu, gizarte-ondorioak eta, tartean, generoaren gaineko ondorioak dituztenak.

1. Aurkezpena teknikoa eta iluna da. Politika makroekonomikoak aurkezteko era, teknikoa eta apolitikoa da, edozein eztabaidatetik kanpo, eta ez dute kontuan hartzen gizarte-educia; bertan, sektore batzuk mesedetuak dira eta, aldiz, beste batzuek galdu egiten dute. Defizitaren, lehiakortasunaren edo aurrekontu orekatuen diskurtsoa neutraltasun-kutsu batez aurkeztu da, neoliberalismoa legitimatzen laguntzen duena, eta desberdinkeria ekonomikoak mantendu eta normaltzearen jokoan sartzen gaitu (Bakker 2003). Politikak zehazten dituzten arduradu-

nek ez dute erakusten bitartekoen eta epeen aukera ezartzen duen gizarte-balantzea, adibidez, zerga-defizitaren murrizketa gastua murriztuz edo zergak handituz egin behar ote den.

2. Joera deflazionista. Erreforma makroekonomikoen ondorioa, aplikazioko 20 urte baino gehiagoren ondoren, lehen bazeuden arazo batzuk gutxitzea izan da, adibidez, inflazio altua edo gehiegizko zerga-defizita ekonomia askotan, baina horren prezioa hazkunde motelegia izan da, aurreko beste etapa batzuen aldean.

Finantza-merkatuen liberalizazioaren eta epe motzeko kapitalen bilaketaren ondorioz, gobernuek "sinesgarritasuna" edukitzeko politikak hartu dituzte merkatu horietan, adibidez, interes-tasa altuak eta diru- zein zerga-politika murriztaileak. Horrenbestez, inbertsio-tasak eta hazkunde erori egin dira eta gobernuek ez diete atzeraldi-egoerei mekanismo antiziklikoen bidez aurre egin. Inflazio baxuari, zor publiko txikiari, zerga baxuak, gastu gutxi eta defizit murriztuak izateari gehiegizko lehentasuna eman zaie eta lehentasun oso txikia, berriz, enplegu beteak edukitzeari, inbertsio publikoari edo ondasunen eta zerbitzuen erabilgarritasuna hobetzeari (Elson 2002).

Beste alde batetik, merkataritzaren liberalizazioak gobernuen diru-sarrera erabilgarriak murriztu ditu; izan ere, diru-sarrera baxuko herrialde batzuetan diru-sarrera publikoen heren bat osatzen zuten; gainera, atzerriko inbertsio zuzena erakartzeko herrialdeen arteko lehiakortasunak enpresen zein kapital-irabazien gaineko zerga-murrizketa eragin du (Çagatay 2003). Gobernuen diru-sarreraren murrizketa horren ondorioz, gobernuek tarte txikiagoa dute hazkunde bultzatzeko orduan.

Joera hori dela eta, emakumeak bereziki kaltetuak izan dira, hala enplegu ordainduan nola euren ugalketa-arduretan. Garapen-bideko herrialde gehienetan, sektore formalean lan egiten duten emakumeek lasterrago galtzen dituzte enpleguak eta, euren diru-sarrerak txikiagoak direnez, emakumeek gizonak baino kalte handiagoa jasotzen dute krisialdietako diru-sarreraren murrizketak gertatzen direnean, dela soldata errealak beherakada nabarmenak dituztelako, dela sektore informalean diru-sarrera txikiagoak dituztelako, jende gehiago baitabil sektore horretan bizi zuten. Beste alde batetik, krisiek emakumeei erasaten diete neurri handiagotan, ugalketan duten rolagatik eta, herrialde askotan gizarte-segurantzako sistemarik ez dagoenez, familia, bereziki emakumeak, geratzen direlako segurantzaren sarearen rola egiten, doko etxeko lanaren zati moduan (Singh and Zammit 2000).

3. "Gizona diru-sarreraren hornitzaile, ama etxeko andre" ereduaren aldeko joera (3). Joera horren arabera, zainketaren ekonomia ez-ordaindua merkatuaren ekonomiarekin artikulatzen da familiako buruari ordaintzen zaion diru-sarreraren bidez, hartara, berak egingo baitie aurre "mendeko" kideen beharrezane, kontuan hartu gabe mendekoek askotan etxeko beharrezane

(3) Joera horri hainbat emakume autore anglosaxoik "male breadwinner bias" deitzen diote eta itzultzeko ondorengoa erabil dezakegu: gizon "ogi-irabazlea", "familia-mantentzailea" edo "familiako burua".

aurre egiteko lan egin behar dutela. Estatuari gizarte-laguntza exijitzeko eskubideen titulartasuna eraikitzeko, bizitza guztirako lanaldi osoko enplegua duen langilearen araua baliatzen da. Aurreiritzi horren emaitza da emakume ugari eskubideetatik bazter geratzen direla eta gizonen mendekoago egiten dituela, bereziki besteen zainketan bizikiago inplikatuago dauden aldietan (Elson 2002).

Joera hori, gerra osteko ongizate-estatuarekin batera garatu zen ekonomia industrializatuetan, eta familia-soldata bakarra bermatzen du kapitalaren jabeen ugalketa-kostuen zati bat ezartzeko zerga-politiken bidez eta negoziazio kolektiboaren bidez. Emakumeen lan ordaindua bigarren mailakotzat jotzen dute, hala euren senarrekiko nola bizitza pribatuko bere lanarekiko, eta emakumeen eskubideak eratorritakoak izan daitezke, dela euren ezkontza- edo mendeko harremanaren bidez. Harreman horrek huts egingo balu, gizarte-ongizateko hondar-politikak geratuko lirateke, adibidez, gizarte-asistentzia, aldi baterako asistentzia itxura hartzen duena, gutxienezkoa, eta bere premia behin egiaztatuta emango litzaioke hartzaileari, erabiltzaile horri nolabaiteko estigma dakarkiona (Bakker 2003).

Herralde industrializatuetan familia-soldata errotu ahala, bertako familia tradizionalaren egoera materiala hondatzen ari da eta, horrekin batera, lan-merkatua feminizatzen eta informaltzen. Gizonak familia mantentzeko aukerak txikituz doazen arren, lan-merkatuko segmentu batzuetan eredu horri eusten diote eta arau bihurtu, baina sortutako lanpostu berrien zati handi batek ez du lehengo gizarte-eskubiderik. Horrek neurrigabe eragiten die lanaldi partzialeko, aldi baterako eta sektore informaleko postuetan diharduten emakumeei, edo euren lan-karrerara beste batzuk zaintzeko eteten dituztenei; izan ere, zigortuak dira euren uneko diru-sarrei, etorkizuneko pentsioei eta beste gizarte-onura batzuei dagokienez.

4. Joera pribatizatzailea. Abiapuntutzat hartzen du sektore pribatua berez efizienteagoa dela sektore publikoa baino, eta suposamendu hori enpresen eta agentzia publikoen pribatizazioan aurkitzen dugu, baita sektore publikoak kanpoko zerbitzuak azpikontratatzan dituenean ere, edo zerbitzu publikoek zerbitzu pribatuko irizpideekin funtzionatzeko exijitzen denean. Joera hori agertzen da "efizientzia" neurri faltsuak erabiltzen direnean, ez baitituzte kontuan hartzen merkatutik kanpo eragindako kostuak eta onurak, ezta etxeetara eramandako kostu errealean transferentzia ere (lan ez-ordaindua areagotzearen bidez).

Joera horrek badu bere eragina gizarte-ugalketan, eta gizarte-babesaren murrizketa dakar, baita horrelakorik eduki ez dezakeenak hornikuntza pribatura jo behar izatea ere pentsio pribatuak, osasun-aseguru pribatuak, hezkuntza pribatua edo egoitza pribatuak baliatuz. Hori gertatzen da politika makroekonomikoa ondasun eta zerbitzuen hornikuntzan sektore publikoak duen funtzioa albatz gehien gutxitzeko diseinatzen denean. Era horretan, finantza-erakunde boterea areagotu egiten da, baita emakumeen gizon bikotekidearekiko mendekotasuna ere; horrenbestez, ereduaren beste joera batzuk ere bizitu (Elson 2002).

Pribatizazioa, gizarte-ugalketa esparru pribatura mugatzen ari da era askotan: "berezko" to-kira (etxera) itzultzearen bidez, emakumeen lan ez-ordainduaren zainketa erabiliz; etxe barruko etxeko langileen bidez; edo merkatuan ondasunak eta zerbitzuak erosiz.

Pribatizazio-proiektu horrek areagotu egiten du emakumeen ahalegina familiaren eta komunitatearen zaintzaile moduan, baita lan-merkatuko langile moduan. Emakumeek denbora gehiago ematen dute lan ez-ordainduan gizonen baino, eta, aldi berean, familia tradizionalaren egoera materiala higatu ahala, gero eta emakume gehiagok ematen diote biziarteko ekarpen bat euren familien bizi-estandarrari soldata bidezko diru-sarrera baten bidez.

Isabella Bakker-ek adierazten duen bezala, berpribatizazioa familiari buruzko exigentzia materialak eta diskurtsiboak areagotzen ari da baina, aldi berean, exigentzia horiek babesten dituzten baldintza materialak eta diskurtsiboak kaltetzen ditu: zainketan ardurua gehiago hartze-
ra animatzen du, baita emakumeek finantza-ekarpena egitera ere, lan-indarraren bidez; aldiz, mendekotasuna, bereziki familiarekiko (edo estatuarekiko) emakumeen mendekotasuna, arraroa edo gaitz-joerakoa omen da.

Joera horren beste ondorio kaltegarri bat da indibidualismoa sendotzen duela gizarte-elkartasunaren aldean. Diskurtso nagusiak "bezeroak" aipatzen ditu "herritarrak" baino, eta langabeziaren eta txirotasunaren arazoak norberaren kontutzat jotzen ditu, norberaren akatsek sortutakoak, eta, horrenbestez, neurriak jarri behar direla gizabanakoak buruaskiak izan daitez-
zen, kontuan hartu gabe arazo estrukturalak direla, genero-eduki handi batekoak.

Azkenik, zainketa-lanen pribatizazioa emakumeen arteko zuloa handitzen ari da. Estatuak zainketa-lanen hornikuntza kendu duenetik, klase ertaineko emakumeek etxeko langileetara jo dute eta, gero eta gehiago, emakume etorkinak dira; hartara, erdibideko konponbidea aurkitu dute euren lan ordaindua eta ugalketa-lana bateratzeko orduan. Era horretan, klase, arraza eta etniako desberdintasun berriak sortu dira, emakumeek munduko lurralde txiroetatik dato-
zen emakumeen etxe-zerbitzuak erosi eta ustiatzen dituzten neurrian (Bakker 2003).

5. Kapitalaren aldeko klase-joera, lan-indarrari kontrajarrita. Zenbait autorek, adibidez, Diane Elsonen edo Nilüfer Çagatayk, aipatutako joeretatik (deflazionista, familiako buruaren alde-
koa izatea eta pribatizazioa) kanpo hizpide hartzen badute ere, adierazten dutenez, aurreko joerek badituzte onuradunak: finantza-erakundeak eta familia aberatsak, interes-tasa altuen, inflazio baxuaren eta estatuaren gastu txikiaren bidez irabazle ateratzen baitira. Hala ere, kla-
se-joera ere ereduaren funtsezko osagaitzat har daiteke. Familia aberatsek transferentzia gutxi jasotzen dituzte, oinarritzko zerbitzuetan gastu gutxiago egiten dute, zerga gutxi ordaindu nahi dituzte eta euren diru-sarrerak, neurri handi batean, euren aktiboen errenta errealean mende daude. Soldata-errenta jasotzen dutenean, horiek finantza-erakundeak dituzte iturburu.

Enpresa multinazionalen posizioa, berriz, ez da hain argia. Alde batetik, gastu publikoa onuragarria zaie kontratuen bidez eta azpiegituren horniketaren bidez (euren jarduera errazten dutenak). Gainera, Estatuak emandako zerga-pizgarriek on egiten diete. Euren mailegu-beharrizana ez da garrantzizkoa, mozkinak berriz inbertitzeko baliatzen dituztelako, eta interes-tasa altuek ez diete bereziki kalte egiten. Euren mozkinak etxeen multzoari saltzeko aukeren mende daude; beraz, kontsumoa ez gutxitzea interesatu egiten zaie eta, ondorioz, gastu pu-
blikoa begi onez ikus dezakete. Horrenbestez, euren posizioa anbigua da.

Finantza-kapitalak, bere aldetik, bere maileguengatik ordainsari altua nahi du. Ekonomia interes-tasatik gora hazten ez bada, zorraren eta diru-sarreraren arteko erlazioa handitu egingo da eta, beharbada, finantza-erakundeak kezkatu egin daitezke gobernuek zorraren zerbitzua ordaintzeari buruz, diru-sarreraren zati handiagoa baliatu beharko baita zerbitzu hori ordaintzeko. Ez dute nahi izango Estatuak bestelako gasturik izatea, ezta diru-eskaintza hedatzea ere, inflaziorik eta balio-galerarik gerta ez dadin. Uste dezakete ere herrialdeak arrisku handiagoa duela eta euren interes-tasak areago handitu, arazoa larrituko lukeena. Araudiak baimentzen badu, irteeraren aukera erabiliko dute eta mailegu helduak atzera botako dituzte.

Baldin eta, 1997ko Asiako krisian gertatu bezala, Nazioarteko Diru Fondoak eraginpeko gobernuari emandako aholkua epe motzeko "finantza-sinesgarritasunari" eusteari lehentasuna ematea bada, eta adierazten badu zorraren zerbitzuaren ordaintetari beste interes batzuei baino lehentasun handiagoa eman behar zaiola, deflazio eta pribatizaziorako joera sendotu egingo dira. Hazkunde-tasa txikitu egin daiteke eta txirotasuna areagotu (Elson and Çagatay 2000).

Beraz, azken hamarkadetan finkatutako esparru neoliberalean, desoreka garrantzitsua gertatu da interesen ordezkartzean eta gizarte-talde desberdinek lortutako emaitzetan, eta desoreka horrek areagotzeko joera du. Nazioarteko erakundeek, adibidez, NDFk, Munduko Bankuak edo Munduko Merkataritza Antolakundeak (MMA) eta gobernuek eurek jabetza-eskubideak sendotu egin dituzte, eta merkatuei funtzio garrantzitsuagoa eman diete, bereziki merkataritzaren eta finantzen liberalizazioarekin, eta hori guztia kapitalaren boterea sendotzen ari da; eta, azken batean, kapitalak baliatzen du herrialdetik irteteko aukera. Beste alde batetik, pribatizazio bidezko gizarte-ugalketaren berreraketak zainketa esleituta dutenei egiten die kalte, lana edota ugalketaren kostuak handitu egiten baitira. Gainera, gizarte-elkartasuna baino, indibidualismoa sustatzen denez, eta lan-faktorea kapitalaren mugikortasunaren aldean nahiko mugiezina denez, lan egiten dutenen eta pobreen (horietako asko, emakume) indarra ahuldu egin da, eta horrek guztiak biziraupenari segurtasun gutxiago eman dio, eta giza gaitasunen garapena zailago egin.

3.

Globalizazio neoliberalak emakumeen lan ordainduaren gain duen eragina

Esparru neoliberalaren ezaugarriak aztertu ditugu, baita bere ondorioak eta klase- eta genero-joe-
rak ere. Ezagutzen dugun globalizazio-prozesua esparru horretan gertatu da eta, hala ere, proze-
su horrek milioika emakumerentzako enplegu-aukerak areagotu egin ditu. Ondoren, arlo horretan
gertatutako aldaketak erakutsi nahi ditugu, baita aukera berriak eta irauten duten arazoak ere.

Globalizazio ekonomikoaren fenomenoak, azken hamarkadetan izandako merkataritza-fluxuen,
zuzeneko eta finantzako inbertsioen areagotzean oinarritzen da. Herrialdeen arteko harreman
ekonomikoak era garrantzitsuan estutu diren historiako beste une batzuetan ez bezala, teknologia
berrien eragina eta garraioaren eta komunikazioaren merkatzea ezaugarri berriak dira, eta on-
dasunen zein zerbitzuen munduko produkzio-prozesuak areago integrazteko modua eman dute.

Enpresa handiek merkatu globalean pentsatuz har ditzakete euren erabakiak; erabaki dezakete
lehengaien hornikuntza herrialde batzuetatik eskuratzea, produktuak beste batzuetan diseinatzea,
produkzioa zentzu hertsian beste batzuei esleitzea eta produkzioa beste batzuei saltzea: produk-
zio-katea globalizatuak deitzen zaie horiei. Inbertitzaile handiek dirutza handiak mugi ditzakete
oso denbora txikian, eguneko 24 orduetan funtzionatzen duten merkatuetan mozkin espekulatibo-
ak lortze aldera.

Gaur egungo globalizazioaren beste alderdi adierazgarri bat da aurreko prozesuek pertsonen
muga arteko mugimendu masiboak eragin zituztela, eta hori ez da orain gertatzen; aldiz, onda-
suna, enpresak eta kapitala libre mugi daitezke.

Prozesu horrek ondorioak izan ditu mundu osoan, baita lurraldeetan eta tokian-tokian ere, eta gi-
zarte-taldeetan, eta emakume eta gizonen egoeran eta posizioan. Globalizazioaren mozkinak eta
kostuak ez dira era bidezkoan banatu, eta herrialdeen barneko eta arteko desberdinkeriak handi-
tu egin dira, eta gero eta jende gehiago ez dago konforme prozesuarekin.

Emakumeen baitan dituen ondorioak anbiguoak dira, irabazleak eta galtzaileak baitaude tartean
eta, gainera, prozesu konplexua da, etengabeko mugimenduan ari delako, eta bere baldintzak al-
dakorrak dira. Lehenik eta behin, lan-merkatuan izandako aldaketak dira nabarmentzekoak: au-
kera berriak ekarri dituzte gizarte- eta ekonomia-eskubideetan, baina, gainera, zaugarritasun
handiagoa, baita eskubide horien hedapenerako gaur egungo globalizazio-ereduak dituen mugak
eta oztopoak ere.

Azken hamarkadetan, emakumeen jarduera-tasak dira nabarmentzekoak, batez beste %40koak, nahiz eta lurraldeka aldeak dauden. Handitze hori munduko gehienez gertatu da, 80ko urteetan Saharaz Hegoaldeko Afrikan atzerakada gertatu zen arren, eta 90ko hamarkadan, berriz, Europako Ekialdean (4). Emakumeen enpleguaren gorakada industria- eta zerbitzu-sektoreetan gertatu da bereziki; izan ere, enplegu formalaren hazkundea horietan biltzen da, informalean baino. Nekazaritza alde batera utziz (bertan, soldatako lan gutxi dago eta datuak ez dira oso fidagarriak), estatistikek diote industria eta zerbitzuetan 1985 eta 1997 artean enplegua hazi egin dela, UNIFEMek datuak dituen 85 herrialdeetatik 82tan (2000).

Egiazta daitekeen beste gertaera bat familia-enpresetan ordainsaririk gabe dauden emakume langileak, lan-indarrarekin proportzioan, gutxitu egin direla herrialde batzuetan. Emakumeek familia-enpresetan egindako lanak maiz ezkutatua izateko joera izan du eta emakumeen lanetik etorritako baliabide arruntak eta diru-sarrerak gizonen kontrolpean izan diren testuinguruan egin da. Beraz, gutxitze hori onuragarritzat balora daiteke.

Nazioartean, autoenplegua da lan informalaren zati nabarmenena, eta bi sexuen nekazaritzaz bestelako enpleguaren ia heren bat osatzen du, eta Saharaz Hegoaldeko Afrikan %53koa. Lan informala (bertan, autoenplegua ez ezik, enplegu informaletako soldatako lana sartzen da) emakumeentzako enplegu-iturri garrantzitsua da; izan ere, Afrikako Iparraldean kontuan hartu gabe, nekazaritzaz kanpo lan egiten duten garapen-bideko emakumeen %60k enplegu informaletan dihardute. Herrialde industrializatuetan ere, emakumeak lanaldi partzialean dihardutenen gehiengoa dira (%60 1998an), eta maiz informaltasunaren ezaugarriak dituzten enpleguetan (LANE 2002a). Herrialde frankotan, euren kabuz diharduten emakume enplegatzaile eta emakume langileen kopuruak gora egin du, hala Iparraldean nola Hegoaldean. Enpresak (gehienetan mikroenpresak) zuzentzen dituzten emakumeek euren negozioei eta denborari buruzko erabakiak har ditzakete, baina gorabehera ekonomikoak eta ingurunean aldaketa gertatzean zaugarriagoak dira. Emakume autoenplegatu edo mikroenpresaburuen proportzioa altuagoa izan da Saharaz Hegoaldeko Afrikan, eta horrek merkataritzan duen funtzioa uzten du agerian; gainera, azken urteotan, rol hori handitu egin da Latinoamerikan eta Kariben eta Asia Hegoaldean (LANE 2002a). Datu gutxi daude emakumeen eta gizonen soldatei eta soldata-desberdintasunei buruz. Dauden datuek adierazten dutenez, industria-sektorean eta zerbitzuetan zuloa txikitu egin da herrialde gehienetan. Emakumeek gizonen soldataren %53 et %97 artean kobratzen dute, batez beste %78koa izanik. Garapen-bideko herrialdeetan, gizonen eta emakumeen arteko soldata-zuloa han-

(4) Bi lurralde horietan, emakumeen enplegu ordainduko parte-hartzea oso altua zen eta, egoera ekonomikoa hondatu ahala, gutxitu egin zen; hori gizonen tasen jaitsieran geratu zen agerian ere; kasu batzuetan, adibidez, Ekialdeko Europan eta SESB ohiko herrialdeetan, emakumeena baino neurri handiagoan (Standing 1999) jaitsi ere.

diagoa da enplegu informalean; izan ere, gizonek euren kabuz egiten dituzten jarduerak baliabide ekonomiko gehiago izaten dituzte emakumeenak baino; herrialde garatuetan, berriz, zuloa handiagoa da lanaldi partzialeko lanean.

Soldaten arteko aldearen txikitze hori printzipioz positiboa da, baina sektore edo herrialde batzuetan ezkutututako egoera oso negatibo batzuen adierazgarri izan daiteke: gizonen soldatak geldotzen edo murrizten ari izatea. Gizon eta emakumeen arteko soldata-zuloa txikitu ahala, emakumeen arteko aldeak handitu egin dira. Datu gutxi izan arren, azterketa batzuek adierazten dutenez, soldata-desberdinkeria handitu egin da prestakuntzadun emakume gazteenen (euren diru-sarrerak handitzen ari dira) eta prestakuntza gutxiagoko emakume zaharragoen artean (bigarrenen diru-sarrerak geldotu edo murriztu egin dizkiete ; UNIFEM 2000).

Lan-merkatuan aldaketa bat gertatu da eta, ondorioz, emakumeen enplegua areagotu egin da; al-diz, aldi berean, gizonenak geldotu eta murriztuak izan dira. 1975 eta 1995 artean, informazioa dugun garapen-bideko herrialdeen %74tan eta herrialde garatuetako %70etan emakumeen jarduera-tasak handitu egin dira; al-diz, garapen-bidezko herrialdeen %66tan eta garatuen %95etan gizonen jarduera-tasak gutxitu egin dira. Gizonen jarduera-tasa jaitsitako herrialde gehienetan, parte-hartze orokorra hazi egin zen, eta horrek lan-merkatuaren sexu-banaketaren aldaketa garrantzitsua eragin du. Emakume-langabeziaren tasak ere gutxitu egin dira azken hamarkadetan, baita gizon eta emakumeen arteko tasen aldeetan (Standing 1999).

Esan daiteke lan-merkatua feminizatu egin dela, bi alderditatik: emakume gehiago daude bertan, eta aldaketa bat gertatu da emakumeen enplegu tradizionalari lotutako ezaugarrietan, alegia, kolokotasun handiagoa dago, soldatak txikiagoak dira, lana lanaldi partzialekoa, informala etab., eta horrek emakume langileen kopuru handi bati eragiten dio, baita gero eta gehiago gizon langileei ere.

Emakumeen munduko enpleguan izandako aldaketak kontuan hartzen baditugu, enpleguaren handitzearen, horren ezaugarrien eta globalizazioaren arteko erlazioak aztertu nahi ditugu, gero, aldaketa horiek emakumeen egoeran zein posizioan eta genero-berdintasunean zer-nolako eragina izan duten ebalua dezagun (5).

Merkataritzaren liberalizazioak eta herrialdeen arteko elkartrukeen hazkundeak nekazaritza- zein industria-jardueren eta esportaziorako zerbitzuen garapena bultzatu dituzte, eta garatzeko bidean diren ekonomia batzuen hazkunderako oinarria izan dira. Horietako jarduera askotan, lan-eskua gehienean emakumeena da.

(5) Aldaketa guztiek ez dute erlaziorik izan globalizazioarekin edo, oro har, ekonomia-faktoreekin. Gizarte- eta kultura-alderdiak garrantzitsuak izan dira, baina ez diegu hemen horiei erreparatuko.

Nekazaritzan, esportazioko ohiko produktuek egoera zail bati egin behar izan diote aurre, prezioak jaitsi egin direlako eta herrialde industrializatuak protekzionismoan erori direlako. Munduko merkatuei lotutako nekazaritza-jarduera ez-tradizionalak loratu egin dira. Gaur egun, jarduera horietan, lore, fruta eta barazki, ardo, olio eta erretxinen hazkuntza sartzen dira, eta garapen-bideko herrialde askotan ekoizten dira, herrialde industrializatueta bideratuta; izan ere, herrialde horiek era askotako elikagai freskoen eta bestelako nekazaritza-produktuen eskari handia dute urte osoan.

Gero eta gehiago dira produktu freskoen txikizkako salmenta kontrolatzen duten supermerkatu-katea handiak. Oxfam Internationalen oraindik oraingo azterketa baten arabera (2004), bi katea handik produktu freskoen AEBetako salmentaren %92 kontrolatzen zuten; bestalde, Erresuma Batuko salmentaren %70, 5 supermerkatu-kateak kontrolatzen zuten 2003an. Supermerkatu handiek estatu barneko eta atzerriko produktoreak bila ditzaten enkargatzen diete hornitzaileei produktu freskoak hornitzeko, eta bitartekariei eta, batez ere, produktoreei pasatzen dizkiete arrisku klimatologikoak eta prezioen gorabehera; irabazien marjina handiena, aldiz, eurek hartzen dute. Jokabide-kodeak orokortzen joan dira, baina, azterketa horren arabera, batez ere produktu osasuntsu eta kalitatezkoak bermatzeko teknika- eta ingurumen-arauetara erreparatzen diete, eta ez lan-arauetara. Ontziratze-baldintzak areagotu egin dira, baita entregarako abiadura eta sustapenak ere, baina produktoreei ordaintzen zaizkien prezioek jaisteko joera izan dute azken urteotan.

Sektorean lan egiten duten gehienak emakumeak edota etorkinak dira. Etengabe berritzen dieten aldi baterako kontratu laburrak gehitzeko joera dago, eta Txileko eta Hego Afrikako fruta-sektorean urteko 11 hilabete artekoak izan daitezke, urtero berritzeak. Herrialde industrializatueta lan-eskuaren zati handi bat etorkinak dira, gizon eta emakume, eta hainbat lan-eskubide ez dituzte. Oro har, gutxienezko soldatak ordaintzen dizkiete, baina enpresa askotan aparteko orduak ere ez dituzte egoki ordaintzen eta ez dituzte behar denboraz jakinarazten.

Produktio horietarako eskari garrantzitsua dagoen neurrian, beste nekazaritza-produkzioetako baino soldata hobek izaten dira; hala ere, emakumeak gizonak baino kolokago daude kontratuetan dagokienez, eta behin-behinekoen gehienak emakumeak izaten dira; gainera, batzuetan, lan berdinagatik ordainketa txikiagoak jasotzen dituzte, adibidez, Txileko fruta-bilketaren sektorean, bertan emakumeek euren lankideek baino %25 gutxiago kobratzen baitute lan beragatik.

Produktore batzuek lan-eskubideei buruzko errespetua dutela erakusten dute eta lanpostuetako prestakuntza eta segurtasuna sustatzen dute; hartara, ustiapenen produktibitatea eta kalitatea handitu egiten dute. Dena den, lehiakortasuna areagotzearen eta azalera handien botere handiagorearen ondorioz, praktika horiek higatzeko joera dute, eta enpresa ugari euren enplegatuen lan-baldintzak gutxitzen dituzten estrategiak hartzen dituzte, gobernu askok legedia aplikatzeko orduan dute kontrol-falta aprobetxatuz.

Industrian, azken urteotako aurrerapen teknologikoen (adibidez, produkzio-prozesua banatzeko aukera, garraioa merkatzea eta bizkortzea edo telekomunikazioen aurrerapena), lehen estatu batean bertan egiten ziren jarduera asko beste herrialde batzuetara eramateko modua eman dute. Enpresen arteko lehiakortasunak eta Hegoaldeko herrialdeetan lan-esku oparoa eta merkea izateak lan intentsiboko produkzio ugari beste herrialde batzuetara bideratzeko balio izan dute. Eragin handiena hartutako sektoreak hauek izan dira: ehungintza eta jantzigintza, jostailuak, oinetakoak, elektronika eta beste manufaktura arinak.

Batzuetan, herrialdeetan multinazioanalen filialak instalatu dira herrialdeetan, beste batzuetan, berriz, lanak estatu barneko enpresei azpikontratatu zaizkie, bestetan toki zergagabeetan finkatu dira eta bestetan ez, baina hautatutako lan-eskua, %70 eta 90 artean, emakumeena izan da. Aukera hori egiteko arrazoiak era askotakoak izan dira: soldata txikiagoen ordainketak emakumeen diru-sarrerak euren familientzat bigarren mailakoak direlakoan; otzanagoak eta gatazka gutxiagokoak omen izatea; eta bereziki, enpresen iritziz, emakumeek duten kontzentrazio, zorroztasun eta esku-trebetasun handiagoa, jaiotzez omen dituzten nolakotasunak direla eta. Errealitateak erakusten duenez, ordea, horietako nolakotasun batzuk neskatilek eta emakume gazteek etxean ikasitakoak dira, adibidez, jostintzan eta brodatzen; beste "nolakotasun" batzuk, berriz, etxean jasotako generoaren inguruko heziketari lotuta daude. Kontua da ez direla hezkuntza formalean ikasitako nolakotasunak eta, horrenbestez, ez dute lanbide-kategoria handiagorik edo soldata hoberik eragin. Enpresek mozkin handiagoak lortzeko baliatu dituzte generoen arteko desberdinkeriak, eta desberdinkeria horiek abiapuntu hartuta hedatu dira industria horiek.

Esportaziorako industria-jardueraren zati handi bat esportazioko prozesaketa-zonetan (EPZetan) gertatzen da eta izan daitezke: zona zergagabeak, zona ekonomiko bereziak, *maquiladora*-k (6) direlakoak etab. LANEren EPZe buruzko definizioa hau da: atzerriko inbertsioa erakartzeko pizgarri bereziak dituzten industrialdeak, inportatutako materialak prozesaketa baten ondoren berriro esportatzen dituztenak. Azken hamarkadetan, asko hedatu dira, eta 3.000 bat daudela estimatzen da, 116 herrialdetan kokatuta, eta zuzenean 37 milioi pertsona enplegatzen dituztela, gehienak emakumeak (7). Bertako esportazioko produktu nagusiak elektronika-gaiak eta jantziak dira (LANE 2002b).

Dena den, manufaktura arinak esportatzera bideratutako jarduera ugari, bereziki jantzigintzan, zona horietatik kanpo egiten dituzte herrialde industrializatuetako txikizkariak azpikontratatuta lan egiten duten enpresek eta tailerrek, edo norberaren etxean lan egiten duten emakumeek. Horrek esan nahi du pertsona askoz gehiago daudela inplikaturak produkzio-mota horretan.

(6) I.O.: maquilas (Mex.) = lehengoak inportatu, landu eta esportatu (ikus RAE)

(7) Zehaztu daiteke emakume txinatarrak direla; izan ere, zona horietan lan egiten duten 37 milioi pertsonetatik, 30 milioi Txinan lan egiten dute.

Elektronikaren sektorean izan ezik, lan-baldintzak oso gogorrak dira. Soldatak baxuak izateaz gain, lanaldiak luzeak izaten dira, eskaeren erritmoaren mende daude eta piezakoa lan egiten dute; kasu askotan, hautsez betetako tailerretan lan egiten dute eta argi naturalik gabe; enpresak finkatu zirenetik uneko denbora igaro ahala, emakumeak aldarrikapenak egiten hasten dira, eta euren eskubideen alde borrokatzen, eta hainbat herrialdetan, neurri batean, lan-baldintza horiek hobetu egin dira. Hala ere, lehiakideak lan-kostu baxuagotan oinarritzen direla-eta enkarguak edo lana galtzeko beldurrak zaila egiten du ildo horretan aurreratzea beste aldaketa batzuk gertatzen ez badira.

Jantzigintzan, lan-baldintzak faktore batzuek zehazten dute, adibidez, herrialdearen garapen-maila, laneko enpresaren tamaina eta horien jabetza, adibidez, Hong Kongen: diseinuko eta balio erantsi handieneko arropak ekoizten dituzte, eta baldintza hobeak dituzte. Sektore horretan, enpresa gehienak bertakoak dira eta Iparraldeko banatzaileentzat enkarguz lan egiten dute; hala izanda ere, enpresa handietan, baldintza hobeak daude lanak tailerrei azpikontratatuta edo etxetiko lanetan jarduten denean baino.

Jantzigintzan, ekimen ugari hartu dira lan-araudiak bete daitezen. Sindikatuak, kontsumitzaileen elkarteak, emakumeen erakundeak eta beste GKE batzuk urteak daramatzate egoera salatzen eta lan-baldintzen alderdi larrienen kontra kanpainak egiten. 1996an, LANEk Hitzarmen bat ezarri zuen etxetiko lanari buruz, eta lan informalarri buruzko nazioarteko lehenengo hitzarmena izan zen. Etxetiko langileei bidezko soldata edukitzeko eskubidea aitortzen zien, eta soldaten eta lan-baldintzen gutxienezko estandarrak ezarri (Sen 1999); 1997an emakumeen erakundeen ordezkariak eta oinarritzko erakundeak, garapen-agentziek, SEWAKo kideak (Autoenpleguko Emakumeen Elkartea, Indiakoa), Harvardeko Unibertsitateak eta UNIFEMek WIEGO mundu-sarea eratu zuten (Enplegu Informaleko Emakumeak: Globalizatzen eta Antolatzen), lan informala ageriko egitearen eta baldintzak hobetzearen alde (www.wiego.org). 1998an, LANEk sindikatuen, enpresaburuen eta gobernuen arteko topaketa bat antolatu zuen EPZetan (esportazioko prozesaketa-zonetan) lan-agenda duin bati buruz eta, bertan, ondorio-multzo batera iritsi ziren, jarraipena ematen ari zaiena (LANE 2002a). Urte horretan ere, erakunde horrek laneko printzipio eta eskubideen deklarazioa aldarrikatu zuen, oinarritzko hitzarmenak biltzen dituen, lau puntuz osatuta:

- Elkartzeko eta negoziazio kolektiborako eskubidea izan.
- Edozein lan behartu debekatu.
- Haurren lana ezabatu.
- Enpleguan diskriminaziorik ez izan.

Nazioartetik egindako presioaren ondorioz, ehungintzako marka eta katea ugarik Gizarte Erantzukizun Korporatiboko politikak eta nazioarteko lan-estandarrak errespetatzeko jokabideak hartu dituzte. Horrek urrats garrantzitsua eragin eta laneko hobekuntzak ekarri ditu, batez ere markak hornitzen dituzten fabrika handietan, baina, Oxfamek adierazten duenez (2004), egiten diren ikuskapenak lasterregiak dira eta langileen edo tokian tokiko erakunde fidagarrien parte-hartzerik gabe burutzen dituzte. Horrenbestez, maiz kodeak ezerezean geratzen dira.

Oxfamen txostenak adierazten duen arazo garrantzitsuago bat da alde handia dagoela eskaerak lortzeko lehian diharduten txikizkari handien (marka eta biltegiak) eta era askotako produktoreen (enpresak, tailerrak, herrialdeak) artean. Kontsumitzaileei jantzien prezioak murrizteko txikizkarien merkataritza-politika, edo produktuen eskaintza etengabe berritzekoa, produktoreak estutuz egiten da eta, aldi berean, euren lan-indarra estutzen dute, aparteko orduak egoki ez baitizkiete ordaintzen edo lanak tailerrei edo etxetiko langileei azpikontratatu behar izaten dizkietelako epeak betetze aldera.

Lan elektronikoak lan-baldintza hobek izan ditu, baina arazoak ez zaizkio falta izan, bereziki produktu toxikoekin izandako kontaktuarengatik. Emakumeen heziketa-maila altuagoa da, lanak egonkorragoak dira eta hobe ordainduta daude. Denbora pasa eta produzioko teknologiak hobetu ahala, lanak automatizatu egin dira, eta langile batek lehenago 6-10 beharginek egiten zuten lana egin dezake. Irauten dutenek prestakuntza handiagoa behar dute eta, jakina, soldata hobeak irabazten dituzte. Teknologiaren aldaketak produkzio-lanetan gizon gehiago sartzeara eragin du, eta emakumeek teknologia hobek aprobetxatzeko aukerak lanbide-heziketa aprobetxatzeko modua izatearen mende daude, dela enpresek, dela gobernuak emandakoa. Kontua da emakumeek arlo berrietarako gaitasunak ikastea eta horiek egokigarriak izatea, era askotako aldaketa teknikoetara molda daitezela.

3.4

ZERBITZUAK

Fenomeno berriago bat teknologia berriei eta finantza-sektorearen liberalizazioari lotutako zerbitzuetan lan-aukerak sortzea da. Sektore horretako enplegua oso bizkor hazi da eta bertan sartzen dira datu-prozesaketako jardueretatik edo testuen transkripzioetatik hasi eta sistemen edo programazioaren azterketaraino (Mitter and Rowbotham 1995). Indian, finantza-sektoreko emakumeen enplegua lau halako handitu da, nahiz eta klaseko edo kastako faktoreek enplegu horiek lortzeko modua mugatzen duten. Malasian, berriz, emakumeak izan dira ordenagailuko bulego-lanetan onura handien atera dutenak. 80ko hamarkadan, aukera horiek areagotu egin ziren, orduan Malayako gobernuak zientzian eta teknologian inbertitzea erabaki baitzuen herrialdea nazioarteko testuinguruan hobe kokatzeko. Brasil da informazio-prozesaketa nabarmen hazi den beste herrialde bat: emakumeek sektorearen %50 osatzen dute, gizonek baino eskala baxuagoan bada ere; programa informatikoak osatzen lan egiten dutenen proportzioa, ordea, txikiagoa da. Teknologia berriak enpresen eta bezeroen beharrezanetara egokitze lanetan emakumeentzako espazioak irekitzen ari dira, baina enplegu gehienak fase baxuenetan sortu dira: datu-prozesaketa, bertan emakumeak gehiengo baitira.

Lan-baldintzak aztertzen baditugu, datu-prozesaketan diharduten emakumeak dira kalteuen ateratzen direnak. Lan "garbi" direlakoek gaixotasunak sortzen dituzte, adibidez, bizkarreko lesioak edo tentsioaren edo nekearen ondorioz sortutakoak; izan ere, kanpoko sintoma gutxiko laneko gaixotasunak dira eta, beraz, medikuntza gutxi arduratu da horiekin.

Mundu garatuko langile kualifikatuen urritasunari, neurri batean, etorkinen bidez aurre egiten ari zaio, baita informazioko produkzio intentsiboak Hirugarren Munduko herrialdeetan finkatuz. Programen edo programatzaileen esportazioa diru-sarrerara iturri garrantzitsua gertatzen ari zaie herrialde batzuei, adibidez, Indiari, bertan programazio-sektorearen hazkundera oso garrantzitsua izan baita, eta softwarearen esportazioa nekazaritza eta manufaktura ordezkatzen ari da diru-sarreraren iturri moduan. Herrialde horretan, programa bat garatzea erdia kostatzen da AEBen aldean, eta handitu egin dira programatzaileek ELGEko herrialdeetan lan egiteko kontratuak. Emakumeek kontratu-mota horren zati txiki bat osatzen dute (%10), familia-ardurak eta kultura-oztopoak direla eta.

Teknologia informatikoak laneko prozesu intentsiboak lekualdatzeko modua ematen du, lehenago industrian gertatu bezala. Prestakuntza gutxien duten emakumeak "teleportuetako" kualifikazio txikiaren lanetara sartzen ari dira: "telelana" bezalakoak dira, baina atzerrian, eta enpresetan, tailerretan edo etxean egiten dira. Lan batzuk etxean kokatzen dira (bertan, haurrak dituzten emakume gazteek euren erantzukizunekin batera ditzakete), baina horren desabantailak etxean egiten diren beste lan batzuetako berdinak dira: piezako lana, gizarte-babes gutxiago, soldata txikiagoak eta laneko segurtasun-eza. Enpresentzat, ordea, horrek abantailak ditu: instalazioetako gastu finko txikiagoak eta lan-gatazka gutxiago.

Telefono bidezko arreta-zerbitzuak (call centres) laster hazi dira eta, jatorrizko herrialdeko hizkuntzaren eta ohituen ezagutza ona behar dira horretarako. Indian burututako oraindik oraingo ikerketa batek erakutsi zuenez, emakumeek zentro horietako %38 eta %68 artean osatzen zuten. Lan horietan eta antzeko beste batzuetan, indiar edo filipinar emakume gazteak 200 eta 400 dolar arteko soldata irabazten ari dira hilabeteko, eta nahiko ona da emakumeen ohiko lan-jardueretan kobratuko luketenaren aldean; gainera, lan-baldintza hobekak dituzte (Mitter 2004).

Laburbilduz, globalizazioarekin batera zabaldu diren eta lan-esku merkearen ugaritasunean (batez ere emakumeen) oinarritutako esportaziorako produkzio-lanen barnean, egoera desberdinak daude soldata eta lan-baldintzei dagokienez jardueramota hauen arabera: estatuaren une bakoitzeko legedia eta horren aplikazioa, enpresa enplegatzaileen jarrera, herrialdeko kualifikazio-maila eta herrialde esportatzaileek bultzatzen dituzten sektoreko politikak. Horrenbestez, panorama konplexua dugu emakumeen gaineko eragina eta lan horietako genero-harremanak ebaluatzeko orduan.

Adierazi beharreko lehenengo gaia da globalizazioak emakumeek betetako industria eta zerbitzuetako enplegu ugariaren sorrera bultzatu duela. Lan ordainduan jardun ahal izatea, printzipioz, onuragarritzat balora daiteke egiten duenari dakarkion ongizate materiala eta aukeren hedapena dela eta.

Alde batetik, diru-sarrerara autonomia izateak euren bizitzen gaineko kontrol zein erabakimen eta familien barneko estatus handiagoa izateko modua ematen du. Enplegu-aukerak izateak inbertsio handiagoak bultzatzen dituzte euren heziketan zein osasunean, hala familien aldetik nola inplikaturako gobernuen aldetik, eta, ildo horretan, emakumei sarritan ukatu zaizkien beste gizarte-eskubide batzuk sendo ditzake.

Beste alde batetik, sortutako lanpostu berrien zati handi bat sektore formalekoa izan da, gutxienezko soldata edo handiagoa jasotzeko modua emanez, baita beste lan batzuek ez duten gizarte-onurak ere. Garapen-bideko herrialdeetan bizi diren emakume ugari enplegu horiek bete nahi dituzte, oro har baldintza hobekak dituztelako beste sektore batzuetan lor ditzaketenak baino (adibidez, nekazaritza tradizionalan, etxeko langile jarduteko lanean edo sektore informalean). Adierazi dugun bezala, baldintzak sektoreen, enpresen eta herrialdeen garapen-mailaren arabera aldatzen dira, eta maiz ez dira emakume pobreenak aukera horiek (adibidez, zerbitzuen sektoreko enplegu kualifikatuenak) lortzeko modua dutenak.

Arau patriarkal oso errotuko herrialdeetan, emakume gazte ugari enplegu horietan bitzitza hobekak eta irekiagoak edukitzeko modua ikusi dute eta, hartara, etxe barnean egon beharri buruzko arauak, familiek hitzartutako matrimonioei edo familiaren tutoretzari ihes egin; gainera, beste pertsonekin jar daitezke harremanetan eta euren familien gastuetan ekarpenak egin.

Enplegu-aukeren zati bat egoera informalean sortu da, esate baterako, kontratu gabeko lanetan edo aldi baterako kontratuetan, egonkortasunik eta gizarte-laguntzarik gabeak. Krisialdi ekonomikoetan, baliabide gutxiko familietako emakume ugari soldata eta baldintza txarragoko lanak onartu beste aukerarik ez dute izaten eta, diru-sarrera segururik ez izatearen ondorioz, emakume ugari hori egin dute.

Panorama orokorra kontuan hartuz, produkzio globalizatuei lotutako enpleguetatik haraindi, baieztatu daitezke azken urteotan sexuan oinarritutako laneko segregazioa gutxitu egin dela munduko lurralde gehienetan eta emakume eta gizonen arteko konbergentzia gertatu dela; gainera, emakumeen egoera "formalagoa" da, eta hori ona da sexuen arteko ekitateak aurrera egin dezan. Txanponaren beste aldea da ez direla, antza denez, laneko baldintza orokorrak hobetu direla, segurtasun gutxiago eta desberdinkeria gehiago dagoela eta gizonen artean egoerak hondatzera egin duela; horrenbestez, konbergentzia beheranzkoa izan da (Standing 1999).

Emakumeek enplegu ordainduan parte-hartze handiagoa izateak ekarri dituen onurak eta aukeren handitzea ikusita, eredu globalizatu honetan dauden arazo eta mugei erreparatuko diegu, eta batzuk nabarmendu.

Lehenik eta behin, hedatutako globalizazio-ereduak enpresa handien eskubideak eta pribilegioak sendotu ditu: inbertsioak hartzen dituzten gobernuen zerga-pizgarriak, euren jabetza-eskubideetarako bermeak eta era guztietako erraztasunak; aldiz, langileen eskubideak ahuldu egin dira, ez baitute euren gobernuen laguntzarik eta babesik jaso; izan ere, sarritan, herrialdean zeuden lan-eskubideak murriztu egin dituzte, atzerriko inbertsioak erakartze aldera.

Bigarrenik, lan-kostu baxuetan oinarritutako lehiakortasunak esportazio-sektorean lan egiten duten emakumeak zaugarri bihurtzen ditu eta lan-baldintzak hobetzea zailagotu, beti aurkitu ahal izango baita soldatak baxuagoak diren beste herrialde bat. Hori aldatzeak esan nahi du balio erantsi handiagoa duten garapen-mota eta produkzio-jarduerak bilatzea, teknologian eta prestakuntzan inbertsio handiagokoak, produktibitatea handituz lehiatzeko modua izan dezagun. Horretarako, kanporantz ez hain bideratutako hazkunde-eredu bat behar da, genero-desberdintasunean ez hain oinarrituta eta mozkin bilatzera ez hain bideratuta. Beharrezkoa dira, halaber, produkzio-

katea globalean inplikaturako alderdien arteko harreman egonkorragoak eta, bertan, inbertitzaileek eta txikizkariak epe luzeko eta ertaineko konpromisoak hartzea herrialdeekin eta hornitzaileekin.

4.

Ikuspegi makroekonomiko alternatibo baterantz

Ikuspegi alternatibo bati ekiteko, lehenik eta behin, politika makroekonomikoen berezko gizarte-dukia aztertu beharko litzateke, horien bidez mesedetuak eta kaltetuak nortzuk diren bilatuz. Kontua politika makroekonomikoaren muinera gizarte-gaiak gehitzea; izan ere, baliabide errealetan mugak dauden arren, politika makroekonomikoak finantza-baliabideen kontroleko eta jabetzako ereduaren mende eta era askotako taldeek zergak edo gobernuaren bonuak erostearen mende dauden finantza-mugetara bideratzen dira. Makropolitika "onak" edo "sendoak", adibidez, finantza-boterearen gaur egungo oreka onartuz aurrekontua orekatzea, nahiko "txarrak" edo "hauskorak" izan daitezke, baliabide errealean mugak behartzearen zentzuan, giza gaitasunak suntsituz (Elson 2001; 2002).

Izan ere, politika alternatibo batek saihestu beharko luke egokitzapenen eta erreformen kostuak neurrigabe talde pobreek, gutxiengo etnikoek edo emakumeek euren gain hartu behar izatea, azken hamarkadetan hori gertatu baita politiken kudeatzaileak horretaz batere arduratu gabe (Benería 2003).

Proposatutako ikuspegiak azterketa, politikak eta erakundeak aldatu nahi ditu emakumeen posizioa sustatu eta indar sozioekonomikoen gaur egungo oreka aldatzeko. Elsonen arabera, ikuspegi makroekonomiko heterodoxo bat erabilgarria da; banakuntzako aldagaiak integratzea bilatzen du eta arazoak, inbertsioko gabezietatik baino, aurrezpenekoetatik datozelako ikuspegia auzitan jartzen du. Hala ere, urrutirago joan behar da, gizarte-politikak kezka zabalagoak baititu, baita diruari ez lotutako dimentsioak ere. Seguinoren eta Grownen iritziz ere, genero itsutasuneko keynesianismo ondorengo politikek beharbada gizonen aldeko klase-desberdinkeria gutxitu dute, baina genero-desberdinkeria bere horretan utzi (2002).

Keynesianismoaren barnean, enplegu betearen helburua politikaren zati bat da, eta lan-indarraren interesak diskurtsoaren zati estrukturala dira, nahiz eta produkzio-prozesuan lana kapitalaren mende dagoen. Dena den, diskurtso makroekonomiko keynestarra ekitate-kontuetan sentikorra da (Bangura 1997) eta emakumeen aldekoa izan daiteke genero-ikuspegi baldin badauka.

Ikuspegi berriak goian komentaturako joera negatiboak alderantzikatzea bilatu behar du, baina lehenengo aitortu behar du erlazioa dagoela bizi-bitartekoaren produkzioaren eta bizia ugaltzeko bitarteko horien erabileraren artean, egunerokotasuna eta belaunaldiartekotasuna oinarritzat hartuta (alegia, produkzioaren esparruaren eta gizarte-ugalketaren arteko erlazioa).

Zainketaren ekonomia ez-ordaindua kontuan hartzeko arrazoiak bi dira (Elson 2002): lehenengo, zainketa-lanaren inputak eta zainketen produkzioa garrantzizkoak dira giza ongizaterako; "bizitza ona" bizitzeko aukera arriskupean izan daiteke hala gehiegizko lan ez-ordaindua bada; bigarren arrazoia da, zainketen ekonomia ez-ordaindua produkzioaren mugetatik kanpo izan arren, bere funtzionamenduak inplikazioak dituela produkzioaren mugen barnean dagoen horretarako, hornitutako lan-indarraren kalitateari zein kopuruari eta produkzioan eskatutako ondasun-kopuruari eragiten baitio.

Adierazi dugunez, obskurantismoa eta politika makroekonomikoen izaera teknikoa nabarmentzea dira eredu neoliberalaren ezaugarriak. Ekonomia kritikoak eta, bere barnean, ekonomia feministak politika horiek dituzten klase eta generoko joerak agerian uzten saiatu dira, bereziki eskusiban merkatuko irizpideekin horiek diseinatzeko joera, giza garapeneko irizpideekin baino. Ildo horretan, asmo oneneko ahaleginetako bat, politika makroekonomikoak demokratizatzeko eta jendearen interesei erantzun nahiz azken urteotan egindako aurrekontu publikoei buruzko eztabaida da. Adierazitako proposamenen zati handi batek, genero-ikuspegiko premisak zituzten.

Ekimen horiek emakumeak eta jende pobrea ahalduntzen lagundu dute era askotan: genero-desberdinkeriarri eta txirotasunaren alderdiei buruzko kontzientzia areagotzen lagundu dute; erakutsi dute aurrekontu publikoak euren beharrezko erantzuteko moduan osa daitezkeela; eta zergak eraginkorrago bildu eta erabiltzera bultzatu dute, baita ustelkeria murriztera ere. Horietako eztabaida batzuk gobernuen barnean gertatu dira, adibidez, Commonwealtheko Zuzendaritzak sustatutakoak; beste batzuk, aldiz, gizarte zibileko erakundeek bultzatu dituzte, adibidez, Kanadan edo Indian; gainera, gobernuen eta erakundeen lankidetzatik sortutakoak daude, adibidez, Hego Afrikan eta Brasilgo Porto Allegren (Çagatay et. al. 2000).

Azken urteotan, aurrekontuei buruzko eztabaida biziki zabaldu da, eta politika ekonomikoaren gizarte- eta genero-erakundeak "argitzeko" balio izaten ari da, baita erabakiak era demokratikoagoan hartzeko ere. Dena den, eztabaida gehienak gastuari eta bere osagaiari buruzkoak dira; diru-sarrerari buruzko azterketak, berriz, ez dira hain ugariak.

Herrialdeek erabaki ekonomikoak demokratizatzeko orduan aurki dezaketen zailtasun nabarmen bat da politika ekonomiko berri bat aurrera eramateko behar gizarte-elkarrizketan partaideen zati batek "ez jokatzea". Hori gaur egungo testuinguruan gertatzen da finantza-kapitalaren liberalizazioak modua ematen duelako finantza-erakundeek irteera-aukera erabil dezaten eta era askotako gizarte-taldeek negoziatutako eta hartutako erabakiekin konprometitzeko betebeharririk senti ez dezaten. Beharrezkoa izango litzateke, beraz, kapitalaren mugimendu askatasun horri muga batzuk jartzea, ikuspegi alternatibo bat lortze aldera.

Kontuan hartu beharreko beste alderdi bat da aztertzea aurrekontu-eztabaida partehartzaileago horiek nazioarteko finantza-erakundeek aholkatutako zerga- eta gastu-mugak aldatzea zein neurritan lortzen duten. Muga horietan aldaketarik lortzen ez bada, gerta daiteke parte-hartzea bihur daitekeela ekintza bat gizarte-taldeek gizarte-erlotik oso gutxi duten politikei babesa emateko.

Eredu neoliberalaren gainontzeko joerak alderantzizatzeko behar den estrategia, ez da esportazioa hain bideratuta eta mozkinak hain zuzenduta egon behar. Politika makroekonomikoa eral-

datzeko, giza garapeneko helburuak sartu behar dira, diru-agregatuei buruzko ez gain; horretarako, ordea, finantza-sistemak eta nazioarteko merkataritza berregituratu behar dira, tokian tokiko garapen helburuak lortzeko modua izan dadin.

Globalizazioaren testuinguruan, kanpo-faktoreek gero eta gehiago zehazten dute produkzio-maila eta enplegua; aldiz, barne-eskariaren garrantzia gutxitzen ari da. Merkataritzaren liberalizazioak esportazioen eta inportazioen portzentajea areagotzen du eskarian, eta inbertsioaren liberalizazioak eskatzen du tokiko ekonomiek beste herrialdeetako baldintzekin lehiatzea, lan-kostuekin barne. Aldaketa horiek diru-sarreren banaketaren eta hazkundearen arteko erlazioa aldatu egiten dute, eta ekonomiak mozkinaren arabera zuzenduak izan daitezke mozkinen aldeko birbanaketak produkzioa eta enplegua areagotzen dituen neurrian (Seguino and Grown 2002).

Ekonomia itxiagoetan, soldata handiagoek barne-eskaria areagotzen dute eta, gainera, pizgarria dira produktibitatea hobetzeko eta lan-eskuaren prestakuntzarako; hala ere, esportaziora bideratutako produkzio-inbertsioen mugikortasunak eragiten du soldata handiagoen ondorioz herrialde horretako jardueren jarraipena arriskuan izatea, eta horrek jarduera horietan diharduten emakumei erasaten die gehien.

Barne-eskaria eta enplegu betea sustatzera bideratutako estrategia bat soldatak zuzendu behar du eta beharrezkoa da gobernuek rol aktiboagoa edukitzea, hala gizarte-zerbitzuen horniketan nola garapen ekonomikoaren zuzendaritzan.

Garapen-politikek balio erantsi handieneko ondasunen eta zerbitzuen produkzioa sustatu behar dute elkartrukeko baldintzak etengabe honda ez daitezen eta lehiakortasunaren funtsa lan-eskuaren kostu baxua izan ez dadin. Esportazioko industrietan emakumeen posizioa hobea dadin, ondorengo helburuak dira bilatu beharrekoak: 1. emakumeen lan-indarra nagusi den industrietako produktibitatea areagotu; 2. soldata altuagoak ordain ditzaketan industria estrategikoak bultzatu; eta 3. eskari-kudeaketako politiken bidezko enplegu betea.

Gainera, proposa daiteke kapitalaren mugikortasun fisikorako murrizketak ezartzea, enpresak hobetzera behartuak izan daitezen, soldata altuak direla-eta alde egin ordez. Beharrezkoa da, halaber, hezkuntzan eta osasunean inbertsioak egitea, baita gizonei zein emakumei lan ordaindua eta ez-ordaindua konbinatzeko modua ematen dieten gastuak egitea, kapitala kontrolatzea eta generorako sentikorra den politika bideratzea (Seguino and Grown 2002).

Ikuspegi alternatibo horrek modua ematen du hazkunde ekonomiko handiagoa eta egonkorragoa izateko, kanpoaren mendekotasun gutxiagokoa eta herrialdean lan egiten eta produzitzen dutenen aldekoagoa, dela kanpo-merkatuarentzat denean, dela barnekoarentzat denean. Modua ematen du, gainera, emakumeek enpleguak eta lan ez-ordainduko zama txikiagoa eduki ditzaten. Horrek guztiak gaur egungo politika makroekonomikoaren joerak murrizten laguntzen du eta, horretarako, aldatetarako behar dira nazioarteko ingurune ekonomikoan, garapen-bideko ekonomien alternatiba ekonomiko mesedegarriagoak bilatzeko ahaleginek behea jo ez dezaten.

Bibliografia

- Bakker, I. (2003): "Neo-liberal Governance and the Reprivitization of Social Reproduction: Social Provisioning and Shifting Gender Orders", in I. Bakker and S. Gill, *Power, Production and Social Reproduction: Human In/security in the Global Political Economy*, 66-82. or. Edit. Palgrave, Macmillan, New York.
- Bangura, Y. (1997): "Policy Dialogue and Gendered Development: Institutional and Ideological Constraints", *UNRISD Discussion Paper*, n° 87, June 1997, Geneva.
- Benería, L. (2003): *Gender, development and globalization: economics as if all people mattered*. Routledge, Nueva York.
- Çagatay, N. (2003): "Presupuestos en clave de género y después de ellos: política tributaria feminista en el contexto de la globalización" in J. Kerr y C. Sweetman, *Mujeres y desarrollo: respuestas a la globalización*, 31-46. or. Intermon-Oxfam, Barcelona.
- Çagatay, N.; Keklik, M.; Lal, R. and Lang, J. (2000): "Budgets as if People Mattered: Democratizing Macroeconomic Policies" *SEPED Conference Paper Series*, n° 4. http://www.undp.org/seped/publications/conf_pub.htm, 2002ko maiatzean kontsultatuta.
- Elson, D. (2001): "For an Emancipatory Socio-Economics", draft paper for the *UNRISD meeting on The Need to Rethink Development Economics*, 7-8 September 2001, Cape Town, South Africa, mimeo.
- Elson, D. (2002): "Social Policy and Macroeconomic Performance. Integrating "the Economic" and "the Social", draft paper for the UNRISD project on Social Policy in Development Context, in the *UNRISD programme on Social Policy and Development*, July, Geneva.
- Elson, D. and Çagatay, N. (2000): "The Social Content of Macroeconomic Policies" in *World Development*, vol. 28, n° 7, 1347-1364. or.
- Gore, Ch. (2000): "The Rise and Fall of the Washington Consensus as a Paradigm for Developing Countries" in *World Development*, vol. 28, n° 5, 789-804. or.
- Mitter, S. (2004): "Offshore Outsourcing of Information Processing Work and Economic Empowerment of Women", *Genero eta Informazio eta Komunikazioaren Teknologiei buruzko Seminarioetarako dokumentua*, Munduko Bankua. <http://www.worldbank.org/gender/digital-divide/offshore.htm>, 04/8/23.
- Mitter, S; Rowbotham, S. (1995): *Women encounter technology: Changing patterns of employment in the Third World*. Edit. Routledge, London.
- OIT (2002a): *Women and Men in the Informal Economy. A statistical picture*. Geneva. <http://www.ilo.org>.

-
- OIT (2002b): *Employment and social policy in respect of export processing zones (EPZs)*, Committee on Employment and Social Policy, GB.285/ESP/5, Geneva, azaroa. <http://www.ilo.org>.
- Oxfam International (2004): *Más por menos. El trabajo precario de las mujeres en las cadenas de producción globalizadas*. <http://www.comercioconjusticia.com>.
- SAPRIN (2002): *Las políticas de ajuste estructural en las raíces de la crisis económica y la pobreza: Una evaluación participativa multi-nacional del ajuste estructural*. Egokitzapen Estrukturaleko Politiken Berrikuspen Partehartzailerako Gizarte Zibilaren Nazioarteko Sareak (SAPRINek) prestatutakoa.
- Seguino, S. and Grown, C. (2002): "Feminist-Kaleckian Macroeconomic Policy for Developing Countries" *World Development* erako zirriborroa, azaroa.
- Sen, G. (1999): "Gendered Labour Markets and Globalisation in Asia" *Ocasional Paper*, UNCTAD/UNDP. Mimeo.
- Singh, A. and Zammit, A. (2000): "International Capital Flows: Identifying the Gender Dimension" en *World Development*, vol. 28, nº 7, 1249-1268. or.
- Standing, G. (1999): "Global Feminization Through Flexible Labor: A Theme Revisited" in *World Development*, vol. 27- nº 3, 583-602. or.
- Stiglitz, J. (1998): "Más instrumentos y metas más amplias para el desarrollo. Hacia el Consenso Post-Washington" in *Instituciones y Desarrollo*, nº 1, 13-57. or.
- UNIFEM (2000): *Munduko emakumeen aurrerabidea 2000n. UNIFEMen Biurteko Txostena*. On-line 2001eko martxoan kontsultatutakoa: <http://www.undp.org/unifem/progressww/2000/progresssp.html>.
- Williamson, J. (2000): "What should the World Bank think about the Washington Consensus" in *The World Bank Research Observer*, vol. 15, nº 2, 251-264. or.

MARÍA XOSÉ AGRA ROMERO
Logika eta Filosofia Moraleko
Saila. Santiago de
Compostelako Unibertsitatea

Herritarrak

baztertzeara:

generoa, etnia,

arrazak eta

maila

1.

Kongresu honi izenburua ematen dion galdera eginez hasi nahiko nuke, zein herritar-eredurantz? Argi dago herritar-eredu asko egon direla eta daudela. Herritarraren ideia konplexua eta arazo-tsua da, eta testuinguru historiko eta ideologikoei baldintzatzen dute. Baina nik nabarmendu nahiko nukeena da zergatik dagoen gaur egun hain sendo herritartasunaren gaia, izan ere, batzuek aipatu duten moduan, muturreraino ere eramaten den gaia da. Orain dela urte batzuk, herritartasunari buruzko artikulua batean, honakoa zioten Nancy Fraser eta Linda Gordon egileek (1992):

“Herritar” hitza esanahiez beteriko hitza da. Errespetua, eskubideak, duintasuna esan nahi dute. Gogora dezagun 1789ko citoyen hitz frantsesak iradokitzen zituen zentzua eta zirrara; tirania eta gizarte-hierarkia kondenatzen zituen hitza eta, era berean, autonomia eta berdintasuna baieztatzen zituena. Garai hartan emakumeak ere sartu ziren citoyenne adieraren barne, madame edo mademoiselle hitzak hartu beharrean. Orduetik aurrera, hitz hori askotan beste baten aurrean azaltzen da, eta duintasuna gehitzen dio, hala nola, “herritar soldadu”, “herritar langile”, “herritar ama”. Halakoa da ematen dion duintasuna, ezen gutxitan erabiltzen da lagunarteko hizkuntzan. Erabiltzen den esaldi ez-formal gutxi horietan, onarpen eta errespetu zentzua emanez erabiltzen da, adibidez, “mundu-herritarra” edo “herritarren batzordea”. Ez da hitzaren erabilera txarrik egiten. Garrantzizko hitz humanista da, izugarria.”

Hala da, esanahiez eta duintasunez beteriko hitzak dira eta horregatik dira, hain zuzen ere, erakargarriak. Esaten hasi naizen bezala, azken urte hauetan askotan erabili da hizkuntza politikoan, teorikoan eta praktikoan, baina ez dut uste gauza bera gertatu denik lagunarteko hizkeran. Herritartasuna mendeetan zehar paradoxaz eta tentsioz beteriko ideia izan da eta horrela erakusten dute emakumeek burututako borrokek. Herritartasuna ideal moduan ikus daiteke, eredu arautzaile baten moduan, politikan erabilgarri den tresna moduan, edota legeztatutako gizarte- eta politika-esparru moduan. Beraz, hitz horren konplexutasuna kontuan hartuta, analitikoki bada ere, hitzaren alderdi ezberdinak uler daitezke: ideal arautzaile gisa, lege-egitura gisa eta politika eta borrokarako tresna gisa, (beste modu batera esanda, ideal gisa, estatus gisa, parte hartze gisa eta jabetza gisa). Noski, alderdi horiek praktikan hertsiki lotuta daude elkarrekin, bai eta herritar-ereduetan ezberdin balioetsita ere.

Ordea, “zein herritar-eredu” edo, hobe esanda, “zein herritar-eredurantz” galdera egiteak testuinguru arazotsu bat dakar hasiera-hasieratik, hau da, kritika bat egin eta orain dugun herritar-eredua bizi dugun errealitateari egokitzen ez zaiola edo ez diola erantzuten esatea eta, ondorioz, aldaketak eta behar bada eredu ideal bat behar duela esatea. Hasteko, hitzaren orokortasun mailak ere zalantza sortzen du, hau da, mendebaldeko demokrazia modernoentzat mundu mailako herritartasuna den, edo unibertso mailakoa. Jakina, hori arazoarekin bat datorrela esango didazue, herritartasunaren inguruko eztabaidaren zati dela eta, beraz, gaia ez da erraza, tartean herritarren arauak eta estatutuak baitaude eta orainaldiko borroka, gatazka eta eskaerak. Halaber, jakin badakigu, gai hau jorratzean herritartasuna erretorikarako gai edo marketing politikorako gai

bihurtzeko joera izan dezakegula eta, era berean, ideien mundu platonikoan jarduteko arriskua dugula.

Oro har, jarrerak, eztabaida eta kontrako ikuspuntuak itxuratu eta alde batera utz ditzakegu; hori egitea neokontserbatzailea litzateke, herritartasuna funtsean maila formalera murrizten baita eta demokraziaren eta ekonomia neoliberalaren ikuspegi minimalista ematen digu. Bestalde, herritar-go barneratzaile eta berdinago bat izateko beharra adosten du, pluralagoa den baina ikuspegi guztientzako tokia duen herritargoa, hainbat arau eta politika inplikazioekin. Orain mahai honetan jorratzen dugun ikuspuntuak gizarte-maila eta demokrazia ditu hizpide. Ikuspegi hori izanik, gizarte-maila (edo gizarte-kokapena) zer den zehaztu behar dugu. Gure helburuetarako interesgarri zaigunez, I. M. Young-en hitzak hartuko ditut. Gizarte-mailak egitura bat du eta "pertsona multzo bat elkarreragileak diren erakunde-harremantetan modu antzekoan kokatuta dagoela esan nahi du, , eta harreman horiek euren bizitza-aukerak eta proiektuak baldintzatzen dituzte" (2000: 97). Egiturazko osaera izateak esan nahi du ekintzek eta elkarreraginek gizarte-maila baldintzatzen dutela, arauak eta bestelako ekintza eta elkarreraginetarako erabilgarri diren baliabideak sendotzen direlako. Hainbat ekintza batzearen halabeharrezko ondorioek gizarteko aukera eta estutasunak sortu eta bultzatzen dituzte. Bestela esanda, mailen arteko harremanak eta bizitza partikularretako baldintzak zailak dira aldatzen. Beraz, Young-en arabera, egiturazko ezberdintasuna jendeak dituen mugak dira, nola askatasunarekiko mugak hala euren ongizate materialarekiko mugak; muga horiek euren gizarte-mailak eskaintzen dizkien aukerekin pilotutakoaren ondorio dira, gizarte-maila ezberdinetan besteen posibilitate eta aukerekin erkatzeko modukoak. Horrek ez du esan nahi pertsonak eragileak direla ukatu behar denik, euren nortasuna osatu edo eraikitzen dutela eta bakoitzaren nortasuna bakarra dela ukatu behar denik. Esan nahi duena da ez dugula aukeratzen hori guztia zein baldintzetan egin nahi dugun, hau da, gu geu gara, baina gainerakoe-kin harreman jakin baten bitartez kokatzen gaituzten baldintza batzuekin; hori da Young-ek dioena. Ez ditu gizarte-maila eta "nortasunaren politika" nahasten. Azken batean, erakundeek eta bertako praktikak jakinarazten dizkiguten prozesu eta gizarte-harremanei egiten die erreferentzia, pertsonak partaide dituen harreman eta prozesuei, eta horiek ezin ditugu abstraktu bihurtu, herritartasuna ezin dugu herritar guztien berdintasun formal eta abstraktura murriztu, bestela esateko: herritartasuna eta demokrazia ezin uler daitezke guk dugun gizarte-maila, gizarte-maila guztiak eta horien osagarri diren ardatz eta zatiak kontuan eduki gabe. Horregatik dira garrantzitsuak herritarren generoa, etnia, arraza, gizarte-maila eta bazterketak, egungo demokraziaren eta herritartasunaren aldeko borroken oinarri baitira. Horregatik da arazo hau barneratze/kanporatze arazoa. Hurrengo orrietan zein herritar-eredurantz galderak proposatzen duen demari ekin nahiko nioke, barnerakoiagoa eta demokratikoagoa den ideia bat helburu, kulturantza edo kulturartekoa eta maila askotan eragiten duena, beraz, gaia alde positibotik hartuko dut. Horretarako, lehenik, testuinguru praktikoetan kokatzen diren bi gogoeta labur eta testuinguru teorikoan kokatzen den beste bat azalduko ditut. Bigarrenik, "pertsonaren jabetza" terminoa den fikzio politikoak arautan eta politikan duen eragina azalduko dut, demokratizazioa eta herritartasunari dagokionez, eta merkatua eta lan-hitzarmenari dagokionez. Azkenik, Europako eraikuntza prozesuaren hainbat al-

derdi jorratuko ditut, hain zuzen ere, konstituzioa helburu duen itun-proiektuari dagozkienak, emakumeen eta kulturaren ikuspuntutik.

2.

Hasteko, orain gutxi bizi ditudan esperientzi pertsonalen ildotik, buruan dauzkadan hiru gogoeta labur aurkeztuko ditut. Lehen Galizian egin zen “Generoa eta diaspora” izeneko topaldi baten emaitza da. Ekainean izan zen eta Brasil, Argentina eta Venezuelako bigarren belaunaldiko emakumeekin parte hartzeko aukera izan nuen.

Jakina den bezala, Galiziaren egitura emigrazioaren eraginaren ondorio da, argi eta garbi ikuste da hori XIX. mende amaieratik aurrera, migrazio uhin ezberdinen bitartez: Ameriketatik, Europatik, barnealdetik. Migrazioaldi horiek hainbat fase ezagutu dituzte: batez ere gizonezkoak, familian, banaka. Oraindik ere indarrean da emigrazioa. Batez ere arrazoi ekonomikoengatik izan da eta, maila txikiagoan bada ere, gerraz zibilaren ostean baita arrazoi politikoengatik ere. Horrek guztiak Galiziako idazleen adierazpidean du eragina, eta batez ere Rosalía de Castro idazlearengan. “Bizidunen alargunak” olerkia da ezaguna baina beste asko ere emigrazioaren arazoaren isla eta ahots dira. Idazle horren olerkiak gizarte-baldintzen salaketa dira, nola joan diren hala gelditzen diren baldintzen salaketa. Politikan askotan esplotatzen den lirismo eta irudi dira (batez ere hauteskundeetan, sufragio unibertsalaren eztabaidan emakumeek botua eskuratzeko....atzo eta gaur). Nahiko zaila da Galiziako edonork senide emigranterik ez izatea. Datuen arabera, esaterako, 1900. eta 1971. urteen artean, 821.979 pertsona zeuden Galiziatik kanpo, eta ez da gutxi biztanleria osoa kontuan hartzen baldin badugu, guztiaren heren bat baita. Horregatik erabiltzen da *diaspora galiziarra* terminoa, eta ongi erabili ere, garrantzizko kopuru eta iraupenez ari baikara eta denboran mantendu dena, gainera. 2003. urtean Galizian jaiotako galiziarrek eta herrialdetik kanpo bizi direnak 1.389.700 dira. Emigrazioaren esperientzia aztertuta hizkuntza arazoak uler ditzakegu, prestakuntza baxua izatearen arazoa eta, oro har, migrazio asko jasan duten herrialdeetako ezaugarriak uler daitezke. Hori da Argentinaren kasua, izan ere, Buenos Aires Galiziako bosgarren probintzia zela esan zen. Horrela sortu ziren galiziarren estereotipoak: gizona zikina, baldarra, primitiboa, ongi hitz egiten ez zuena, eta emakumea hori guztia baina, batez ere, neskame eta emagaldutzat jo zuten. Milaka galiziarrek egin zuten alde bizi hobe baten bila, lan bila eta Galiziarra itzultzeko asmotan; batzuek lortu egin zuten. Emakume emigranteen kasuan badakigu prostituzio sareak izan zirela, familia- eta auzo-sareak, baita zorretan egoten zirela helmugako herrialdera iritsi eta orduan ordaindu behar izaten zutelako, normalean urte bete ondoren. Argi dago galiziarren migrazioak aztertuta legeztatze arazoak, gizarteratze, lan eta herritarren arazoak uler ditzakegula, baita kanporatzea, bazterketa, txirotasuna, boteregabezia, ezin itzulua eta herrialdea idealizatzea ere.

Bi puntu nabarmenduko nituzke. Lehenik eta behin, migrazioaren esperientzia kontuan edukitzea garrantzitsua da herritarren artean gertatzen dena aztertu eta ulertzeko. Zergatik emigratzen du jendeak? Zein ezberdintasun dago, ezberdintasunik badago, gure emigranteen eta egungo etorki-

nen artean?, edo, bestela esanda, zer da berria egungo migrazio fenomenoan eta nola eragiten die herritarrei? Zein puntutaraino funtzionatzen dute estereotipoek eta ezkutatu edo iluntzen dituzte estereotipo horien eragile diren gizarte- eta botere-harremanak? Emakumezko etorkin gehienak neskameak edo emagalduek al dira? Eta, ondorioz, zein gizarte-harreman dago hor atzean? Zein puntutaraino funtzionatzen du emigrante desiragarriaren edo emigrante onaren irudiak?

Zein paradoxikoa den galiziar askok eta baita emigrante askok ere pentsatzea ez direla pateratan etortzen direnak bezalakoak, ez direla legez kanpo etortzen diren horiek bezalakoak; estereotipoz betetzen dituzte eta beraien horrelakoak ez zirela sinisten dute, nahi zuten gauza bakarra lan egitea zela eta lan egiten zutela. Orain beste batzuk dira alferrak, zikinak, tuntunak, primitiboak, eta beste emakume batzuk dira neskame eta emagalduek.

Bestetik, topaldi horretan emakumeekin harremanetan egoteak emakume emigranteek bizitutako zailtasunak eta gizarte-mailak zein izan ziren erakutsi zizkidan. Era berean, espazio komun bat sortzearen beharra ikusi zen, barne-Galiziaren eta kanpo-Galiziaren arteko esparru bat. Continuum horren arabera, diaspora kalkulatu ezinezko balioa duen aktiboa da kanpora zein barrura begiratzeko, eta Galizian bizi ez diren horien energiak berreskura daitezke horiek itzuli behar izan gabe. Baina, era berean, ekonomiari dagokionez, sentitzen den zalantza eta ziurgabetasuna adierazi ziren, eta emigratuei itzuleran pentsarazten dieten egoera zailei buruz ere hitz egin zen —itzulera horren aurrean, barne-Galiziak ardua eta betebeharrak hartu behar ditu— baina beste batzuek, zehazki emakumeek, laguntza ekonomikoa behar dute, asistentzia medikoa, oinarritzko gizarte-laguntza.

Bigarren gogoetak Rousseuren politika-testuen bigarren irakurketa bat du oinarri. Kontuan eduki behar da egile horrek subiranotasun demokratikoaren ideia oinarriak ezartzen dituela eta erabat kritikoa dela garai hartako gizartearekiko. Aitorpenetan, Rousseauk adierazten du dagoeneko ohartu zela guztia politikaren arabera dela. Hala ere, Rousseauk garrantzizko auzia jartzen du mahai gainean: gizaki ala herritar izatea. Hainbatetan gizona herritarraren aurretik dagoela onartzen baldin badu ere, errealitatean hori horrela ez dela onartzen du. Ikus ditzagun testu batzuk:

“Orduan beti dator eragozpena: gure artean ezarritako ordenatik irudikatzen dugun gizarte-ordenako ideiak atera baino ez ditugu egiten. Gizarte orokorra gure gizarte partikularren arabera irudikatzen dugu; errepublika txikiak ezartzeak handiago batean pentsarazten digu; ez gara berezko gizaki bihurtzen herritar bihurtu arte. Hor ikusten da nolakoak diren sasi-kosmopolita horiek, izan ere, herriarenganako maitasuna arrazoitzeko gizakiarenganako maitasuna erabili eta mundu osoa maitatzen dutenaren itxura ematen dute inor ere maitatzeko eskubidea izateko”. *Ginebrako Idazkia*.

“Partziala den gizarte oro, trinkotua eta oso batua dagoenean, nagusitik bereizten da. Abertzale oro da gogorra atzerritarrekin; euren begietan, gizaki izateaz gain, ez dira ezer. Arazo hori ekidinezina da baina ez da hain larria. Garrantzitsuena bizi garen pertsonekin onak izatea da. Espartarra kanpotik handinahia, zekena, zitala zen; ordea, axolagabetasuna, berdintasuna, adostasuna ziren nagusi haren harresien barnean. Ez fidatu euren liburuetan inguruan bete nahi ez du-

tena bilatzen duten kosmopolita horietaz. Horrelako filosofoak tartariarrak maite ditu bizilagunak maitatu behar ez izateko” *Emilio*

“Naturari edo gizarte-erakundeei aurre egitera behartuta, gizaki bat ala herritar bat osatzearen artean aukeratu beharra dago, ezin baita bata zein bestea aldi berean osatu”. *Emilio*.

Ikusi dugun moduan, Rousseauk gizaki eta herritarren arteko tentsioak adierazten ditu, giza eskubideen eta herritar eskubideen arteko tentsioak. Gaur egun esango genuke pentsamenduan egiturazkoa den tentsioa dela eta ez dela konpontzen, ez errealtatean ez utopian. Herritargoaren arazoa hitzarmenaren ideiatik jorratzen du (jakina den bezala, hitzarmenaren teoria XVII mendetik aurrera herritargo modernoaren oinarria da). Hitzarmen horren arabera, aske izateko, norberak bere legearen mende egon behar du eta, hain zuzen ere, askatasuna definitzeko adostasun horretan datza subiranotasuna. Noski, Rousseauk herritarren multzotik eta hitzarmenetik at uzten ditu emakumeak. Baina nabarmentzea gustatuko litzaidakeena da herritarren tentsio eta arazoek askatasun eta berdintasunari eragiten dietela, giza-eskubideen eta herritar-eskubideen arteko harremanean pentsatzera behartzen gaitu eta, are gehiago, gizakiaren, banakakoaren eta herritarren ideiaz arduratzera behartzen gaitu, euren moralaren eta politikaren mugez arduratzera. Esan daiteke bi egitura-multzo daudela: natura eta gizaki naturala, eta gizarte-erakundeak eta gizaki soziala. Esan nahi dudana da Rousseauk gai horiek guztiak estatu-nazioan pentsatuta bideratu dituela eta ikuspuntu errepublikar batetik abiatuta. Arazoa ez da ohiko eskemetako polis eta kosmopolis-en artekoa. Eskema hori estatu-nazio bihurketaz eta ekonomiaren globalizazioaz arduratzen zen gehienbat. Kontua da ia mantendu dezakegun norbanako, gizon eta emakume izateko herritar izan behar dugula dioen ideia. Geroz eta elkarmendekoagoa den mundu ordenan, zein erabakiek baldintzatzen eta eragiten dute banakakoen aukeretan? Nola erdietsi daitezke bankakoaren autonomia, askatasuna, demokrazia eta herritartasuna? Arazo horren muinak azaleratu egiten ditu askatasun eta berdintasunaren terminoak, biak ere herritar-ereduaren osagarriak. Era berean, naturari baino, kulturari eragiten dio, kultura baita hainbat eskari eta borrokan gai nagusi, munduan gertatzen ari diren eta gure gizarteak aurre egin behar dien aldaketa eta bihurketen erantzun moduan emana, hala nola, Europar Batasuna eraikitzeagatik beragatik.

Azken gogoetak, hain zuzen ere, azken gertakari garrantzitsu horrekin du zerikusia: Europar Batasuna eraikitzekeko prozesua eta europar herritartasuna. Pasa den maiatzean konstituzio-proiektuak eragiten dituen arazoek berri jakin ahal izan nuen eta, bereziki, emakumeen mugimenduek egiten dituzten kritiken berri, Emakumeen Mundu Martxak, Europari dagokionez, Vigon egin zuen topaldian. Testuinguru honetan, oinarritzko galdera Europako herritar izateak zer esan nahi duen izango litzateke, zein herritar-eredu dakarren eta zein neurritan eragiten dien horrek emakumei. Aurrerago hitz egingo dut berriz ere gai horren inguruan.

Gogoeta labur horiei jarraiki, badirudi hainbat geruza edo maila dituen herritar-eredua proposa daitekeela. Horrek tentsio praktiko nahiz teorikoak ekarriko lituzke, eredu hori ezin baita gizaki/herritar, natura/kultura eskemaren arabera lotu. Bestela esanda, erkidego moralak eta politikak ez diete muga bereberei erantzuten eta, bestalde, gaur egun herritargoaren eztabaidak ez dio naturari eragiten, kulturari baizik. Azken batean, mahai gainean estatu-nazioak, bankakoen bizi-

tza-akerei dagokienez, eskaintzen dituen gaitasun eta bermeak daude. Horrela bada, migrazio-fluxuak, banakakoen askatasun edo autonomia, esklabutza modu berriak eta Europa eraikitzeo saiakerak arazoaren zati batzuk baino ez dira. Honez gero norbait zeregin hori izugarria dela ariko da pentsatzen, hala da, baina horrek errealitatea zein den eta eragiten gaituzten aldaketen dimentsioak zer nolakoak diren adierazten digute. Dena den, ez gaitezen beldurtu, urratsez urrats joatea komeni da.

3.

Gizarte-mailaren auzira itzuli eta egungo eztabaidan ageri ohi den alderdietako bat aurkeztu nahi nuke, hain zuzen ere, askatasunari edo banakakoaren autonomiari eragiten dion hori, arrazoibide neoliberalaren nahiz eskubideek eta herritartasunak jabetzari buruz duten ideiaaren puntu garrantzitsuenetariko bat, izan ere, eskubideek eta herritartasunak gizakia “bere jabe” edo “bere pertsonaren jabe” dela dakusate, eta horrek Capellaren ustez esan nahi du gizakia “bere pertsonaz eta gaitasunez baliatzeko gai dela, batez ere horiek besterentzeko” (2002: 148). Ideia horren aita J. Locke da, baina Kant-ek egiten zuen kritikan ere oinarritzen da, alegia, pertsonak objektuak balira bezala erabiltzen direla, bitarteko moduan eta ez helburu gisa. Baina orain ezin dut gaia sakondu, nire asmoa ideia horrek gaur egun duen indarra erakustea da, eta ez hainbeste haren jatorri historiko eta kontzeptualean gelditzea. Eztabaidagaia banakakoen askatasuna edo autonomia da, herritargora iristeko, herritarrek haren zati eta partaide izateko duten aukera, eta lanak eta enplegu libreak duten garrantzia erbeste sozialaren, askatasun mugatuaren nahiz herritarren mendekotasunaren aldean; horrela bada, eztabaidagaia banakakoek herritar gisa dituzten gaitasunak dira, herritarrek lan-merkatuan eta hitzarmenetan duten gizarte-mailaren ikuspegitik. Patemanen iritziz, emakumeentzat, pertsonen jabetzaren fikzio politikoa maskulinitasunaren, lan ordainduaren eta herritartasunaren artean osatzen da. Ideia horrek pribatua denaren (familia, enpresa) eta politikaren mundu publikoaren artean dagoen harreman estua erakusten digu (ez diot berriz ere publikoa-privatua zer den eztabaida feministari eutsi nahi, nahikoa da gogoratzea pribatua dena, hots, pertsonala dena politikoa dela, eta gaitasunen auzia oinarritzakoa dela demokrazia eta demokratizaziorako, nola lanari hala politikari dagokionez). Nork bere buruaren jabetza izatea, pertsonaren jabetza izatea edo “nor bere buruaren jabe izatea” antzeko adierazpideak direla pentsa daiteke, baina kontuan hartu beharreko zehaztasunak dituzte. Guri interesatzen zaigun ikuspegia herritarraren eta lan ordainduaren arteko harremana kontuan hartzen duena da, banakakoek euren lan-indarra edo, oro har, gorputz edo jakintza zerbitzuak saltzeko duten askatasuna kontuan hartzen duena, eta ez besterendu ezin diren eskubideak dauden ala ez eztabaidatzen aritzea. Ikuspegi horrek erabat eragiten du demokrazian, nola ordezkartzari dagokionez hala partaidetzari dagokionez.

Hain zuzen ere, nabarmendu beharreko puntu bat gaur egun lan-hitzarmen bat izateko aukera zein garrantzizkoa den ulertu ahal izatea da, bai eta hitzarmen horiek emakume eta etorkinek zein baldintzetan hartzen dituzten ulertzea ere. Etorkinei dagokienez, kanporatzea gertatzen da,

zentzurik gogorrean gertatu ere, lantegiek duten onartzeko eskubidearen ondorio, edo kanporatzeko eskubidea esan beharko litzateke; bakoitzak nondik begiratzen dion. Horrek boteririk gabe uzten du etorkina, baztertua, eta gizatiarrak ez diren baldintzetan egin behar izaten du lan; horiek dira legez kanpoko lanaren ezaugarriak, paperik ez dutenek burutzen dutena, esklabutza eta esplotazio modu berriak dira. Era berean, bat nator Sassen egilearekin jaioterritik kanpo emakumezkoen proletalgora sortzen ari dela dioenean. Egile horrek “biziraupena feminizatze” terminoa darabil eta, haren aburuz, horrek ez du esan nahi “etxeko ekonomia eta, egia esan, komunitate osoak, emakumeen geroz eta mendekoago direnik. Gobernuak mugaz bestaldeko zirkuituetan izena emandako emakumeen diru-sarreraren mendeko ere badirela nabarmendu nahiko nuke, bai eta “legezko” ekonomiatan oinarrituta diru-sarrerak lortzen dituzten enpresa multzo baten mendeko ere” (2003: 45). Halaber, nazioarteko migrazioek genero jarrerak aldatzen dituztela nabarmentzen du eta mugaz gaindi etxeak sortzeak emakumeen maila sendotu dezakeela eta boterea eman diezaiekeela, “etxea” ekonomia prozesu orokorrak nahiz elkartasun modu berriak eta subjektibotasun berriak ulertzeko ezinbesteko azterpuntuak baita.

Herritarren gaia jorratzen duten politikaren teoriagile feministek gizonezkoek eraiki duten independentzia atera dute argitara, batez ere laurogeiko hamarkadatik aurrera. Askatasun edo autonomia azaltzeko beste modu bat da, herritargo modernoaren oinarritzko baldintza, baina baita emakumeen mendekotasunaren eta hitzarmenak betetzen duen funtzioaren oinarritzko baldintza, batik bat ezkontza-hitzarmenak betetzen duenarena. Ongizate-estatuaren krisi garaian egindako kritikan, feminista horiek langile ordaindu gisa emakumeek jasandako ezegonkortasuna eta legez-kotasun falta azaldu dute, eta azpimarratu nahi izan dute herri eta langile mailako emakumeek lan ordaindua beti eta beharragatik burutu dutela. Ezegonkortasun hori, ordezkartzari nahiz partaidetzari dagokionez, herritar gisa bizi duten egoeraren ondorio da. Etorkinaren ikuspegiaren oinarria lan-hitzarmena izateko aukera baldin bada, eta emakumeen kasuan baita ezkontza-hitzarmena ere, emakume eta langileen gaia ez da esplotazio kontua soilik, baizik eta batez ere mendekotasun kontua, mugatuta dagoen askatasunarena. Zentzu horretan, Pateman-en arabera, “pertsonek jabetza” kontzeptua kontu handiz erabili behar da. Kontzeptu hori ez da kritikagarria soilik libertarioek darabiltenean (R. Nozick), izan ere, ekonomia eskema neoliberaletan eta egitura eta pribatizazioa doitzeko politiketan egokitzen den doktrina politikoa da. Erakunde eta praktika garaikide batzuk ulertzeko ere ezinbestekoa dela dio. Zehazkiago, jabetza pribatuaren ezaugarri nagusia, pertsonaren jabetza barne, besterendu daitekeela da. Gai horren inguruan sortutako eztabaidan, Pateman-ek dio garrantzi gutxi ematen zaiola autonomiari edo autogobernu eskubideari, enplegua lan ordaindua, lan askea dela pentsatzen baita, banakakoak lanean hitzarmen baten bidez nahi dutelako hasten direlako. Egile horrek esan nahi duena da “nor bere buruaren jabe izatea” kontzeptuak, Van Parijs, W. Kymlicka, Ingram edo Cohen kritikoen darabilten moduan, ez duela “persona” kontzeptuaren garrantzia historikoa, politikoa eta legala kontuan hartzen. Horrela bada, legezko estalduraren azpian emazteak ez ziren pertsonak, ez zuten legezko maila independentea —gogora dezakegun zein egoera bizi genuen hemen orain gutxi— emateak senarren jurisdikziopean zeuden. Nor bere buruaren jabe izatearen eztabaidan (self-ownership), men-

dekotasun hori autonomiaz hitz egiteko modu bat balitz bezala hartzen da. Pateman-en arabera, Kymlicka-k, esate baterako, uste du mendekotasun egoera horrek “geure helburuei jarraitzeko dugun gaitasuna babesten duela”, baita “jendeak euren buruaz duten ideia-aren gain eragiteko gaitasuna ere”; Cohen egilearen lanak erakargarriak dira, hain zuzen ere, autonomia duelako hizpide, “nork bere burua gidatzeko duen esparrua”.

Eztabaidan gehiegi sartu gabe, Pateman-ek esan nahi duena da fikzio politiko baten aurrean gaudela, harremanak sortzen dituen fikzioa (esaterako, langile eta enpresariaren artean, senar-emazteen artean), eta fikzio horren arabera, ahalmenak, gaitasunak, trebetasunak eta jaiotasunak bereizgarriak dira eta, beraz, hitzarmen-gai izan daitezke, beraz, besterendu daitezke. Bestalde, egile horren arabera, “harreman horiek osatzen dituzten hitzarmen horien ezaugarriak nabarmena ez da pertsonaren jabetza elkartrukatzeko dela, baizik eta lerrokatu egiten dela; hori da autogobernu eskubidea”. Egile horrentzat eskubideak lerrokatzeko jabetzaren ideia izan behar dugu; aitzitik, jabetzaren ideia hori demokraziaren, autonomiaren eta herritartasunaren arabera osatzen baldin badugu, kontuan hartu behar da eskubideak ez direla besterenezinak eta, beraz, arazoa ez da soilik herritarren esplotazioa, baizik eta, funtsean, mendekotasuna.

Horrela utziko dut gaia, baina aurrez Patemanek maskulinitasunaren, independentziaren eta pertsona jabetzaren arteko loturaren iturria ere aztertzen duela esan beharra dago. Prozesu historiko eta politiko bat dela dio eta enplegua eta lan ordaindua banatzea dakarrela, nagusi eta zerbitzariaren arteko banaketa, jabea zein den eta pertsona zein den erabakitzeko borroka luzea iluntzen saiatu gabe. Halaber, zalantzan jartzen du emakumeen borroka luzea normalean nabarmentzen ez denik edota borroka horren eta emakume edo etnia gutxituen arazoaren arteko harremanari buruz ezer adierazten ez denik. Patemanen ustez, horretaz guztiaz gain, ongizate erreformak burutzeko “lan ordaindua herritar guztien betebeharra balitz bezala hartu da, gizon eta emakume guztien betebeharra. Orain argi dago enplegua demokratizaziorako baldintza dela eta herritarren gaitasunak garatzeko bitartekoa” (p. 35). Are gehiago, egile horren ustez, lan-hitzarmena jabetzaren eta ordainaren arteko truke (parekatua) da, eta hitzarmen horixe bihurtu da filosofo politikoaren, politika arduradunen eta ekonomia politikaren zentzua. Zentzu horrek “demokraziaren tradizioa eta teoria” ere hartzen du bere barne, beraz, zailagoa da hitzarmenak oinarritzat dituen ardatz eta irizpideak zalantzan jarriko dituen jarrera kritiko bat hartu eta onartzea.

Laburtuz, berriz ere askatasunak arazoak dakartzala ikusi dugu. Pentsa dezagun, batetik, Rousseau-n, autogobernuan eta lan ordainduan, independentziaren adierazle gisa eta, bestetik, lan-hitzarmenak dakarren mendekotasunean, txikiagoa edo handiagoa hitzarmenareneko baldintzen arabera, autonomiaren eta autogobernuaren arabera. Horretan guztian ederki eskarmentuak daude emakumeak. Nahiz eta lerro gutxi izan, argi eta garbi egiten die erreferentzia benetako askatasuna ulertzeko moduei eta autonomia edo autogobernuari buruzko ideia filosofiko-politikoei, autogobernuaren kontzeptua bultzatzen duten ideiak, hain zuzen ere; moralaren eta politikaren arteko mugari ere egiten dio erreferentzia, herritarren autonomia moral eta politikoari. Ikusi dugun moduan, Patemanek erakunde nagusien izaera ez demokratikoaren berri ematen digu, defizit demokratikoaren berri, lantokietako demokrazia faltaren berri eta horrek herritarren gaita-

sun eta partaidetzan duen eraginaren berri; muturreko demokrazia defendatu nahiak eragindako kezak. Azken zehaztapen bat egin nahiko nuke gizarte-mailei dagokienez: gizarte-mailen eta horien artean sortzen diren harremanen arteko erkaketa. Horrela utziko dut azken gai hori, ongi asko dakigun moduan inplikazio gehiago baititu (prostituzioa, zerbitzuak edo gorputz zatiak saltea...), eta Europa eraikitzea den erronkari buruz hitz egiten hasiko naiz.

4.

Esaten nuen moduan, gizarte-maila, demokrazia eta herritartasunaren gaiak EB eraikitzeke prozesu konplexu eta eztabaidagarriaren barruan azter ditzakegu, bere horretan frogatzen den prozesu horren testuinguruan eta kultura kontuan edukita. Lehenik eta behin, Europako herritartasuna eta nazioz gairik gabeko gobernu bat sortzea, nortasun komuna eta antolamendu politiko berri bat edo Batasuna sortzea zein garrantzitsua eta liluragarria den adierazi nahiko nuke, baldin eta, Europako konstituzioa sortzeko itun-proiektuaren hitzaurrean dioen bezala, Batasuna "egonkortasun faktore eta munduko antolamendu berriko eredu" bihurtzen bada. Berrikuntza eta ereduak dira azpimarratuko nituzkeen elementuak. Bigarrenik, herritarren ohartu beharra dago, hots, benetako arazo politikoak zein diren: jendea Europako erakundeetatik urrun sentitzen da, informazio gutxi eta burokratizatzea, gardentasun eza eta, nola ez, erabakiak hartzeari buruzko gaian sartzen baldin bagara, EB sortu zuen Karta, kontu-emateek erakusten duten "defizit demokratikoa" edota Europa "goitik" eraiki dela eta ez "behetik", eta horrek guztiak horrelako konstituzio-prozesu baten beharrez inguruan sorrarazi dituen arazoak. Beraz, auzia "herritarrek Europako proiektura eta Europako erakundeetara" nola gerturatu litzateke" edota "EBaren demokrazia, gardentasuna eta eraginkortasuna ugartzeko neurriak" (Hitzaurrea), baina zein herritartasun? Izan al daiteke maila askotako herritartasuna, kulturaren eta kulturartekoa, nazioz gairik gabeko antolaketa duena baina Europako herritarrentzat berezko kultur nortasuna duena? Hori lortzeko gizarte-herritartasunari uko egitea al dakar?

Bestetik, zer esan nahi dugu *kultura* hitza darabilgunean? Ereku arazotsuan sartzen gara, izan ere, *kultura* hitzak erregistro eta helburu asko besarkatzen ditu. Beharbada, hasteko, azken urteetan Kulturaren Europa lortzeko abian jarritako hainbat politika aipatu behar dira, hala nola, Europako erakundeek ateratako "kultur politikari buruzko arteztarauak". Arau horien helburua "Europako gizarte espazioa" sortzea zen, integrazioa ekonomiake ageri zuen "defizit sinbolikoa" edo "sinesgarritasun defizita" delakoa arintzeko. Baina, konstituzio-proiektuaren hitzaurrean esaten den moduan, zein kultura motaz ari gara eta nola sortzen da hori, "aniztasunean batutako Europa" sortu nahi baldin badugu? Oraingoz hogeita bost estatuen aniztasunaz ari gara, hizkuntza aniztasuna, konstituzio aniztasuna, erakunde eta tradizio aniztasuna. Eta, berriz ere, galdera: Kulturaren Europa eta/edo kulturarteko edo kulturaren den Europa? Horrela bada, bi alderdien artean gaude. Batetik, dagoeneko diren ereduaren araberrako Batasun bat ez sortzeko lana dago eta, ondorioz, aldeketa baketsuen aldeko ikuspuntu berriak ekarriko dituen batasuna sortzeko beharra, eraikuntza politikoa lehen mailara pasatzeko eta, bestetik, prozesu horrek dakartzan defi-

zitat daude (demokratikoa, sinbolikoa, sinesgarritasun defizita), berrikuntza aukera bera ere kolokan jar dezaketena.

Testuinguru horretan, nioen moduan, herritartasunaren eta kulturaren gaiak ezinbestekoak dira. Eta herritartasuna kontzeptualizatzea arazotsua baldin bada, beste hainbeste gertatzen da kulturarekin eta eskaera kulturantzen indarrekin. Hori horrela izanik, pentsatu behar dugu ia posible den herritartasuna, kulturantzen eta demokrazia sortzea berdintasunari uko egin gabe. Hau da, Europar Batasunak estatu-nazio eredu tradizionalari eta nazioz gairdiko apustu horri jarraitu ezin dion neurrian, eta ezin dio jarraitu, ia horrek ezberdintasunak ezartzen dituen herritar-eredu bat eskatzen duen, eta egin dezala berdintasunaren eta gizarte justiziaren nahiz justizia politikoa- ren kaltetan. Kontua da Europako herritartasun eta nortasuna zer den aztertu behar dela, eta Europako integrazio-prozesuaren defizitak arintzeko formalki sortutako zerbaite dela onartu behar dela. Esan bezala, kontu horren azpian eredu neoliberalak islatzen ez duen eredu oinarritutako den herritartasun eta antolaketa politiko baten aldeko apustua egiteko beharra dago, europar herritartasuneari sinisten ez duen horiei bideratua, hots, Europaren aurrean sineskor agertzen diren horiei, eta EB Europa merkataria- ren isla eta jarraipen bat besterik ez dela dioten pertsona kritiko- ei, haien ustez interes ekonomiko- en gai horrek kulturantzen bilatuko baitu orain estaldura, eta baita modu positiboan pentsatu eta, Batasunaren interes bakarra ekonomikoa denez, haratago joan behar ez dela pentsatzen duen haiei bideratuta ere. Kontua da ia hori guztia posible den, hau da, neoliberalismoari erantzuten ez dion EB eraikitzea, Japonia eta AEBen aurrean interes ekonomiko eta inperialistei erantzuten ez dien potentzia berri bat ez eraikitzea, munduko antolaketa berri- en benetako eredu berri bat izan dadila, gizarte eta politika modu berri bat bultzatu eta gorpuztu de- zala.

Emakumeen ikuspegiari dagokionez, Mundu Martxako bileran entzun ahal izan ziren ahotsak izu- garrri kritikoak izan ziren, batez ere konstituzio- proiektua dela eta. Gehien nabarmendu zen kriti- ketako bat gizon eta emakumeen arteko berdintasuna oinarritzeko balio gisa ez agertzeari buruz- koa izan zen (hau da, ez da 1.2. artikuluan azaltzen), beraz, ez da gainerako balioen maila be- rean azaltzen, nahiz eta helburuetako bat bezala azaltzen den (1, 3. artikulua). Bestelako kritikak emakumeen eta haurren kontrako indarkeria gairditzeko lege- neurriak edo neurri politikorik ez ai- patzeagatik entzun ziren, testuan erabilitako hizkuntza neutrala ez delako, beste kritika asko lai- kotasuna modu agerian azaltzen delako entzun ziren. Denbora gehiago behar dugu kritika horiek modu zehatzagoan aztertze- ko baina argi uzten dute konstituzio prozesuaren eta emakumeen ar- teko urruntasuna bereziki handia eta garrantzitsua dela herritartasunaren ikuspegiatik ikusita.

Herritartasunaren eztabaidari buruzko beste puntu bat ere kritikatu zen aipatu bileran. Giza Eskubideei dagokienez, proiektuan honakoa esaten da: "Giza Eskubideak eta Oinarritzeko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenari atxikitzen saiatuko zaio". Egia da "atxikitzen saia- tuko zaio" esapideak harridura sortzen duela baina, behar bada, artikulua berean 3. puntuan ja- sotzen dena nola interpretatu ulertuz gero, uler daiteke: "Giza Eskubideak eta Oinarritzeko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenak bermatzen dituen oinarritzeko eskubideek, eta esta- tu kideen konstituzio- tradizio erkideetatik datozenak Batasunaren Zuzenbidearen osagai dira,

printzipio orokor bidez". Ez al zitzazkion bada estatu kide guztiak Europako Hitzarmenari atxiki eta, beraz, ez al dute bada hori horrela egin behar? edo, hala ez bada, zein da arazoa? Behar bada printzipio orokorrak dira eta "atxikitzen saiatuko zaio" espidea erabiltzen da erkidegoaren esparru juridiko-politikoan eta estatu kideen konstituzioen baitan aurrera egiteagatik tentsiopean dagoen Europa delako, eta Europako Justizia Auzitegiarekin eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiarekin arazoak izaten direlako. Nik behintzat ez dut oso argi nola osa daitezkeen giza eskubideak eta herritarren eskubideak, ez baldin bada eskubideen pixkanakako legeztatze prozesu baten bitartez, kultur eskubideak eta kulturarako eskubideak EBeko oinarritzko eskubideen Kartan ere giza eskubide gisa azaltzeko. Baina, esan dudan bezala, badirudi oinarritzko gaiak legeztatzearen bidetik jotzen dela.

Azkenik, aipatu nahiko nuke defizit sinbolikoa aztertzerakoan sumatzen direla EB eraikitzeak sortzen dituen auzi eta tentsioak, kultura politika dela eta kulturari berdintasunezko ikuspegi batetik begiratzen hasi zaiola, eta orduan aztertzen direla kultur politika eta azken urteetan "Kulturaren Europa" ideiarekin gidari izan ziren arteztarauak. Zentzu horretan, aipagarria da Lourdes Mendezek burutzen duen azterketa (2003). Europako hainbat testu, eztabaida eta nazioarteko nahiz erakundeetako dokumentu aztertu ditu, kulturari buruz eta kulturaz, kulturarako eskubideaz, kultur eskubideez, kultur demokraziaz, kulturaren demokratizazioaz ulertzen den horren zailtasunari, anbiguitasunari edo definizio ezari buruz, eta adostasun bat lortzeko arazoari buruz. Agian horregatik azaltzen da hain gutxi kultura Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Kartan. Kultura hitza hiru aldiz bakarrik azaltzen da: hitzaurrean, 22. artikuluan eta 25. artikuluan. Karta aztertu duten batzuek aipatu duten moduan, ez du kultur aniztasunari buruzko UNESCOren Adierazpen Unibertsala, ez hartu ez aipatu ere egiten, ezta kultur aniztasunari buruzko Europako Kontseiluko Ministroen Adierazpena ere (dic. 2000). Horrek esan nahi du "(kultur) eskubideak onartzeko barne egitura harmoniko bat ez egoteaz gain, alegia, Zuzenbidearen eta Kulturaren arteko lotura bat ez egoteaz gain, lotura horretatik eratorri beharko liratekeen eskubide gehienak 22. artikuluko nimoak irentsi zituela, eta ahaztu egin zirela. Oraindik ere Justizia Auzitegiak moldatzen ditu eta, dagokion egunean ere, horrek moldatu beharko ditu aipatu artikuluko edukiak, artikuluko besarkatzen duena zehazteko. Baina hasiera batean idatzi eta azaldu zena ezin zorigaitzokoagoak dira"(Anguita, 2004: 114-5). Azken batean, kulturaren gaia alde batera uzten da eta konpromiso modu batetara jotzen da, alegia, berriz ere auzia legeztatzerara jotzen da.

5.

Ondorioak

Ez dakit hitzaldi honekin gizarte-mailaren, demokraziaren eta herritartasunaren arteko teilkapena nolabaiteko argitasunez azaltzea lortu dudan. Dena den, ondorio moduan ideia batzuk laburtzen saiatuko naiz. Lehenik eta behin, ezinbestekoa da gu gabiltzan testuinguru praktikoetatik abiatzea. Bigarrenik, gizarte-maila ez da nortasunera murriztu behar. Hirugarrenik, azterketa feministak behar dira gai horiei buruz, eta ez dira jatorri historiko, politiko eta kontzeptualak ezkutatatu behar. Laugarrenik, kultura politika dela baieztatzea eta, beraz, ezin ditugula kulturazintasun-

na eta erkidegoaniztasuna gelditu. Kultur aniztasunaren erronka bere gain hartzen duen herria ezin dezakegu gotorlekutzat jo, kultur mosaiko bat balitz bezala edo balkanizatze prozesu moduan. Horregatik da hain garrantzizkoa Europa eraikitze prozesua eta eztabaida ez alboratzea nahiz arazoak ez legeztatzea. Bukatzeko, galdera bat egin nahiko nuke eta , beraz, Rousseau aipatuko dut berriz ere, guztia politikaren araberakoa al da?

Erreferentzia bibliografikoak

Anguita Villanueva, (2004), "La cultura en la Carta de Derechos Fundamentales de la Unión Europea" in Ruiz Miguel, C., (koord.), *Estudios sobre la Carta de los Derechos Fundamentales de la Unión Europea*. Santiago de Compostela, Santiagoko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

Capella, J. R., (2002), "La ciudadanía de la cacotopía. Un material de trabajo" in Quesada, F., (zuz.), *Naturaleza y sentido de la ciudadanía hoy*. Madril, Estudios- UNED.

Fraser, N., Gordon, L., (1992), "Contrato versus caridad: una reconsideración de la relación entre ciudadanía civil y ciudadanía social" in *Isegoría*, 6. zk.

Pateman, C., (2002), "Self –ownership and Property in The Person: Democratization and a Tale of Two Concepts", in *The Journal of Political Philosophy*, 10. lib., 1. zk.

Sassen, S., (2003), *Contra geografías de la globalización. Género y ciudadanía en los circuitos transfronterizos*. Madril, Traficantes de sueños.

Young, I. M., (2000), *Inclusion and Democracy*, Oxford University Press.

NIRA YUVAL-DAVIS

**Kultura Ikerketen eta
Berrikuntza Eskola. East
Londongo Unibertsitatea**

*Nortasuna,
herritartasuna
eta partaide
izateari
buruzko genero
politika segurua
eta garaitzideak*

Ideologia eta praktika nazionalistek partaide izateari buruzko ideiak bere egin eta berreraiki egin nahi izan dituzte. Nazionalismoa aztertzeaz arduratu diren hainbat historialari eta teoriagilek erakutsi dute nola nazionalistek hitzaldiak partaide izateko beste modu batzuetara bideratu dituzten, hala nola, tokiko erakundeen partaide izatea, erlijio-erakundeen partaide izatea edota hierarkia politiko jakinetara lotura leiala izatea. Partaide izateari buruz politika nazionalistek egindako hitzaldi hegemonikoen azpian, “estatua-nazioa” Andersonen “irudimenezko erkidego” bihurtu da (1983); irudimenezko erkidego horretan herria, lurraldeak eta estatuak aldaezinak diren loturen bitartez eraikitzen dira eta nazioa familiaren zabalkuntza “naturala” da eta, beharrezkoa balitz, haren alde egiteko prest egon beharko ginateke. Ez al da hala?

Azkenaldi honetan eta globalizazioaren erasoaldiak eraginda, partaide izateari buruzko ideia ezberdinak garrantzia hartzen ari dira eta estatuko hainbat agentzia baliabide askotako inbertsioa egiten ari da, “gizarte kohesio” deitzen duten hori berreraikitzeke, kohesio horren bitartez, natural bihurtu diren partaide izateko modu horiek aurrera egin baitezakete. Era berean, giza eskubideen aldeko aktibistak gizakia munduaren partaide dela bultzatu nahi dute baina nahiko emaitza kontrajarriak lortu dituzte.

Hitzaldi honen helburua prozesu etniko eta nazionalen erabilitako partaide izateari buruzko ideia garaikideak desagitea da. Batez ere “benetako indigenen” narrazioak erabiliko ditut, konparatiboak, paradoxikoak eta geruza asko dituztenak eta, bestalde, “diasporako kanpotarrenak”; narrazio horiek giza segurtasunaren eta estatu-segurtasunaren hitzaldiekin zer nolako lotura duten ikusiko dugu.

Partaide izatea pertsonak sentitzen duten behar emozional sakona da. Psikologiari buruzko lan asko eta asko idatzi dira, eta are gehiago psikoanlisiari buruzkoak, haurra amaren sabeletik, amarengandik edo familatik banantzeak sortarazten duen izuari buruz (gai horri buruz lan sakonagoak irakurri nahi badira, ikus, esaterako, Otto Rank (1973 [1929]; Bowlby, 1969, 1973). Partaide izateko behar hori eta banaketaren izu hori familia barneko sexu-abusu edo bestelako abusu kasuetan ere ematen da, baita amaren sabeleko ingurua bera haurraren behar guztiak asebetetzen diren paradisu perfektua izatetik oso urrun dagoenean ere (Fodor, 1949, Mott, 1948, Frank Lake, 1966 (1)).

Baina partaide izatea eta partaide izateko irrika ez dira hitzaldi psikologikoaren oinarri soil izan. Hein batean, esan liteke teoria soziologikoaren lehen kezketariko bat izan dela eta, beraz, soziologia idazten hasi zenetik, pertsonak talde eta estatuen partaide izateko modu ezberdinak izan dituzte. Industrializazio eta/edo migrazioaren ondorioz partaide izate hori aldatu, eta horrek eragin sozialak, ekonomikoak eta politikoak izan ditu. Badira oinarritzko adibide klasiko batzuk, hala nola, Toennies egileak *Gemeinschaft* eta *Gesellschaft* hitzen artean egiten duen bereizketa (1940[1935]), Durkheim-ek elkartasun mekanikoaren eta organikoaren artean egiten duen bereizketa (?) edota Marx-en lerrokaduraren ideia (1975[1844]). Anthony Giddens-ek argudiatzen due-

(1) Eskerrak Richard Mowbray-i bibliografia horretan nire arreta suspertzeagatik.

naren arabera (1991), aro modernoan pertsonak duten partaide izateko sentimena erreflexiboa bihurtu da eta, orain gutxi, Manuel Castells-ek esan zuen gizarte garaikidea "sareen gizarte" bihurtu dela (1996-8), nazio eta estatuetako gizarte zibilen partaide izateko babeserako sortu diren nortasun erkidegoen parte izatera pasa baikara.

Horrela bada, ez herritartasunak ez eta nortasunak, ezin dezakete partaide izatearen ideia bere gain hartu. Beste eraikuntza hegemonikoen antzera, partaide izatearen ideiak "neutralizateko" joera du eta, beraz, ikusezin bihurtu ohi da osatera hegemonikoetan. Soilik kolektiboa denarekin, aberriarekin, estatuarekin dugun lotura seguru eta egonkorra arriskuan ikusten dugunean sortzen da partaide izatearen ideia eta erreflexibo bihurtzen da. Orduan politizatzen dira banakakoak, kolektiboak eta erakundeak narrazioak.

Politizate horren oinarria, John Crowley-ren arabera (1999), mugak mantentzearen "lan zikina" da (30 or.). Adrian Favell-ek dio (1999:211) "mugen arazoa" partaide izatearen politiken adierazgarri dela. Partaide direnak ez direneta bereizteko mugak eraikitzeak partaide izatearen esanahia zehaztu eta koloreztatzen du. Gehiegitan entzun ohi dugu jendea, batetik, gainerakoak hitz egiten eta, bestetik, mugak igarotzeaz, eta ez dute pentsatzen mugaz bestalde daudenek muga horiek nola ikusten dituzten. Halaber, nortasunari buruzko teoria gehiegi daude, eta horiek beti aldakorra, gorabeheratsua eta gezurtatua izan den nortasunaren natura nabarmendu (eta askotan gosestu) egiten dute. Batzuetan, teoria horien azpian boterearen dimentsioa egon ohi da eta askotan nortasunak zehazten dituzte eta Amrita Chhachhi-k "behartutako nortasunak" deritzona sortzen dituzte, Kuben Mecer-ek, nahiko egoera ezberdin batean, "ordezkaritzaren zama" deritzona.

Baina partaide izatearen ideia bereizitako jarrerekin lotu behar da, bereizitako jarrera horien arabera irudikatzen eta osatzen baitira generoaren, mailaren, arraza eta talde etnikoaren, sexualitatearen, bizitzako aldiaren eta abarren araberrako partaidetzak, baita erkidego berean eta muga berberetan ere. Muga horiek muga horien barnean edo kanpoan dauden pertsonak jar ditzakete zalantzan, baina zalantza horiek kolektibo bertakotzat hartzen diren edo euren burua hala ikusten duten pertsonen gizarte-maila edo gizarte-balio ezberdinen ondorioz ere sor daitezke, edota pertsona berberen ahotatik baina denbora eta egoera ezberdinetan sor daitezke. Muga horien izara aldakorrak banakako, kolektibo eta erakundeak arteko botere harremanak ez ezik, prozesu subjektiboak eta egoerazko prozesuak isla litzake.

Dinamika horietan esku hartzen duen ezinbesteko faktoreetariko bat da pertsonen kolektibo eta gobernu-sistema bat baino gehiagoren partaide izateko joera izaten dutela (modu eta intentsitate maila ezberdinean). Tokiko erkidego politikoak, etnikoak, nazionalak, nazio barnekoak eta nazioz gaindikoak pertsonen euren burua identifikatzeko erabil ditzaketen "irudimenezko erkidegoetako" batzuk besterik ez dira (Anderson, 1983); erkidego horietan pertsonak aktibo agertzen dira, neurri batean bederen, eta nolabaiteko batasun maila senti dezakete. Anne-Marie Portier-en ustez (2000), miaketa-maila jakin baten bitartez istorio, esperientzia eta toki komunak sortzen dira, irudikatutako eta iraunkorrak, Vicky Bell-ek "partaide izatearen interpretatibotasuna" deritzona (1999). Dena den, beste maila batean (baina lehenengoarekin lotuta) kolektibo horietan burutzen den hie-

rarkiaren eta botere-dinamiken azterketa eta azterketa horren lankidetzarako eta gatazkarako maila dago. Bestela esanda, gizartearen eta gobernu-sistemaren arteko harremanak ezinbestekoak dira partaide izatearen maila eta osaera anitzak ulertzeko, nola banakakoena hala taldeenak.

Michael Walzer-ek lehenik erabili zuen terminologiari jarraiki (1994), Crowley-k dio (1999:22) "partaide izatea" dinamika politiko eta sozialek herritarrei integrazio "mardulagoa" ematearren darabilten ideia dela, herritarrak ideia horrekin nazio-estatu baten kide formal sentitzeko.

Herritartasunari buruz egindako lanean (1993, 1997a eta b, Yuval-Davis and Werbner, 1999) kontzeptuaren definizio zabalago bat erabili dut. T. H. Marshall egileak herritartasunari buruz duen definizioari jarraiki (1950; 1975), "erkidegoko eskubide osoko kide izatea, eskubide eta erantzukizunak barne", partaide izatearen kontzeptua "nazio-estatua" ez den gobernu-sistemekin erabil daitekeela diot, eta beste taldeetako partaide izateak antzeko eskubide eta betebeharrak ematen dituela. Historikoki, herritartasuna hirietan (Greziako *polis*ean) garatzen ziren politika-erkidegoetako partaidetza aktibo gisa sortu zen, eta ondoren, inperioetan (erromatar inperioan bezala) lege-maila hartu zuen. Jean Cohen-ek dio (1999) estatu-nazioan herritartasunaren bi elementu horiek batu egin direla. Hala ere, Yasemin Soysal (1994), David Held (1995) eta beste hainbat egilek defendatu duten moduan, nazioarteko eta nazioz gaindiko herritartasun modu berriak ari dira sortzen, Bryan Turner-ek *post-fordista* moduan izendatu duen herritartasuna (1999). Beste hainbatetan defendatu duen moduan, ikuspuntu horretatik, giza eskubideei buruzko nazioarteko legedia herritartasunaren beste maila bat balitz bezala ikus daiteke. Era berean, gure bizitza pertsonalei eragiten dien moduari dagokionez eta eskubide eta betebeharrak eraikitzeari dagokionez, nazio barruko nahiz nazioarteko erkidegoek herritartasun adierazgarriak sor ditzaketela esan dut, tokiko testuinguruetan, testuinguru erlijiosoetan, etnikoetan eta espezifikoenetan.

Dena den, herritartasunaren ideia partaide izatearen ideiatik bereizi beharra dago. Herritartasunak partaide izatearen dimentsio parte hartzailea barne hartzen baldin badu, identifikazioa asoziazioaren dimentsio emozionalago batekin dago lotuta. Kolektibo, erkidego edo gizarte-maila bateko partaide zarela sentitzea edota partaide nahi izatea ez da, berez, erkidego politiko batean behar diren eskubide eta erantzukizun guztiekin parte hartzea bezala. Nortasunari buruzko politikak ez du bereizketa hori ezarri eta, horregatik, ez du pertsonen, taldeen eta kolektiboen arteko harreman konplexu eta zalantzarokoa kontuan hartu. Nortasunari buruzko politikan banakakoak eta taldeak elkar trukatu daitezke emozioei dagokienez eta, horregatik, ez dira kontuan hartu ordezkariarekin, lege-erantzukizunarekin eta gobernagarritasunarekin zerikusia duten gaiak (Cain eta Yuval-Davis 1990, Bourne 1987, Yuval-Davis, 1994 etab.). Partaide izateari buruzko politikak emozioen soziologiaren eta boterearen soziologiaren arteko ebakidura puntuak dira.

Nortasunaren, herritartasunaren eta partaide izatearen arteko lotura moduak erakusteko, indigenen eta diasporaren partaide izateari buruzko narrazioak aztertuko ditut labur-labur.

INDIGENA DENARI BURUZKO HITZALDIA

Indigena izatea, "benetan" toki batekoa izatea eta bertakoa aldarrikatzeko "benetako" eskubidea izatea da. *Indigena denari* buruzko hitzaldia bazterketa modu gisa erabili dute gehiengo hegemonikoek, etorkinen etorrera mugatzeko, herritartasun eskubideak ekiditeko, aberriratzea eskatzeko eta, kasurik muturrekoenean, "garbiketa etnikoa" burutzeko. Hitzaldi mota horretan, pertsonen, estatuaren eta lurraldearen arteko lotura aldaezinak arrazaren arabera osatzen dira.

Dena den, indigena denari buruzko hitzaldia ezinbestekoa ere izan da barneratze eta onartze politikoan eta eskubideak aldarrikatzeko. Lehenaldian izandako gizarteetatik edo kolonoen eta beste estatu-nazioetatik kanporatuak, lapurtuak eta baztertuak izan diren gizarteetatik sortutako mugimenduek darabilte (Feldman, 2001).

Askotan, eurak eta gainerakoak lurreko eta paisaiaren zati "organiko" direla sentitzen dute, eta gainerako biztanle guztiak *inposatzen duen gizartearen zati* direla, *lapurtu egin zieten gizartearen zati* (aborigen australiarren esapidea erabiltzearen). Euren borrokaren helburu nagusienetako bat "lurrerako eskubideak" onar diezazkietela da, eta inbasio europarra etorri baino lehen bizileku zuten lurren jabetza aldarrikatzen dute. Estaturik gabeko biztanle nomadak zirenez, ez zuten euren izenean zeuden lurren titulu ofizialik, estatu-aparatu burokratiko batean gertatuko litzatekeen moduan. Orain aldarrikatzen dituzten lurra jabetza pribatukoak nahiz estatuarenak direnez, euren aldarrikapenaren kontra gizartearen eta estatu kolonizatzaileen erresistentzia indartsua dago, eta giza eskubideei buruzko hitzaldiak ere berresten du erresistentzia hori.

Lurralde jakin bateko biztanle indigenak zein diren definitzeko saiakeretan ateratzen den auzia denborazko dimentsioarena da. Nahiz eta herri indigenen mugimenduen narrazioen arabera, indigenek "lurraldea oso aspalditik okupatu dute" (Abu-Saad eta Champagne, 2001:158) baina, oro har, ematen den data kolono europarren okupazioaren berbera izan ohi da. Hori eurozentrikoa den zerbait dela ere frogatu liteke. Historia europarren kontaktuarekin hasiko balitz bezala erakitzen da lehenaldia eta kontaktu horren aurretik egondako biztanleriaren mugimendu eta kolonizazioak estaltzen ditu (Algerian kolonizazio arabiarrarekin gertatu zen bezala edota Ameriketako indiarrekin azteken eta maien inperioetan).

Baina gure azterketan are oinarritzagoa den gaia lurraren eskubidearen aldeko mugimenduek aldarrikatzen duten jabetza motarena da. "Lehen nazio" hartako banakakoei lurra ematearikoan, saltzeko mugarik ez izateko moduan eman beharko litzazkieke ala fidekomiso gisa, modu kolektiboan (eta fidekomiso horretan norik izango luke erabakitzeko boterea)? Eta zein taldez ari gara? Behin baino gehiagotan senidetutako aborigen herrien arteko gatazka garrantzak izan dira, biek lurralde jakin bateko eskubide osoko oinordeko direla aldarrikatzen baitute eta besteek, lurraldetik kanporatuak izan zirenez, fidekomisoaren eskubiderik ez dutela diote. Odoleko ADN frogak ere egiten dira, jabetza eksklusibo horien erakusle. Galdera garrantzitsuena da (beste aborigenei dagokienez baina baita gizarte kolonizatzailearen beste kideei dagokienez ere) ia lur-eskubideak eksklusiboak izan beharko liratekeen edota gizarteko beste kideek (baita estatuak berak ere) lurrarekiko eskubideak mantenduko lituzketen. Zein ondorio politiko eta, zer esanik ez ekonomiko, dituz-

te indigenen aldarrikapenek? Herri indigenek askotan lurrarekin izpirituzko batasuna dutela aldarrikatzen dute:

‘Lurra gara. Lurra gogoan izateaz gain, Lurra da herriaren gogoa, gu lurraren gogoa garen bezala. Ez da biziraupenerako bitartekoa ... Gure izatearen zati da, dinamikoa, adierazgarria, erreal’ (Laguna herriko egile bat; ikus, Tsosie, 2001:184).

Feldman-en iritziz (Ibid.), aldarrikapen horiek pedagogia bihurtzaile kritikoaren zati dira, esentzialismo estrategikoaren zati, Guyatri Spivak egilearen aski ezaguna den esapidea erabiltzearen, eta lurra eskusiboki aldarrikatzeko bide eman dezake, estatu-nazioan autogobernua egoteko nahikoa botere politiko pilatu denean, estatua guztiz “hartzea” aldarrikatzeko nahikoa botere/pertsona ez baldin badago (hori gertatu zen Algerian, Zimbabwen eta beste modu batera Hegoafrikan). Hala ere, badira aborigenen ikuspuntua defendatzen dituzten argudioak ere (esaterako, Reynolds, 1996), izan ere, “lurraren partaide dira”, ez dira lurraren jabe, eta horrek jabetza eta subiranotasunaren modu alternatibo eta ez baztertzaila baterako bidea zabaltzen du. Gilroy (1997) eta beste hainbat egilek ere (adibidez, Boyarin, 1994; Raz-Krakotzkin, 1994), hitzaldi nazionalista horien aldarrikapenak defendatu dituzte, diasporaren hitzaldiei ere aplikatzen zaiela uste baitute.

DIASPORA PARTAIDE IZATEAREN HITZALDI ALTERNATIBO GISA

Gilroy (1997:328) “lurraren, paisaiaren eta sustraitzearen nozioak” oinarri dituen sentimen nazionalistak diasporarekin erkatu zituen, eta “kulturaren zentzu finagoa eta lurtarragoa” zuela esan zuen. Avatar Brah-k (1996) “diasporaren espazioa” delakoaren nozio araugilea diasporaren talde gutxituei ez ezik, kokapen ezegonkorra eta ez pribilegiatua duen gehiago hegemonikoari ere aplikatu zion. Hitzaldi post-modernistek, hala nola, “kultura bidaiariak” (Clifford, 1992), “nomadismoa” (Bradiotti, 1991), “hibridoa” (Bhabha, 1994) eta “mugan bizitzea” (Anzaldúa, 1987), diasporaren alderdi horiek bultzatu eta islatu zituzten.

Zoritzarrez, bibliografia mota horri egindako kritika batzuek (adibidez, Anthias, 1998; Ifekwunigwe, 1999; Helmreich, 1992; Yuval-Davis, 1997 a eta b), senidetasunari, naturari eta lurraldeari buruzko ideia binarioak, naturalizatuak eta esentzilstak adierazten zituzten. Ideia horiek tradizionalagoa den erretorika nazionalistaren adierazgarri dira eta, askotan, “atzeko atetik” sartzen ziren teoria horiek egiteko. Gainera, diasporaren politikak oso bestelakoak diren balio eta dinamikak izaten dituzte askotan. Simmel (1950) eta Schutz-ek (1976) darabilten “kanpotarra” esapidea ez bezala, diasporako erkidegoetako kideak partaide izateari buruzko narrazioetan azaldu ohi dira, partaide izateko irrikaz, ez soilik bizi diren herrialde/gizarteari edota mugarik gabeko gizadi “kosmopolitari” dagokionez, baizik eta euren jatorrizko herrialde, nazio eta/edo estatuari dagokionez. Sara Ahmad-ek esan bezala (2000), “kanpotarra” esapidea fetitxismo modu bat da,

izena bera ematerakoan sortzen da eta ez du benetako giza ezaugarririk. Hala izendatu duen pertsonaren ikuspegia baino ez du islatzen.

Robin Cohen-ek frogatu zuen moduan (1997), diasporak aipatu teoriak pentsaraziko liguketena baino askoz hetereogeneoagoak dira. Gainera, Durbaneko 2001eko Arrazakeriaren kontrako Mundu Konferentzian gobernu kanpoko erakundeek ateratako dokumentuan azaltzen zen moduan, Hirugarren Munduan bizi diren mendebaldeko pertsonak "erbesterratu" gisa deskribatzen dira, ordea, mendebaldean bizi diren Hirugarren Munduko pertsonak migratzaile edo etorkin gisa deskribatzen dira. Kasu horretan, mendebaldeko ikuspegi hegemonikoa nagusitu da, beste hainbatetan gertatu den moduan.

Gainera, Gilroy eta besteek ez dituzte kontuan hartzen "diasporaren irrika eta anbigualtasunak" "aberrian" sor ditzakeen eraginak. Nortasuna arautzen dituzten mekanismoek esanahi sinbolikoa dute, eta diasporako kideei ugaldu egiten dizkiete bizileku duten herrialdeetako mugak, horrela, mekanismo horiek "aberrian" gatazka nazional eta etnikoak egotea eragin dezakete (Anthias, 1998; Yuval-Davis, 1997a). Askotan, diasporako kideek hainbat helburu eta borroketarako dirulaguntzak ematen diete aberriari, kolektiboari dioten partaidetza sentimena eta leialtasuna adierazteko. Identifikazio sinbolikoko ekintza mota horiek nortasun politika garaikideen zati izan daitezke (Safran, 1999; ikus halaber Yuval-Davis, 1997b) baina "aberrian" bestelakoak eta oso muturrekoak diren eragin politikoak ere sor ditzake, ordea, gertakari hori interes gutxiak da diasporako zati diren pertsonentzat. Ben Anderson-ek zioen moduan (1995), diasporako politikak zuhurtziaz gabeko politikak izan ohi dira, legezko erantzukizunik gabeak eta benetako demokrazia-prozesurik gabe. Era berean, Europa erdialde eta ekialdean nahiz Hirugarren Munduan geroz eta etnokrazia gehiago sortzen ari direnez, Israel eta Alemaniako "itzulera legeak" delakoen antzekoak ari dira garatzen, eta estatuak osatzeko garaian biztanleria bertako etnia-taldeko kide guztiak balira bezala hartzen da, euren lurraldeetan bizi diren horiek kontuan hartu beharrean. Lituania bezalako estatuetan (baina baita Irlandan ere) estatuko Presidenteak estatuko mugez kanpo bizi izan dira euren bizitza osoan edo bizitzaren zati gehiengoan euren postua betetzera deitu zaien arte.

Konferentzia honetan lehenago ere aipatu da XX. mendearen bigarren erdian izandako garraio eta komunikabide teknologien garapenak diasporaren eta euren aberriaren arteko harremana mantentzeko aukera berriak sortu zituela. Diasporaren eta euren aberrien arteko komunikaziorako espaziozko/denborazko bidezidorrek informazio maila ugartu zuten, bai eta bi aldeetako elkarrekin maila ere. Behar bada garrantzitsuena da lehen baztertuta zeuden diasporako pertsonentzat elkartzeko aukera berriak sortu zirela eta agian partaide izatearen hitzaldiak ere aldatu dira.

Era berean, ez genuke ahaztu behar komunikazio erraztasun horren aurrean geroz eta gehiago erabiltzen den estrategia bat dagoela, mugak sendotu eta migrazioa segurtatzeara, alegia. Estrategia horrek geroz eta eragozpen gehiago jartzen ditu eta geroz eta eskubide gehiago ezabatzen dizkiete herrialde batetik bestera bidaiatzen dutenei, alegia, euren bizitzan gatazka etniko eta zibiletan nahiz ekonomiaren berreraikitze neoliberalak izandako ondorio ekonomiko eta politi-

koetatik ihes egiteko asmoz bidaiatzen dutenei. Paradoxikoa bada ere, errefuxiatuak eta asiloa dutenek eta euren aberriaren jazarpen eta kaltetik ihes egiteko eskubidea nazioarteko legeek onetsia dutenek, mehatxu iturri handia dira babesa eskatzen duten herrialdeetako pertsonentzat, gaizkile eta terroristatzat jotzen baitira. Gainera, "terrorismoaren kontrako mundu gerra" dela eta, edozein erregimenaren kontrako edozein erresistentzia eraiki daiteke jarduera terroristak oinarri dituztela, beraz, babesa ematen dutenen arrazoia ahuldu egin da, Gerra Hotzean gertatzen zen moduan.

Eta hala ere, Giza Segurtasunaren Batzordearen txostenak aipatzen zuenaren arabera, oraindik orain, errefuxiatuak eta asilo eskatzaileak dira gutxiengo bakarra mundu mailan "mugimenduan diren" eta nolabaiteko eskubide formalen bat duten milioika pertsonetatik (dokumentudun migratzaileak eta, batez ere, dokumentu gabeak, bai eta herrialde barruan mugitu diren pertsonak ere). Gainerako guztiak Giorgio Agamben-ek Hanna Arendt-i jarraiki, 'bizitza hutsak' deritzona bilakatu dira, muturreko esplotazio eta abusu moduen biktima errazak. Eta geroz eta estatu gehiago dira "lurraz kanpoko espazioak" eraikitzeari ekin diotenak, hala nola, Gauntanamoko badia eta itsas atxilotetarako kanpamenduak asilo eskatzaileentzat, nazioko nahiz nazioarteko legeak ezartzen ez dituzten tokiak.

PARTAIDE SEGURU IZATEARI BURUZKO GENEROZKO PARADOXAK

Gizon nahiz emakumeak (eta mutiko eta neskatoak) sartzen dira "mugimenduan diren pertsonak" taldean eta gizon nahiz emakumeak hartu dute erkidego eta estatuen partaide seguruak direla ba-besteko konpromisoa.

Anderson-ek esan bezala (1991[1983]; ikus halaber Kitching, 1985), gutxi dira bizitza eman eta hiltzeko prest diren pertsonak —tradizionalki gizonak— irudimenezko erkidegoetan partaide izate hutsak sortarazten duen bezala. Paradoxikoa baldin bada ere, segurtasun erkidearen izenean, izan errealia eta/edo irudikatua, euren segurtasun pertsonala emateko prest dira "auto-determinazioaren alde", bizitzeko eskubidea emateko prest dira eta "bakearen alde" gerrara doaz. Dena den, sistema militarra nahitaezko izatetik profesionala izatera pasa da, eta gizonak (eta geroz eta emakume gehiago) karrera profesional militarren segurtasunak bultzatuta, horrelako zerbaitegitearen alde azaltzen dira (soldadu amerikar eta britainiarrak azaldu zuten moduan, "euren lana egiten ari ziren"; horregatik daude geroz eta ordezkoko militar gehiago, armadako diru-sarrerara gehigarria baitute armada euren lan nagusia ez bada ere; armada amerikarrak duen estrategia militarren ahulezia da).

Emakumezkoen partaide izatearen politiken paradoxa ezberdina da askotan eta emakumeek talde etniko eta nazionalekin izan ohi dituzten harremanekin du zerikusia. Alde batetik, emakumeek kolektibo bateko kide direla adierazteko gizonazkoen modu bera darabilte baina, bestetik, beti daude emakumezkoen berezkoak diren arau eta legeak (ulertzeko moduak eta jarrerak ez aipa-

tzearren). Emakumezkoen berezkoak diren egitura horiek modu paradoxikoan kokatzen dituzte emakumeak taldearen barnean, nola sinbolo gisa hala "beste gauza" batzuen moduan. Emakumeek taldearen ohorea merezi dutela ikusten da (Yuval-Davis y Anthias, 1989; Yuval-Davis, 1997), eta ohore hori defendatzeagatik joaten dira nazioak gerrara ("emakumeen eta haurren hobe beharrez" Cynthia Enloe-ren arabera (1990)). Era berean, bada taldean berdina ez den elementu bat baina "kultura eta tradizioaren izenean" kontrol mota asko pasa behar dituen. Dena den, ikuspegi horrek "kultura eta tradizioa" dena objektu bihurtzen du, eta homogeneo bihurtzen du ikuspegi hegemoniko baten babesean. Kultura eta tradizioak beti jartzen dira zalantzan eta etengabe aldatu eta moldatzen dira. Giza eskubideen esparruan gehien egon den eztabaida erkidegoen euren kultura mantentzeko duten eskubidearena izan da. Hainbatetan, eztabaidaren gaia hainbeste bihurtzen da objektu, ezen emakumeen eskubideak onartzeko edozein saiakera mendebaldera egokitzeko eta sekularizatzeko prozesu gisa ikusten dela. Dena den, mundu osoko feministek adierazi duten moduan, eztabaida nagusitasun patriarkar espezifiko baten eskubidetik hasi eta euren botere politikoaren proiektua mantentzean oinarritu ohi da, eta emakumeek eskubideak lortzeari buruzko auzia, berriz, funtsean erkidegoko botere-harremanak aldatzean datza. Emakumeentzat onuragarri den kulturak bakarrik izoztea izan ohi diren nagusitasuna duten fundamentalisten taktika.

Partaide izatearen eta segurtasunaren artean emakumezkoek duten harremanaren beste paradoxa bat da emakumezkoen segurtasunerako arriskurik gehiena askotan partaide izateagatik sortzen diren loturetan egoten dela. Feministen ardurarik nagusienetako bat "barnean daramaten etsaia" izan da beti. Pertsona gertukoena eta maitatuenak izan ohi dira euren kontra indarkeriarik gehien erakusten dutenak, eta "terrorismoaren kontrako mundu gerra" hasi baino askoz lehenago ziren tokian zirela ere seguru senti zitezela zuten helburu, etxeetan, kanpoan edo lanean, kaleak eta beselako toki pribatu nahiz publikoak toki seguru gisa aldarrikatzeko asmoz (adibidez, Bunch, 1997; Lees, 1997). Hala ere, emakumeen segurtasunari buruzko kezka hori politika feministen puntu nagusienetako bat izan bada ere, alderdietako bat baino ez da izan beti, politika feministek beti izan baitute helburu familian eta, oro har, gizartean genero harremanak eta sexualitatea eraldatzea. "Lydia izebak" Margaret Atwood idazlearen *Neskamearen ipuina* eleberrian egiten duen aipamena oinarri hartuta (Vintage, 1990; ikus, halaber Sahgal eta Yuval-Davis egileen obraren sarrera, 1992), politika feministek beti hartu dituzte kontuan "zerbaiten eskubidea izatea" eta "eskubidea nondik datorren" terminoak. Hala ere, jendearentzat errazagoa da askatasun negatiboaren ideia hauteman eta harekin ados egotea askatasun positiboarekin baino eta, beraz, askotan onartuago egon ohi dira emakumeentzako askatasun eskakizunak, askatasun hori erdiesteko behar den gizarte-harremanen muturreko eraldaketa baino. Gehiago da, Charlotte Bunch-ek esan zuen moduan (2002), askatasun negatiboaren eta "giza segurtasunaren" egitura horietan ere baztertu egin dira, erabat alboratu ez badira, mundu mailan segurtasunaren aldeko kezkarekin lotuta, gizonezkoen indarkeriak emakumezkoen segurtasun fisikorako dituen arriskuak, gizonezkoaren nazionalitatea, arraza eta erlijioa dena delakoa dela ere. Salbuespen bat dagoela esango nuke, emakumeak babestu eta/edo askatzeko deia gerrako oihu moduan erabilgarri zenean, hain zu-

zen ere (hori gertatu zen, esaterako, Afganistanen orain gutxi izan den gerran eta, neurri txikiagoan, Iraken).

ONDORIO GISA

Gaur egun (eta ziurrenik beti izango da horrela) partaide izatea anitza den zerbait da, maila asko ditu, etengabea eta aldakorra da, dinamikoa eta finkoa. Hau horrela da ikuspuntu subjektibotik nola politikotik. Partaide izatea ez litzateke abstrakzio gisa aztertu beharko, baizik eta generoa, maila, eta sexu nahiz arrazagatik gertatzen diren banaketak hizpide dituen botereari buruzko hitzaldi espezifikoaren zati izan beharko litzateke. Horrela bada, modu ez baztergarrian, partaidetza mota ezberdinak eta jarrerak onartzen dituen partaide izatearen politika garatu daitekeen aztertu behar da.

XX. mende amaieran aldatu egin dira nazioen osaerak. Oraindik ere lurraldeek esanahia sinboliko eta emozional bat dute hitzaldi nazionalistetan baina garraio eta komunikazioaren teknologia eta merkatu libreko ideologia nagusi den munduan, muga etnikoek geroz eta betebeharrak nagusitatu betetzen dute. "Autodeterminazioaren" irizpide askatzailea abiapuntu bilakatu daiteke, horrela nortasun defendatzaile eta atzeragarriek espazioaren eta gizartearen banaketa lor dezaten; hori ez du lortzen gizarte pluralen irizpide demokratikoak.

Hala eta guztiz ere, ezin ditugu baztertu partaide izateko politika garaikideen bultzatzaile diren ezintasuna, izua eta irrika bezalako emozio konplexuak. Ez dira lehenalditik gurera ekarritako harri bitxiak (oinarritzko betebeharrak eraikitzaile izan dute tokiko eta mundu mailako politikan). Eskuina beti ulertu eta erabili da. Bada garaia gauza bera egitekoa baina alderantziz.

Ereferentziak

- Abu-Saad, Ismael and Champagne, Duane (2001), Herri indigenei buruzko zenbaki berezirako gonbidatutako argitaletxea, *Hagar*, 2. lib. (2):157-163.
- Acton, Thomas and Klimova, Ilona (2001), 'The International Romani Union – an East European Answer to West European Question? Shifts in the focus of World Romani Congresses 1971-2000' in W. Guy (ed.), *Between past and future: The Roma of central and Eastern Europe*, Hatfield: Hartfordshire Press.
- Ahmed, Sara (2000), *Strange Encounters*, Londres, Routledge.
- Anderson, Ben (1983), *Imagined Communities*, Londres: Verso.
- Anderson, B. (1995), 'Ice Empire and Ice Hockey: Two Fin-de Siecle Dreams', *New Left Review*, 214, 146-150 or.
- Anthias, Floya (1998) 'Evaluating Diaspora: Beyond Ethnicity?' *Sociology* (3):557-580.
- Anzaldúa, Gloria (1987), *Borderlines/La Frontera*, San Francisco: Spinsters/Aunt Lute Books.
- Bauer, Otto (2001[1924]), *The National Question and Social Democracy*, Minnesota: University of Minnesota Press.
- Bell, Vikki (1999), 'Performativity and Belonging: An Introduction' in *Theory, Culture and Society*, Número especial sobre *Performativity and Belonging*, Septiembre, 16,2:1-10.
- Bhabha, Homi (ed.), (1990), *Nation and Narration*, Routledge, London.
- Bhabha, Homi, (1994), *The Location of Culture*, Routledge, London.
- Bourne, Jenny (1987), 'Homelands of the Mind: Jewish Feminism and Identity Politics, a *Race and Class* panfleto número 11.
- Boyarin, Jonathan (1994), 'The Other Within and the Other Without', in L.J. Silberman and R.L.Cohn (eds), *The Other in Jewish Thought and History: Constructions of Jewish Thought and Identity*, Nueva York and London:424-452.
- Bradiotti, Rosi (1991), *Patterns of Dissonance*, Cambridge: Polity Press.
- Brah, Avtar (1996), *Cartographies of Diaspora*, Londres: Routledge.
- Cain, Harriet t Yuval-Davis, Nira (1990) "'The equal opportunities community'" eta anti-racist struggle', *Critical Social Policy*, 29 (udazkena): 5-26.
- Castells, Manuel (1997), *The Power of Identity*, Oxford: Blackwell.
- Clifford, James (1992), 'Travelling Culture' in L. Grossberg, C. Nelson y P. Treichler (ed) *Cultural Studies*, Nueva York: Routledge.
- Cohen, Jean L. (1999), 'Changing Paradigms of Citizenship and the Exclusiveness of the Demos', *International Sociology*, l.14 lib, 3:245-268.

- Cohen, Robin (1997), *Global Diasporas*, London: UCL Press.
- Crowley, John (1999), 'The politics of belonging: some theoretical consideration' in A. Geddes and A. Favell (ed.), *The Politics of Belonging: Migrants and Minorities in Contemporary Europe*, Aldershot: Ashgate, 15-41 or.
- Delanty, Gerard (1995), *Inventing Europe: Idea, Identity, Reality*, Basingstoke, Macmillan
- Dickanson, Olive P. (1992), *Canada's First Nations*, Toronto: McClelland y Stanley.
- Favell, Adrian (1999), 'To belong or not to belong: the postnational question' in A. Geddes and A. Favell (ed.), *The Politics of Belonging: Migrants and Minorities in Contemporary Europe*, Aldershot: Ashgate, 209-227 or.
- Feldman, Alice (2001), 'Transforming people and subverting states', *Ethnicities*, 1(2) lib.: 147-178.
- Fortier, Anne-Marie (2000), *Migrant Belongings: Memory, Space, Identities*, Oxford: Berg.
- Geddes, Andrew y Favell, Adrian (ed.) (1999), *The Politics of Belonging: Migrants and Minorities in Contemporary Europe*, Aldershot: Ashgate.
- Geschiere, Peter y Gugler, Joseph (ed.) (1998), *The Politics of Primary Patriotism*, *Afrikari buruzko zenbaki berezia* 68 (3).
- Giddens, Anthony (1991), *Modernity and Self Identity: Self and Society in the Late Modern Age*, Cambridge: Polity Press.
- Gilroy, Paul (1993), *The Black Atlantic*, London: Verso.
- Gilroy, Paul (1997) 'Diaspora and the Detours of Identity', in Kathryn Woodward (ed.), *Identity and Difference*, Londres: Sage.
- Goldberg, David (ed.) (1994), *Multiculturalism: A Critical Reader*, Oxford: Balckwell.
- Held, David, (1995), *Democracy and the Global Order*, Cambridge: Polity Press.
- Helmreich, Stefan (1992), 'Kinship, Nation and Paul Gilroy's Concept of Diaspora', *Diaspora*, 2. lib., 2. zk. 243-250 or.
- Ifekwunigwe, Jayne O. (1999), *Scattered Belongings*, London: Routledge.
- Lovell, Nadia (ed.) (1998), *Locality and Belonging*, Londres: Routledge.
- Marcos, Subcomandante Insurgente (2001), *Our Word is Our Weapon*, London: Serpent's Tail.
- Marshall, T.H. (1950) 'Citizenship and Social Class', Cambridge: Cambridge University Press.
- Marshall, T.H. (1975), 'Social Policy in the Twentieth Century', London: Hutchinson.
- Marshall, T.H. (1981), 'The Right to Welfare and Other Essays', London: Heinemann Educational Books.
- Neuberger, Benjamin (1986), *National Self-Determination in Post-Colonial Africa*, Lynne Rienner Publishers, Boulder.

-
- Raz-Karkotzkin (1994), 'Diaspora within Sovereignty: a critique of the negation of diasporism in the Israeli culture', *Theory y Critique*, 4. eta 5. zk. (hebraiera).
- Reynolds, Henry (1996), *Aboriginal Sovereignty, Three Nations, One Australia?* Sydney: Allen y Unwin.
- Rex, John (1996), *Ethnic Minorities in the Modern Nation-State: Working Papers in the Theory of Multiculturalism y Political Integration*, Basingstoke: Macmillan.
- Safran, William (1999), 'Comparing Diasporas: A Review Essay', *Diaspora*, 8. lib., 3 zk., 255-292 or.
- Schutz, Alfred (1976[1944]), 'The Stranger: an Essay in Social Psychology' in A. Brodersen (ed), *Alfred Schutz: Studies in Social Theory; Collected Papers II*, Martinus Nijhoff, la Haya, 91-106 or.
- Simmel, George (1950), 'The Stranger' in H K Wolff, (ed), *The Sociology of George Simmel*, The Free Press of Glencoe, NuevaYork, 402-409 or.
- Soysal, Yasmin (1994) 'Limits of Citizenship: Migrants and Postnational Membership in Europe'. Chicago, IL: University of Chicago Press.
- Stasiulis, Daiva and Yuval-Davis, Nira (ed) (1995), *Unsettling Settler Societies: Articulations of Gender, Race, Ethnicity and Class*, Sage, Londron.
- Stuart, Douglas and Yuval-Davis, Nira (1999), 'Homelands, landscapes and the contruction of collectivities: Imaginary geographies and the internet.' Departamentuko mintegi batean aurkeztutako konfenetzia, Greenwich-eko Unibertsitatea, maiatza.
- Taylor, Charles (1994) 'Examining the Politics of Recognition' in Amy Gutmann (ed.) *Multiculturalism*. Princeton, N.J: Princeton University Press, 25-74.
- Tsoie, Rebecca (2001), 'Land, Culture and Community: Envisioning Native American Sovereignty and National Identity in the 21st Century' *Hagar*, 2 (2) lib.:183-200.
- Turner, Bryan (1998) 'National Citizenship and Cosmopolitan Virtue - Some Issues With Globalization,' Departamentuko mintegi batean aurkeztutako konfenetzia, Greenwich-eko Unibertsitatea, azaroa.
- Walzer, Michael, (1994) 'Comment' in A. Gutman (ed.), *Multiculturalism and the Politics of Recognition*, Princeton: Princeton University Press.
- Walzer, Michael (1997), *On Toleration*, Yale University Press.
- Yiftachel, Oren (laster). 'Homelands and Territories', *Encyclopedia of Nationalism*, NY.
- Yuval-Davis, Nira (1991b), 'The Citizenship Debate: Women, the State and Ethnic Processes', *Feminist Review*, udazkena.

-
- Yuval-Davis, Nira, (1994), 'Women, Ethnicity and Empowerment', *Feminism and Psychology*, zenbaki berezia *Shifting identities shifting racisms* ed. K Bhavnani and A Poenix, 4. lib. 1. zk.: 179-198
- Yuval-Davis, Nira (1997a) *Gender and Nation*, London: Sage.
- Yuval-Davis, Nira (1997b), *National Spaces and Collective Identities: Borders, Boundaries, Citizenship and Gender Relations*, Conferencia inaugural, London: Greenwich-eko Unibertsitatea, 22/5.
- Yuval-Davis, Nira (1997c), "Women, Citizenship and Difference" in *Feminist Review* zenbaki berezia *Women and Citizenship: Pushing the Boundaries*, 57. zk., udazkena: 4-27.
- Yuval-Davis, Nira (1999), 'The Multi-Layered Citizen at the Age of Globalization', *International Feminist Journal of Politics*, 1. lib., 1. zk.
- Yuval-Davis, Nira and Stoetzler, Marcel (forthcoming), *Borders, Boundaries, and the Situated Imagination* (hitzarmena adostasun bidean da).
- Yuval-Davis, Nira and Werbner, Pnina (ed.)(1999), *Women, Citizenship y Difference*, London: Zed Books.

JULIA SEVILLA MERINO

**Zuzenbide Konstituzionala,
Politika Zientzia eta
Administrazio Saila.
Valentziako Unibertsitatea**

*Politika,
demokrazia eta
berdintasuna*

“Ezinbestekoa da emakumeek gizonezkoekin esparru guztietan aukera berdintasunean parte hartzea, herrialde guztien erabateko garapena, munduaren ongizatea eta bakea lortzeko”. (CEDAW UN 1979).

Sarrera

1.

Politika, demokrazia eta berdintasuna historian zehar barneratutako hiru hitz dira. Lehenengo biak greziar jatorrikoak dira eta, beraz, berezko esanahia dute; guk, kasu honetan, giza harremanen eremuan aplikatuko ditugu. Hirugarrena, berdintasuna, izatez konparaketak egiteko terminoa bada ere, berez gizakien jomuga zen hori lema iraultzaile, printzipio eta oinarrizko eskubide bilakatu zen.

Izenburua aldatzeko aukera eman zitzaidan arren, ez nuen halakorik egin, jardunaldi hauen helbururako izenburu egokia zela iruditu baitzitzaidan eta, gainera, interesgarri deritzot hitz multzo hori erabiltzeari jarraian egiteko asmoa dudana azterketa etimologikoa burutzeko.

Hasiera batean eta jatorriz, “politika” terminoak Greziako hirian (polisean) gobernuarentzat egiten zen jarduera adierazten zuen, eta “demokrazia” herri osoa partaide zen gobernu era zen (demos = herria, cratos = boterea). Denborak dakarren bilakaera horretan, gaur egun politikaz nahiz politika egiteaz arduratzen direnez, politikariez, hitz egiteak beharrezkoa den baina estimagarria ez den zerbaiti buruzko sentimen nahasia dakar. Eman diren definizio guztietatik, honako honek dioenaren arabera, politika “Estatuko erakundeek burutzen duten jarduera da, nazioko ahalik eta kide gehienentzat interes publikoa lortzeko” (1); halaber, pertsona batek jardueraren bat burutzean askea, inpartziala, egiazalea etab. izatea nahi denean, askotan postu publiko edo politikoren bat bete dituzten horiek baztertu egiten dira, eta izendatu egiten baldin badira, euren izendapena kritikatu gutxienez egiten da.

Izan ere, Konstituzioak berariaz debekatzen du epaile, magistratu eta fiskalek alderdi politikoetan parte hartzea (CE 127 art.). Horretaz gain, Karta Magnak epaile eta magistratuei ezartzen dizkien baldintzak daude: “independentek, aldaezinak, arduradunak eta soilik legearen inperioaren pean” (CE 117 art.) eta Ministerio Fiskalari dagokionez: “legezkotasuna eta inpartzialtasuna” (124.2 art.); hori guztia irakurrita, politikak nahiz politikariek ezaugarri horiek betetzen ez dituztela pentsarazten dute. Egoera hori ez du gure Estatuak soilik bizi, eta horregatik dago hainbesteko aldea jarduera politikoak esnatzen duen arreta gutxiaren eta jarduera hori bera bere gain hartzeko prest dauden gizon kopuruaren artean. Gure iritiz, alderdien militantziaren eta irizpide

(1) *Diccionario básico jurídico*. Comares. Granada, 2004.

ezaren artean sortzen den nahasmena, pentsatzeko eta jarduteko askatasunari buruzko irizpide eza, ez dator bat baliabideen administrazioa politikarien esku uzten duen gizarte-sistemaren antolaketarekin, izan ere, antolaketa horrek militantzia eza aukera ideologiko ezarekin nahasten du. Bi termino horiek nahastea ezin zalantzakorragoa da praktikan egiten dena ikusiz gero, eta kontraesankorra konstituzioaren testua bera ikusiz gero, izan ere, 6. artikulua alderdi politikoak partaidetza politikorako oinarrizko tresna direla adierazten du, aniztasun politikoa adierazten dutela dio eta herriaren borondatea osatzen eta adierazten laguntzen dutela. Militantziarik gabe, ez legoke alderdi politikorik. Nola da posible militantzia hori zigortu, zehatu edo debekatzea funtzio jakin batzuk bete ahal izateko edota kargu politikoak izateko?

Bigarrenik, gobernu mota guztien artean gobernu demokratikoa da adostasun gehien erakusten duena botere politikoaren jabe herria dela dioen ideiarekin. Horixe bera adierazi zuen Lincoln-ek demokrazia definitzerakoan: "herriaren, herriak osatutako eta herriarentzako Gobernu", despotismo ilustratuaren definizio xebleari erreferentzia garbia eginez, "guztia herriarentzat baina herriarik gabe". Grezian zuzenean herritar guztiak partaide ziren gobernu mota definitzeko aplikatu zen demokrazia (gizonek bakarrik hartzen zuten parte. Ez emakumeek, ez haurrek, ez eta esklaboek ere ez zuten eskubide hori), aro modernoan, demokrazia adierazlearen aroan, hauteskundeek mantentzen dute jabetza hori.

Mendeak joan dira eta demokrazia da herriaren subiranotasunaren isla, eta sufragio zentsatarioaren orde unibertsala nagusitzen da. "Unibertsal" hitza gizon guztiak botoaren bitartez gai publikoetan parte hartzeko eskubidea irabazi dutela adierazteko erabiltzen da, eta emakumeen sufragio unibertsalaren abstrakzioa egiten da. Izan ere, emakumeak sufragio eskubidea pixkanaka lortzeko arrazoiak ez du zer ikusirik euren aita, senar eta semeek boto eskubidea izateko arrazoiekin. Bazterketa hori nabarmena da, izan ere, partaidetza politikoa, gai publikoetan parte hartzeko eskubidea den heinean, boto eskubidean du bere adierazpide txikiena eta handiena. Horrela bada, demokrazia emakumeak bereizten hasi zen.

Azkenik, berdintasuna da, lehenengo adierazpenetatik hona, eskubideetatik hitz egiteko hitzik garrantzitsuenetariko bat, are garrantzitsuagoa gizakiei buruz hitz egiteko. Berdintasun terminoa ez litzateke ulertzeko zaila izan behar eta hala gertatzen da mundu bizigabea, gizakiek ezagutzen ez dutenez eta aginte prozesuetan garrantzizkotzat jotzen ez denez, berdintasunaren eta antzekotasunaren arteko ezberdintasuna deuseztatu dute. Pertsonen artean legeak ezarri ditu berdintasunaren mugak, hasteko, banandu eta ezberdinduz, ondoren, berdintasuna lortu nahian.

Gure konstituzioan berdintasuna balio bat eta printzipio bat da (1.1 art.), eta Espainiako ordenamendu juridikoaren goi balioetako bat denez, berdintasun formalaren esparrua ez ezik, funtsezko berdintasunaren esparrua ere hartzen du. Berdintasun hori konstituzio-agindu askoren zati da, eskubide horren eskuzabaltasuna nabarmentzen da eta 14. artikuluan modu positiboan aldarrikatzen da "espainiarrak berdinak dira legearen aurrean" predikatuarekin eta artikulua berean modu negatiboan, tratu baztertzailerik debekatzen duen horretan. Artikulu horretan legeari dagokion berdintasuna eta legea aplikatzeko berdintasuna aipatzen da, horrenbestez, erabil eta babes daitekeen oinarrizko eskubide subjektibo bihurtzen da. Gainera, Konstituzioak botere publikoak "nor-

banakoaren askatasun eta berdintasuna benetakoak eta eraginkorrak izateko baldintzak” sustatzera behartzen ditu (9.2 art.). Berdintasunaren alde, botere publikoek burutu beharreko sutatze betebeharrak osatzen da: gizartearen osaera berdina bat lortzeko ahalmenak erabili ditzatela agintzeaz gain, CE 9.2 artikulua horrek arautzen dituen beharrezko jarduketak positiboak burutu ditzatela agintzen zaie. Hori dela eta definitu dira emakumeek gizonezkoen estatus bera izateko behar diren ekintza positiboak.

Perez Royok dioen moduan, Konstituzio baten helburua ordena politiko jakin bat juridikoki eraikitzea da; itxuraz formula erraza, baina praktikan jartzean benetan zaila. Izan ere, “ordena hori ezin daiteke edonola eraiki, juridikoki egin beharra dago, hau da, berdintasunaren printzipioa oinarri hartuta. Eta berdintasuna ez da ordenaren printzipio bat, guztiz bestela” (2). Gizartea eraikitzeari dagokionez, errazagoa da potestas edo ahalmenen botereak ezarritako ordenaren arabera egitea edota naturalizat jotzen diren eta, beraz, gizakien kontrolatik at dauden ezberdintasunen arabera egitea. Gizonek ezberdintasun horiek arautu, kontrolatu egin ditzakete, baina ezin diezaiekete haiei aurre egin. Horregatik hartu zituzten gizonek naturalizat emakumeak lan publikoetarako ez gai bihurtzen zituzten ezaugarriak.

Aipatutako uste hori hain dago zabaldua, emakumeei eskubideak emateari buruz hitz egiten den guztietan, edo ia guztietan (salbuespenen bat izango dela pentsatu beharko), asaldadura ahotsak entzuten direla, gure gizarte edo zibilizazioak euskarri dituen oinarriak arriskuan jarriko bailiran. Eta neurri batean, ez zaie arrazoirik falta asaldatutakoei, izan ere, mundua mundu denetik, gizardiaren beste erdiak, bidezkoa, berbera, koherentea... dena definitzeko eskubidea bere egin, eta emakumeei egiteko jakin bat egokitu dio. Gizartearen nahasmen horrek legeztatu egin ditu emakumeen hilketa, abortu selektiboak, eskubideak ukatzea eta beste hainbat zentzugabekeria, hala nola, emakumei boto eskubidea ukatu eta adin txikikoak izateagatik, ezgai direlako (eroak etab.) edota delituren bat burutzeagatik boto eskubiderik gabe utzitako gizonezkoen multzo berean sartu zituzten.

Baina, hori bai, emakumeek mantentzen zuten etxeko sua. M. Gallegok esango lukeen moduan (1999), gizonezkoek modu interesatuan definitu zuten esparru banaketa, zer den publikoa eta zer den pribatua. Interesatuki egokitu zituzten, halaber, balioak, eta modu berean osatu zituzten agintea esan nahi duen guztiak emakumeak baztertzeko balio duten arrazoiak. Azken batean, euren interesak babesteko egin zuten (maitasuna, etxeko zerbitzua, oinordekotza, etab.), bai eta euren gaitasun eta denbora “interes orokorraren alde”, hots, ongizate komunaren alde erabiltzeko.

Jakina, sexu bakoitzaren berezko ezaugarriak edota hautatu diren ezaugarriak logiko eta arrazoizko izan badira gizonezkoari dominatzaile papera eta emakumezkoari dominatu papera emateko, berdintasuna ez onartu nahi izateak eta, beraz, eskubide guztiak ez onartu nahi izateak, logika juridikoa erabiltzea dakar. Horrela, konstituzioaren aurkakotzat jotzen da nahikoa arrazoitua

(2) PÉREZ ROYO, Javier. Curso de Derecho Constitucional. Marcial Pons. 1999, 6. argitalpena, 95. or.

dagoen edozein ekintza positibo, nola konstituzio-testuan hala testu horren interpretatzaileen iriziz (Konstituzio-Auzitegiaren jurisprudentzia), nahiz emakumeek egunero bizi dituzten ezberdintasun egoeratan. Arrazoi berberetatik, garai bateko adimen handiko pertsonak bezalakoek (garai batean Vogel Polski), berdintasunaren printzipioan oinarritutako osatera juridiko hori zalantzan jarri dute, ez baitu helburua erdietsi, hots, berdintasuneko gizartea lortzea. Bi mendeetan zehar gizaki guztientzako berdintasuna eta, besteen artean, sexu-bazterketa debekatzea aldarrikatzen zuten eskubideen adierazpenak eta konstituzio testua idatzi baldin badira ere, ezin izan da ekidin ezadostasunek ezberdintasunak ekartzea, beraz, pentsa daiteke akatsak oinarrietan daudela (3). Aitzitik, emakumeek beldur gabe ikusi dute egoera hori eta giza antolamendu horri aurre egin diote, euren jarduna esparru politikoan gehiago nabarmendu dadin, Iraultza Frantsesean hasi eta, geroago, alderdi politikoetan militatuz, nahiz eta oraindik ez zitzairen euren herritartasuna onartu, hots, botatzeko eskubiderik onartu ez zitzairen arren.

Alderdien topaldietan emakumeak egotea ezinbestekoa izan da emakumeen eskubideen defentsarako erakundeak bezalakoak sortzeko, hala nola, emakumeen aldeko erakundeak, zuzendaritza orokorrak edo zinegotzigoak, Berdintasunerako Planak onartzeko edota kuota eta demokrazia partitarioari buruz hitz egiten hasteko. Lorpenak are handiagoak dira kontuan hartzen baldin badugu emakumeen eskaerek ez dutela gizartean gizonezkoek edo gizonezko erakundeek bultzatutakoek bezain besteko oihartzuna sortzen, nola emakumeen izaeratik beragatik, mendekotasunean eta buruzagitza ez hartzeko heziak, hala gizartean egokitu zaien paperagatik. Badirudi emakumeak gizarte multzoan daudela soilik erabakiak guztien izenean hartzen direnean, nahiz eta erabaki horiek gehiago dagozkien gizonezkoen emakumezkoen baino. Berriz, badirudi zati bat besterik ez direla, kopuru errealetik proportzionala ez den zati bat, behar espezifikoetat jotzen direnak erantzuten direnean, behar partzialei erantzuten zaienean, hots, interes orokorreko behar gisa hartzen direnen azpitik geratzen diren gaiak (4). Bestalde eta, oro har, emakumeen boterea ordezkoa den boterea da, horregatik eta horren ondorioz ez dira boterearen erreferente gisa hartzen eta, horrenbestez, eskubideen legez kanpoko erabilera egiten da; horrek herritarren %50 baino gehiagori eragiten dio (5).

(3) Gizartearentzat hain agerikoa den gaira ez jotzeagatik (emakumeak ordezkaritza postuetan) Valentziako doktore batek jorratutako doktoretza tesia aipatuko dugu. Tesi horretan Valentziako erkidegoan unibertsitateetako irakasleek bizi duten ezberdintasuna ikusten da: soilik %11,5 dira emakumezko katedradunak, %30,7 titularrak, emakumezko errektore bat bera ere ez, %15,2 (7 bakarrik) errektoreorde eta unibertsitateko sailetatik soilik %14 daude emakumezko irakasleen zuzendaritzapean.

(4) Nork ez ditu honakoak entzun emakumeen aldeko edozer aldarrikatzean?: "orain ez da une egokia... egoera zaila bizi dugu... akordioa lortzea neketsua gertatzen ari da..."

(5) VALCÁRCEL, A. *"La política de las mujeres"*, Feminismos Cátedra, 1977, emakumeen eta politikaren arteko harremana aztertzen duen entsegu bikaina.

N. Campillok dioen moduan, horrexegatik, hain zuzen ere, "Feminismoaren helburu nagusietako bat balio maskulinoen hegemoniaren aurka borrokatzea da eta, batez ere, emakumeek egin eta ordezkatzten duten horrek, gauza berberaz ari bagara ere, gizonezkoek egin edo ordezkatzten duten horrek baino balio gutxiago duela dioen ikuspegia aldatzea" (6). Puntu horretan uztartzen da berdintasuna demokrazia eta politikarekin. Orain arte, esan den bezala, emakumeen berdintasuna erdiesteko erakunde espezifikoko abian jarri behar badira (emakumeen aldeko erakundeak, zinetogitzaileak, parlamentu batzordeak, etab.) eta neurri bereziak hartu behar badira (berdintasun planak), pentsatu beharra dago sozial eta demokratikotzat definitzen den Estatuak hainbat politika abiarazi behar dituela, emakumeak gizonak bezain berdinak izateko. Parlamentuen arteko Batasunak (7) dagoeneko 1997an bazioen demokrazia, XX. mende amaieran ulertzen zen moduan, hobetu egin behar zela, emakumeak erabakiak hartzeko prozesutik at uzten baitzituen.

2.

Erreforma garaia Europako herrialdeetan

Hainbat dira emakumeek politikan duten partaidetzari buruzko iritziak, izan ere, auzi horixe da gure demokraziaren arazoetariko bat (8). 1970etik kuoten sistema erabili duten alderdiak egon dira, esate baterako, Danimarkako Alderdi Sozialista Popularrak, Austria eta Alemaniako berdeek, Frantzia, Alemania, Suedia, Austria, Belgika, Grezia, Italia eta abarretako Alderdi Sozialistek. Europan, nazioz kanpoko erakundeek orokortu egin dute emakumeek ordezkariak erakundeetan betetzen duten postuari buruzko eztabaida, eta eztabaida orokortze horrek aldaketak eragin ditu konstituzioetan eta hauteskunde legeetan.

Nabarmenak dira gure inguruko herrialdeetako konstituzio eta legeetan burutzen ari diren aldaketak. Aldaketa horiek emakumeek politikan parte hartzeko eskaeren emaitza dira, erakunde feministen jardunaren emaitza eta, ezin delako sinistu emakumeek ordezkariak postuak betetzea denbora edo trebakuntza kontua dela dioen iruzurra, balio dutenak iristen dira dioen gezurra, alegia. Nazioarteko eta Europako erakundeek eta Parlamentuen arteko Batasunak hainbat eta hainbat testu atera dituzte, emakumeen beharra hizpide dituztenak, eta defizit demokratiko gisa izendatu den egoera hori arintzeko neurriak proposatzen dituzte.

(6) CAMPILLO, N. "El feminismo con a crítica", *Arguments 2*, Tándem, 1997, 17. or.

(7) Erakunde horrek munduko parlamentu guztietako ordezkariak biltzen ditu. 1997an, New Delhin, bilera monografiko bat antolatu zen emakumeen partaidetza politikoa aztertzeko.

(8) POZO, J.M. "Cultura política y límites a la participación democrática", *Leviatan*, 71 zk., 1988.

Gure inguruneko herrialdeek hainbat sistema hartu dituzte emakumeek politikan parte hartze handiagoa izan dezaten. Horrela bada, herrialde batzuetan alderdi politikoen arteko akordio informalen sistemak funtzionatzen du, hori da Suediako kasua, bertan, emakumeen ordezkari nazio mailan %45,3koa da eta alderdi politikoei "kremailera sistema" deritzatena darabilte, hots, hautagai-zerrendetan bi sexuak txandakatzearen sistema. Gauza bera gertatzen da Danimarkan, bertako alderdi politikoei barne kuota darabiltzate eta emakumeen ordezkari Nazio Batuetan %38ra iristen da.

Herrialde batzuetan kuota lege formalizatzea erabaki da. Horixe bera egin du Finlandiak; bertako Nazio Batuetan %37,5 emakumezkoa da, 1985ean lege bat onartu baitzuten, nola emakumezkoek hala gizonzkoek erakunde erabakitzaileetan ahalik eta modurik berdinean parte hartzeari buruzkoa. Lege hori 1995ean aldatu zen, parte hartze hori portzentajeen bitartez zehazteko eta, hala, erakunde erabakitzaileetan bi sexuek gutxienez %40ko parte hartzea izan beharko luketela zehaztu zen.

Beste Estatu batzuek bestelako bideei jarraitu diete, Konstituzioaren erreformara zuzendu dituztenak: Portugal, Frantzia, Italia eta Belgika.

Portugalek (egun %19,1 emakumezkoa da) Konstituzioa aldatu zuen Hauteskunde Legeek ekintza positiboko neurriak har zituzten, horrela, 109. artikuluan honako hau ezarri zuen: "Gizonezko eta emakumezkoek bizitza politikoan modu zuzen eta aktiboan parte hartzea sistema demokratikoaren baldintza eta oinarritzeko tresna da eta legeak berdintasuna bultzatu behar du eskubide zibil eta politikoak erabiltzeko eta kargu politikoak betetzeko, sexuaren araberako bazterketarik gabe". Era berean, Konstituzioaren 9. artikuluko 8. atalean gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzea Estatuak ezinbestean burutu beharreko zeregina dela adierazten da. "Herritarren" partaidetzaz hitz egiten zen tokian, gizon eta emakumez hitz egiten da: konstituzioari buruzko eztabaidan "emakumeen egoeraren inguruan egindako zuzeneko aipamena herritarren mundura barneratu zen 1997. urtearen ondoren" (9). Oraingoz behintzat konstituzioaren erreforma hori ez da lege zehaztu.

Frantzia zen Nazio Biltzarrean emakumezkoen portzentaje baxuena zuen EBeko herrialdeetako bat. Portzentaje hori 1945ean %5,6 izatetik, 1958an %1,5 izatera jaitsi zen, eta ez zen igotzea lortu laurogeiko hamarkada arte (%5,9) edo 1993. urte arte (%6,1). Historian zehar, portzentaje horien arrazoi gisa emakumeak tronutik at utzi izana eta boto eskubidea berandu erdietsi izana (1945) eman dira, baita prozedura gisako arrazoiak ere, hala nola, gehiengoeko hauteskunde-sistema edota agintaldien pilaketa, eta ezin ahaztu gabe utzi alderdi politikoen jarrera, izan ere, "gizonez osatutako taldeak dira, zirkuitu itxian funtzionatzen dute, beti modu berean ugaltzen dira eta ez daude gizon bati postua kentzeko prest gero emakume bati emateko" (10). Frantziako por-

(9) AMARAL, M.L. *"Las mujeres en el Derecho Constitucional: el caso portugués"*, in *Mujer y Constitución en España*. CEPC. Madrid. 2000.

(10) MOSSUZ-LAVAU, J. *"La paridad de hombres y mujeres en política"*. Paris. PSP, 1988.

tzentajea %10,9ra igo zen 2001ean, baina Italiarena %9,8ra jaitsi zen Kongresuan eta %7,8ra Senatuan. Lehen postuan Suedia zegoen (%40,4), Norvegia (%39,4), Finlandia (%33,5), Danimarka (%33) eta Herbehereak (%31,3). Alemaniak 9. postua betetzen zuen (%26,2), Espainiak 14. postua %24,6rekin, Portugalak 34. postua (%13), Belgikak 40. postua (%12), eta Greziak 73. postua (%6,3) (11). Herrialde bat besterekin erkatuz gero, egoera harrigarria zen, beraz, ez zirudien erokeria bat desoreka horri aurre egiteko kultura politikoagatik eta kokapen geografikoagatik demokratikoki aurreratuen zeuden herrialdeen printzipio juridikoak elkarbanatzen zituzten herrialdeekin hastea.

Frantzian, M. Pelletier, Emakumezkoen Egoeraren Ministroaren eskutik etorri zen lehen ekimena. Ministro horrek proposatutakoaren arabera, 1979an 2.500 biztanle baino gehiagoko herrietako udal hauteskundeetako hautagai-zerrendetan gutxienez %20 emakumezkoa izan behar zen. Nazio Biltzarrak ekimen hori onartu zuen, baina testua aldatu ondoren, izan ere, sexu bakoitze-koak gutxienez %20 izatea idatzi zen, hain zuzen ere hizkuntza dela eta neurri baztertzaila zela esan ez zezaten. Hauteskundeetako deialdiak ekimena Senatura pasatzea eragotzi zuen eta bertan behera gelditu zen.

1981eko hauteskundeetan ezkerak irabazi zuen eta 1982an Barne Ministroak udal hauteskunde- en erreformarako Legea aurkeztu zuen; lege horrek ez zion kuotei inongo erreferentziarik egiten, hautagai-zerrendetan agertu behar zen emakume kopuruaren gaia alderdi politiko bakoitzari zegokiola uste baitzen. G. Halimi diputatu sozialistak zuzenketa bat aurkeztu zuen, eta zuzenketa horren arabera, 3.500 biztanletik gorako udalerrietan "hautagai-zerrendetako pertsonen %75 baino gehiago ezin dira sexu berekoak izan". Gizon eta emakumeei aplikagarria zaien portzentajea ezartzen den arren, onartutako idazkiari errekurtsioa jarriko zaio Konstituzio Kontseiluan (KK). Kontseilu horrek, zuzenketa konstituzioaren aurka doala esaten ez badu ere, ofiziozkoa dela esango du, 1958ko Konstituzioaren 3. artikulua oinarri hartuta: "Nazioaren subiranotasuna herriaren esku dago... herriaren zati batek ere ezin dezake eskubide hori bere egin", artikulua horrek subiranotasuna zatiezina dela eta subjektu politikoa unibertsala dela adierazten du; 1789ko Adierazpeneko 6. artikulua ere hartu zuen oinarri: "legearen aurrean herritar guztiak berdinak izanik, maila, postu eta enplegu publiko guztietan era berean onargarriak dira, bakoitzaren gaitasunaren arabera, eta bere dohain eta trebeziak gain beste bereizketarik gabe". KKaren ustez, "herritar izaerak berak ematen dio herritarrari sufragio eskubidea nahiz hautatua izateko eskubidea, legeak aurreikusten dituen arrazoiengatik kanpo geratzen ez diren horien baldintza berberetan, eta konstituzio mailako balioa duten printzipio horiek hautesle nahiz hautetsiak kategoriatan banatzearen kontra daude".

KKak egiten duen interpretazioan alde batera uzten da 1946ko Legearen hitzaurrea, Konstituzioaren balio positiboaren duena: "Legeak emakumeari gizonezkoen eskubide berberak ber-

(11) Datu horiek 2001ekoak dira eta bi herrialde horietan portzentajeari buzuko legak aurkeztu zirenean bizi zen egoera historikoki kokatzeko balio dute.

matzen dizkio eremu guztietan". Nahitaezko esaldi horretatik eremu politikoan emakumeen ordezkari-tza hobea bermatuko zuen Lege bat lantzearen ideia sortu zen.

KKaren interpretazioa zein izan zen ikusita, D. Rousseauk "fundamentalista" moduan definitu zuen hori, 1989ko urtarrilaren 14ko erabakian mantendu zena eta 1982ko erabakia gogorarazten duena, berdintasunaren printzipioa definitzen zuten artikulua konstituzio-erreformaren bitartez aldatzea besterik ez zegoen (12).

1993an emakumeen partaidetza politikoa bultzatzeko ekimenari berriz ere eutsi eta "parekotasunaren aldeko emakumeen erakundea" osatuko da. Erakunde horrek erreformak proposatu zituen hauteskundearen eremuan eta juridikoki formulatu zituen. 1994an Europar Parlamenturako sozialistek aurkeztutako hautagai-zerrenda emakume/gizon txandakaturaz osatu zen. 1995eko legegintzarako hauteskundeetan hiru hautagai nagusiek sistema proportzionala zerabilten zenbaketa-kuota ezarriko zituztela agindu zuten. J. Chirac presidentek "Gizon eta emakumeen arteko parekotasunaren behategia" sortu zuen ikerketa eta kontsulta organo gisa. Horrek guztiak Gobernuak eta Errepublikako Presidenteak bide emandako konstituzio-erreforma proposatzea ekarri zuen. Erreforma horrek 3. eta 4. artikuluei eragiten zien eta 1999ko uztailan onartu zen, komunikabideetan nahiz Nazio Biltzarrean bertan eztabaida gogorak izan ondoren. Ondorioz, atal berri bat gehitu zitzaion Konstituzioaren 3. artikuluari, "Legea emakume zein gizonek hauteskunde-mandatuak nahiz funtzioak betetzeko aukera berdintasunaren alde dago". Alderdi politikoei buruzko 4. artikuluari ere honakoa gehitu zitzaion: "alderdi politikoei 3. artikuluko azken letraz azaldutako printzipioa legeak aurreikusten duen baldintzetan aplikatzen lagunduko dute" (13).

Erreforma hori ekainaren 6ko 2000-493 Legean zehaztu zen. Lege horrek emakume zein gizonek hauteskunde-mandatu nahiz funtzioak betetzeko aukera berdintasuna izatearen alde egiten du eta hiru gai nagusi ukitzen ditu:

a) Hautagai-zerrendak osatzea

Zerrendaren zenbaketa bidez burutzen diren hauteskundeetan, sexu bakoitzeko hautagai kopuruaren arteko ezberdintasuna ezin daiteke bat baino handiagoa izan. Sexu jakin bateko hautagaiak —legegileak emakumeak zituen buruan— hautatuak izatea ezinezko egiten duen moduan kokatuak izan ez zitezten, lege honek hainbat xedapen aurreikusten ditu. Batetik, bi bueltadun zenbaketa proportzionalako hauteskundeetako zerrendek sexu bakoitzeko hautagai kopuru berbera izan behar dute, 6 hautagaietako talde bakoitzeko eta zerrendetan azaltzen diren hurrenkeran. Bestetik, buelta bakarreko zenbaketa proportzionalako nazio-hauteskundeetan (Senatuko hautes-

(12) ROUSSEAU, D. vide "Los derechos de la mujer y la Constitución francesa", in *Mujer y Constitución en España*, VVAA, op.cit. 106 or.

(13) ROUSSEAU, D. op.cit, 103 or. eta hurrengoak. Eta FAVOREU, L. "Principio de igualdad y representación política de las mujeres. Cuotas, paridad y Constitución". *REDC*, 17. urtea, 50 zk., 1997. Bi artikulua horietatik hartu dira konstituzio-erreformari eta horren aurrekariari buruzko datu guztiak.

kundeetan hiru senatari baino gehiago hautatu behar direnean eta Europar Parlamenturako hauteskundeetan) zerrenda bakoitzean sexu bateko nahiz besteko hautagaiak txandakatu behar dira.

b) Hautagaiak onartzea

Hautagaiak onartzeko adierazpenei dagozkien xedapenak. Adierazpen horietan izen-abizenak, sexua, jaioteguna eta jaioterria, helbidea eta lanbidea azaldu beharko dira.

c) Hauteskundeetarako dirulaguntzak

Alderdi edo talde politikoei ematen zaizkien dirulaguntzei buruzko xedapenak. Xedapen horien arabera, dirulaguntzak murriztu egingo dira alderdiak zerrendak legeak ezarritako portzentajeetara egokitzen ez baditu.

Azkenik, legeak aurreikusten duenaren arabera, Gobernuak lege honen ebaluazio bat aurkeztu behar dio Parlamentuari 2002. urtean eta, lehen aurkezpen hori egin ostean, hiru urtetik behin egin beharko du gauza bera (14).

Italian lehen saiakera 1993/03/25 Legearen eskutik etorri zen; lege horrek ezarritakoaren arabera, 15.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan "hautagai-zerrendetan sexu bat ez da "normal" ordezkaturia izango bi heren baino ordezkari handiagoa baldin badu". Proporzio hori ez zen Molise eskualdeko udalerririk batean errespetatu eta hautesle batek hauteskunde horien aurka joan zen.

Gorte Konstituziogilearen iritziz, lanean gizon/emakume parekotasuna lortzeko eta emakumezko enpresariak laguntzeko burutzen diren ekintza positiboak (15) gizarte eta ekonomia mailan gutxiagotasun egoerak ezabatzeko erabil daitezke, oinarrizko eskubideak osotasunean erabiltzeko premisa gisa baina "ezin dezakete eskubide horien edukian bertan zuzenean eragin", baizik eta abiapuntuetako berdintasuna sustatzera jo behar dute. Hautesle pasiboan gaiari dagokionez, sexu arrazoiengatik gertatzen den bereizketa oro objektiboki baztertzaitzat joko da.

Auzitegi horren arabera, 3. eta 51. artikuluek sexu bien arteko berdintasuna dute helburu, hauteskunde-karguak betetzeko aukerari dagokionez. Horrenbestez, sexua ezin izan daiteke hautatzeko baldintza eta, ondorioz, ezta hautagai izan eta hautagai-zerrenda bat osatzeko ere. Proposatutako neurriak ez dirudite Konstituzioaren 3. artikuluekin bat datozenik, izan ere, "ez dute proposatzen emakumeak lorpen zehatzak erdiesteko oztopo direnak ezabatzea, baizik eta

(14) Txosten honek barne hartu behar ditu, gainera, lege horren eraginik jaso gabe, kantonamendu, Senatu eta udalerririk hauteskundeetan egondako emakumeen bilakaeraren azterketa zehatza, baita egitura interkomunaltako eta tokiko batzorde betearazleerik eztabaida-organoen ere.

(15) 1991.04.10. eta 1992.02.25. Legeek proposatzen dituztenak bezalakoak

zuzenean lorpen horiek ematen zaizkie” (FJ 6). Adierazitako arrazoi horiei jarraiki, legeak Konstituzioari kontra egiten ziola erabaki zen (16).

Ondoren, Italiako Ganberan Konstituzioa aldatzeko prozesuari ekin zitzaion, besteen artean, konstituzio-artikuluetatik 51.ari eragiten zion prozesua. Erreforma horren helburua ordezkari organoetako emakumeen presentzia urriari aurre egiteko araudi bat onartzeko bidea zabaltzea zen, konstituzioaren kontraketak jotzeko arriskurik gabe, konstituzio-mandatu eskubide politikoetara ere zabal zedin, alegia, oztupo ekonomiko eta sozialak, Italiako Konstituzioaren 3. artikulua arabera, “herritarren askatasun eta berdintasuna mugatu eta eragozpen direnak ...” (17) horiek, ezabatzeari buruzko mandatu.

Gobernuaren ekimena 2001eko irailaren 18an aurkeztu zen eta 2003ko maiatzaren 30ean onartu zen honako testu honekin: “Konstituzioaren 51. artikulua 1. paragrafo amaierari honakoa gehituko zaio: Horretarako, Errepublikak emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna bultzatuko du ekintza positiboekin bitartez”. Erreforma-proiektua aurkeztu zuenean, Gobernuak onartu egin zuen hauteskunde-karguetan emakumezkoen ordezkari urriegia zela eta urritu egin zela azken hauteskundeetan, eta “hautatuen aukeraketa herritarren boto librearen isla denez, nahiz eta defizit demokratikorik ez egon, bada, inongo zalantzarik gabe, biztanleen arteko emakumezkoen ordezkari gabezia bat” (18).

(16) Biglino-ren arabera: “Ezin paradoxikoagoa da Estatu soziala aldarrikatu eta emakumeen partaidetza politikorako berme gisa ezarritako konstituzio agindu horiek Konstituzio Auzitegi batzuek erabiltzea kuota konstituzioaren kontra-koak direla esateko”, op.cit. 411 or.

Interesgarria da aipatu erabakia dela eta, Simonetta Sotgiu, Aukera Berdintasunerako Batzorde Nazionaleko Magistratu eta Presidenteordeak egin zuen kritika, *Giustizia civile* aldizkarian publikatutako artikuluan, anno XLV Fac 11-1995, Milano. Artikuluaren izenburua “La Corte Costituzionale e le donne: tutela ma non potere al sesso debole” zen. Sotgin magistratuaren aburuz, Italiako Konstituzio Auzitegiak lehentasunezko tutoretza zentsuratu nahi izan du eta ezabatu egin du sexu ahularenentzako oinarriko xedapena eta, beraz, tutoretza sexu indartsuenari eman dio.

(17) Erreforma hori joratzeko, Konstituzio Gaien Batzordeak hainbat bilkura egin zituen konstituzio-zuzenbidean aditu direnekin eta, lehen aldiz, baita erakunde feministekin ere, gaiaren inguruan zuten ikuspuntua entzuteko asmoz. Bai batzuk bai besteak bat etorri ziren aipatu 51. artikulua aldatzeko beharra aipatzerakoan, eta ordezkariaren printzipioa interpretatzeko ikuspuntu ezberdinak bateratu zituzten (Atti Parlamentari XIV. Legealdia, 2002.02.27)

(18) Atti parlamentari, 2001-09-18.

Belgikak (gaur egun % 35,3 emakumeak dira) 1994ko maiatzaren 24ean kuotei buruzko lege bat onartu zuen, horrela, alderdiek aurkeztutako zerrendetan sexu berekoak ziren hautagaien kopurua ezin zitekeen zerrenda osoaren 2/3 baino gehiago izan. Gainera, kuota hori beteko ez balitz, hautagai kopurua proportzio berean murriztuko litzateke. Sistema hori ez zen ongi irten, Belgikako legeak ez baitzuen esaten zerrendetako zein postutan egon behar ziren emakumeak kokatuta, eta askotan egiaztatu izan da praktikan azken postuak betetzen dituztela (19).

2000. urtean Belgikak konstituzioa aldatzeko prozesua hasi zuen emakume eta gizonen berdintasunerako duten eskubideari buruzko xedapena sartzeko eta, organo erabakitzaileetan emakumeen presentzia zein geldo ugaritzen ari den ikusita, hauteskunde-mandatueta eta mandatu publikoetara sartzeko aukera berdintasunaren alde egiteko asmoz. Aipatu erreforma 2002ko otsailean onartu zen eta 10. artikuluari paragrafo bat gehitu eta, horretaz gain, artikulua berri bat, 11 bis, idatzi zen. 10. artikulua paragrafo berriak berariazko aipamena egiten dio emakume eta gizonen berdintasunari eta 11bis artikulua "hauteskunde-mandatu eta mandatu publikoak betetzeko aukera berdintasunaren alde egitea" du helburu (20).

Konstituzioaren erreformari buruzko eztabaida abian zela, Hauteskunde Legea aldatzeko bost ekimen aurkeztu ziren, hauteskundeetako emakume eta gizonen aukera berdintasunaren alde egiteko eta, inondik inora ere, Ganberetan emakume gehiago egotea bultzatu zuen. Konstituzio agindu berriak onartu eta handik hilabetera, 2002ko martxoaren 8an, "eskualdeetako Kontseiluetarako hauteskundeetako hautagai-zerrendetan gizon eta emakumeen presentzia parekatua bermatuko

(19) Esate baterako, 30 pertsonetako zerrenda batek 10 emakume izan behar ditu. Emakume horiek zerrenda amaieran baldin badaude, eserleku zerrendatik 2/3 baino gehiago lortzea nahiko zaila da... Halaber, kontuan eduki behar da 2/3 kalkulua zerrenda osoa oinarri hartuta kalkulatu dela, ordezkokoak barne, eta eserleku banaketaren probabilitateak kontuan edukita, askotan nahitaez emakumeek bete beharreko postuak ateratzeko aukera bakarra izaten baita. Hala eta guztiz ere, lege horri esker, emakumeek politikan duten ordezkartza urriaren gaia ezinbesteko gaia bihurtu zen alderdi guztientzako, ordutik aurrera guztiek egin behar izan baitzuten esfortzu bat euren hautagaien artean emakumezko gehiago izateko.

(20) Belgikako Konstituzioaren testu berriak:

10. artikulua: "emakume eta gizonen arteko berdintasuna bermatzen da".

11 bis artikulua: "134. artikuluko legeak, dekretuak edo arauak (eskualdeetako arauak) emakume eta gizonen berdintasuna bermatzen diete euren eskubide eta askatasunak erabiltzean, eta hauteskunde-mandatu eta mandatu publikoak betetzeko aukera berdintasunaren alde egiten dute batez ere"

Erkidego eta eskualdeetako Ministro Kontseiluak eta Gobernuak sexu ezberdinetako pertsonak dituzte.

134. artikuluko legeak, dekretuak edo eskualdeko arauak sexu bietako pertsonak egotea zaindiko dute probintzia Kontseiluetako diputazio iraunkorretan, kide anitzeko udal organoetan, gizarte laguntzako kontseiluetan eta probintzi arteko, herri arteko edo herri barneko edozein lurralde-organoko betearazleetan.

Aurreko paragrafoa ez da aplikatuko 134. artikuluko lege, dekretu edo arauak aurreko atalean aipatutako postuak zuzenean antolatzen dituzten arte".

zuen lege berezi baten proiektua” aurkeztu zen eta 2002ko ekainean onartu egin zen. Lege horrek zehazten duenaren arabera, Brusela, Walonne eta Flandriako eskualdeetako Kontseiluetarako hauteskundeetan hautagai-zerrendetako sexu bakoitzeko hautagai kopuruen arteko aldeak ezin du bat baino handiagoa izan, eta zerrenda bakoitzeko lehen bi hautagaiak sexu ezberdinetakoak izan behar dira (21). Lege horrek konstituzio-testuan ezarritakoa garatzeari ekingo dio.

Hartutako neurriak hartuta eta aurrera eramandako konstituzio-erreformak abian, ezin galdetu gabe geratu ia ez zuten arrazoia emakumeak barne hartzen zituen kontratu sozialaren defendatzaile ziren emakume haiek. Europan aurrera eraman diren konstituzio-erreformetan elkarreragileak diren bi elementu hauek parte hartzen dutela uste dugu: konstituzio-testuan berdintasun materialaren definizio garbi bat ez egotea, emakume eta gizonen berdintasuna konstituzioan baieztatzeko beharrezkin lotuta eta/edo araudiak Konstituzioaren edukiarekin bat ekoizten direla zaintzen duen organoak legeak konstituzioaren kontrakoak zirela adieraztea.

3.

Estatu espainiarreko erreformatik

Gure kasuan berdintasunaren oinarria ez da Hauteskunde Legean kuotak/parekotasuna sartzeagatik aldatzen. Zalantzan jartzen dena ez da berdintasuna nola adierazi, baizik eta EBan onartutako funtsezko berdintasuna burutzea. Hori dela eta, uste dugu gure Karta Magnan berdintasunak duen adierazpidetik abiatuta, parekotasuna legez joratu daitekeela konstituzioaren mugen barnean, konstituzioaren erreforma beharrezkoa izan gabe.

Bestalde, hainbat Konstituzioetan izan diren aldaketek, guztiak ere gure Konstituzioa indarrean izan den denbora baino luzeagoko konstituzioetan eginak, aldaketa sozialez beteriko garai batean gaudela erakusten dute. Gizarte-eskubideak iraultza sozialistaren ondorioz lortu baziren, mugimendu feminista berdintasun printzipioan aldaketa bat egoteko ari da lanean. Emakumeek betetzen duten tokia zalantzan jartzeak, herritar gisa izan duten papera zalantzan jartzeak —hau da, subjektu gisa izan duten papera— ilustrazioan eta Iraultza Frantsesean mugimendu feministaren oinarriak ezartzea ekarri zuen eta, urteak joan ahala, mugimendu horrek emakumeentzako trataera ezberdina eskatu du, hots, trataera berdina.

(21) Lehen Ministroak parekotasunari buruz konstituzioaren erreformaren eztabaidan egiten duen aipamena nabarmendu nahi dugu: “Proiektu hau garrantzitsua da, Belgikak demokrazia paritarioaren bidea hartzeko konpromisoa hartzen du eta herritargoa emakume eta gizonen kopuru berberaz osatzen du eremu guztietan”.

Hasieratik feminismoak berdintasunaren ideia azpimarratzen du, ezinbestekoak tradizio liberaleko postulatuei jarraiki, Konstituzioetako jatorrizko ideietatik eratorritako gabeziak gainditzeko –kasu honetan ordezkartzari dagokionez–. Era berean, gabezia horiek Estatu sozialaren ikuspegitik interpretatu beharko lirateke, izan ere, ez liberalismoa ez eta sozialismoa ere (22), ez dira behar adina gizarte-integrazio burutzeko gai izan, ezta –gaur arte– biztanleria erdiaren oinarrizko eskubideak bermatzeko gai izan ere: bizitzeko eskubidea, ordezkartzarako eskubidea...

Konstituzio frantsesaren erreformak sortu du ikusmin handiena, 1789ko printzipio iraultzaileetara itzuli baita konstituzioaren osotasuna defendatzeko. Erreforma burutu ondoren, edozein lege-testuk Akilesen orpoa duela frogatu da, ordea, biztanleriaren berdintasun materiala ez da aldatu, berdina izatearen nolakotasuna faktore askoren araberkoa baita, eta horien artean Karta Magna, izenak adierazten duen moduan, abiapuntu ezin hobea da, baina hori besterik ez da. Berdintasuna kontzeptu dinamikoa da, edo hala behar luke, eta Estatu bat berak ere ez luke iraultza sozialak eskatzen duen berdintasun maila baino gutxiago onartu beharko. Maila horren muga eta oreka puntua askatasunak izan beharko luke.

Espainiako Konstituzioaren 9.2 artikulua ekintza positiboak hartzen ditu bere gain, baita, Peces-Barbak esango lukeen moduan, berdintasuna bereizketa moduan ere (EL PAIS, 2002.06.23). Konstituzio Auzitegiak askotan erabili du artikulua hori berdintasunaren bidea zabaltzeko.

1978ko Konstituzioa onartu zen une beretik iragarri ziren oinarrizko hainbat erreforma, esaterako, Senatuaren erreforma edo autonomia-erkidegoen maparen diseinua, izan ere, Konstituzioak proposatutako autonomia prozesuak ez zuen zerikusirik ondoren indar politikoekin adostutakoarekin; azken hori konstituzioaren eta demokraziaren bizitzatik at jazotako hainbat gertakariren ondorio izan zen. Kritikatu egin da, halaber, Koroaren oinordekotzan emakumeak baztertzeko direla lehenik jaiotakoa gizonetzkoa ez baldin bada, eta konstituzioaren kontrako araua balitz bezala hartu da (Y. Gómez, 1987). Dagoeneko asko dira, aipatutako puntuei dagokionez, Espainiako Konstituzioaren erreforma aldarrikatzen duten; aldarrikapen horiei feminismo akademiko eta militanteak helburu dituztenak gehitu beharko litzaizkieke eta, une hauetan, estatuko Gobernuan eta erkidego batzuetakoetan dagoeneko hasi dira Estatutuen berrikusketa egiten (Euskadi, Katalunia, Valenziako Erkidegoa), eta Estatu mailan Konstituzioaren berrikusketa ari dira bultzatzen.

Edonola ere, ez dugu uste parekotasuna lortzeko Hauteskunde Legeetarako ekintza positiboek edo aldaketak dakartzaten legeak onartzeak Konstituzioaren erreforma eskatzen dutenik. Konstituzio Auzitegiak berak onartu du trataera ezberdin oro ez dela konstituzioaren kontrakoa, legegileak errespetatu beharreko baldintza jakin batzuk ezartzen dira bereizketa onargarria izan dadin: helburuak “bereizgarria eta legezkoa” izan behar du, bereizketek helburuarekin bat etorri behar dute eta ezin dituzte “ageriko desproporzioak” adierazi.

(22) MIYARES, A. “Democracia feminista”, *Feminismos*, Cátedra Ed., 2003.

Konstituzio Auzitegiak onartu egiten ditu, jatorri historikoa duten ezberdintasun egoerak gainditzea helburu, sexuan oinarritutako ekintza positiboak, eta urundu egiten da sexua oinarri duen (kategoria susmagarria baita) edozein arau bereizketa baztertzaila dela dioten ideia sinpletik. Alderantziz, gurea bezalako eskubide sistema duintasunaren irizpidearen inguruan osatzen da, eta arau bereizketa bat baztertzaila den ala ez erabakitzeko gakoa ez datza trataera juridiko-formal ezberdinean, baizik eta funtzioan eta, feministek dioten moduan, duintasun eza sorraz dezakeena boteregabezia da (23).

3.1

HAUTESKUNDE-LEGEEN ERREFORMA-PROPOSAMENA ESTATU ESPAINIARREAN

3.1.1

LOREG ERREFORMA

Espainian emakumeek erabaki-postuetan duten parte hartzeari buruzko eztabaidak 1992. urtetik aurrera hasi baziren ere, hauteskunde-legedian parekotasunari buruzko irizpideak sartzeko proposamen formalak ez ziren 2001eko azaroa arte aurkeztu, izan ere, orduan aurkeztu zuen Parlamentuko Talde Sozialistak ekainaren 19ko 8/1985 Lege Organikoa, Hauteskunde Erregimen Orokorriari buruzkoa (LOREG) aldatzeko Lege-Proposamena (aurrerantzean LPP). Ekimen horrek "Hautagaiak aurkeztu eta izendatzea" izeneko 2. ataleko 44. artikulua aldatzen zuen, eta atal berri bat gehitzen zuen, 4.a, horrela, hautagai-zerrendak gizon eta emakumeen arteko oreka kon-tuan hartuta lantzeko, eta sexueta batek ere hautagai kopuru osoaren %60 baino gehiago izan ez zezan, baina ezta %40 baino gutxiago ere, demokrazia paritarioaren oinarritzko irizpide gisa ulertzen den formula, hain zuzen ere. %40/%60 proportzioa ez da oztopo %50eko parekotasuna lortzeko; horixe bera adierazi zuen Micaela Navarro diputatuak aipatu ekira osoko bilkuran defendatu zuenean: "Sexu bien kopurua zenbakitze hori hurbilketa bat besterik ez da, eta uste dugu hurbilketa horretatik abiatuta, gizarteak eta alderdi politikoek emakume eta gizonak kopuru berean sartzeko ohitura hartuko dutela" (24). Dagoeneko aski ezagunak diren ustelkeriak ekiditeko, puntu berriak proportzio hori zerrendaren osotasunean eta bost pertsona bakoitzeko mantendu behar dela xedatzen du.

(23) Lan honetan zehar, askotan feminismora jo dut agintearen erreferente gisa. Uste dut badela garaia mugimendu feministaren alde, duen botere iraultzailea ez ezik, dagokion doktrina ere aldarrikatzeko.

(24) Bilkuren egunkaria. Diputatuen Kongresua, 243 zk., 12.438 or.

Ekimenak badu bigarren atal bat, biztanleria txikiagoko udalerrietan emakumezko hautagaiak lortzeko zailtasunari buruz eman ohi diren kontrako arrazoiak kontuan hartzen dituen eta, beraz, aurreko atalean aurreikusitako portzentajea betetzetik salbu uzten ditu 2000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietako hautagai-zerrendak, baita legez bost ordezkari baino gutxiago dagozkien barrutiak ere; azken kasu horretan, gizon eta emakumeen arteko proportzioa %50era gehien hurbiltzen dena litzateke (25).

Ondoren beste bi lege proposamen aurkeztu ziren, bata Ezkierda Unida alderdiak aurkeztua (2002/01/25) eta bestea Parlamentuko Talde Mistoak aurkeztua (2002/07/31) (26).

Ezkierda Unidak diseinatutako lege-proposamenak 46. artikulua aldatzea zuen helburu. Artikulu hori LOREG legearen 2. atalean zegoen eta puntu berri bat gehitzen zioten, 10.a, hautagai-zerrendetan gizon eta emakumeen arteko aldea bat baino handiagoa izan ez zedin (27).

(25) Artikulu bakarra.

1.- LOREG legearen 44. artikuluari honako testua duen 4. atal berria erantsi zaio:

“Barruti bateko hauteskundeetako hautagai-zerrendetako gizon eta emakumeen kopuruak orekatua izan beharko du, hala, sexu bateko nahiz besteko kopurua ezingo da ehuneko 60 baino handiagoa izan, ezta ehuneko 40 baino txikiagoa ere. Proportzio hori zerrendaren osotasunean eta bost izen bakoitzeko mantenduko da, 2.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrietako Udal Hauteskundeetan izan ezik, lege honen 187.2 artikuluari jarraiki.

Hautagai-zerrendako kideak legez bost baino gutxiago balira, gizon eta emakumeen arteko proportzioa beti izango da ehuneko 50etik ahalik eta gertuena”.

2.- LOREG legearen 187 artikuluko 2. atalari honako testua duen paragrafo berri bat gehitu zaio:

“Lege honek 44.4 artikulua barne hartzen duen baldintza, zerrendetako gizon eta emakumeen arteko proportzioari buruzkoa, ez da nahitaez aplikatuko 2.000 biztanle edo gutxiago dituzten udalerrietan”.

Diputatuen Kongresuaren Jauregia, 2001eko azaroaren 6a. Micaela Navarro Garzon, Diputatu, Maria Teresa Fernandez de la Vega Sanz, Alderdi Sozialistaren Bozeramailea.

(26) Jakina den moduan, Parlamentuko Talde Mistoak legebiltzar talde bat osatu ezin izan duten epaileek osatzen dute, edota legealdian zehar euren taldetik banandu direnek. Kasu honetan proposamena Iniciativa per Cataluña taldeko diputatuak sinatu zuen.

(27) Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoari, Hauteskunde Erregimen Orokorriari buruzkoari, 46. artikuluan honako hau dioen 10. puntua gehitu zaio:

“46 artikulua. 10. Hautagai-zerrendei dagokionez, alderdietako, federazio eta koalizioetako eta hautesle-talde bultzatzaileetako ordezkariak sinatuak, sexu bakoitzeko hautagai kopuruaren aldea ezin daiteke bat baino handiagoa izan”.

Bestalde, Parlamentuko Talde Mistoak (28) aurkeztutako proposamenak honako hiru puntu hauek zituen: hautagai-zerrendek gizon eta emakumeak txandakatuak izatea; udal hauteskunderi dagokionez, 2.000 eta 10.000 biztanle arteko udalerrietan sexu bereko pertsonen kopurua ez izatea %70 baino handiagoa eta %30 baino txikiagoa; eta erreforma hori pixkanaka aplikatzeko moduko epea eman zedila, 2003 eta 2004ko hauteskunde deialdietan kontuan hartua ez izateko.

Alderdi Popularrak ez zituen LPP horiek onartu (162 boto) baina gainerako parlamentuko taldeek ekimenak tramitatzearen aldeko agertu ziren, gutxienez, legebiltzar taldeetako batek iradoki zuen moduan, aztertu eta eztabaidatu zitzaten (141 boto).

Agindu moduan ekimen horien lagungarri diren arrazoi-azalpenak nahiz ekimenak alde batera utzi zituen eztabaida oso adierazgarriak dira, VII. Legealdian Beheko Ganberako partaide ziren alderdi politikoek emakumeen partaidetzari buruz zituzten ideien adierazgarri (29), hain zuzen ere. Ideia horiek ez daude Ganberan ordezkaritza duten alderdi politikoek kuota politikei buruz defenditzen dituzten jarreretatik oso urrun. Beste kontu bat da, lan honetan behin eta berriz errepikatu den moduan, tartean elementu aldagarriak dauden hautagai-zerrendetan (alderdi politikoa-ren tamaina dela, kutsatze edo errebote eragina, koalizio bat izatea, etab.) bestelako irizpideei jarraitu zaiela, eta irizpide horiek hainbatetan ez datoz ofizialki mantentzen diren jarrerekin bat. Egun Kongresuak ageri duen osaera ere datu adierazgarri bat da puntu horri dagokionez, alderdi politikoek duten jarrera ulertzeko. Parlamentuko taldeen artean Sozialistek (%46,34) eta Izquierda Unidak (%40) gutxienezko %40 hori dute eta Parlamentuko Talde Mistoan badira %50 duten alderdiak (BNG), bi alderdi emakumezko parlamentari bakar bat dutenak (horrek alderdi horiek alderdiaren buru emakume bat jartzeko hartutako erabakia islatzen du, EA eta NA-BAI), eta bada gizonetzko parlamentari bakarra duen alderdi bat (CHA), horrenbestez, Parlamentuko Talde Mistoan emakumezko gehien duen taldea da (%60). Nahiz eta gainerako alderdiek ez duten %30 ere, oraingo legealdian parekotasunaren aukera sumatu da, alderdi sozialistak hartu duen feminismoaren bultzada lagun, eta Beheko Ganberak historian izan dituen emakumezko diputatu gehien era-

(28) Honako eduki hau duen 44 bis artikulua berria gehitu da:

“44 bis artikulua. 1. Parte hartze politikoan berdintasunaren printzipioa eraginkorra izan dadin, hauteskundeetako hautagai-zerrendek gizon eta emakumeen kopuru orekatua izan beharko dituzte. Horretarako, hauteskunde-zerrendek gizonetzko zein emakumezko hautagaiak izango dituzte, modu txandakatuan ordenatuak.

2. 2.001 eta 10.000 biztanle bitarte dituzten Kanariar uharteetako udalerrri eta kabildoetan Udal Hauteskundeetako zerrendetan sexu berberaren partaidetza-proporzioa ez da ehuneko 70 baino handiagoa izango eta ezta ehuneko 30 baino txikiagoa ere.

3. 2.000 biztanle baino gutxiagoko Kanariar uharteetako udalerrri eta kabildoak Udal Hauteskundeetan aurreko atalean ezarritakoa betetzeaz salbu geratuko dira.”

(29) Jardunaldietako egunkaria. Diputatuen Kongresua, 243 zk.. VI. Legealdia, 12.431 or. eta hurrengoak.

kutsi ditu: %36, aurreko legealdian baino zazpi portzentaje-puntu gehiago (30). Inongo zalantzarik gabe, Rodriguez Zapateroren Gobernuaren egitura paritarioa gertaera historiko gogoangarri bat da; egitura horrek Suediaren maila berean kokatu gaitu, emakumeen partaidetza politikoan aitzindari den herrialdearen, eta orain urte batzuetatik emakume eta gizonen kopuru berberaz osatutako Exekutibo bat duen herrialdearen pare (31).

Autonomia-erkidego batzuek euren hauteskunde-araudiak aldatzeko proiektuak egin zituzten: Balear uharteek eta Gaztela-Mantxak hauteskunde-legeen aldaketak onartu zituzten, hauteskunde-etako zerrenda-gaiak emakume eta gizonak txandakatuza osa zitezten. Estatuko Gobernuak bi autonomia-erkidego horietako legeei errekurtsua jarri zien Konstituzio Auzitegiaren aurrean, eta bertan behera geratu ziren CE 161.2 artikuluari jarraiki, artikulua horren arabera, Autonomia-Erkidegoetako erakundeetatik ateratako xedapen edo erabakiak bertan behera geratzen baitira horien kontrakoa errekurtsua jartzen duena Gobernuak baldin bada, eta Konstituzio Auzitegiak errekurtsua baieztatu edota kendu egin behar du gehienez ere bost hilabeteko epean. Kasu horretan, Konstituzio Auzitegiak errekurtsua berretsi zuen.

Errekurtsio horrek, argi dago, geldiarazi egin zituen beste autonomia-erkidegoetan parekotasunaren aldeko alderdi politikoek inolako aurreproiekturik aurkeztea, aurkeztutako errekurtsioari buruzko erabakiaren zain baitzeuden. 2004ko martxoaren 14ko hauteskunde orokorren ondoren, egoera hori aldatu egin daiteke, baldin eta Gobernuak bertan behera uzten baditu, aurreko legealdian eta hauteskunde-programan defendatutako jarrerari jarraiki egitea espero den moduan, aurreko Gobernuak Balear uharteetako eta Gaztela-Mantxako legeei jarritako errekurtsioak (32).

3.1.2

AUTONOMIA-LEGEAK

Interesgarri iruditu zaigu Autonomia Erkidegoek landutako proposamenak azaltzea. Horietako batzuk onartuak daude (Balear uharteak eta Gaztela-Mantxa) eta beste batzuk, aurkeztu egin baziren ere, zegozkien Ganberak ez zituzten aintzakotzat hartu. Proposamen horiek guztiek erakusten dute Ganberatako alderdiek emakumeen eskakizunek lege maila izatea nahi dutela, euren al-

(30) Gobernuko Lehen Presidenteordeak esandakoaren arabera, emakumezko diputatuak honakoa esan lezaketek "Kongresuan emakume askoren lan eta esfortzuari esker gaude eta horiekin zorretan gaude moralki" (*El País Semanal*, 2004.05.02).

(31) Europar Batasunean, Danimarkan emakumezko ministroak % 43 dira eta Finlandia, Holanda, Erresuma Batua, Alemania eta Belgikak % 39 eta % 33ko proportzioak mantentzen dituzte.

(32) Prentsak jaso duen oihartzunaren arabera, Gobernuak autonomia-legeen kontra jarritako 300 errekurtsioetatik 80 kentzeko asmoa du. EL PAÍS, 2004.05.19: "Parekotasuna hauteskunde-zerrendetan. Administrazio Publikoen Ministerioaren txostenak proposatzen duenaren arabera, hauteskunde-zerrendetan gizon-emakumeen arteko parekotasuna defendatzea helburu zuten Gaztela-Mantxako eta Balear uharteetako legeen kontra jarritako errekurtsioa kendu aurretik, Hauteskunde Erregimen Orokorriari buruzko Lege Organikoa aldatu behar da.

derdiak gidatzen dituzten estatutuetan nazioarte mailan ere onartuak, eskakizun horiek nazioarte mailan ere euren alderdien gidari diren estatutuetan onartzen baitira (33).

BALEAR UHARTEAK

Les Illes Balears autonomia-erkidegoak 2002ko apirilaren 19an argitaratu zuen 8/1986 lege-proiektua, azaroaren 26koa, Hauteskunde Legea aldatzeari buruzkoa. Balear uharteetan parlamentu-txosten bat idatzi eta erabaki zen Balear uharteetako parlamentuak Gobernu zentrala eta balearra Hauteskunde Lege erreformak egitera bultzatu behar zituela, hauteskunde-zerrenda osoan gizon eta emakumeen partaidetza orekatua eta parekotasuna egi bihurtzeko. Txostenaren ondorioak gobernu balearrak berak txostenaren erabakia betetzeko landutako lege-proiektua argitaratu zuen egun berean eta aldizkari berean argitaratu ziren.

Aipatu proiektuaren eztabaida 2002ko ekainaren 18an egin zen ezohiko bilkura baten bitartez eta 30 aldeko boto eta 28 kontrako jaso ondoren, onartu egin zen. Lege-proiektu horrek Hauteskunde Legearen 16. artikulua aldatzen du, horrela, 1. artikulua hasierako idazkian hiru paragrafo baldin bazituen, aldaketarekin sei paragrafo izatera pasatzen da, eta 4. atalak (34), eta hau da gure azterketaren xedeari gehien axola zaiona, partaidetza politikoan berdintasunaren printzipioa ezartzen du, horretarako, gizon eta emakume kopuru orekatua duten hautagai-zerrendak osatuz eta beti ere sexu bateko nahiz besteko hautagaiak txandakatuz.

17. artikulua ere aldatuta gelditzen da 16. eta 17. artikuluen artean egindako aldaketa bat dela medio, baina gure azterketarako interesgarri zaigun bakarra 16. artikuluko 4. atalean egindakoa da.

(33) Nazioarteko Sozialistek 2003ko abuztuan eguneratu zuen erakunde horretako partaide diren eta emakumeen partaidetzarako kuota sistema ezarrita duten alderdien zerrenda. Portzentaje ezberdinekin, baina guztira 81 dira kuota sistema barne hartzen dutenak.

(34) 16.4. artikulua (berria). "Partaidetza politikoan berdintasunaren printzipioa eraginkorra izan dadin, hautagai-zerrendek gizonetzko eta emakumezko kopuru orekatuak izan behar dituzte. Zerrendak sexu bateko nahiz besteko hautagaiak osatuko dira, modu txandakatuan ordenatuta":

GAZTELA-MANTXA

Balearr uharteetako autonomia-erkidegoarekin batera, erkidego hau bera izan zen demokrazia paritarioari lege maila ematen bigarrena; Ekainaren 27ko 11/2002 Legearen bitartez (35), abenduaren 23ko 5/1986 Legea aldatu zuen, autonomia-erkidego horretako Hauteskunde Legea, eta 23. artikuluari paragrafo berri bat gehitu zion autonomia-erkidegoko hauteskunde prozesuetara aurkeztuko ziren hautagai-zerrendetan emakume eta gizonak txandakatu zitezela, sexu batekoak postu bikoitiak eta besteak bakoitiak. Hauteskunde Batzordeak ezin ditu baldintzak betetzen ez dituzten hautagai nagusien nahiz ordezkoren zerrendak onartu.

ANDALUZIA

Autonomia-erkidego honetan ez-legezko proposamen bat onartu zen (aurrerantzean ELP) eta Andaluziako hauteskundeetan autonomia-erkidego horretako gobernuari demokrazia paritarioa sortuko zuen lege-proiektu bat (aurrerantzean LP) aurkeztea eskatu zitzaion. ELPak Gobernuari bidali beharreko testuaren ildo orokorrak zein izan behar ziren iradokitzen zuen; pizgarri ekonomikoak ematearen alde egiten zuen, sexu-etako batek ere %60ko presentzia baino gehiago eta %30a baino gutxiago ez izateko zerrendak bultzatzeko, era berean, Gobernuak ELParen mandatu betetzeko zuen epea zehazten zen, hurrengo jardunaldietako garaiak (2002ko iraila-abendua), eta lege-proiektua parlamentuko taldeen ahalik eta adostasun maila altuenarekin burutzea (36). Gobernuak ez zuen Ganberaren mandatu bete.

(35) 2002ko ekainaren 27ko 11/2002 Legea, Gaztela-Mantxako Hauteskunde Legeari buruzko abenduaren 23ko 5/1986 Legea aldatzen duena.

Lehen artikulua.

Gaztela-Mantxako Hauteskunde Legeari buruzko abenduaren 23ko 5/1986 Legearen 24 bis artikuluari 1 bis atal berri bat gehitu zaio eta honela dio:

Ordezkaritza politikoan berdintasunaren printzipioa bermatzeko, alderdi politikoek, federazioek, koalizioek edo hautesle-taldeek aurkeztutako hautagai-zerrendek gizon eta emakumeak izango dituzte, sexu batekoak postu bikoitiak beteiko dituzte eta besteak bakoitiak. Hauteskunde-batzordeak agindu hau betetzen dituzten hautagai-zerrenda nagusi nahiz ordezkoko bakarrik onartuko ditu.

Lege horrek pertsona hautetsien Estatutuari eragiten dion bigarren artikulua bat ere badu.

(36) Andaluziako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala (BOPA), 157 zk., 8.499 or.

Parlamentuko talde mistoak LPP bat aurkeztu zuen ia urte bete beranduago, Andaluziako Hauteskunde Legeari buruzkoa (37), urtarrilaren 2ko 1/1986 Legea aldatzeko. Lege-proposamen hori aurrez demokrazia paritariora barneratzeko asmoz idatzitakoak baino konplexuagoa zen, izan ere, bi artikuluetatik lehenak hauteskunde sistema osoa berrikustea proposatzen zuen eta bigarrenak, berriz, proposamenaren egileek *ekintza positiboko neurriak* deritzotena barneratzea proposatzen zuen. Horretarako guztirako, 23. artikuluari atal berri bat gehituko litzaioke, Andaluziako Hauteskunde Legean hautagai-zerrendak aurkeztea arautzen duena, zerrendetako gizon eta emakumeen kopurua orekatua izatea helburu, horrela, kopuru berberak izateko edota, alderik balego, alde hori bat baino handiago ez izateko. Berdintasun hori zerrendaren osotasune-

(37) Andaluziako Aldizkari Ofiziala (BOPA), 288 zk., 2002.04.09. datakoa, 16.152 or. eta hurrengoak.

2. artikulua

Honako aldaketa hauek sartu dira:

Lehena. Andaluziako Hauteskunde Legeari buruzko urtarrilaren 2ko 1/1986 Legean, 23. artikuluan honakoa dioen 6. atala sartu da:

6. "Barruti bakoitzeko hauteskundeetako zerrenda bakoitzak gizon eta emakumeen kopuru orekatua izan beharko du, sexu bateko eta besteko hautagai kopurua berbera izateko edo bata bestea baino bat gehiago izan ez dezan. Berdintasun hori zerrenda osoan mantenduko da eta sei hautagai bakoitzeko, lehenengotik azkenera arte."

Bigarrena. Andaluziako Hauteskunde Legeari buruzko urtarrilaren 2ko 1/1986 Legean, 29. artikuluan honakoa dioen 4. atala sartu da:

4. "Artikuluan aipatzen den komunikabideetako doako denbora soilik aurreko hauteskundeetan edo baliokideetan lortutako postuak betetzeko hautagai-zerrenda orekatuak aurkeztu dituzten alderdi, federazio edo koalizioei dagokie."

Hirugarrena. Andaluziako Hauteskunde Legeari buruzko urtarrilaren 2ko 1/1986 Legean, 46. artikuluan honakoa dioen 4. atala sartu da:

4. "Artikulu honetan aipatzen diren dirulaguntzen aurrerapenak hartzeko eskubidea soilik aurreko hauteskundeetan edo baliokideetan lortutako postuak betetzeko hautagai-zerrenda orekatuak aurkeztu dituzten alderdi, federazio edo koalizioei dagokie."

Laugarrena. Andaluziako Hauteskunde Legeari buruzko urtarrilaren 2ko 1/1986 Legean, 45. artikuluan honakoa dioen 5. atala sartu da:

5. "Hautetsiak izendatu ondoren generoaren aldetik ehuneko hamarreko desoreka baino handiagoa duten alderdi, federazio eta koalizioek artikulu honetako dirulaguntzak jasoko dituzte, baina bi generoen arteko aldearen proportzio berean murriztuak.

Dirulaguntzetatik murrizten diren kantitateak genero berdintasuna sustatzeko programetara bideratuko dira."

Bosgarrena. Andaluziako Hauteskunde Legeari buruzko urtarrilaren 2ko 1/1986 Legean, 47. artikuluan e) atala sartu da:

e) "artikulu hau postaz bidaltzeari dagokion gastua ordaindu egingo da soilik hautesleen alderdiak, federazioak, koalizioak edo taldeak 29.4. artikuluko baldintza betetzen baldin bada eta hautesle guztien kopurua genero berdintasunetik heren bat desbideratzen ez baldin bada."

an zaindu behar zen eta 6 izen bakoitzeko. LPPak parekotasuna betetzea bultzatzen zuten neurriak proposatzen zituen.

Edukia kontuan hartuta, badirudi ekimen hori, Frantziak burutu zuen erreforma aipatzerakoan erabilitako testuan ikusi dugun bezala, Frantziako araudiak jarraitutako irizpideetan oinarritzen dela. Parlamentuko talde mistoak aurkeztutako LPPak Andaluziako Ganberaren oniritzia jaso zuen eta Andaluziako gobernuari bidali zitzaion. Andaluziako Gobernuak lege-proposamena tramitatzeari uko egin zion, probintzia bakoitzeko ordezkarien banaketa eta hauteskunde-sistema aldatzen zenez, autonomia-estatutua aldatzea zekarrelako eta, bestetik, Andaluziako Hauteskunde Legearen erreforma (38) burutzeari buruz parlamentuak onartutako mandatuaren gainetik ziholako. Azken argudio hori puntu honetan bertan jorratu da eta oraindik ez da izapidetu.

2003ko abenduan genero gaiko hainbat neurri onartu ziren Zerga eta Administrazio Neurriei buruzko Legearen VIII. Kapitulu gisa (39). Kapitulu horrek bi artikulua ditu eta bigarrenak legeak paritarioa izan behar duela xedatzen du, sexu batekoak %60 baino gehiago ez izatea eta besteak %40 baino gutxiago ez izatearen proportzioa errespetatu behar duela, eta Andaluziako Batzordeko Administrazioaren organo aholku-emaileen egiturak nolako izan behar duen xedatzen du (40). Lege hori martxoaren 9ko 93/2004 dekretuak garatu du (41).

ARAGOI

Parlamentuko Talde Mistoa osatzen zuen Izquierda Unidak aurkeztu zuen otsailaren 16ko 2/1987 Legea, Aragoiko autonomia-erkidegoko Hauteskunde Legea (LECA), aldatzea helburu zuen LPP.

(38) BOPA 300 zk., 2002.05.02. datakoa, 16.932 or. eta hurrengoak.

(39) Parlamentuan dagoeneko ohikoa da aurrekontuei buruzko lege-proiektua Zerga eta Administrazio Neurriei buruzko Legearekin batera aurkeztea, horrela bada, lege hori "lege lagungarri" gisa ezagutzen da. Lege mota horiek hainbat lege aldatzen dituzten mota guztietako arauak izaten dituzte. Nahiz eta doktrinak kritikatu egiten dituen, oraindik orain erabili egiten dira.

(40) 140. artikulua. Andaluziako Batzordeko Administrazioaren organo aholku-emaileen osaera paritarioa.

1. Andaluziako Batzordeko organo aholku-emaileak sortzerakoan gizon eta emakumeen partaidetza paritarioa duen osaera zaindu beharko da. Irizpide horri berari jarraitu beharko zaio aipatu organoak aldatu edo berri behar baldin badira.

2. Horretarako, kasu bakoitzerako sexu bakoitzaren ordezkariak gutxienez ehuneko 40 izango da. Zenbaketa horretatik kanpo geldituko dira betetzen duten kargu espezifikogatik kideak direnak.

3. Ordezkariak izendatu edo proposatzen duen instituzio, elkarte eta erakunde orok izan beharko du kontuan aurreko atalean aipatutako portzentajea.

(41) BOJA 251 zk., 2003ko abenduaren 31koa. BOJA 2004ko martxoaren 12koa.

Proposamen horren aurretik Aragoiko Gorteek ez-legezko proposamen bat aurkeztu eta onartu zuten (42), Parlamentuko Taldeak berak ere sinatua eta helburua, batetik, Aragoiko Gobernuak Estatuko Gobernuari LOREG legearen erreforma eskatzea zen, hautagai-zerrendetan gizon eta emakumeen kopuru orekatua egoteko asmoz eta, bestetik, Aragoiko hateskunde-leggedian gizon eta emakumeek hauteskunde-mandatuak eta funtzioak betetzeko aukera berdintasuna izan dezaten neurriak hartzea eskatzen zen (43).

Urte bete baino gehiago pasa zen Aragoiko autonomia-erkidegoko Gobernuak Ganberak onartutako ELPan ezarritakoa betetzen ez zutela, eta Ezkierda Unida taldeak beste ELP bat aurkeztu zuen, autonomia-erkidegoko Hauteskunde Legearen 19.1 artikulua aldatzeko, eta zerrendek gizon eta emakumezkoen kopuru orekatua izateaz gain, modu txandakatuan antolatuta egon zitezela (44).

Proposamen horrek LECA legearen 19.1 artikulua aldatzea zuen helburu: "Hautagai bakoitza hautagai-zerrendaren bitartez aurkeztuko da"; artikuluko horri Balear Uharteetako Autonomia-Erkidegoan proposatu eta onartutako testu bera gehituko zaio.

VALENTZIAKO AUTONOMIA-ERKIDEGOIA

Valentziako Gorteetan Valentziako Hauteskunde Legea aldatzeko LPPa aurkeztu zuen (45) alderdi sozialistak 2003ko urtarrilaren 27an, eta helburuak bi ziren. Lehenik, 26. artikuluan puntu berri bat sartzea, hautagai-zerrendek gizon eta emakumeak txandaka zitzaten eta, horrela, sexuetako batek ere %60 baino gehiagoko edo %40 baino gutxiagoko ordezkari izan ez zezan eta, bigarrenik, 27. artikuluko atal bat aldatzea, legean gizonetako zein emakumezko hautagaiei buruz hitz egin zedin eta 26. artikuluko gehigarria kontuan har zedin.

Parlamentuko talde berak beste proposamen bat sinatu zuen (46), Hauteskunde Legea aldatzeko ekimenarekin koordinatuta eta Valentziako Gorteetako Araudia aldatzea helburu zuena. Bigarren ekimen horrek Valentziako Gorteek aukeratutako karguetan parekotasuna egotea zuen helburu

(42) Ez-legezko proposamena 112/01 zk., gizon eta emakumeek hauteskunde-mandatu eta funtzioak aukera berdintasunean betetzeari buruzkoa, IUA parlamentuko talde mistoak aurkeztua, 2001.04.26 datako BOCA 125 zenbakian argitaratua.

(43) Ekimen hau 2001.10.18 eguneko Osoko Bilkuran onartu zuten parlamentuko hiru taldek (Ezkierda Unida, Sozialistek eta PAR), Chunta Aragoiesista abstenitu egin zen eta Alderdi Popularrak kontra bozkatu zuen. Onartutako testua 2001.10.25 eguneko BOCA 170 zenbakian argitaratu zen.

(44) BOCA 246 zk., 10449. or.

(45) BOCV 200 zk., 29.083. or.

(46) BOCV 200 zk., 29.095. or.

(%60 baino gehiago sexu berekoak ez izatea baina ezta %40 baino gutxiago ere), kopuruaren aldetik posiblea zen guztietan (47).

4.

LCR&G Legea *aldatzeko aukerak*

Gure ustez, Hauteskunde Legea aldatzeko proposamenak hiru puntu hauek ukitu beharko lituzke:

1. Hainbat artikulutako edukia aldatzea, kargu publikoetan sexu bietako pertsona kopuru orekatua egoteko; 2. Lan-munduko gizarte-eskubideak politika munduan islatzea; 3. Lege-hizkuntzaren zuzentasuna, zuzentasuna terminoaren bi zentzuetan.

1. Edukia aldatzea sexu bietako pertsona kopuru orekatua egoteko

Kargu publikoak betetzeko sexu bien presentzia edo proportzionaltasunaren alde egiteko lege-aldaketak hainbat modutara proposa daitezke, horietako batzuk gaiari buruzko nazioarteko testuetan ere proposatutakoak. Beti ere hautagai-zerrendetan sexu bakoitzeko portzentaje jakin batean oinarrituta, hauteskunde-legedia hauetako neurrietako baten bitartez alda liteke:

- Onartuak izateko hautagai-zerrendak Hauteskunde Legeak erabakitako portzentajearen arabera osatu behar izatea. Baldintza hori betetzen ez duten zerrendei ez litzaieke izena ematen eta, beraz, hauteskundeetan parte hartzen utziko (48).
- Lerma bidez baldintza hori betetzen ez duten hautagai-zerrenden alderdiei dirulaguntzei dagokionez zigortzea (49).
- Hautagai-zerrendak portzentajeen irizpideak erabiliz osatzen dituzten alderdiak lehenestea (kasu horretan ez lukeen nahitaezko baldintzaren izaera izango), eta estatuko dirulaguntzetan haborokin bat ematea (50).

(47) Orri hauek idatzi eta gutxira Valentziako Gorteek aukeratutako bi erakunde berritu dira, *Sindicatura de Cuentas* eta *Consell Valencià de Cultura*. Hauek dira parlamentuko taldeek aurkeztu eta 2004ko maiatzaren 25eko Osoko Bilkuran bozkatu zituzten proposamenak: *Sindicatura de Cuentas* (Popularrek gizon 1 eta emakume 1 eta Sozialistek gizon 1). *Consell Valencià de Cultura* (Popularek 5 gizon eta emakume 1, Sozialistek 3 gizon eta emakume 1 eta EU-EV-EV: Entesa, emakume 1).

(48) Honela diote aurkeztutako proposamenek: “deberá” (beharko du) (alderdi sozialistak Kongresuan aurkeztutako lege-proposamena), “han de tener” (izan behar dute) (Balear uharteak), “la Junta electoral sólo aceptará” (Hauteskunde Batzordeak soilik onartuko du) (Gaztela-Mantxa).

(49) Frantziako Hauteskunde Legeak hartu duen aukera da.

(50) Aukera hau alderdi sozialistak Andaluziako Parlamentuan 2001/05/29 egunean proposatutako ez-legezko proposamenarena zen. Ikus Holgado, M.-ren lana “Financiación de partidos y democracia paritaria”, *REP*, 115.

- Jabetza publikoko komunikabideetan doan ematen zaien denboran luzapen bat emanez lehenestea, hauteskunde prozesu batean parte hartu behar duten alderdiek herritarrei euren proposamen politikoak adieraz diezaieten (51). Horrela, emakumeek, bestela ere komunikabideetan duten presentzia txikiagoa denez, komunikabideetan gehiago agertzeko aukera izango lukete.
- Hautagai-zerrendak gizon eta emakumeek osatzen dituztela, aurreikusitako portzentajearen arabera, edota onarpen baldintza gisa portzentajea ezarri behar izan gabe, alderdi politiko-
ei emandako haborokina handitu liteke emakume batek lortu edo betetako eserleku bakoitzeko (52).

2. Lan-munduko gizarte-eskubideak politika munduan islatzea

Parlamentuetan emakumerik ez daudenez edo gutxi daudenez, eta parlamentu-lana lan-harremannen kontzeptuan sartzeko zailtasunak daudenez, oro har, parlamentuko jarduerak betetzen dituztenek ez dituzte edozein pertsona langileri eskubide gisa onartzen zaizkion baldintzak. Hainbatetan politikaren ideia liberal eta elitistaren hondakin gisa gelditzen den egoera berezi ho-

(51) Hauteskunde kanpaina garaian, hauteskundeetan parte hartzen duten alderdi politiko, federazio, koalizio eta taldeek jabetza publikoko komunikabideetan doako espazioa izateko eskubidea dute. Denbora aurreko hauteskundeetako emaitzetan oinarritzen da eta 10 minutu ematen zaizkie parte hartu ez zutenei. Denbora 15, 30 eta 45 minutuetara igotzen da boto portzentajearen arabera. Emakumeen presentzia bultzatzeko, doako espazio-banaketa horretan, demokrazia paritarioak aldarrikatzen dituen hautagai-zerrenda horietara egokitzen diren zerrenden alde egingo da, eta legean ezarritakoaren arabera proportzioan dagokiena baino minutu gehiago emango zaizkie. Emakumeak direla eta, minutu igoera hori emango balitzate, presentzia gehiago lor zezaketen eta, horrela, aldaketa horrek eragin bikoitza izango luke —Parlamentuen arteko Batasunak adierazi duen moduan— muturrekoa pentsamendu batzuentzako, beharrezkoa komunikabideek igortzen duten emakume politikarien irudia irudi femininora mugatu ez dadin, baizik eta bizitza politikoko aktore gisa ere ager daitezten.

(52) Horrela da, hauteskunde-prozesu batek ekonomikoki ere gastua dakar, eta Estatuak dirulaguntzak ematen dizkie alderdi politiko, federazio, koalizio eta taldeei hautesleak erakar ditzaten. Ematen diren dirulaguntzak lortzen diren eserleku kopuruaren arabera dira, lortutako boto bakoitzeko ordezkaritza lortutako hautagai-zerrenda horientzat eta, Senatuaren kasuan, eserlekua lortutako pertsona bakoitzak lortutako boto bakoitzeko (LOREG legearen 127. eta 175. artikulua). Hori da Valenziako Autonomia-Erkidegoko Gizon eta Emakumeen arteko berdintasunaren aldeko Legeak duen proposamena, 2003ko martxoaren 13koa, nahiz eta gai hori barne hartzen duten aginduak bertan beharrezkoak diren Valenziako Hauteskunde Legea aldatzen den arte.

Kasu horretan, ekintza positiboa honakoa litzateke: emakumeek betetako eserlekuak, sexuen arteko parekotasuna errespetatzen duten hautagaien bozei eta emakumezko Senatari bakoitzak lortutako bozei legez emandako dirulaguntzaren portzentajea %50 igotzea.

rrren inguruan hausnartu dugu, ongizate-estatuaren gainbehera islatzen duen egoera, euren bizitzako denboraren zati bat gizarte osoarentzat “publikoa dena” kudeatzen jarduten duten pertsonen eragiten diena. Egia da gehiago direla hautagai izan nahi duten pertsonak betetzeko postuak baino, beraz, ez dirudi eskaintza bultzatzeko mekanismorik behar denik. Egia da, halaber, iritzi publikoa ez dela laguntzak ematearen aldeko, are gutxiago politikarengan dagoen sinismena hain txikia den garai hauetan, ez klase politikoa sartzeko baina, batez ere, ezta ateratzeko ere. Dena den, hein batean, lege-hutsune horietako batzuk konpontzen joan dira, hala nola, zerbitzu sanitarioak, edo kargua betetzen nahiz lan horrekin lotuta ez dauden jardueretan gertatutako istripu edo gaixotasunetatik heriotza edo elbarritasun arriskua dela eta ematen diren zerbitzu sanitarioak edo estaldura. Baina Ganberak osatzen dituzten pertsonen Estatutua guztiz arautzea falta da (53) eta, batez ere, amatasun eta aitasun egoerak egokitzea.

Gaur egun ugaritu egin da parlamentarien kopurua eta, hein batean, politikara iristen den emakume-eredua ere aldatu egin da, izan ere, gure demokraziaren lehen legealdietan emakume ezkongabea, dibortziatua edo familiaren zama gaindituta izateko adinean zegoen emakumea izan ohi baitzen. Zorionez ugaritu egin da diputatu diren emakumeen kopurua eta, ondorioz, bide anitz zabaldu dira, Ganberetara iristeko adina txikitu egin dela ikus daiteke eta egoera pertsonalen aukera ere zabaldu egin da (54). Horrela bada, parlamentuko zereginen eta, esan dezagun, emakume izatearekin lotuta dauden egoerak lotu ahal izan dira (55).

Andaluziako Parlamentuan aipatu dugun egoeretako bat sortu zen: haurdun zegoen parlamentari bat ez zegoen parlamentuan bertan Andaluziako Gobernuko Presidentearen inbestidura-bozketan haurraz erdi zelako (56). Botoa pertsonala eta besterenezina da, Parlamentuko izatearen zati da, ordezkartzaren zati, nahiz eta, izatez, parlamentuko talde baten zati diren pertsona multzoak boto bera eman, bozketaren errituak dio bozketaren unean ezin dela aretotik sartu edo irten eta, normalean alderdi politikoek, zigortu egiten dituzte arrazoirik gabe bertaratu ez badira. Bestalde,

(53) Laneko bizitza eta familia-bizitza bat egiteko legeak ez du hautatutako pertsonen egoera kontuan hartzen (udal, erkidego eta estatu mailako karguak). Frantzia lege-proiektu bat lantzeko azterketa bat egiten ari dira baina hasi berterik ez dira egin.

(54) Freixes, A. irakasleak 2004.05.22 eguneko El País egunkarian ematen dituen datuek erakusten dute istorio pertsonalak oraindik ere modu ezberdinean hartzen direla kontuan: seme-alaben batez besteko kopurua 2,75 da ministro bakoitzeko eta 0,625 emakumezko ministro bakoitzeko. Gizonezko ministroen kasuan, guztiak daude ezkontuta, emakumezkoetan, berriz: hiru ezkontuta daude, hiru ezkongabe daude eta bi bananduta edo dibortziatuta.

(55) Gizon batzuk ere hasi dira gurasoen opor baimenaz gozaten eta, beraz, “emakumezkoen baldintza” baldintza orokor bihurtu beharko litzateke, nahiz eta kasu bakan horiek ez duten alde batera uzten emakumeak direla, ia beti, lizentzia eskatzen dutenak.

(56) Nahiz eta botoa Ganberatik kanpo, Notario aurrean emateko aukera aurreikusi zen, azkenean naturak halako neurrira jo behar ez izatea eragin zuen.

parlamentuko taldeak ezin du boto bat galtzen utzi Ganbera osatzen duten parlamentuko taldeen arteko eserlekuen korrelazioa hain estua denean, ezen boto batek emaitza alda dezakeenean. Kasu hori dela eta, Andaluziako Parlamentuko Araudian 86. artikulua idatzi zen, errepika zitekeen egoera horri erantzuteko eta, aipatutako kasuetan bezala, bozketa publikoa deitzen zenerako (57).

Adibide horri jarraiki, Kanariar Uharteetako Parlamentuak Andaluzian lau urte lehenago onartutako antzeko arau bat sartu zuen Araudiaren erreforman, horrela, Ganberan egon gabe botoa igortzeko arrazoiak ospitalean egoteko kasura zabaldu ziren, parlamentariak ere egoera hori bizi baitzezaketan (58).

Dena den, eserleku bat betetzen duten emakumeek ez diete herritar gisa dagozkien eskubideetako bat berari ere zertan uko egin behar, ezta pribatu eta publikoa dena batera eramateko zeregin konplexuaren zama gainean hartu behar ere, baina antzinako rol banaketak are zailtzen du hori eta emakumezkoen langabezia-tasa altuagoa duen lan-merkatuko desoreka eragiten du. Hausnarketa horren ildotik, lanen batean aldarrikatu dugu legea emakumezko parlamentariak emakumezko langileei amatasun kasuetan ematen dizkien eskubide berberak onartu beharko lizkiekeela, horrela, amatasun-bajaz gozatu ahal izateko eta, epe horretan, lan-munduan gertatu ohi den bezalaxe, beste pertsona batek ordezkatu ahal izan dezan (59). Gure parlamentuko araudian gure kultura politiko berberako herrialdeetan eman den irtenbide bera aplikatu behar da, beste hainbatetan egin den bezala eta behar den arreta eta zehaztasuna kontuan hartuta.

Parlamentu-zuzenbidearen azterketak erakusten duenaren arabera, gutxi dira parlamentarien ordezkatzeari ageri duten araudiak eta, gutxi horien artean, ez dago Espainiakoa. Eskubide hori onartzen den herrialdeetan (Danimarka, Portugal eta Suedia) ordezko batek titularra den pertsonaren tokia har dezake (baita tutoretzadun gisa jokatu ere) erantzukizun guztietarako. Danimarkan berariazko aipamena egiten zaie haurdunaldi eta jaiotza egoerei (60). Orain dela gutxi Andaluziako eta Kanariar Uharteetako Legebiltzarretako Araudietan burutu diren egokitza-

(57) Andaluziako Parlamentuko Araudia, 86 art.: "Haurdunaldi edo erditze berrien kasuan, eta soilik Araudiak deialdi publiko bitartez bozketa berariaz eskatzen duen kasuetan, ez da ezinbesteko baldintza izango dagokion diputatua Ganberan izatea horren bozak balioa izan dezan"

(58) Kanariar Uharteetako Parlamentuko Araudia, 90 art. "Aipatu kasuetan (deialdi publikoko bozketa), Ganberako kide bat ospitalean balego edota diputaturen batek dagokion osoko bilkurara haurdunaldi edo erditze arrazoiengatik joan ezingo balu, botoa Ganberako Mahaiko Akordioak ezarritako modu eta bermeen arabera igorri ahalko du, Araudi honen 28.1.7. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki".

(59) SEVILLA MERINO, J. "Ley Electoral y Acción Positiva", in *Parlamento y Sistema Electoral*. AELPAren IV. jardunaldiak, Arantzadi, 1999.

(60) SORIANO HERNÁNDEZ, E. "El Estatuto de los Parlamentarios de las Comunidades Autónomas", in *Temas del Senado*. Madril, 2001.

penei buruzko bi lan argitaratu dira, eta epaileren batek parlamentuko bozketaren batean egoteko ekidinezina den eragozpen bat duenean sortzen den arazoa aztertzen da. Javier Terron (61), Andaluziako Parlamentuko abokatuak, gure ordenamenduari dagokionez, Ganberako erabakiek herriak hauteskundeetan adierazitako borondatea fidelki islatzea zein garrantzitsua den nabarmentzen du eta, beraz, ezinbestekoa dela alderdi politikoen arteko korrelazioa indargabetzea auzazko egoerak direla eta; horrela bada, Zuzenbidea Andaluzian jazo zen egoera berriei erantzutearen aldeko da. Ezagunak diren irtenbideen artean (ordezko botoa, urruneko botoa prozedura elektronikoen bitartez eta diputatuaren aldi baterako ordezkapenaren bitartez) autore horrek nahiago du ordezkapenaren sistema, pertsonak bizi duen egoeragatik Parlamentuko bilkuretara ezin joan eta, Ganberako organo gidariak zehazten duen prozedura erabilita botoa igortzearen sistema baino (62). Amatasun-bajaren kasuan, erantzun eraginkor bat ematen duen neurri bakarra da, bai emakumeei bai parlamentuko lanari (63).

Bestalde, Martin Vida eta Jeronimo Sanchez-Beato irakasleek (64) bi araudiak erkatu eta aztertu zituzten eta uste dute haurdunaldia eta ospitalean egotea ezin direla konparatu ikuspuntu teorikotik, izan ere, "amatasuna balio bat da eta gizarteak ere hala jaso behar du, ez gaixotasun moduan". Egile horien aburuz, arauak zehaztasun gehiago behar du eta kontu handiz erabili behar da; horrela bada, epaileen estatutua arautzearen aldeko azaltzen dira, aitalasuna eta amatasuna parlamentuko lanarekin bateragarria izan dadin (65).

(61) TERRÓN MONTERO, J. "La ausencia temporal del diputado por motivos relevantes: posibles soluciones". El Parlamento de Andalucía. Órganos de extracción parlamentaria. Órganos consultivos o de participación de designación parlamentaria. Andaluziako Parlamentuak antolatutako Azterketarako Jardunaldiak. Estatutuaren XX. urteurrena. 2004.

(62) TERRÓN MONTERO, J. op.cit. 196 or.

(63) Ordezkaritzaren alde gaude, batetik, estatuko nahiz erkidegoetako erakunde publikoak, kargu publikoak eta funtzio publikoak enpresa publikoen eredugarri izan behar direlako, horietan haurdunaldia oztopo bat baita emakumeentzat (ikus MARRADES PUIG, A.I. *Luces y sombras del derecho a la maternidad: análisis jurídico de su reconocimiento*, Universitat de València, 2002) eta, bestetik, parlamentuko lan-duintasunagatik. Ganbera batek epaile kopuru jakin bat baldin badu, aurrez ere aski aipatu dugun biztanleria/ordezkaritza irizpidez gain, Ganberako funtzioak burutzeko behar den pertsona kopuru egokia zein den kalkulatu delako da; hortik zerrendak ordezkoak izateko arrazoiak. Amatasun-baja dela eta diputatuak ordezkorik izaten ez badu, enpresa pribatuan nagusi diren estereotipo guztiak errepika daitezke.

(64) MARTÍN VIDA, M.A. eta JERÓNIMO SÁNCHEZ-BEATO, Estefanía "Andaluziako emakumezko parlamentariak bozketarako deialdi publikoa egin dute haurdunaldi edo erditu-berri kasuetarako (Andaluziako Parlamentuko Araudiaren 86.2 artikuluari buruz egindako aipamanean)". *El Parlamento de Andalucía. Órganos de extracción parlamentaria. Órganos consultivos o de participación de designación parlamentaria*. Andaluziako Parlamentuak antolatutako Azterketa Jardunaldiak. Estatutuaren XX urteurrena. 2004.

(65) MARTÍN VIDA, M.A. eta JERÓNIMO SÁNCHEZ-BEATO, Estefanía, op.cit, 224 or.

Bai Terronek bai Martin eta Jeronimok, lotu egiten dituzte aipatu gaia konstituzioak berdintasunaz eta sexuagatik ez baztertzearen inguruan duen ideiarekin, eta ikuspuntu horretatik, modu positiboan balioesten dituzte araudietan ditugun arauak. Balioespen horrekin bat gatoz, eta zabaltzea espero dugu, epaileen estatutuaren erreformari ekin ahal izateko, parlamentuaren bilakaeran sortu diren behar eta egoerekin bat. Behar edo egoera horietako bat da gizartean bizi diren egoera anitzak eta antzekoak bizi dituzten emakume eta gizonak kontuan hartzea, inondik inora ere. Ia jorratu ere egin ez den gaia da, baina, argi dago Zuzenbidearen adar den Parlamentu-Zuzenbideari agertzen zaizkion erronketariko bat izan daitekeela eta demokraziaren legezkotasunean eragin handia izango du.

3. Lege-hizkuntzaren zuzentasuna, terminoaren zentzu bikoitzean

Bi sexuetako pertsonak dauden talde batetaz ari garenean maskulinoa femeninoaren aldean lehenesteko gramatika-arauak izugarri eragiten die hizkuntza ofizialari, publikoari, eta lege-hizkuntzari, are gehiago espazio horietan gizonezkoak ia nagusi izan diren postu edo tokietaz ari garenean. Hala eta guztiz ere, hizkuntzari bestelako terminoak gehitu zaizkio baina, zoritxarrez, horiek ere subjektuak sexuaren arabera ezberdintzen dituzte.

Esan bezala, lege-hizkuntza ez da salbuespen. Horrela bada, adibide moduan Esquerra Unida-Els Verds parlamentuko taldeak Valentziako Gorteetan behin eta berriz Ganbera horretan aurkeztu diren lege-proiektuei hizkuntza sexista zuzentzeko asmoz aurkeztutako zuzenketa jarriko dugu (66). Hizkuntzaren translazioa ez da beti erraza (67); dena den, urteak daramatzagu irakas liburuetan “gizonezkoen babesletza” sumatzen dela eta, beraz, aldekoenoi ere ahoskatzeko zail eta arraro egiten zaizkigu hainbat hitz modu femeninoan; emakume asko saiatu ere ez da egiten. Eta edonori egiten zaio nekagarri “os/as” beteriko testu edo hitzaldia. Horregatik, adituak asmakizun eta trikimailu guztiak erabili behar izaten dituzte hizkuntzan gizonezkoek duten nonahikotasuna neutralizatzeko. Bien bitartean, guk LOREG legean egiteko hainbat aldaketa proposatu ditugu, legean nolabait emakumeek hauteskunde batzarretako kide izan daitezkeela islatu ahal izan dadin, magistratu izateko baldintzak betetzen dituztela, esate baterako.

(66) Azkena, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Valentziako Erakundea sortzeko lege-proiektua.

(67) Eraitza adierazgarriak izan zituen esperientzia bat Castellóko Jaime I Unibertsitatean burututakoa izan zen. Unibertsitate horretako estatutuak sexista ez zen hizkuntza zaindu batekin onartu ziren. Hasteko, lehen idazkia femeninoan onartu zuten: emakumezko errektore, dekanok, departamentuko zuzendariak... hitz egiten zen eta, horrela, azken idazkian honakoa erabili zuten: Errektoretza, Dekanotza... Horrek, Unibertsitate hori sortzeko garaian nagusi zen gaitasun berritzaileak erakustez gain, negoziaketa prozesuetan erabilgarri diren estrategien berri ematen digu.

Ildo horretatik, herritar guztien ordezkartza adierazteko balio duen testua hartu dugu, eta gizon eta emakumeen terminoen arteko konparaketa izan zitekeenaren adibide batzuk proposatzen ditugu. Gainerako legerako eredu gisa balio lezakeen artikulua bat aukeratu dugu (68):

LOREG legearen artikulua (hizki lodiak aldaketa proposamenak dira eta parentesi artekoa ordezkatu diren terminoei dagokie)

2. artikulua

“Sufragio eskubidea adinez nagusi diren (espainiarrei/a los españoles) **nazionalitate espainiarra duten pertsona guztiei dagokie**,n aurreikusitako egoera batean aurkitzen ez direnak ...”.

9. artikulua

“Hauteskunde Batzar Nagusia erakunde iraunkorra da eta honakoek osatzen dute:

- a) Zortzi kide (Auzitegi Goreneko Magistratuak/Magistrados del Tribunal Supremo) Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak zakuratze bitartez hautatuak Auzitegi Goreneko **Magistratutza betetzen dutenen artetik**.
- b) Bost kide (Zuzenbidean, Politika Zientzian edo Soziologian katedradunak/Catedráticos de Derecho o de Ciencias Políticas o Sociología) Zuzenbide, Politika Zientziak edo Soziologia **Katedra duten pertsonen artetik** [...].

4. Kideek jatorri judiziala duten pertsonen artetik aukeratu dituzte Batzordeko (Presidentea eta Presidenteordea/Presidente y Vicepresidente) **Presidentzia eta Presidentziordetza betetzen dituzten pertsonak**, (Idazkariak) **Idazkaritzaren ardura duen pertsonak** deitutako bilkura eraikitzailean.

5. Hauteskunde Batzorde Nagusiko (Presidentea/Presidente) *Presidentzia betetzen duen pertsonak* Hauteskunde Batzordeari soilik dagozkion funtzioak beteko ditu, hauteskunde prozesuaren deialdia egiten denetik hautetsiak izendatu arte [...].

6. (Hauteskunde Batzorde Nagusiko Idazkaria (secretario) Diputatuen Kongresu orokorreko Idazari nagusia da).

Diputatuen Kongresu orokorreko Idazkaritza betetzen duen pertsonak beteko du Hauteskunde Batzorde Nagusiko Idazkaritza.

(68) Bere garaian, Diputatuez ari garenean ere Epaila (“Señoría”) terminoa erabiltzea proposatu genuen, parlamentuko eztabaidetan askotan erabiltzen den hitza baita edota –hizkuntza batzutan egiten den moduan– eztabaidan zehar edo, kasu horretan bezala dagokion taldeari erreferentzia egiten dion lege-testu bati dagokionean, maskulinoa zein femeninoa txandaka erabiltzea.

5.

Berdintasun legeak

Espainiako Konstituzioan berdintasunari buruz idazteko moduak konstituzio-testuei eta eskubideen adierazpenei jarraitzen die. Horiek berdintasuna eta bazterketa uztartzen dituzte, hala, bigarren-go hori debekatuz, nazioarteko Zuzenbideari jarraiki gehien ematen diren tratu bereizketak ekiditen dira. Espainiako Konstituzioak beste modu bat ere aurki zezakeen, emakumeen egoerari dagokionez NBek, Europako Kontseiluak eta Europar Batasunak egindako aurrerapenei gehiago egokitzen zena. Lucas Verdú (69) iradoki zuen moduan, emakumeena soilik litzatekeen estatutu bat sartzeak bereizketa eta tratu baztertzaila jasatea eragiten dieten alderdiak hartuko litzuke kontuan, eta horrek konstituzio-testua erreferentzia bat bihurtuko luke Europako herrialdeetan etorkizunean burutu diren erreformetarako.

Urteak joan ahala, legeen bitartez emakumeen eskubideak arautzeko beharra ikusi da. Berdintasun legeek eta generoaren biolentziaren kontrako legeak berandu baina, zorionez, hasi dira onartzen Verdú irakasleak garai batean azaldu zuen eta 90eko hamarkadan emakumeen erakundeek ere aurkeztu zuten proposamena. Orain arte legeak Gaztela Leonen (martxoaren 3ko 1/2003 Legea), Valentziako autonomia-erkidegoan (apirilaren 2ko 9/2003 legea) eta Galizian (uztailaren 16ko 7/2004 Legea), onartu ziren. EAEko Legebiltzarrean proiektu bat tramitatzen ari dira eta Estatuko Gobernuak ere berdintasun lege bat iragarri du.

Badirudi zerbait aldatzen ari dela. L. Oñaderrak Emakunderen 56. zenbakian "istorio honen hasieran edo amaieran ote gauden" galdegiten du, nire euskararen ezezagutzak irakurtzea eragozten didan artikulua laburpen esanguratsuan, hain zuzen ere. Dena den, haren desioarekin bat egiten dut "etorkizunean itzaropena izan nahi dut". Hezkuntzan, lan-munduan, partaidetza sozopolitikoan, kulturaren etab. aldaketak eragiten dituzten berdintasun legeek, Administrazioan genero ikuspegia barneratzeak eta gizon eta emakumeen berdintasuna defentsarako erakundeak sortzeak aldaketa hori erdiesten lagunduko dutela pentsa dezakegu, ezberdintasunak onartezinago egingo dituzten aldaketak, inondik inora ere.

6.

Ondorio gisa

Hitzaldi hau zati den Kongresuaren izenburua honakoa da: "Zein herritar-eredurantz?". Herritar hitz berak aldaketaren eta barneratzearen ideia islatzen du, gizonezkoak herritargo elkarbanatuaren proiektuarekin bat egiteko beharra. Nola Europar Batasuneko kide diren herrialde batzuetako Konstituzioetako nahiz Hauteskunde Legeetako erreformek hala berdintasun legeek dakarten garapenak, emakumeen eskubideak berdintasunezko ikuspegitik onartu behar direla erakusten dute.

(69) Verdú, L. "El valor constitucional de la igualdad y la condición femenina", *R.P.C.* 1981-1982, 27-49 or.

Bien bitartean, autonomia-erkidegoetan onartutako Hauteskunde Legeei errekurtoa jarri zitzaien Konstituzio Auzitegian eta, artean, Exekutibo berriak ez ditu aipatu errekurtoak kendu. Bestalde, ez dugu uste konstituzioaren kontrakoa denik autonomia-erkidegoek euren eremuan parekotasuna arautzea, izan ere, berdintasunaren printzipio demokratikoa hauteskunde modu ezberdinetara ere dago irekia, hizpide dugun berdintasuna lege baldintzei dagozkiena baita eta LOREG legeak Xedapen Gehigarrian, 2. atalean aipatzen diren eta nahitaez Estatu osoan aplikagarri direnetatik kanpo uzten dituen artikuluetan oinarritzen dena.

Horrela bada, hauteskundeen parekotasun konstituzionala dela dioten arrazoiak ugariak direla frogatzeko, esan beharra dago gure doktrinaren egite juridikoan konstituzioa egokitzearen aldeko nahiz kontrako arrazoiak aurkitzen ditugula (badakigu nolakoak garen legelariok). Oraingoan ere, politikak du erreformei atea ireki edo ixteko giltza. Berdintasun legeei ez zaie errekurtoa jarri. Kasu gehienetan legeak onartu dituzten autonomia-erkidegoak politikoki estatuko Gobernuarekin bat datozelako izango al da? Praktikan, hona emaitza: legeak indarrean daude, asmoa dena delakoa izanda ere.

Bestalde, hauteskunde-zerrendetan parekotasuna izateko baldintza gisa konstituzioaren erreformaren beharra ikusten ez duen doktrinarekin bat egiten dugu. Beste gauza bat da iragartzen den konstituzio-erreforma, dagokigun gaiari dagokionez, gutxienez Europako Estatuak burututako erreformen koordinatuetan kokatzea, aipatu dugun moduan, Europako Estatuetan burututako erreformetan gizon eta emakumeen arteko berdintasunari berariazko aipamena egiten baitzaio. Ikusi bezala gertatzen baldin bada, erreforma lan honetan iragarritako alderdietara zabaldu nahiko litzateke eta demokrazia paritariora berariaz adierazi nahiko litzateke, hauteskunde-zerrendetako parekotasuna baino zerbait gehiago baita. Atenaseko Adierazpenean jasota geratu den moduan, horrek guztiak gizartearen aldaketa bat eskatzen du, emakumeek bizi duten egoera baztertzailetik abiatuta sexu biek espazio guztiak (zainketak, lana, boterea...) elkarbanatzen dituzten gizarte bat proposatzen duen aldaketa.

EMAKUMEZKOEN SUFRAGIOA

(Gizonak eta emakumeak politikan: hobetu beharreko demokrazia)

Emakumeen boto eskubidearen eta hautatuak izateko eskubidearen kronologia

- 1788 Ameriketako Estatu Batuak (hautatuak izan)
- 1893 Zeelanda Berria (botoa)
- 1902 Australia*
- 1906 Finlandia
- 1907 Norvegia (hautatua izatekoa)*
- 1913 Norvegia**
- 1915 Danimarka, Islandia
- 1917 Kanada (botoa)*, Herbehereak (hautatuak izan)
- 1918 Austria, Kanada (botoa)*, Estonia, Georgia*, Alemania, Irlanda*, Kirgistan, Letonia, Polonia, Errusiako Federazioa, Erresuma Batua*
- 1919 Belarus, Belgika (botoa)*, Luxenburgoko, Zeelanda Berria (hautatua izan), Herbehereak (botoa), Suedia*, Ukraina
- 1920 Albania, Kanada (hautatua izan)*, Txekiar Errepublika, Eslovakia, Ameriketako Estatu Batuak (bozak)
- 1921 Armenia, Azerbaiyan, Belgika (hautatua izan)*, Georgia**, Lituania, Suedia**
- 1924 Kazajstan*, Mongolia, Sants Lucia, Tayikistan
- 1927 Turkmenistan
- 1928 Irlanda**, Erresuma Batua**
- 1929 Ecuador*, Errumania*
- 1930 Hego Afrika (zuriak), Turkia (botoa)
- 1931 Txile*, Portugal*, Espainia, Sri Lanka
- 1932 Maldivak, Tailandia, Uruguay
- 1934 Brasil, Kuba, Portugal*, Turkia (hautatua izan)
- 1935 Myanmar (botoa)
- 1937 Filipinak
- 1938 Bolivia*, Uzbekistan
- 1939 El Salvador (botoa)
- 1941 Panama*
- 1942 Dominikar Errepublika
- 1944 Bulgaria, Frantzia, Jamaika
- 1945 Kroazia, Eslovenia, Guyana (hautatua izan), Indonesia, Italia, Japonia*, Senegal, Togo
- 1946 Kamerun, Djibuti (botoa), Mazedoniako Jugoslavia Errepublika ohia, Guatemala, Liberia, Myanmar (hautatua izan), Panama**, Koreako Errepublika Demokratikoa, Errumania**, Trinidad eta Tobago, Venezuela, Viet Nam, Jugoslavia
- 1947 Argentina, Japonia**, Malta, Mexiko (botoa), Pakistan, Singapur
- 1948 Belgika* Israel, Niger, Koreako Errepublika, Seychelle uharteak, Suriname
- 1949 Bosnia-Herzegovina, Txile**, Txina, Costa Rica, Siriako Arabiar Errepublika (botoa)*
- 1950 Barbadoak, Kanada (botoa)***, Haiti, India
- 1951 Antigua eta Barbuda, Dominica, Granada, Nepal, San Cristobal eta Nevis, San Vicente eta las Granadinas
- 1952 Bolivia**, Côte d'Ivoire, Grezia, Libano
- 1953 Bhutan, Guyana (botoa), Hungaria (botoa), Mexiko (hautatua izan), Siriako Arabiar Errepublika**
- 1954 Belize, Kolonbia, Ghana
- 1955 Camboya, Eritrea (?), Etiopia, Honduras, Nikaragua, Peru
- 1956 Benin, Comora, Egipto, Gabon, Mali, Maurizio, Somalia
- 1957 Malasia, Zimbabwe (botoa)**
- 1958 Birkina Faso, Txad, Ginea, Hungaria (hautatua izan), Laoseko Errepublika Demokratikoa, Nigeria (?)

- 1959 Madagaskar, San Marino (botoa), Tunisia, Tanzaniako Errepublikak Batua
- 1960 Kanada (hautatua izan)***, Txipre, Gambia, Tonga
- 1961 Bahamak*, Burundi, El Salvador (hautatua izan), Malawi, Mauritania, Paraguay, Rwanda, Sierra Leona
- 1962 Algeria, Australia**, Monako, Uganda, Zambia
- 1963 Kongo, Ginea Ekuatoriala, Fiji, Iran (Errepublika islamiarra), Kenya, Maroko, Papua Ginea Berria (hautatua izan) (?)
- 1964 Bahamak**, Jamahiriya Arabiarra Libia, Papua Ginea Berria (botoa), Sudan
- 1965 Afganistan, Botswana, Lesotho
- 1967 Ekuador**, Kiribati, Tuvalu, Yemen (Errepublika Demokratikoa), Zaire (botoa)
- 1968 Nauru, Swazilandia
- 1970 Andorra (botoa), Yemen (Arabiar Errepublika), Zaire (hautatua izan)
- 1971 Suitza
- 1972 Bangladesh
- 1973 Andorra (hautatua izan), Bahrein (eskubide onartua?), San Marino (hautatua izan)
- 1974 Salomon uharteak (?), Jordania
- 1975 Angola, Cabo Verde, Mozambike, Santo Tome eta Principe, Vanuatu
- 1976 Portugal**
- 1977 Ginea Bissau
- 1978 Moldaviako Errepublika*, Zimbabwe (hautatua izan)
- 1979 Marshall uharteak (?), Mikronesia (Estatu federala), Palaos
- 1980 Irak, Vanuatu**
- 1984 Liechtenstein, Hegoafrika (gurutzatuak eta indioak)
- 1986 Djibuti (hautatua izan), Afrika erdiguneko errepublika
- 1989 Namibia
- 1990 Samoa
- 1994 Kazajstan, Moldaviako Errepublika*, Hegoafrika (beltzak)
- 1997 Arabiar Emirerri Batuak (?)

Kuwait oraindik ez da onartu emakumeen bozak eta hautatuak izateko eskubidea

* *Baldintzak eta murrizketak dituen eskubidea*

** *Baldintza edo murrizketak ezabatu dira*

EUROPAKO GANBERAK

KONGRESUA (BEHE GANBERA)

HERRIALDEA	HAUTESKUNDEAK	DIPUTATUAK GUZTIRA	EMAKUMEAK	PORTZENTAJEA
Austria	1995	183	49	% 26,78
	1999		49	% 26,78
	2002		62	% 33,88
Alemania	1994	672	176	% 26,19
	1998		207	% 30,94
	2002		194	% 32,17
Belgika	1995	150	18	% 12,00
	1999		35	% 23,33
	2003		53	% 35,33
Danimarka	1994	179	59	% 33,00
	1998		67	% 37,43
	2001		68	% 37,99
Espainia	1996	348	75	% 21,55
	2000		99	% 28,28
	2004		126	% 36,00
Finlandia	1995	200	67	% 33,50
	1999		73	% 36,50
	2003		75	% 37,50
Frantzia	1993	577	37	% 6,41
	1997		63	% 10,92
	2002		70	% 12,20
Grezia	1996	300	19	% 6,33
	2000		26	% 8,66
	2004		42	% 14,00
Irlanda	1992	166	23	% 13,86
	1997		20	% 12,05
	2002		22	% 13,25
Italia	1996	630	70	% 11,11
	2001		71	% 11,49
Luxenburgo	1994	60	12	% 20,00
	1999		10	% 16,67
Holanda	1994	150	47	% 31,33
	1998		54	% 36,00
	2003		55	% 36,67
Portugal	1995	230	30	% 13,00
	1999		43	% 18,70
	2002		44	% 19,13
Erresuma Batua	1997	659	121	% 18,36
	2001		118	% 17,91
Suedia	1994	349	141	% 40,40
	1998		149	% 42,69
	2002		158	% 45,27
Suitza	1995	200	42	% 21,00
	1999		46	% 23,00
	2003		53	% 26,50
Norvegia	1997	165	60	% 36,36
	2001		60	% 36,36

ITURRIA: Parlamentuen arteko Batasuna (Nazio Parlamentuen Nazioarteko Erakundea).

ESPAINIAKO GORTEAK

DIPUTATUEN KONGRESUA (70)

LEGEALDI ERAKITZAILEA (1977-1979)

		GIZONAK		EMAKUMEA	
UCD	166	159	%95,78	7	%4,22
Alderdi Sozialista	103	96	%93,20	7	%6,80
Alderdi Komunista	20	17	%85,00	3	%15,00
Alianza Popular	16	15	%93,75	1	%6,25
Socialistes de Catalunya	15	13	%86,67	2	%13,33
Minoría Catalanan	13	13	% 100	0	%0,00
EAJ	8	8	% 100	0	%0,00
PT Mistoa (71)	9	9	% 100	0	%0,00
	350	330	%94,29	20	%5,71

I. LEGEALDIA (1979-1982)

		GIZONAK		EMAKUMEA	
Alderdi Zentrista (UCD)	169	159	%94,08	10	%5,92
Alderdi Sozialista	98	94	%95,02	4	%4,08
Alderdi Komunista	23	21	%91,30	2	%8,70
Socialistes de Catalunya	17	16	%94,12	1	%5,88
Coalición Democrática	9	8	%88,89	1	%11,11
Minoría Catalana	8	7	%87,50	1	%12,50
EAJ	6	6	%100	0	%0,00
Euskal Sozialisten	6	6	%100	0	%0,00
Alderdi Andaluzista	5	5	%100	0	%0,00
PT Mistoa (72)	9	9	%100	0	%0,00
	350	331	%94,57	19	%5,43

II. LEGEALDIA (1982-1986)

		GIZONAK		EMAKUMEA	
Alderdi Sozialista	202	188	%93,07	14	%6,93
Alderdi Popularra	105	103	%90,10	2	%1,90
Minoría Catalana PT (CiU)	12	12	%100	0	%0,00
PT Zentrista	12	12	%100	0	%0,00
EAJ	8	7	%87,50	1	%12,50
PT Mistoa (73)	11	11	%100	0	%0,00
	350	333	%95,14	17	%4,86

(70) Legealdi hasiera bakoitzari dagozkien datuak

(71) PT Mistoa: PSP-US (6 gizon); EC-FED (gizon 1); CIC (gizon 1); EE-IE (gizon 1)

(72) PT Mitoa: UN (gizon 1); HB (3 gizon); ERC (gizon 1); EE (gizon 1); UPC (gizon 1); PAR (gizon 1); UPN (gizon 1);

(73) PT Mistoa: Agrupación de la Democracia Cristiana (19 gizon eta 2 emakume -Coalición Popular alderdiaren zerrendan-); IU (6 gizon); UEC (gizon 1); EE (2 gizon); CG (gizon 1); PAR (gizon 1); AIC (gizon 1); UV (gizon 1).

III. LEGEALDIA (1986-1989)

	GIZONAK			EMAKUMEAk	
Alderdi Sozialista	184	171	%92,93	13	%7,07
Coalición Popular	84	78	%92,86	6	%7,14
CDS	19	19	%100	0	%0,00
Minoría Catalana (CiU)	18	17	%94,44	1	%6,56
EAJ-PNV	6	6	%100	0	%0,00
PT Mistoa (74)	34	32	%94,12	2	%5,88
	345 (75)	323	%93,62	22	%6,38

IV. LEGEALDIA (1989-1993)

	GIZONAK			EMAKUMEAk	
Alderdi Sozialista	175	145	%82,86	30	%17,16
Alderdi Popularra	106	95	%89,62	11	%17,38
CiU	18	17	%94,44	1	%5,56
Izquierda Unida-IC (76)	18	16	%88,89	2	%11,11
CDS	14	14	%100	0	%0,00
EAJ-PNV	5	5	%100	0	%0,00
PT Mistoa (77)	10	10	%100	0	%0,00
	346 (78)	302	%87,28	44	%12,72

V. LEGEALDIA (1993-1996)

	GIZONAK			EMAKUMEAk	
Alderdi Sozialista	159	131	%82,39	28	%17,61
Alderdi Popularra	141	119	%84,40	22	%15,60
Izquierda Unida-IC (79)	18	14	%77,78	4	%22,22
CiU	17	16	%94,12	1	%5,88
EAJ-PNV	5	5	%100	0	%0,00
Coalición Canaria	4	4	%100	0	%0,00
PT Mistoa (80)	6	5	%83,33	1	%16,67
	350	294	%84,00	56	%16,00

(74) PT Mistoa: Agrupación de la Democracia Cristiana (19 gizon eta 2 emakume -Coalición Popular alderdiaren zere-
rendan-); IU (6 gizon); UEC (gizon 1); EE (2 gizon); CG (gizon 1); PAR (gizon 1); AIC (gizon 1); UV (gizon 1).

(75) HB alderdiaren 5 diputatu hautetsiak ez dira inongo parlamentuko taldetan sartzen.

(76) Izquierda Unida PT Federalean ICren hiru ordezkari hautetsiak sartzen dira (2 gizon eta emakume 1).

(77) PT Mistoa: PAR (gizon 1); HB (2 gizon); UV (gizon 1); EA (gizon 1); ERC (emakume 1).

(78) HBren 4 diputatuak ez dira inongo parlamentuko taldetan sartzen.

(79) Izquierda Unida parlamentuko talde federalean ICren hiru ordezkari hautetsiak sartzen dira (3 gizon).

(80) PT Mistoa: PA (2 gizon); UV (2 gizon); EA (2 gizon); EE (2 gizon); PAR (gizon 1); AIC (gizon 1).

VI. LEGEALDIA (1996-2000)

		GIZONAK		EMAKUMEA	
Alderdi Popularra	154	130	%84,42	24	%15,58
Alderdi Sozialista	141	102	%72,34	39	%27,66
Izquierda Unida (81)	21	14	%66,67	7	%33,33
CiU	16	12	%75,00	4	%25,00
EAJ-PNV	5	4	%80,00	1	%20,00
Coalición Canaria	4	4	%100	0	%0,00
PT Mistoa (82)	7	7	%100	0	%0,00
	348 (83)	273	%78,45	75	%21,55

VII. LEGEALDIA (2000-2004)

		GIZONAK		EMAKUMEA	
Alderdi Popularra	183	137	%74,86	46	%25,14
Alderdi Sozialista	125	79	%63,20	46	%36,80
CiU	15	13	%86,67	2	%13,33
Izquierda Unida	8	6	%75,00	2	%25,00
EAJ-PNV	7	6	%85,71	1	%14,29
Coalición Canaria	4	3	%75,00	1	%25,00
PT Mistoa (84)	8	7	%87,50	1	%12,50
	350	251	%71,71	99	%28,29

VIII. LEGEALDIA (2004-2008)

		GIZONAK		EMAKUMEA	
Alderdi Sozialista (85)	164	88	%53,66	76	%46,34
Alderdi Popularra	148	106	%71,62	42	%28,38
CiU	10	9	%90,00	1	%10,00
Esquerra Republicana (ERC)	8	7	%87,50	1	%12,50
EAJ-PNV	7	6	%85,71	1	%14,29
Izquierda Unida-ICV	5	3	%60,00	2	%40,00
Coalición Canaria (86)	3	3	%100	0	%0
PT Mistoa (87)	5	2	%40,00	3	%60,00
	350	224	%64,00	126	%36,00

(81) Izquierda Unida alderdian IC-EV alderdiko bi ordezkari hautetsiak sartu ziren (gizon 1 eta emakume 1).

(82) PT Mistoa: UPN (2 gizon); BNG (2 gizon); ERC (gizon 1); EA (gizon 1); UV (gizon 1).

(83) HB alderdiko bi ordezkari hautetsiak ez dira inongo parlamentuko taldetan sartzen.

(84) PT Mistoa: BNG (3 gizon); PA (gizon 1); ERC (gizon 1); IC-V (gizon 1); EA (emakume 1); CHA (gizon 1)

(85) Parlamentuko talde hau 162 epailek, 2 (gizon 1 eta emakume 1) Coalición Canaria alderdiari utzi baitizkio taldea sortu ahal dezan.

(86) Parlamentuko talde hau 5 epailek osatzen dute, 3 Coalición Canaria alderdikoak eta PSOEk utzitako beste 2 (gizon 1 eta emakume 1) talde osatu ahal izan dezaten.

(87) PT Mistoa: BNG (gizon 1 eta emakume 1); CHA (gizon 1); EA (emakume 1); NA-BAI (emakume 1).

LABURPENA

DIPUTATUEN KONGRESUA

LEGEALDIA	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK		
Legealdi eraikitzailea (1977-1979)	350	330	%94,29	20	%05,71
I. Legealdia (1979-1982)	350	331	%94,57	19	%05,43
II. Legealdia (1982-1986)	350	333	%95,14	17	%04,86
III. Legealdia (1986-1989)	345 (1)	323	%93,62	22	%06,38
IV. Legealdia (1989-1993)	346 (2)	302	%87,28	44	%12,72
V. Legealdia (1993-1996)	350	294	%84,00	56	%16,00
VI. Legealdia (1996-2000)	348 (3)	273	%78,45	75	%21,55
VII. Legealdia (2000-2004)	350	251	%71,71	99	%28,29
VIII. Legealdia (2004-2008)	350	224	%64,00	126	%36,00

(1) HB alderdiaren 5 diputatu hautetsiak ez dira inongo parlamentuko taldetan sartzen.

(2) HB alderdiaren 4 diputatu hautetsiak ez dira inongo parlamentuko taldetan sartzen.

(3) HB alderdiaren 2 diputatu hautetsiak ez dira inongo parlamentuko taldetan sartzen.

SENATUA (88)

	GUZTIRA	HAUTETSIAK	IZENDATUAK
Alderdi Popularra	126	102	24
Alderdi Sozialista	96	81	15
Entesa Catalana de Progrés	16	12	4
EAJ-PNV	7	6	1
CiU	6	4	2
Coalición Canaria	4	3	1
PT Mistoa	4	0	4
GUZTIRA	259	208	51
	65 Senaturi	54 Senaturi	11 Senaturi
	(%25,01)	(%25,96)	(%21,57)

(*) PT Mistoa: IU (gizon 1 eta emakume 1); PAR (gizon 1); BNG (gizon 1)

AUTONOMIA ERKIDEGOAK

ALDERDI POLITIKOEK HAUTATUTAKO

PERTSONEI BURUZKO DATUAK (89)

	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK	PORTZENTAJEA (EMAKUMEAK)
Alderdi Popularra (90)	482	313	169	% 35'06
PSOE	445	254	191	% 42'92
Izquierda Unida (91)	48	33	15	% 31,25
Convergència i Unió	46	37	9	% 19,65
EAJ	27	18	9	% 33'33
Esquerra Republicana (ERC)	23	16	7	% 30'43
Coalición Canaria	23	15	8	% 34'78
Bloque Nacionalista Galego	17	14	3	% 17'65
Eusko Alkartasuna	10	4	6	% 60'00
Chunta Aragonesista	9	7	2	% 22'22
Partido Aragonés	8	5	3	% 37,50
Partido Regional Cantabria	8	7	1	% 12'50
Heuskal Herritarrok	7	5	2	% 28'57
PACTE (92)	5	3	2	% 40'00
Partido Andalucista	5	5	0	% 0'00
PSM-Entesa Nacionalista	4	2	2	% 50'00
ARALAR	4	3	1	% 25'00
Converg. Dem. Navarros	4	3	1	% 25'00
Unió Mallorquina	3	1	2	% 66'67
Fed. Nac. Canaria (FNC)	3	2	1	% 33'33
Partido Riojano	2	2	0	% 0'00
Unión Pueblo Leonés	2	2	0	% 0'00
AIPF (Formentera) (93)	1	1	0	% 0'00
GUZTIRA	1.186	752	434	% 36'59

(89) Datu hauek 2003ko ekainaren 25eko Autonomia Erkidegoetako Hauteskundeetako legealdi hasierakoak dira, Andaluziakoak (2004.03.14.), Kataluniakoak (2003.11.16.), Galiziakoak (2001.10.21.) eta EAEkoak (2001.05.13.) izan ezik.

(90) UPN barne (23 -17 gizon eta 6 emakume-) (Nafarroa).

(91) Iniciativa per Catalunya-Verds-Esquerra Alternativa barne.

(92) PACTE alderdiko 5 kideei dagokienez, 3 (2 gizon eta emakume 1) Alderdi Sozialistara joan dira eta 2 (gizon 1 eta emakume1) Esquerra Unida i Els Verds (Illes Balears) alderdira.

(93) AIPF alderdiaren diputatua Alderdi Popularrean sartu da (Illes Balears).

ERKIDEGOETAKO PARLAMENTUAK

AUTONOMIA-ERKIDEGOA	GUZTIRA	LEGEALDIA	EMAKUMEAK	GIZONAK	
ANDALUZIA	109	VII. Legealdia	43	% 39,5	66
		VI. Legealdia	40	% 36,7	69
		V. Legealdia	34	% 31,2	75
ARAGOI	67	VI. Legealdia	22	% 32,8	45
		V. Legealdia	20	% 29,9	47
		IV. Legealdia	6	% 08,9	61
ASTURIAS	45	VI. Legealdia	14	% 31,1	31
		V. Legealdia	15	% 33,3	30
		IV. Legealdia a	8	% 17,8	37
ILLES BALEARS	59	VI. Legealdia	21	% 35,6	38
		V. Legealdia	17	% 28,8	42
		IV. Legealdia	16	% 27,1	43
KANARIAK	60	VI. Legealdia	23	% 38,3	37
	59	V. Legealdia	18	% 30,5	41
		IV. Legealdia	7	% 11,9	52
KANTABRIA	39	VI. Legealdia	16	% 41,0	23
		V. Legealdia	15	% 38,5	24
		IV. Legealdia	6	% 15,4	33
GAZTELA-MANTXA	47	VI. Legealdia	25	% 53,2	22
		V. Legealdia	19	% 40,4	28
		IV. Legealdia	10	% 21,3	37
GAZTELA LEON	82	VI. Legealdia	30	% 36,6	52
	83	V. Legealdia	24	% 28,9	59
		IV. Legealdia	17	% 20,5	66
KATALUNIA	135	VII. Legealdia	42	% 31,1	93
		VI. Legealdia	35	% 25,9	100
		V. Legealdia	20	% 14,8	115
EXTREMADURA	65	VI. Legealdia	25	% 38,5	40
		V. Legealdia	19	% 29,2	46
		IV. Legealdia	10	% 15,4	55
GALIZIA	75	2005	-	-	-
		VI. Legealdia	24	% 32,0	51
		V. Legealdia	16	% 21,3	59
MADRIL	111	VI. Legealdia	42	% 37,8	69
	102	V. Legealdia	36	% 35,3	66
		IV. Legealdia	29	% 28,1	73
MURTZIA	45	VI. Legealdia	13	% 28,9	32
		V. Legealdia	8	% 17,8	37
		IV. Legealdia	8	% 17,8	37
NAFARROA	50	VI. Legealdia	17	% 34,0	33
		V. Legealdia	14	% 28,0	36
		IV. Legealdia	14	% 28,0	36
ERRIOXA	33	VI. Legealdia	13	% 39,4	20
		V. Legealdia	12	% 36,4	21
		IV. Legealdia	7	% 21,2	26
VALENTZIA	89	VI. Legealdia	38	% 42,7	51
		V. Legealdia	34	% 38,2	55
		IV. Legealdia	27	% 30,3	62
EAE	75	2005	-	-	-
		VI. Legealdia	26	% 34,7	49
		V. Legealdia	21	% 28,0	54
GUZTIRA	1.186	Azken legealdia	434	% 36,6	752

ERKIDEGOETAKO PARLAMENTUAK

Datu hauek 2003.06.25 eguneko autonomia-erkidegoetako hauteskunderakoak dira, Andaluziakoak (2004.03.14.), Kataluniakoak (2003.11.16.), Galiziakoak (2001.10.21.) eta EAEkoak (2001.05.13.) izan ezik.

ANDALUZIA (109 DIPUTATU) VII. LEGEALDIA

	PARLAMENTUKO TALDEETAKO DIPUTATUAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	EMAKUME PORTZENTAJEA
PSOE	61	31	30	% 49,2
Alderdi Popularra	37	25	12	% 32,4
IU-Los Verdes-CA	6	5	1	% 16,7
Partido Andalucista	5	5	0	% 0
GUZTIRA	109	66	43	% 39,5

ARAGOI (67 DIPUTATU) VI. LEGEALDIA

	PARLAMENTUKO TALDEETAKO DIPUTATUAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	EMAKUME PORTZENTAJEA
PSOE	27	16	11	% 40,7
Alderdi Popularra	22	16	6	% 27,3
Chunta Aragonesista	9	7	2	% 22,2
Partido Aragonés	8	5	3	% 37,5
Izquierda Unida (GM)	1	1	0	% 0
GUZTIRA	67	45	22	% 32,8

ASTURIAS (45 DIPUTATU) VI. LEGEALDIA

	PARLAMENTUKO TALDEETAKO DIPUTATUAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	EMAKUME PORTZENTAJEA
PSOE	22	14	8	% 36,4
Alderdi Popularra	19	15	4	% 21,1
Izquierda Unida-Bloque	4	2	2	% 50,0
GUZTIRA	45	31	14	% 31,1

ILLES BALEARS (94) (59 DIPUTATU) VI. LEGEALDIA

	PARLAMENTUKO TALDEETAKO DIPUTATUAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	EMAKUME PORTZENTAJEA
Alderdi Popularra	29	22	7	% 24'1
PSOE	15	8	7	% 46'7
PACTE	5	3	2	% 40,0
PSM-Entesa Nacionalista	4	2	2	% 50'0
Unió Mallorquina (GM)	3	1	2	% 66,7
Esquerra Unida/Els Verds	2	1	1	% 50'0
AIPF (95)	1	1	0	% 0
GUZTIRA	59	38	21	% 35,6

KANARIAK (60 DIPUTATU) VI. LEGEALDIA

	PARLAMENTUKO TALDEETAKO DIPUTATUAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	EMAKUME PORTZENTAJEA
Coalición Canaria	23	15	8	% 34'8
Alderdi Popularra	17	10	7	% 41'2
PSOE	17	10	7	% 41'2
Fed. Nac. Canaria (GM)	3	2	1	% 66'7
GUZTIRA	60	37	23	% 38,3

KANTABRIA (39 DIPUTATU) VI. LEGEALDIA

	PARLAMENTUKO TALDEETAKO DIPUTATUAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	EMAKUME PORTZENTAJEA
Alderdi Popularra	18	10	8	% 55'6
PSOE	13	6	7	% 53'8
Partido Reg. De Cantabria	8	7	1	% 12'5
GUZTIRA	39	23	16	% 41,0

(94) PACTE alderdiko 5 diputatuetatik 3 (2 gizon eta emakume 1) Alderdi Sozialistan sartu dira eta 2 (gizon 1 eta emakume 1) Esquerra Unida-Els Verds alderdian.

(95) AIPF alderdiko diputatua Alderdi Popularrean sartu da.

GAZTELA-MANTXA (47 DIPUTATU) VI. LEGEALDIA

	PARLAMENTUKO TALDEETAKO DIPUTATUAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	EMAKUME PORTZENTAJEA
PSOE	29	14	15	% 51'8
Alderdi Popularra	18	8	10	% 55'5
GUZTIRA	47	22	25	% 53,2

GAZTELA LEON (82 DIPUTATU) VI. LEGEALDIA

	PARLAMENTUKO TALDEETAKO DIPUTATUAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	EMAKUME PORTZENTAJEA
Alderdi Popular	48	31	17	% 35'4
PSOE	32	19	13	% 40'6
UPL (GM)	2	2	0	% 0
GUZTIRA	82	52	30	% 36,6

KATALUNIA (135 DIPUTATU) VII. LEGEALDIA

	PARLAMENTUKO TALDEETAKO DIPUTATUAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	EMAKUME PORTZENTAJEA
Convergència i Unió	46	37	9	% 19'6
PSC-Ciutadans pel canvi	42	26	16	% 38'1
ERC	23	16	7	% 30'4
Alderdi Popularra	15	9	6	% 40'0
IC-Verds-Esquerria Alternativa	9	5	4	% 44'4
GUZTIRA	135	93	42	% 31,1

EXTREMADURA (65 DIPUTATU) VI. LEGEALDIA

	PARLAMENTUKO TALDEETAKO DIPUTATUAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	EMAKUME PORTZENTAJEA
PSOE	36	20	16	% 44'4
Alderdi Popularra	26	18	8	% 30'8
Izquierda Unida (GM)	3	2	1	% 33'3
GUTZIRA	65	40	25	% 38'5

GALIZIA (75 DIPUTATU) VI. LEGEALDIA

	PARLAMENTUKO TALDEETAKO DIPUTATUAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	EMAKUME PORTZENTAJEA
Alderdi Popularra	41	26	15	% 36'6
BNG	17	14	3	% 17'6
PSOE	17	11	6	% 35'3
GUZTIRA	75	51	24	% 32,0

MADRIL (111 DIPUTATU) VI. LEGEALDIA

	PARLAMENTUKO TALDEETAKO DIPUTATUAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	EMAKUME PORTZENTAJEA
Alderdi Popularra	57	35	22	% 38'6
PSOE	45	28	17	% 37'8
Izquierda Unida	9	6	3	% 33'3
GUZTIRA	111	69	42	% 37,8

MURTZIA (45 DIPUTATU) VI. LEGEALDIA

	PARLAMENTUKO TALDEETAKO DIPUTATUAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	EMAKUME PORTZENTAJEA
Alderdi Popularra	28	20	8	28'6 %
PSOE	16	11	5	31'2 %
Izquierda Unida (GM)	1	1	0	% 0
GUZTIRA	45	32	13	% 28,9

NAFARROA (50 DIPUTATU) VI. LEGEALDIA

	PARLAMENTUKO TALDEETAKO DIPUTATUAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	EMAKUME PORTZENTAJEA
UPN	23	17	6	% 26'1
SPN-PSOE	11	6	5	% 45'4
IU/NEB	4	3	1	% 25'0
ARALAR	4	3	1	% 25'0
CDN	4	3	1	% 25'0
EA (96)	3	0	3	% 100
EAJ (GM)	1	1	0	% 0
GUZTIRA	50	33	17	% 34,0

(96) EA EAJrekin aurkeztu zen hauteskundeetara, nahiz eta EAJko diputatua Talde Mistora pasa zen.

ERRIOXA (33 DIPUTATU) VI. LEGEALDIA

	PARLAMENTUKO TALDEETAKO DIPUTATUAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	EMAKUME PORTZENTAJEA
Alderdi Popularra	17	11	6	% 35'3
PSOE	14	7	7	% 50'0
Partido Riojano (GM)	2	2	0	% 0
GUTZIRA	33	20	13	% 39,4

VALENTZIAKO AUTONIMIA ERKIDEGOA (89 DIPUTATU) VI. LEGEALDIA

	PARLAMENTUKO TALDEETAKO DIPUTATUAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	EMAKUME PORTZENTAJEA
Alderdi Popularra	48	27	21	% 43'7
PSOE	35	19	16	% 45'7
Esquerra Unida	6	5	1	% 16,7
GUTZIRA	89	51	38	% 42,7

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA (75 DIPUTATU) VI. LEGEALDIA

	PARLAMENTUKO TALDEETAKO DIPUTATUAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	EMAKUME PORTZENTAJEA
PNV-EAJ	26	17	9	% 34'6
Alderdi Popularra	19	13	6	% 31'6
PSOE	13	8	5	% 38'5
Euskal Herritarrok	7	5	2	% 28'6
EA	7	4	3	% 42'9
IU (GM)	3	2	1	% 33'3
GUTZIRA	75	49	26	% 34,7

CORTS VALENCIANES (97)

I. LEGEALDIA (1983-1987)

		GIZONAK		EMAKUMEAK	
Alderdi Sozialista	51	48	%94,12	3	% 5,88
Alderdi Popularra	32	30	%93,75	2	% 6,25
Alderdi Komunista	6	6	%100	0	% 0
	89	84	%94,38	5	% 5,62

II. LEGEALDIA (1987-1991)

		GIZONAK		EMAKUMEAK	
Alderdi Sozialista	42	39	%92,86	3	% 7,14
Alderdi Popularra	25	24	%96,00	1	% 4,00
Centro Democrático y Social	10	10	%100	0	% 0
Unio Valenciana	6	5	%83,33	1	%16,67
Izquierda Unida-UPV	6	6	%100,00	0	% 0
	89	84	%94,38	5	% 5,62

III. LEGEALDIA (1991-1995)

		GIZONAK		EMAKUMEAK	
Alderdi Sozialista	45	36	%80,00	9	%20,00
Alderdi Popularra	31	30	%96,77	1	%3,23
Unio Valenciana	7	6	%85,71	1	%14,29
Esquerra Unida	6	5	%83,33	1	%16,67
	89	77	%86,52	12	%13,48

IV. LEGEALDIA (1995-1999)

		GIZONAK		EMAKUMEAK	
Alderdi Popularra	42	34	%80,95	8	%19,05
Alderdi Sozialista	32	23	%71,88	9	%21,12
Esquerra Unida	10	6	%60,00	4	%40,00
Unio Valenciana-IC	5	4	%80,00	1	%20,00
	89	67	%75,28	22	%24,72

V. LEGEALDIA (1999-2003)

		GIZONAK		EMAKUMEAK	
Alderdi Popularra	49	30	%61,22	19	%38,78
Alderdi Sozialista-Progressistes	35	20	%57,14	15	%42,86
Esquerra Unida del País Valencià	5	3	%60,00	2	%40,00
	89	53	%59,55	36	%40,45

(97) Legealdi hasiera bakoitzeko datuak.

VI. LEGEALDIA (2003-2007)

		GIZONAK		EMAKUMEAK	
Alderdi Popularra	48	27	%56,25	21	%43,75
Alderdi Sozialista	35	19	%54,29	16	%45,71
Esquerra Unida- Els Verds-E. Valenciana:					
Entesa	6	5	%83,33	1	%16,67
	89	51	%57,30	38	%42,70

BESTELAKO INSTITUZIO ETA ERAKUNDEAK

KONSTITUZIO AUZITEGIA (1)

GARAIA	KIDEAK	GIZONAK		EMALUMEAK	
1980 – 1989	12	11	% 91,7	1(2)	% 8,3
1989 – 1998	12	12	% 100	0	% 0
1998 – 2001	12	11	% 91,7	1(3)	% 8,3
2001 – 2004	12	10	% 83,3	2(4)	% 16,7
GUZTIRA	37(5)	34	% 91,9	3	% 8,1

- (1) Kideak bederatzi urtetik behin izendatzen dira, eta Magistratuen herena hiru urtetik behin berritzen dira
 (2) Gloria Begué Cantón (Presidenteorde kargua bete zuen 1986.03.04. egunetik 1989.02.21. egunera)
 (3) María Emilia Casas Baamonde
 (4) María Emilia Casas Baamonde (Presidente hautatua 2004.06.15. egunean) eta Elisa Pérez Vera
 (5) Konstituzio Auzitegiko Magistratuak 1980. urtetik (8 berrikuntzen ondoren)

BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

GARAIA	KIDEAK	GIZONAK		EMAKUMEAK	
1980 – 1985	21	21	%100	0	%0
1985 – 1990	21	20	%95,2	1(1)	%4,8
1990- 1995	21	17	%80,9	4(2)	%19,1
1996-2001	21	16	%76,2	5(3)	%23,8
2001-	21	19	%90,5	2(4)	%9,5
GUZTIRA	105	93	%88,6	12	%11,4

- (1) Cristina Alberdi Alonso
 (2) María Teresa Fernández de la Vega Sanz, Margarita Mariscal de Gante y Mirón eta María Soledad Mestre García. Ondoren Ana María Pérez Tórtolak Juan Alberto Belloch Julbe ordezkatu zuen.
 (3) Manuela Carmena Castrillo, Esther Giménez-Salinas i Colomer, Ángeles Huet de Sande, Margarita Retuerto Buades eta Elisa Veiga Nicole
 (4) Montserrat Comas de Argemir Cendra eta María Ángeles García García

CONSELL VALENCIÀ DE CULTURA

		GIZONAK	EMAKUMEAK
1985eko azaroak 27	Lehen hautapenak	21	0
1987ko otsailak 18	3 kide berritzea	3	0
1988ko abenduak 29	10 kide berritzea	10	0
1990eko martxoak 07	2 postu huts betetzea	2	0
1991ko abenduak 04	11 kide berritzea	11	0
1994ko martxoak 09	2 postu huts betetzea	1	1(1)
1995eko irailak 20	10 kide berritzea	10	0
1996ko abenduak 17	2 postu huts betetzea	2	0
1997ko abenduak 23	11 kide berritzea	8	3(2)
1998ko maiatzak 06	Postu huts 1 betetzea	1	0
1998ko abenduak 16	Postu huts 1 betetzea	1	0
200ko ekainak 15	2 postu huts betetzea	1	1(3)
2002ko uztailak 15	10 kide berritzea	8	2(4)
	Baja uko egiteagatik	-	1(5)
2003ko azaroa	Kide baten heriotza(6)	1	-
2004ko maiatzak 24	11 kide berritzea eta postu huts bat	9	3(7)
	Egungo osaera	18	5(8)

(1) Pilar Faus Sevilla

(2) Enequina Lloris Camps, Carmen Morenilla Talens eta Rosa Serrano Llácer

(3) Rosa M^a Magdalena Rodríguez Pérez

(4) Isabel Ríos García eta Elena Negueroles Colomer

(5) Rosa Serrano Llácer

(6) Fernando Vizcaíno Casas

(7) Rosa M^a Magdalena Rodríguez Pérez, Isabel Morant Deusa eta Carmen Morenilla Talens

(8) Isabel Ríos García, Elena Negueroles Colomer, Rosa M^a Magdalena Rodríguez Pérez, Isabel Morant Deusa eta Carmen Morenilla Talens

ACADÈMIA VALENCIANA DE LA LLENGUA

			GUZTIRA		GIZONAK	
EMAKUMEAK						
16.06.2001	Lehen hautapena(1)	21	17	% 80,95	4	% 10,05
17.09.2002	Baja uko egiteagatik(2)	1	1	-	-	-
11.02.2003	Baja heriotzagatik(3)	1	1	-	-	-
30.10.2003	Baja uko egiteagatik(4)	1	-	-	1	-
07.11.2003	Bajak betetzeko hautapenak	3	3	% 100	0	% 0
	Egungo osaera(5)	21	18	% 85,71	3	% 14,29

(1) Carmen Barceló Torres, Verónica Cantó Doménech, Ascensión Figueres Górriz i Maria Soletat González Felip

(2) Xavier Casp i Vercher

(3) Alfred Ayza i Roca

(4) Carmen Barceló Torres

(5) Verónica Cantó Doménech, Ascensión Figueres Górriz i Maria Soletat González Felip

SÍNDIC DE GREUGES

	SÍNDIC MAJOR		ALBOKOAK		KIDEAK GUZTIRA	
	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK
1993 (1)	1	0	1	1	2	1
1998 (2)	1	0	1	1	2	1
2001 (3)	1	0	1	1	2	1

(1) Arturo Lizón Giner (Síndic de Greuges), Miguel Barceló Pérez (1. albokoa) eta Julia Sevilla Merino (2. albokoa). Miguel Barceló Pérezek uko egin zion bere postuari 1996ko urtarrilaren 18an eta Juan Ferrando Badiak ordezkatu zuen 1996ko maiatzaren 16an. Juan Ferrando Badiak Síndic de Greuges kargua bete zuen 1998ko uztailearen 28tik 1998ko irailaren 2arte.

(2) Luis Fernando Saura Martínez (Síndic de Greuges), Emilia Caballero Álvarez (1. albokoa) eta Luis Figueiras Dacal (2. albokoa). Luis Fernando Saura Martínez 2000ko urriaren 26an hil zen eta Emilia Caballero Álvarezek bete zuen Síndic de Greuges kargua 2001eko apirilaren 4arte.

(3) Bernardo del Rosal Blasco (Síndic de Greuges), Emilia Caballero Álvarez (1. albokoa) eta Carlos Morenilla Jiménez (2. albokoa).

SINDICATURA DE COMPTES

IZENDAPENA	KIDEAK	GIZONAK	EMAKUMEAK
1985-06-26 (1)	3	3	% 100
1992-03-11 (2)	3	3	% 100
1998-05-06 (3)	3	3	% 100
2004-05-24 (4)	3	2	% 66,67
GUZTIRA	12	11	% 91,67

(1) Manuel Girona Rubio (Síndic Major), Vicente Montesinos Julve (Síndic) eta Francisco Miguel Gil Pérez (Síndic).

(2) Vicente Montesinos Julve (Síndic Major), Isidro Antuñano Maruri (Síndic) eta Francisco Miguel Gil Pérez (Síndic).

(3) José Antonio Noguera de Roig (Síndic Major), Manuel Girona Rubio (Síndic) eta Francisco Miguel Gil Pérez (Síndic).

Garai horretan 2000ko ekainaren 07an Francisco Miguel Gil Pérezek uko egin zion betetzen zuen karguari eta Rafael Vicente Queraltek ordezkatu zuen 2000ko ekainaren 15ean. 2003ko abenduaren 11ean José Antonio Noguera de Roig Síndic Major-a hil zen eta Rafael Vicente Queraltek ordezkatu zuen karguan, eta ez zen beste Síndic bat izendatu 2004ko maiatzaren 24an erabateko berritzea burutu zen arte.

(4) Rafael Vicente Queralti (Síndic Major), Marcela Miró Pérez (Síndic) eta Antonio Mira-Perceval Pastor (Síndic).

RTVE-REN AHOLKULARITZA KONTSEILUA

IZENDAPEN URTEA	1984		1987		1991		1995		1999		2003	
PROPOSAMENA EGIN DUEN ALDERDIA:	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E
Alderdi Popularra	4	1	4	0	4	0	3	3	5	2	1	6
Alderdi Sozialista	7	0	6	0	4	3	5	0	1	4	3	2
EU	1	0	1	0	1	0	1	0	0	1	1	0
Nac. UV	-	-	1	0	1	0	1	0	-	-	-	-
CDS	-	-	1	0	-	-	-	-	-	-	-	-
GUZTIRA	12	1	13	0	10	3	10	3	6	7	5	8

RTVV-REN ADMINISTRAZIO KONTSEILUA

	II. LEGEALDIA	III. LEGEALDIA	IV. LEGEALDIA	V. LEGEALDIA	VI. LEGEALDIA
Gizonak	7	9	7	8	8
Emakumeak	2	2	2	3	3

GENERALITAT VALENCIANA-KO ORDEZKARI DIREN KONTSEILARI NAGUSIAK AURREZKI KUTXETAN

			BANCAIXA		CAM		CA ONTINYENT		CA CARLET	
			G	E	G	E	G	E	G	E
1997	2 urtez	T	22	6	21	5	7	3	8	2
	2 urtez	O	21	7	20	6	6	4	8	2
	4 urtez	T	25	3	24	2	8	3	8	2
	4 urtez	O	17	11	19	7	8	3	5	5
1999	B %50	T	20	8	18	8	9	1	5	5
		O	17	11	16	10	5	5	8	2
2001	B %50	T	24	4	21	5	6	5		
		O	16	12	21	5	5	6		
2003	B %50	T	18	4	13	6	6	1		
		O	8	14	12	7	7	0		

G: Gizonak
 E: Emakumeak
 B: Berritzea
 T: Titularrak
 O: Ordezkoak

CLARA CORIA

**Psikologo klinikoa eta
generoari buruzko ikerlaria.
Argentina**

Generoaren

eragina eguneroko

negoziazioetan

eta

herritartasun osoa

lortzeko oztopo

subjektiboak.

Baldintzatzen

al du emakume

generoak

herritartasun

fantasma?

1.

Herritartasun osoa versus herritartasun fantasma

Ohore eta atsegin handia da niretzat Kongresu honetan parte hartzea eta, genero femeninoari buruz, azken 20 urtean baino luzaroago nire ikerketetan agertutako gako batzuk ekartzea. Hizpide dugun gaiak erronka handiak pizten ditu: besteak beste, herritartasun osoa lortzea legez eta gizarte aldetik eragozten duten emakumeen era askotako eta ezkutuko bazterketak agerian uzten ditu, baita subjektibotasun femeninoa dela-eta herritartasun osoa erabiltzeko traba psikologikoak ere. Dakigunez, generoko baldintza psikosozialak subjektibotasun femeninoa eratzen doaz eta, horren arabera, emakumeak izaki altruistak, baldintzagabeak eta besteen zerbitzura emanak dira. Betidanik emakumeak mendekotasunean eta mendekotasunerako hezi gaituzte eta horrek esan nahi du, besteak beste, gureaz besteko desioak, interesak eta beharrianak asetzeko prestatuago izatea. Besteak "geure burua baino gehiago" maitatzeko hezi gaituzte, mandamenduak dioena ez bezala, eta, baldintza horietan, herritartasunaren erabilerak oztopo askorekin egiten du talka. Egiazta dezakegunez, solidario, demokratiko eta aurreratutzat jotzen diren gizarteetan ere emakumeek ez dute herritartasun osoa edukitzeko modurik; aldiz, nire ustez, herritartasun fantasma deituko nukeena dute, hau da, itxuraz parte hartzeko, iritzia emateko eta erabakitzeke eskubidea gordetzen dute, baina eguneroko praktikan eskubide hori desitxuratu egiten da, eta asko dira besteen desioetara egokitzen jarraitzen duten emakumeak, euren beharriane maila eta hierarkia bera eman ahal izan gabe. Herritartasuna eta eguneroko bizitza errealitate beraren bi alderdi dira: bizikidetzaren errealitatea, eta bizikidetzara hori giza elkartrukeen labirinto batean gertatzen da; ezinbestean, iritzien, desioen, interesen, beharrienen, ilusioen, proiektuen, idealen eta asmoen desberdintasunak jartzen ditu jokoan. Uste dut ez nabilela oker defenditzen dudanean bizikidetzaren gai erabakigarri bat gizakiok geure arteko desberdintasunak konpontzeko eran dartzala, eta hor sartzen da jokoan, hain zuzen, eguneroko negoziazioen gaia. Negoziazio horiei behar bezala heltzeko modurik ez badago, oso zaila da herritartasun osoa erabiltzea; izan ere, ondo ulertutako ekonomia etxetik hasten den bezala, herritartasun osoa egunean-egunean eta hurrekoarekin hasten da.

2.

Herritartasuna eta legitimazio subjektiboa

Herritar izateak eskubidea ematen du bizi garen gizarteko guztian parte hartzeko eta erabakitzeko. Demokraziaren sehaska izandako antzinako Grezian, emakumeak herritartasun-eskubidetik bazter geratzen ziren eta, gaur egun, asko dira emakumeen biztanleria gizarte- eta politika-prota-

gonismotik kanpo uzten dituzten gizarteak. Emakumeak kontuan hartzeko gai izan diren gizarteak oztopoz betetako prozesu luze eta nekeza igaro behar izan zuten, baina horren amaieran gizarte-arloko legeak aplikatu zituzten eta, hartara, emakumeen herritartasun-eskubidea zilegi bihurtu zuten. Horren bidez, parte hartzeko, iritzia emateko eta erabakitzeko modua lortu genuen, hala publikoan nola pribatuan. Dena den, emakumeek eskubideen subjektu diren aldetik duten gizarte-legitimazioa ez dator bat beti emakumeek euren buruarekin praktikatzan duten legitimazio subjektiboarekin, hau da, emakume ugari, herritartasuna erabiltzeko eskubide osoa edukita ere, eguneroko praktikan erabilera hori egiteko subjektiboki eragotzita ikusten dute euren burua. Ekar dezadan adibide moduan hiri honetan bertan garraio-bide publiko batean berriketa-lagun izan nuen emakume baten komentarioa, duela justu urtebete. Nahigabetuta zegoela zioen hiria utzi behar izan zuelako; izan ere, berak hiri hau maite zuen eta, bertan adiskideak izateaz gain, oso gogoko zituen jardueretan aritzen zen; senarrak, ordea, erretiroa hartu omen zuen eta jaioterrira itzuli nahi zuen bizitzera. Nik galdetu nion, orduan, zergatik onartu zuen bizitza hain txarrerako aldatu zuen zerbait, eta berak berehala eta konbentziturik erantzun: “begira polita, Espainiako esaera zahar batek dioenez, Katedrala dagoen tokian Madril dago eta senarra dagoen tokian emaztea; hala da eta nik ondo deritzot”. Adibide horrek, eguneroko bizitzako beste askok bezala, agerian uzten duenez, emakumeek euren eskubideak legitimatzen dituzten legeak lortu arren (esate baterako, senarrarekin elkarrekin bizitokia erabaki ahal izatea), egiazta daiteke beti ezin dutela egin, ez dutelako legitimazio subjektiborik eta horrek hainbesteko nekez lortutako lege-eskubideak osoki erabiltzea oztopatzen du. Kontraesan bat dago emandako eskubideen eta euren gain hartutako eskubideen artean, gizarte- eta lege-legitimazioaren eta legitimazio subjektiboaren artean, eta kontraesan horrek gatazka eragiten du eta sortutako gatazka ondorengoa da: geure beharrezko defentsa eta mende luzetan baldintzatu gaituen emakume-eredua. Parada hartuko dut eguneroko bizitzan herritartasuna erabiltzearen aukera zabaleko oso alderdi zehatz bati erreparatzeko: oztopo subjektiboak (eguneroko negoziazioak tratatu eta herritartasun osoaren erabilera zailtzen dutenak).

3.

Emakumeak eta eguneroko negoziazioak

Ezaguna da bolo-bolo dabilen ideia erratu bat: horren arabera, negoziazioak esparru publikoari dagozkio eta bereziki merkataritza, botere eta diruaren arloei. Benetan, ordea, lehenengo eta bertierako negoziazioak egunero gertatzen dira, hala genero bakoitzaren barnean bertan nola emakumeen eta gizonen artean. Dena den, errealitate hori edozeinek egiazta dezakeen arren, oso deigarria da ikustea emakume ugari negoziazioak esparru publikoan kokatzen dituztela eta deseroso sentitu eta desatsegin egiten zaie horiei heldzea, edota zailtasun zentzugabeak dituzte euren interesak defendatu behar dituztenean, besteen interesak defenditzeko orduan negoziatzaile

bikainak izan badira ere. Ikerketa-urte askoren ondoren, hainbat galdera argitzeko modua izan nuen, eta itxuraz ulertezinak diren zailtasun horien arrazoia aurkitu.

4.

Fergatik erlazionatu negoziazioa eta generoa?

Gizarte- eta kultura-baldintzek subjektibotasun femeninoa osatzen eragin erabakigarria izan dute: nahasmena bultzatu dute, gaizkiulertuei bidea eman eta emakumeen bazterketak eta mendekotasunak betikitzen dituzten mitoak elikatu. Nahasmen ohikoenen arteko bat hau da: “Negoziatzea Zakarra da”. Jakina denez, gizaki guztiak desberdinak gara eta, horrenbestez, ezin bestekoa da gure era askotako beharriaz nek eta gustuek sortutako desberdintasunak konpontzea. Desberdintasun horiek konpontzeko era ohikoenak hiru dira: inposatu, etsi edo negoziatu. Begibistakoa da inposatzea beste baten gaineko indarkeria erabiltzea dela eta bare-nahiez etsitzea, berriz, nork bere buruaren kontrako indarkeria baliatzea. Bi jarrera horiek txanpon beraren bi aldeak dira: indarkeriarenak, alegia. Aldiz, negoziazioa da indarkeria txikienera eta demokratikoenara den jokaera, negoziatzeak esan nahi baitu zilegi direla hala bestearen interesak nola nireak. Dena den, alternatiba hori indarkeria txikienera izan arren, emakumeek saihestu egin ohi dute, genero-baldintzek osatu duten subjektibotasun femeninoak meritutzat jotzen baitu bestearen interesak defenditzea eta egoitatzat, berriz, norberarenak.

5.

Negoziazioen “aurretikoak”

Negoziazio-teknikak munduko zentro akademiko nabarmen eta serioenetan ikasten dira. Bertara emakumeak eta gizonak joaten dira, baina horrek ez du esan nahi inondik ere ikastaroak amaitzean berdintasun-baldintzetan daudenik ikasitako ezagutzak praktikan jartzeko orduan. Negoziatzaile fina zen emakume batek zioenez, “ez dut neure burua ulertzen, kementsua naiz bestearen interesak defenditzen; nireak defenditzeko orduan, ordea, negoziatzeko indarrak alde egin egiten dit”. Azaleko kontraesan horrek arrazoi erraza du; izan ere, negoziatzeko egoeran izateko, bi motatako baliabide eduki behar dira: a) “ezagutza objektiboak” dei ditzakegunak, adibidez, denbora erabiltzen ikastea, proposamenak egiteko modua eta informazioa baliatzeko era, eta b) “baldintza subjektiboak” dei ditzakegunak. Ezagutza objektiboak, ikasketa espezializatuetan negoziazioaren gaia ikasten duen edozein pertsona, emakume edo gizonen eskura daude, eta horiek iaotasunez baliatzea norberaren gaitasunaren baitan geratzen dira. Aldiz, “bal-

dintza subjektiboek” ez dute zerikusirik gaitasun-desberdintasunekin, batez ere norberaren beharrikanak defenditzeko “barne-baimenarekin” baizik, eta hori genero-baldintzei zuzenean lotutako zerbait da. Urte luzetako ikerketek “baldintza subjektibo” horiek aztertzeke modua eman zidaten eta, zehaztu nuenez, gutxienez sei baldintza dira ezin besteko negoziazioei heltzean ezagutza objektiboak erabiltzeko “barne-baimena” eduki dezagun. Hona:

- Norberaren desioetara konektatu eta interes pertsonalak onartu.
- Desio eta interes horiek defenditzeko eskubidea legitimatu.
- Parekotasun-egoeran egon edo horretarako gai izan (ekonomikoa, afektiboa, legezkoa edota politikoa), hori gabe negoziazioa ezinezkoa baita.
- Norberaren baliabideak eduki.
- Nork bere buruari helburu bat ezarri eta horri etsi.
- Ezezkoak emateko eta hartzeko gai izan.

Baldintza horiek negoziazioei naturaltasunez heltzeko ezin besteko baldintza subjektiboak dira, baina justu jarrera horiek izan ziren genero femeninoa eratzeko orduan baztertuak izan zirenak. Dakigunez, mendetan, emakumeak mendekotasunean eta mendekotasunerako hezi gaituzte eta askok zailtasun larriak dituzte euren desioekin bat egiteko, bat egindakoan horiek legitimatzeko eta horiek defenditzeko eskubideen jabe garela sentitzeko. Gizateriaren historian ez da parekotasunik eta baliabiderik izan gizateriaren erdi emearentzat. Horri guztiari gehitzen badiogu besteen desioa asebetetzeko eta geure burua pertsona maitatuen beharrikaneei buru-belarri emanez erantzuteko prestatuak izan garela, laster jabetuko gara zein “antinaturala” gertatzen den emakume askoren irudiko euren helburu pertsonaletara bideratutako egitasmo pertsonalik edukitzea. Era berean, “ezezkoak” emateak eta hartzeak eragozpenak ditu norbere autoestimuearekin talka egiten duenean, gutxitua eta besteen maitasunaren eta onespeneraren mende izaten baita.

6.

Bi “oztopo” erabakigarri

Azterketa feministek oso argi utzi dutenez, teoria eta praktika patriarkalak emakumeak batez ere amatzat hartu zituen. Amatasun-rol horren definizioa hiru oinarri eztabaidaeezinen arabera adierazi zuten, eta biologiaren kategorian sartu, emakumeak berezko izango balitu bezala. Hiru oinarri horiek dira: ALTRUISMOA, BALDINTZAGABETASUNA eta PAIRAMENA. Emakumea ama dela oinarri hartuta, bide beretik, emakumeak hainbat femeninoagoak izango dira ama altruista, baldintzagabe eta pairakor jokaera zenbat eta hobea izan, eta, seme-alabekin ez ezik, jende guztiarekin ere. Matrize horrek sortu eta mantentzen ditu bi oztopo erabakigarri, eta horiek ematen dituzte modua makina bat emakumek, interes pertsonalak tarteko dituzten negoziazioei heltzeko orduan, ikastaro garrantzitsuenetan nota onenak lortuta ere topatzen dituzten zailtasun ugari ulerzteko.

- a) Lehenengo oztopoa da Amatasunaren Ideala negoziazio-praktiken kontraktatzat agertzen dela. Baldintzagabetasuna ez dator bat negoziazio orotan jarri beharreko baldintzekin; parramenak eta altruismoak ere norberaren interesak defenditzearekin eta mantentzearekin talka egiten dute eta, horrenbestez, emakumeak ideal femeninoaren eta bere beharrezkoen arteko gatazka inkontzientean geratzen dira harrapatuta. Laburbilduz, ALTRUISMOAREN FEMINIZAZIOAK NEGOZIAZIOAREN PRAKTIKAK ERAGOTZI EGITEN DITU.
- b) Bigarren oztopoa ALTRUISMOAREN eta ELKARTASUNAREN arteko nahasmena da –ez da inondik ere inozoa eta, are gutxiago, kaltegabea–. Bi jarrera horiek, itxuraz, sinonimotzat har ditzake inork, eskuzabaltasun-osagaia tartean dagoen neurrian. Dena den, horretan ez beste guztian, erabat kontrako jokoak dira. ALTRUISMOA nork bere burua pertsona bati ezer itzultzerik espero gabe baldintzagabe ematea da; noranzko bakarrekoa da eta hierarkikoa. Altruismoaren iraupenak jasotzen duenari egiten dio mesede ematen duenaren lepotik eta, denboraren poderioz, esplotazio-egoera bihurtzen da. Aldiz, ELKARTASUNA elkarrekikotasunaren etikan oinarritutako jarrera da eta, bertan, inplikaturako pertsonak eman eta jaso egiten dute txandaka; beraz, noranzko bikoia da eta paritarioa. Altruismoa eta elkartasuna errazki identifikatzeko joerak ondorio larriak eragiten dizkie emakume ugariri negoziazioari dagokionez; beldur dira, izan ere, ez oso solidario moduan ikusiak izateaz, altruismoa alboratuta euren interesak defenditzen dituztenean. Gai horren muina hau da: NEGOZIAZIO BAT ERE EZ DA BATERAGARRIA ALTRUISMOAREKIN BAINA BAI ELKARTASUNAREKIN. Horregatik, emakumeek desberdintasun hori argi ikusten dutenean, gatazka konpondu egiten dute eta elkartasun-balioei uko egin gabe negoziazioei heltzen diete.

Horiek dira hainbat emakumeri eguneroko negoziazioetan era egokian jardutea eragozten dieten oztopo erabakigarrietako bi eta, horrenbestez, baita etxeko esparrua eta esparru pribatua gainditzen duten negoziazioetan ere.

7.

Herritartasun osoa lortzeko era

Herritartasunak “legitimazio subjektiboa” behar du emandako eskubideak nork bere gain har ditzan. Pertsonak, euren desioez jabetu behar dira, besteen desioen artean eurenak desitxuratu eta ezkutatu gabe. Euren interesak legitimatzeko egoeran izan behar dira, horregatik “persona egoista” sentitu behar izan gabe. Nork bere helburuak defenditzeko modua izan behar du, hain ohikoa eta errepikakorrek diren gutxiespenetan erori gabe (betiere maitasunaren izenean egiten dena, hainbat emakumek egiten duten legez). Pertsonak euren balibideak eduki behar dituzte (hala ekonomikoak nola bestelakoak) eta, hartara, mendekotasun kaltegarriak saihestu; era horretan, desberdintasunak izan arren, euren kideekin paritate-egoeran sentitzera iritsiko dira. Herritartasun osorako, nork bere buruarekin etengabe negoziatu behar du, erabakien kostuak jakinaren gainean har ditzagun, ez baita egia “gauza batzuk ezer ez” direla kostatzen. Bizitzan denak dauka

kostu bat, eta hori ez jakitea da arrisku handiena. Horregatik, nire ustez, ezin bestekoa da ohar-tzea, genero-baldintza batzuek hala gizonei nola emakumeei eragiten dieten arren, norberaren subjektibotasunean herritartasun osorako eskubidea legitimatzea zailtzen duten mugapenek bigarrenei oharkabea erasaten dietela.

JOAN TRONTO

**Emakumei Buruzko Ikerketen
Kordinatzailea. New Yorko
Unibertsitatea. EE.BB**

Herritartasuna

zaindu:

ongizatearen eta

desberdinkeria

paradoxa

neoliberal bat

1.

Tradizioz, zainketa herritartasunaren esparrutik kanpo garatu da. Mendebaldeko gizartearen historia-tradizioan, herritarrak ordena politikoari (polis, errege, estatu) zerbitzatzeko prest agertzen ziren, eta zerbitzatzeko gaitasun hori herritar bihurtzen zituen. Adibidez, Antzinako Greziako hiri-estatu batzuetan, hiritar bat borroka militarerako tresnak lortzeko modua zeukan herritarra zen eta, Bigarren Mundu Gerra osteko Mendebaldeko gizarteetan, herritarra zen lan egiteko prest agertu eta etxeko arduetatik libre zegoena (1). Mendebaldeko gizarteko historiaren zati handi batean, emakumeak herritartasunetik bazter geratu dira, debekatu egiten baitzieten gizonak herritar bihurtzen zituen jardueretan aritzea: zerbitzu militarretik, parte-hartze politikotik, lan-merkatuko atal batzuetatik eta abarretatik kanpo geratzen ziren.

Aldi berean, argi dago aipatu dudana neurri batean soilik dela egia. Azken batean, herritartasuna egon dadin, jaiotzak izan behar dira eta emakumeek berehala sortzen dituzte herritarrak. Hala ere, emakumeen herritartasuna, besterik gabe herritarren ama moduan bada ere, beti izan da emakumeek gizonekin (senarrarekin, aitekin, semeekin) duten loturaren bidezko ordena politikoa-rekin duten bitartekaritzaren pean (2). Herritartasun-maila formaletan emakumeak duen estatusak partziala izaten jarraitzen du.

Bizitzan esparru publiko/esparru pribatu banaketa dagoela aitortzen badugu, jabetuko gara herritartasuna euren gaitasun publikoen arabera ematen zaiela pertsonari, eta ez pribatuen arabera. Bistakoa denez, fikzio juridiko horrek ez du kontuan hartzen edozein pertsona publikoren existentzia zainketa-lan eta aurretiko ugalketa-lan eskerdaren gainean oinarritzen dela, eta horrek giza umetxoak herritar gaitua bihurtu duela. Horrenbestez, zainketa, prestasuna eta mantentze-lana herritartasunaren oinarri sakona da, ezikusiarrena egiten zaion arren.

Azken belaunaldietan, zailagoa bihurtu da bizitza pribatu eta publikoaren arteko alegiazko bereizketari eustea, argiago geratu baita banaketa hori artifiziala dela, bereziki emakumeak bizitza publikoan osokiago sartu direnean. Hala ere, herritartasun-ereduak eraikitzeke orduan, ezin ditugu ontzat hartu "zainketa"ren egitura horiek; izan ere, hala egiten badugu, ez dugu ikusiko bazterketak eta desberdinkeriak existitzen jarraitzeko era garrantzitsu bat, eta erronka nagusiak ihes egingo digu: horiek aldatzeko era, benetan inklusiboa den herritartasun-era bihurtu daitezke.

Gaur begiak erne edukitzeko istorio bat kontatu nahi dut. Munduko hainbat gizabanakok eta erakunde boteretsuk Estatu Batuak hartzen dituzte gizarte- eta politika-bizitza antolatzeke eredutzat gizarte modernoak herritarrei bizitza on bat eman diezaien. Estatu Batuen botere militar, politiko eta ekonomikoak, halaber, bere mezu ideologikoa zabaldu du planetan zehar; izan ere, estatubatuarak aberastasun materialean murgilduta bizi dira eta euren bizitzekin pozik daudela adierazten dute. Nik, berriz, aditzera eman nahi nuke AEBek eredu negatiboa ematen digutela, erakusten

(1) Joan Williamsek (2001) "langile ezin hobea" deitu dio horrelako pertsonari.

(2) Adibidez, hogeiko urteen amaiera arte, estatubatuar emakumezko herritar bat naziotasun hori ez zuen gizon batekin ezkontzen bazen, bere naziotasuna automatikoki galtzen zuen.

baitu nola besteak eta geure buruak zaintzeak eskusio eta desberdinkeria-ereduak sendotu eta areago ditzakeen. Gainera, eredu txar horiek herritarrei bizitza onak edukitzeko modua ematen dietelako sortzen dira eta, horregatik, bereziki garrantzizkoa da horiek aztertu eta ulertzea.

Bernard de Mandevillek bere Erleen alegia liburu ospetsuan (1714) deskribatu zuenez, bizio pribatuekin disfrutatuz gizarte-aberastasun handiagoko ondasun publikoa eragin omen zitekeen. Argudio hori, ordea, gaur egungo ideologia neoliberalaren oso antzekoa da; izan ere, neoliberalak uste dutenez, aberastasunaren bilaketa pribatua sustatzea eta alde publikoak prozesu horretan muturra sartzea mugatzea dira zorientasun kolektibora iristeko era seguruenak. Hitzaldi honetan, aldiz, kontrako jarrera defendituko dut: begiesteko moduko jokabide pertsonalaren bidez gizarte-kaltea eragin daitezkeela: desberdinkerian dauden herritarrak pribatuki soilik zaintzen direnean, areagotu egiten da herritar-estatus osoa lortzeko benetako aukerak dituzten pertsona batzuen desberdinkeria eta eskusioa.

2.

Herritartasuna eta legitimazio subjektiboa

Hitzaldi honetan, zainketaren arloa zabaltzea defenditzen dut. Erabili eta defendituko dudana definizio zabala Berenice Fisher-ek eta biok erabili genuen 1990ean:

Espezieko jarduera bat, gure "mundua" mantendu, iraunarazi eta konpontzeko egiten duen guztia kontuan hartzen duena, bertan ahalik eta era onenean bizitzeko moduan. Mundu horretan sartzen dira gure gorputzak, gure izakiak eta gure ingurunea, eta hori guztia bizitza sostengatzen duen sare konplexu batean ehotzeko bilatzen dugu. (Fisher and Tronto 1990)

Horrenbestez, Fisher-ek eta biok zehazten dugunez, zainketan hiru fase daude: kezkatu, arreta jarri, zaindu eta zainketak jasotzea. Kezkatzeak esan nahi du, lehenik eta behin, zaintzeko premia da-goela aitortzea. Arreta jartzeak, berriz, esan nahi du jabetzea zainketan egin beharreko lan-erantzukizunaz. Bestalde, zaintzea da benetan lan hori egitea. Azkenik, zainketak jasotzea da zainketen hartzailearen erantzuna. Halaber, ikusi dugu zainketak etxean, gizarte-erakundeetan zein merkatu-mekanismoen bidez egin daitezkeela.

Zainketa desorekatuaren sorgin-gurpilak

Charles Tillyk (1998), besteak beste, argudiatu du talde baten bestearekiko hasierako abantaila txikiak eskala handian sartuz joan direla zapalkuntza-ereduetan, eta atribuzioko desberdintasunak gizarte-erakundeak eta -praktikak egituratzeko erabili direla. Ondoren, prozesu horiek funtzionamenduan ikus ditzakegun forma batzuk aipatuko ditugu:

- Zainketari lotutako jarduerak emakumeei eta beheko estatusak edo klaseak betetzen dituzten pertsoneri egozten zaizkie nabarmen.
- Zaintzeko lana ez da ordaintzen edo gutxi ordaintzen da edo sektore ekonomiko informalararen barnean gertatzen da.
- Zainketa-beharrizanak pertsona "zaurgarriak" dituzte jomugatzat, adibidez, haurrak, atso-agureak eta gaixoak.
- Nork nor zaintzeari buruzko egozpen horiek ondorio sakonak dituzte zainketak eta beste baliabide eta kostu batzuk esleitzeko orduan.
- Gizarte- eta ekonomia-desberdinkeriak "zainketaren sorgin-gurpila"ren zati dira, desberdinkeriak areagotzen baitituzte, hau da, baliabide gehien dituztenek zainketa lortzeko aukera gehiago eta zaintzeko zama gutxiago dute; aldiz, zainketarako baliabide egokien faltak eta zainketa-zama neurrigabeek baliabide gutxienak dituztenak desabantailan uzten dituzte eta, behin horrela, ezin dituzte baliabide gehiago lortu desberdin egiten dituen desberdintasun horiek konpontzeko.
- Kontzeptualki, zainketei buruzko kontakizunek sendotu egiten dituzte desberdinkeria horietara zuzentzen dituzten logikak eta saihestu egiten dute horietarako irtenbiderik ikusi ahal izatea.

Zainketari buruzko diskurtsoek emakumeen zapalkuntza areago dezaketela ez da zainketaren etika defenditzen duten feministen kritika berri bat. Mundu akademikoak beti adierazi ditu zainketari buruzko eragozpenak, emakumeentzako "esparru independenteei" buruzko diskurtso zaharra-goetan ondoegi txertatzen delakoan (emakumeen sakrifizioa goresten duen diskurtsoa; ikus Hoagland 1988), eta, diskurtsoaren aldetik, emakumeek kolonialismoa bezalako praktika bidegabeak babes ditzaten konbentzitzeko funtzionatzen du (Narayan 1995). Aldeko argi baten pean zaintzeari buruz idazten duten akademikoek arazo desberdin baina erlazionatu bati egin diote aurre. Ikusita emakumeei eta "behe-estatuseko" pertsoneri zaintzaile-rola egozteak gizarte-desberdinkeria sendotu eta birproduzitzen duela, desberdinkeria horiek aldatzeko proposamenek ez dute herritarren irudimena bereganatu, ezta gu gizarte-aldaketa batera gidatu ere. Hitzaldi honetan defendituko dudaren arabera, zainketa errotik berriro definitzeko prest ez bagaude, zainketari buruzko eztabaidak aurrera egin baino, sorgin-gurpil batean jarraituko du trabatuta eta, bertan, zainketak gizarte- eta ekonomia-desberdinkeria sendotzen jarraituko du.

Zertan oinarri gaitzke argudiatzeko zainketako desoreken sorgin-gurpilak bere horretan jarraituko duela? Lehenik eta behin, hori uste izateko arrazoi materialei eta baliabideetan oinarritutakoei erreparatuko diet, nahiz eta argudioaren zati korapilatsuena, niri iritziz, gero aztertuko ditudan alderdi psikosozial batzuetan funtsatzen den. Sorgin-gurpil bat dela behin frogatuta, arazo horren garrantziaren gaiari helduko diot.

3.1

ZAINKETAN BADIRA NEUR DAITEZKEEN DESOREKAK ETA DESOREKA MATERIALAK

Lehenik eta behin, aitortu beharko genuke neur daitezkeen desorekak eta desoreka materialak daudela pertsonen jasotzen dituzten zainketa-kopuruan eta pertsonen euren zainketa-lanerako dituzten baliabide-kopuruan. Desoreka horiek zehaztasun handiz islatzen dituzte Estatu Batuetako gizarte-klaseen eta -estatusen konfigurazioak.

Has gaitzen haurtzarotik. Ohikoa baino pisu gutxiagorekin jaioetako umeez gero osasun-arazoak izateko arrisku handiagoa dute; aukerak daude amak pobreagoak izateko. Herralde osoko konparazio batean, bizitzako lehenengo urtean bi gurasoak aldean zituzten umeez gainontzekoek baino hobe bizirauten bide zuten, eta, gurasoek gurasotasun-bajetan prestazio hobeak zituztenean, euren seme-alabek emaitza hobeak ere lortzen zituzten (Ruhm 2000); Estatu Batuetan, lehenengo urtebetean lanean diharduten amak dituzten umeez (zuriek) polikiago garatzen dituzte euren ezagutza-trebetasunak (Han, Waldfogel and Brooks-Gunn 2001). Elikatze egokiko umeez emaitza hobeak lortzen dituzte eskoletan. Eskolako arrakastak eta goi-mailako hezkuntzak oso zuzenean jarraitzen dute gurasoen heziketa-mailari lotuta izaten (goi-mailako hezkuntzako parte-hartzea: gurasoen heziketak eta etxeko errentak eragindako ondorioak, 2002). Jody Heymannek frogatuta erakutsi duenez, aukera gutxiago daude langile-klaseko gurasoek baliabide jakin batzuk edukitzeko, adibidez, "gai pertsonaleko egunak eskueran", eta langile-klaseko haurrak eskolara bertaratzea eta euren errendimendua baliabide horien faltari dago lotuta (Heymann 2000).

Munduan, "txirotasuna eta osasun txarra elkarrekin nahastuta daude" (Wagstaff 2002), eta hori AEBetan ere gertatzen da. Gainera, osasun mentala errentarekin, hezkuntzarekin eta arrazarekin erlazionatuta dago Estatu Batuetan (Ostrove, Feldman and Adler 1999). Christopher Jencksek auzitan jarri du hilkortasuna aldakorra dela desberdinkeria ekonomikoaren arabera, baina arrazak bizitza-iraupen txikiagoari lotuta egoten jarraitzen du (Jencks 2002) eta, beste batzuek defenditzen jarraitzen dutenez, txirotasunak bizi-itxaropena murriztu egiten du (Duncan et al. 2002).

Aipa dezakegun pertsona- eta familia-zainketaren kategoria bakoitzean, aurkitzen dugu dirudunago izan eta zainketarako baliabide gehiago dituztela, eta baliabide horietan abantaila handiagoak, egoera ekonomiko horren lasaia ez dutenen aldean. Zahar-etxeek baliabide ekonomiko gehien dituztenei eskainitako zainketak atseginagoak dira asistentzia publikoa jasotzen dutenena baino. Dirudunenek aukera gehiago dituzte janari hobeak erosteko eta osasuntsuago jateko, aisaldiaren barnean ariketa praktikatzeko eta medikuntza fisiko eta mentaleko profesionalen la-

guntzak jasotzeko. Dirudunenek segur aski zainketaren “azpiegiturak” ematen dituzten baliabideak ere lortzeko modua izango dute, adibidez, garraioaren erabilerraztasun hobea eta etxebizitza hobeak eta seguruagoak. Zalantzarik gabe, pertsona dirudunenek zainketa hobeak jasotzen dituzte.

3.2

ZAINKETA DESOREKATUAREN GIZARTE-PSIKOLOGIA

Espero genezake zainketan eta zainketarako baliabideetan dauden desberdinkeria horiek Estatu Batuetako kulturen kezkaren bat sortuko dutela. Aukera-berdintasuneko konpromisoak, ordea, ez du esan nahi zainketa-berdintasuneko konpromiso bat; izan ere, arrazoi batzuk direla eta, nik kontrakoa defendituko dut.

Zainketako desberdinkeriak ulertzeko era bat da merkatuan lehiatzen diren eragileek egindako “haututzat” hartzea. Diru- eta denbora-baliabideen bidez, hala merkatu barnean nola kanpoan, desorekak ulertzeko era bat da hautu indibidualen katea luzeen emaitzatzat hartzea; adibidez, baldin eta gurasoek denbora, dirua eta abar seme-alabei onura egiten ez dien gauzetan ematea erabakitzen badute, aukera hori negargarria izan arren, euren hautua da eta ez gizartearen erantzukizuna. Merkatuko eta aukerari buruzko hizkerak, kasu horretan, desoreka ekonomikoek gizarte-ezintasunak bultzatzeko erak ikusteko dugun gaitasuna murriztuko du. Zainketak norberaren bizitzarekin zerikusia bide duenez, zentzua du zainketari buruz pentsatzeko, “azterketa-unitatetzat” eragile indibiduala edo familia hartzea. Familia edo pertsona bakoitzak bere zamak ahalik eta ondoen zaindu nahi ditu. Eragile guztiak eragile zaintzaile pribatu direla ontzat ematea, zainketa-jarduera guztiak pertsona indibidualek burututako ekintzaren emaitzatzat jotzea da: indibidualismo metodologikoa nolabait. Besteen jokatzeko erari buruz pentsatzerakoan, merkatua jokabide guztiak deskribatzeko ardatz-era bat bihurtzen da eta, beraz, merkatua gizarte kapitalistetan zainketaren banaketen funtzionatzeko era deskribatzeko modu boteretsu bat bihurtzen da. (Slater and Tonkiss 2001).

Munduaren ikuskera horren arazoak asko dira, ordea; oraingoz, erreparatuko diegu soilik pertsonen besteen erabakiak hartzeko duten erak eta, horrenbestez, pertsonen eurentzat erabakiak hartzeko duten erak ikuskera hori nola lausotzen duten. Dirudienek, era askotako mekanismo psikosozialak daude pertsona desberdinek eskueran duten zainketa-kopuruari buruzko desberdinkeriak justifikatzeko orduan. Ikus ditzagun ondorengo hirurak:

3.2.1

ZAINKETA LEHIAKORRA

Berdintasunerako argudio honek ontzat ematen du zainketa justizia-esparru liberaletan bana daitekeela. Hala ere, mugak daude justiziako printzipio liberal batzuk oinarri hartuz zainketa besterik

gabe esparru horretan txerta dadin espero denean. Puntu hori argitzeko, Jody Heymannen argudioa erabili nahiko nuke; horren arabera, aukera-berdintasunak eskatzen du familiak zainketa-lanei emandako denbora parekatzea. Heymannek argudiatzen duenez, zainketari buruz denbora era arrazoizkoagoan antolatuko balitz, eskolan arrakastatsu izateko aukera luketen ume gehiago izango lirateke, zainketa egokia jasoko luketen pertsona zahar gehiago izango lirateke eta, gainera, lana eta produktibitatea hobetu eta gizartea hobea izango litzateke (3).

Argudio horretan oinarrizko akats bat dago: irabazleak saritzen dituen gizarte lehiakor baten esparruan, zainketa mendeko jarduera bat eta balio bat den bitartean, norberaren familian ondo zaintzeak ez gaitu aukera-berdintasunaren lagun bihurtuko, alderantziz baizik. Heymannek ohiko argudio bati egiten dio tira eta, horren arabera, zainketa pribatua eta pertsonala da eta familia-zainketako eredu zaharrak ekartzen ditu gogora. Hala, pertsonak zaindu egiten dutenean, ia definizioz, ez dute gizartea buruan, euren hurrekoak eta beharizan bereziak eta zehatzak baizik. Gizarte lehiakor batean, norberaren seme-alabak ondo zaintzeak besteekiko lehiari abantaila bat edukitzea esan nahi du. Zehazkiago, gurasoek aukera-berdintasuneko printzipio abstraktua defendatu arren, euren eguneroko jarduerak nabarmenago bihurtzen dira "zainketa" euren haurrentzako pribilegioak eta abantaila bereziak eskuratzen dituztenean. Hezkuntza publikoari eta abarrei buruzko argudioek indarra galtzen dute norberaren seme-alaben etorkizuneko aukerei eragiten dietenean. Adibide horrek erakusten duenez, zainketa beste balio-esparru bateko zati denean, ez du berarekin aurrerabiderik ekarri behar.

Hala, Estatu Batuetako klase ertaineko familien zainketa idealizatuak Heymannek deskribatutako zainketa-desberdinkeria batzuk exijitu, egituratu eta betikotu egiten ditu. "Zaintzen duen pertsonak" (Walker 1999) onena besterik ez du nahi bere familiarentzat. Horrek pentsarazi egiten digu horrelako pertsonen euren buruak zainduko dituztela eta "zainketa", mendekoak direnen edo gaitxo daudenen kezka dela soilik: gazteak, zaharrak edo ondasun gabe daudenak; izan ere, bere burua zaintzen duen pertsonaren ereduaren engainua da: pertsona heldu gazteek ez dute behar bada beste pertsonen beharrezko zainketarik behar (alegia, zaintzaile profesionalen ezagutza aditurik), baina pertsona askoren zainketa-zerbitzuen kopuru handi bat erabil dezakete (hau da, errutinazko zainketa-lanak; cf. Waerness) euren bizitza lanpetuei egonkor eusteko. AEBetako gizartean, zenbat eta eliteagoko izan, hainbat eta mendekotasun handiagoa dute euren oinarrizko beharrez arduratu daitezten: janaria, arropa garbia, txoko erakargarri bat lortu. Adibidez, ordu-tegi malguak eduki eta eskolan seme-alaba arrakastatsuak dituzten gurasoek, segur aski, era askotako zainketa-zerbitzuak baliatzen ari dira. Lan-esku hori da gure gizartean okerren ordainduta eta antolatuta dagoena. Hala, Heymannek adierazitako desberdintasun gero eta handiagoa zain-

(3) Heymannen adibidea (horren arabera, gobernu-agentziek poliki erreakzionatu dute zainketan diharduten herritarren aldi baterako beharrezanez buruz) oso boteretsua da. Italian, feministek tokiko gobernuak eraberritzeko lan egin dute, *tempi della città*-ri arreta jar diezaioten.

ketako desberdintasuna ere bada, “zainketa”ren ideologiak bere sorburua estali eta aurkitzen zailago bihurtzen duen arren.

3.2.2

EZJAKINTASUN AXOLAGABEA

Goian aurkeztutako argudioan, beharbada irudi dezake beste zirkunstantzia batzuetan oso kritikatu nukeen suposamendu bat onartu egin dudala: gizakiak nagusiki edo eskusiban euren interesak motibatuta daudela. Hala ere, defenditu nahi nuke, halaber, pertsonak beste batzuk zaintzeko konpromisoa hartzen badute, zainketarako baliabideetan dauden desberdintasunek eragin lezaketela axolagabe agertzea zaintzeko ezintasun handiagoa duten pertsonen egoera zailari buruz. Argudio horri izen bat jarriko diot: ezjakintasun axolagabea.

Estatu Batuetan desberdinkeriak irauteko arrazoiei buruzko idazki berrienetan, Ian Shapirok (Shapiro 2002) gizarte-psikologiaren era askotako elementuak deskribatzen ditu: pertsonak eurak baino hobeto daudenekin identifikatzeko joera dute eta ez egoera ekonomiko txarragoa dutenekin (“enpatia distantzia”) (4). Gainera, Estatu Batuen segregazio geografikoak enpatia zailagoa egiten du.

Saphirok aipa zezakeen beste elementu garrantzitsu bat (baina egin ez zuena) nor bere zainketa tagatik bere burua gorestea eta besteen zaintzeko erak gaitzestea da, betiere zainketa indibidualizatuta eta pribatizatuta badago. Gorespen eta erru horiek, segur aski, arrazek, etniek, eskualdeek eta erlijioek zehaztutako ildoak jarraitzen dituzte. Segur aski, gorespen eta erru horiek korapilatatu egiten dute desberdinkeriak aukera-faltaren emaitzatzat ikusteko modua eta, aldiz, besteen ekintza, erabaki eta bizimodu bereziki txarren emaitzatzat jotzen dira. Horren ondorioz, segur aski pertsonak ez dira oso ireki agertzen besteen errakuntzekiko.

Elementu hori bereziki garrantzitsua izateko arrazoi bat hau da: pertsonen iritzi publikoak emateko eskatzen diegunean, maiz behar bezain jakintsuak dira euren esperientzia ez orokortzeko soilik. Aldiz, oso litekeena da “besteei buruz” dauden orokortzeak baliatzea iritziak adierazteko.

Joera horren adibide bat estatubatuarrek gizarte-laguntzen sistema gorrotatzeko arrazoiei buruzko Martin Gilensen kontakizun batean aurkitzen dugu. Gilensek aurkitu duenez, estatubatuar gehienek harro adierazten dute gizarte-laguntzen hartzaille gehienak afroamerikarrak direla, eta estatubatuarrek prest omen daude gizarte-laguntzen sistema babesteko uste badute hartzailleek gogor lan egiten dutela; estatubatuarren iritziak, ordea, afroamerikar gehienak nagiak dira eta, orduan, ez dira gizarte-laguntzen sistemari eustearen oso aldekoak (Gilens 1999). Kasu horretan, pertsonak ez dira ari euren sinismenak eta ekintzak ebaluatzen, besteenak baizik, maila ematen ez dutenak.

(4) Horri buruz, Shapirok adierazten duen bezala, Adam Smithek antzeko joera bat nabaritu zuen eta horrek errepublikar bertuteetan izango lukeen ondorioekin kezkatu zen, bere *Sentimendu moralen teoria* idazlanean erakusten duen bezala.

Hori ikerketa enpirikorako gaia den arren, interesgarria izango litzateke ezagutzea zein punturaino pentsamendu-mota horrek baldintzatzen duen jendeak zainketari buruz pentsatzeko duen era. Pertsona guztiek uste dute ahal duten guztia egiten dutela ardurapean dituztenen alde. Hala ere, arrazoia zein den gorabehera, pertsona horiek horrela jokatzera iristen ez badira, baztertuak izan daitezke, “besterik gabe ez omen baitie axola”.

Gogoan badugu baliabide horiek ez egoteak baliabide gutxieneko pertsonen euren familiak zain ditzaten ekiditeko erak, ikusiko dugu zainketa “sorgin-gurpil” ideologikoa bihurtzen dela. Ezkontidea eskolako bileretara eta abarretara bertaratzen ez dela ikusten duten gurasoek, ondo-riozta dezakete ez duela lan-denborarik hartzen ezin duelako. Hala, zainketa desorekatuak eragindako baliabide materialen faltaz gain, axolagabekeria handiagoa sortzeko baldintzak ager daitezke ere.

3.2.3

ARDURAGABEKERIA PRIBILEGIATUA

“Arduragabekeria pribilegiatua” izena darabildanean adierazi nahi dut uneko lan-banaketak eta gizarte-balioek modua ematen dietela pertsona batzuei zainketako oinarrizko erantzukizunei ihes egitea, lan garrantzitsuago bat egiteko duten aitzakian. Kari Waernesek eraturako kontzeptu-be-reizketari helduz, esango dugu arduragabekeria pribilegiatuak zerbitzu personal-antzeko bat dela eta, bertan, besteengandik zainketak jasotzen dituenak besterik gabe ontzat hartzen du horietarako eskubidea duela. Gainera, horrelako eskubidea izateak era “nolabait ezkutuan” garatzeko modua ematen du, hau da, ez da antzematen, komentatzen edo aipatzen. Demagun, esate baterako, etxeko lanen banaketa tradizionalaren bertsio ideologikoa. Ekonomia-euskarria den senarrak familia “ardurapean” hartzen du bizimodua ateratzeko; trukean, berak espero du emazteak diru-sarrera horiek txoko eroso, elikatzeko janari, arropa garbi, gizarte-bizitza, etxearen kudeaketa eta abar bihurtuko dituela. Ekonomia-euskarria den senarrak ez dio bere buruari inoiz galdetu bere ardurapean sartzen ote den janariak prestatzearen, etxearen kudeaketaren eta abarren korapiloei buruz jakitea. Gizon horiek gutxitan ikasten zuten “euren buruak zaintzen”. Zainketa-lanak, ezkutuan eta era efizientean eginda, eurek betetako rolaren pribilegioa ziren. Eurek izan zezaketen zainketa-beharrizanei dagokienez, inguruko (“nominaz bestaldeko”) pertsonen garatutako zereginen bidez asetzen ziren, eta ez zuten batere ardurarik sentitzen (Bridges 1979). Hortik sortzen da arduragabekeria pribilegiatua.

MacIntoshek eta beste batzuek luze eta zabal idatzi dute “pribilegio” horri buruz eta, defenditzen dutenez, pertsonen hala egotzita pribilegiatuak direla ezagutzen dutenean, “kontzientziazio” prozesu batetik pasatzen dira eta euren pribilegioa ukatu egiten dute bidegabea delakoan. Arduragabekeria pribilegiatuak, ordea, logika apur bat desberdin batez funtzionatzen du.

Arduragabekeria pribilegiatua nekez da agerikoa. Hierarkia-sistema batean nagusitasun-postu bat betetzetik sortutako abantaila edo pribilegio handietako bat da batek ez duela sistema mantentzeko orduan bere rola edo ardura aztertu behar. Horrenbestez, sistema-mota horiek, horien onuradunek duten ezjakintasun xelebrea oinarritzen dira azken batean. Arduragabekeria pribilegiatu

horrek arazo baten gaineko ezjakintasun osoaren forma hartu ohi du, nahiz eta arazo baten interpretazio okertzat edo ikuspegi oso argitzat ere jo daitekeen (Mills 1997).

Hala ere, arduragabekeria pribilegiatua ageriko bihurtzen denean, pertsona pribilegiatuek, euren buruak euren kontzientziek aldatuta ikusi ez ezik, euren buruari euren erantzukizunaren izaera gogoratu besterik ez diote egin behar. Euren buruari gizarte-erantzukizunaren izaerari buruzko galderak egin ezik, ez da arrazoirik izango uste izateko pribilegio hori hautemateak batere kezkarik sortuko dienik. Gerta daiteke (adibide bat emateko) senarrak aitortzea tratu on bat lortu duela, baina, segur aski, pentsatuko du emazteak ere hala egin duela. Gure kulturaren nabarmendu egiten da gure bizitzaren gainean bakarrik dugun erantzukizuna eta, aldi berean, muzin egiten zaio bizitza horri eusten dion zainketari eta, ondorioz, pribilegio hori oso zaila da alboratzen.

Zainketa konplexua denez, pertsona batzuek pentsa dezakete arlo horretako euren betebeharrak burutzen dituztela eta, aldi berean, besteei zerbitzu pertsonaletan maila altuak exijitu. Arduragabekeria pribilegiatua zerbitzu pertsonalak ditu beti bere baitan eta ez ezin bestean zainketak. Arazoa da, ordea, nola jakin zerbitzu pertsonal bat zer den eta zer beharrezko zainketa bat? Egoera hori konplexuagoa bihurtzen da. Gehienetan, pribilegiatuek espero dute, halaber, gainontzeko pertsonak euren behar duten zerbitzu pertsonala ematea, atsegina egiten zaiela iritzita (5). Hala ere, egoera horrek lanaren banaketa egokia adierazten duelako ideiak saihestu egiten du erantzukizunaren edozein birplanteamendu.

Ugalketa-lanaren izaera publiko gero eta handiagoarekin batera gertatutako ugalketa-zainketaren pribatizazioak, halaber, era askotako taldeek duten gizarte-botere erlatiboa adierazten du ekarpen baloratuagoak eta aitortuagoak burutzeko orduan. Gizartean botere erlatiboa handiagoa duten pertsonak asko dute jokoan ikusten dutenean euren zainketa-beharrizanak onuragarriak zaizkien baldintzetan asetzen direla, baita horrek esan nahi badu ere euren zerbitzuak ematen dizkietenen zainketa-premiei ez zaiela aurre egiten. Pertsona boteretsuenek zainketa-lan horiek beste pertsona batzuei eskuorde diezazkietekete: gizonak emakumei, goiko klaseak behekoari, gizon libreak esklaboari. Zainketaren lanak gogorak eta gogaikarriak izan ohi dira, eta horrelako lanetan diharduten pertsonak bere balio intrintsekoa aitortu ohi dute, nahiz eta horrek ez duen esan nahi ondo txertatzen denik berriztapena eta aberastasun-metaketa balioesten duen gure gizartean.

Era horretan, gizakiei buruz egiten ditugun suposamenduak gorabehera, horiek onberak edo zekenak izan, zainketan desberdinkeria behin izanda, pertsonak, besteak euren buruak eta euren zamak nola zaintzen dituzten pentsatzen dutenean, segur aski ez dituzte euren zainketa-arazoak hain serioztat hartzen. Horrenbestez, zainketako desberdinkeria ideologia sortzen du eta materialki sorgin-gurpila.

(5) "Nahi duzu bere buruari baino umeei lehentasuna emango dien pertsona bat", esan zuen Judy Meyersek, 37, Briarcliff Manor-eko (N.Y) bi umeren ama, aseguru sanitarioen enpresa batean lan egiten duena. "Hala ere, zaila da diru-kopuru egokiaren truke norbait aurkitzen" (Rubenstein 1993).

Beraz, gizarte- eta psikologia-faktoreek beste pertsonen “zainketari buruzko erabakiak” ulertzeko gaitasunak trabatzen dituzte, baina aurrerantzean arazo gehiago ikusiko ditugu. Gertatzen da, halaber, “zainketa on baten” deskribapena aldakorra dela. Adibidez, Annette Lareauk klase ertaineko eta klase langileko gurasoek euren seme-alabek behar dituzten zainketei buruzko jarreraren arteko desberdintasunak aztertu ditu. Klase ertaineko gurasoen iritziz, euren haurren trebetasuna eta aukerak etengabe landu behar dira. Interbentzio horietarako, zerbitzu profesionalen hornitzaileak izan behar dira tartean (piano-irakasleak, tenis-monitoreak etab.) eta eurek negoziatuko dituzte umeei gainontzekoekin izan beharreko elkarreraginak (adibidez, mediku-lanbidearekin begirune gehiegirik ez izaten eta galderak adierazten ikastea). Beste alde batetik, langile-klaseko gurasoen aburuz, haurrak era naturalean haziko dira euren era askotako izaeren arabera, betiere euren baliabideak erabiltzen uzten bazaie. Behin arriskutik babestuta, naturari jokatzeko uzten bazaio, naturak nahi bezala hazten utziko omen die (Lareau 2000). Ikus daitekeenez, klase ertainak haurrak zaintzeko duen heziketa- eta intentsitate-erak babes zabalagoa eskatzen du zerbitzu profesionalen eta prestatuen aldetik. Bistan denez, zerbitzu horiei aurre egiteko, denbora- eta diru-baliabideak beharko dira (6).

Eztabaida hau klasean zentratu bada ere, antzeko argudioa adieraz daiteke haurren heziketaren inguruan etnien eta arrazen artean dauden jarrera desberdinei buruz (Omolade 1994), eta desberdintasun horiek ez dagozkie haurrei soilik. Etnien eta arrazen arteko aldean arabera, era askotako tratamenduak daude hirugarren adinekoei, komunitateko pertsona ezgaituei eta familiako zein komunitateko gaixoei buruz.

Generoen arteko desberdintasunek ere ezartzen dutenez, neskatilak eta emakumeak dira “berezko” zaintzaileak egoera suertatzen denean. Oro har, adituek agerian utzi dutenez, horrelako suposamenduek ondorio hilgarri larriak dakartzkie neskatilei eta emakumeei (espero da jaten azkeneoak izango direla, prestakuntza txikiagoa izango dutela, osasun-asistentzia txikiagoa jasoko dutela eta abar; Sen 1992). Beharbada emakumeek euren egoerarako zainketa egokia exijituko dute, baina euren etxeetako zaintzaileak izaten jarraituko dute, dela zerbitzuak zuzenean emanez, dela horiek antolatuz.

(6) Hala, adibide horrekin jarraitzeko, Sharon Haysek “amatasun intentsibo” deitu duenaren ideologia (Hays 1996) batez ere klase ertaineko fenomeno bat da. Anita Gareyk klaseen arteko mugak gainditzen zituen amen jarduerak sailkatzeko era bat aurkitu bazuen ere, argi dago amentzat garrantzizkoa zer den definitzeko baliatzen dituen kategoriak aldatu egiten direla klastetik klasera. Adibidez “bertan izatea”k esanahi desberdina izango du klase ertaineko aita-ama batentzat, laneko baja har baitezake haur-eskolaria joateko, edo langile-klasekoentzat, ezin baitira joan (Garey 1999). Francesca Cancianek ere langile-klaseko eta klase ertaineko familien arteko aldea aztertu du “zainketa onaren” bere kontuetan (Cancian 2002).

Desberdintasun horiek nabarmentzeak ez du esan nahi mugatu behar garenik pertsona batzuek era batean eta beste batzuk bestean zaintzen dutelako argudioa adieraztera, hori ere egia den arren. Desberdintasunek ez dute zerikusia soilik lehentasunekin, gizarteko beste egitura batzuetan sakon errotuta dagoen desberdinkeria-egitura batekin baizik.

3.4

SORGIN-GURPILA

Hemen, zainketan desberdinkeriak nola hasi ziren kontatuko dugu. Gure ikuspegiaren arabera, pertsonak zainketa duina osatzen duenari buruzko era askotako ikuspegiak izan ditzakete eta merkatuan era askotako erabakiak har omen ditzakete. Hainbat arrazoi konplexuren ondorioz (mekanismo-psikosozialen multzo bat eta klase, arraza eta generoko desberdintasunak), pertsonak ez dute joerarik izango aitortzeko, botere-desoreka, gizarte- eta ekonomia-desberdinkeria eta diskriminazio-eredu batzuen ondorioz, desoreka bat dagoela. Horrenbestez, segur aski ez dira jabetuko zainketako desoreka horri aurre egiteko gizarte-erantzukizuna eta erantzun kolektiboa behar direla.

Erantzukizun-jarreretan horrelako gizarte-aldaketarik gertatu ezean, ezinezkoa dirudi sorgin-gurpil hori haustea.

4.

*Konponbideak:
zainketa berriz ere
balio publikoko
kontzeptu bihurtu*

Zainketa-kontzeptua, munduko eragile autonomoak xede arrazionalak bilatzen dituen mundura moldatu behar direnean (abiapuntuko suposamenduen arabera), zainketa nahitaez ilun agertuko da. Gizakiaren errealitateak zein hauskorrak eta mendekoak diren ikusita, eragileak autonomoak direla ontzat ematerako, aurretik prozesu-oinarri eta gertaera soziologiko, psikologiko, ekonomiko eta politiko andana dago, mota horretako eragileak egoteko modua ematen dutenak. Bizitzako oinarrizko alderdi horiek protagonismoa galtzera behartzen ditugunean, emaitza da gizarte-bizitzaren berri osorik ez dugula. Orduan, ez-aren gizarte-logikaren zati bat zainketari buruz pentsatzeari lotuta dago.

Horri lotuta, ordea, arazo larri bat dago. Eragile "autonomo" eta hartzaille "mendeko"aren arteko bereizketak era intelektualean funtzionatzen du, zainketak jasotzen dituen pertsona "bestea" bihurtzen baitu (Beauvoir 1968). Simone de Beauvoir-ek eta abarrek dagoeneko frogatu dutenez, pertsona bat "bestea" bihurtzeko prozesu hori eragozpen bat da "bestea"ren egoera aztertzeko, juzkatzeko eta gertatzen zaionaz jabetzeko gaitasunarentzat.

Eragile autonomoak, nagusiki zaintzailatzat dituzte euren buruak, zainketen hartzailatzat baino, eta, aipatutako era horretan, euren egoeraren izaera erratuki interpretatzeko joera har dezakete eta zainketak jasotzen dituztenen gainean mendekotasunaren kontrako euren aurkakotasuna proiektatu. Emaizta, zainketaren zein gizartearen betetzen duten tokiaren eraikuntza erratua da.

4.1

“GUZTIONTZAKO ZAINKETAK!”

Zainketari buruzko eztabaida guztiek zaintzailearen ikuspegia dute abiapuntu eta ez zaindutako pertsonarena. Beharbada, joera intelektual logikoa da gure gizartearen, bertan partehartzaile autonomoen bizitzak giza ekintzen arautzat hartzen baitira eta, horrenbestez, zainketa giza bizitzaren alderdi gehigarritzat hartzen da.

Michel Foucaultek “niaren zainketa”ri buruz amaieran egindako idazlan garrantzitsuan aurkikuntza handia izan zen guk zainketa pasibotasun-egintza soiltzat hartzeko. Foucaulten lehenengo idazlanek nabarmentzen zuten nola gizarte-praktikek eta boterearen modalitate “kapilarek” literalki gizabanakoak (baita “gizabanako” edo “subjektuaren” ideia bera ere) osatzen dituzten. Norberaren zainketari buruz kategoriatik etiko moduan idazten zuenean, Foucaultek iritzi hau auzitan jarri nahi zuen: zaindua izatea ezin bestean jarduera-mota pasiboa delako ideia (Foucault 1997) (7). Nork bere burua zaugarri ikusteko gaitasuna ez da gure gizartearen oso balioesten den zerbait. Guztiok zainketak jasotzen ditugula aitortzen ez dugun arte, ezingo da aldaketarik gertatu zainketari buruzko gure pentsatzeko eran, eta ez da batere oinarritzako aldaketarik gertatuko zainketaren gutxiespenean.

Partehartzaile guztiak euren buruak behin hartzailatzat jotzeko prest agertzen direnean, bi ondorio gertatzen dira. Lehenengoa da nia zainketa-hartzailea dela (eta ez soilik eragilea) normaltzen dutela. Beharbada, irudi dezake aldaketa hori txikia dela, baina erabat hondatzen du pertsonak merkatuan lehiatzeko gai diren partehartzaile arrazional bakarrak direlako aurreuposamendua, eta behartzen gaitu aitortzera merkatu-bizitza giza ekintza guztien metaforatzat hartzeak mugak dituela. Bigarrena da zainketaren hartzaileak jada ez direla “besteak”. Pertsonak “beste” horiek berberak bailitza jukatzen hasten direnean, bestelako prozesu psikologiko eta sozial bat behar da, benetakoagoa den enpatiaduna. Argi dago ezarrita pertsonak gai direla enpatia hori erabiltzeko, nahiz eta bere irismena mugatua den. Zainketa ulertzeko gure era aldatzeak enpatiaren irismena hedatzeko modua emango du.

Zainketan besteekiko mendekotasunak gertatzeko erei muzin egiten badiegu, zainketa lehiakorren ideologietan eta besteekiko sinpatiarik gabeko axolagabekeria eror gaitetzke. Gure zaugarritasuna aitortzeak, ordea, prozesu horiek ahuldu egiten ditu.

(7) Zorretan nago Henk Manschotekin, Ikasketa Humanistetako Unibertsitatekoa (Utrecht, Herbehereak), Foucaulten proiektua ulertzeko era hain garrantzitsu hori erakutsi didalako. Aprobetxatu ditut, halaber, Metzko Unibertsitateko (Metz, Frantzia) Liane Mozere irakaslearekin puntu horri buruz izandako eztabaidak.

4.2

ZAINKETA VS. ZERBITZUA

Hala ere, nire argudioa erratua da segur aski; izan ere, zuzena bada eta pertsona guztiek zainketen premia hain absolutua badute, nolatan bazter daiteke hori? (8), nola falta daiteke horrelako ezagutza bat? Galdera horrentzako erantzuna erraza da: zainketa guztiak ez dira zainketatzen jotzen. Kasu horretan, bereizketa garrantzitsua egin behar da zainketa eta zerbitzu artean.

Kari Waernesek hiru zainketa-mota identifikatu zituen: zainketa espontaneo, zainketa beharrezkoa eta zerbitzu pertsonala. Zainketa espontaneo samariar onaren antzera jokatze egintza da eta, bertan, ez da zainketa iraunkorreko erlaziorik ezartzen. Zainketa beharrezkoa da hartzaileak berak bete ez dezakeena, adibidez, pazienteei zainketa beharrezkoak ematen dizkieten medikuak. Dena den, zainketa beharrezko guztia ez da kualifikatua; umetxoek ezin dituzte euren pixoihalak aldatu, baina horretarako ez dugu zainketako prestakuntza askorik behar. "Zerbitzu pertsonalak" dira Waernessen hirugarren kategoria, eta hori da, nork bere buruari eman diezaiokkeen zainketa izanik ere, beste batek ematen duen zainketa: batek bere autoa garbi dezake, baina auto-garbitzeko makinara eramaten du; batek bere kabuz egin dezake manikura, baina profesional batengana jotzea nahiago du. Waernesek ematen duen adibidea da emazteak etxea garbi dezan espero duen senarrak zerbitzu pertsonala jasotzen duela (Waerness 1990). Waernessen bereizketa hori berak baino apur bat zabalago erabiliko dut, zainketaren eta zerbitzuaren arteko oinarritzko bereizketari eusten diodan arren.

Ohar gaitzen zainketaren eta zerbitzuaren artean dagoen desberdintasuna ez dela burututako egintza bera edo lan-harremanaren pribatutasuna edo zainketa-lanen bidez ezarritako harremanaren izaera. Aldiz, desberdintasuna da "zerbitzuan" eragile boteretsuenek edo aktiboek eskaintzen dizkietela zainketa-lanak jasotzen dituztenei. Zainketako langileek, bi kasuetan, esperientzia eta ezagutza teknikoak izan ditzakete, eta pertsona guztientzat egiten errazagoak eta ohikoagoak liratekeen lanak egiten aritu daitezke. Desberdintasuna hau da: agintea edukitzeko irudipena nork ematen duen.

Hala, zerbitzua da agintea edo autonomia bertan behera uztearen sentimendurik gabe zainketa jasotzeko era. Haurrak zaintzen dituen pertsona, zainketa beharrezkoak baino, zerbitzu erabilgarria ematen duen pertsonatzat hartzen bada, errazagoa izango da berari soldata baxuak ematen jarraitzea. Zerbitzuaren hizkerak eutsi egiten dio independentziaren ilusioari, eta mendekotasuna iluntzen du. Nahiko autonomoak eta gaitasunekoak direnei modua ematen die zainketa-beharri-zanak asetzeko euren erari buruz diskrezioz jokatze eta, hartara, besteekiko duten mendekotasuna arrazionalizatzeko. Era horretan, merkatuko aukeraren mitoak elkarren mendekotasun sakonaren errealitatea ordezkatzen du, eta zainketen gure beharrian kolektiboaren gizarte- eta politika-dimentsioa ilundu. Gainera, zainketa kolektibo horri buruzko euren erantzukizuna ez aitortzeko modua ematen die pertsonari, arduragabekeria pribilegiatu-antzeko baten bidez.

(8) Giza mendekotasuna eta ahuldadea ere aztertu duten politikari akademiko filosofikoen artean, ikus MacIntyre 1999, Kittay 1999 eta Sevenhuijsen 1998.

Pertsonek jasotzen duten zainketa “zerbitzutat” hartzeak ilundu egiten ditu pertsonak euren zainketarako besteen mendeko izatearen errealitateak. Egunero lanera irteten den gaitasuneko pertsona heldu independente bakoitzak zainketen beharra izaten jarraitzen du. Zalantzarik gabe, gaur egun, gero eta gehiago jotzen da horrelako zainketetara merkatu-mekanismoen bidez, iraganean ez bezala; horregatik merkatuan erositako “zerbitzuen” itxura dute, zainketena baino. Zainketak pertsona zaurgarriek soilik behar dituztelako aurruposamenduak, ordea, eragotzi egiten du ikus-tea elkarren mendeko izatearen gizakion patua.

Zainketaren hizkera zabal erabiltzearen aldeko arrazoi bat, puntu horretaz ohartzeko aukera da. Adibidez, zainketako lan ordaindua eta ez-ordaindua, zainketa eta zerbitzua, “maitasunagatik egindako lana” eta “lana” bereiztearen bidez, emaitza erabilgarriak lortzen dira, baina ohiko bereizketa horiek aldatu egiten baditugu, gizarte- eta politika-abantailak izugarriak dira.

4.3

ZAINKETA, BALIO PUBLIKO

Zaintzeko beharra serio hartzen badugu “guk zaintzearen garrantzia” (Frankfurt 1988) ez da gai individual hutsa. Kontakizun hau, halaber, erabil dezakegu geure buruari gure kolektiboak zer baloratzen duen eta zer kezkatzen galdetzeko.

Pentsatzen dugunean, ez da zentzugabea esatea zainketa balio publiko bat dela. Funtsean, estatuari esleitzen zaizkion zeregin batzuk “zaintzea”, hezkuntza edo ongizatea direla esan daiteke, edo XVIII. mendeko hizkeran “patruilatzea”. Aristotelesek berak, esparru publikoa eta pribatua bereizten zituen, eta bizitza ekonomikoa zein zainketa pertsonala esparru pribatuan kokatzen zituen; gainera, hizkera paraleloa erabiltzen zuen amen seme-alabak hezteko era eta estatu on batek bere herritarrek hezi beharreko era deskribatzeko orduan (Schwarzenbach 1996).

Gizarte-ongizateko estatuetan herritarrek elkartasun-sentsazio handiagoa dute eta errazago ulertzen dute zainketa balio publikoa dela (Sevenhuijsen 1998; Waerness 1990). Estatu Batuetan, berriaz, suposamendu individualistagoak dituzte eta, ulertzen dutenez, zainketa ia osotasunean gai pribatu bat da. Hala ere, badago oinarri bat estatubatuar individualistek ere premia kolektiboak onartzeko. Ulermen handiagoa blokatzen duten suposamenduak zeintzuk diren ez da zaila identifikatzen. Lehenengo, suposamendu horien alderdi batzuk deskribatuko ditut eta, bukatzeko, kontzeptzio alternatibo bat proposatuko dut: horren arabera, zainketa demokraziaren eta berdintasunaren zabalpen bat da, horien kontrako izan beharrean.

Lehenik eta behin, pertsonak batez ere kontsumitzaileak direlako suposamenduak eragin egiten dio gizabanakoek besteekin duten harremanari buruzko logikari. Kontsumoaren logika individualista da gupidagabe. Juliet Schor-ek jakinarazten duenez, marketinak eta publizistek beti bilatu dute gero eta familia-kide gehiago leialtasun tradizionaletatik erauztea eta euren produktu eta marketikiko leialtasunak sortzea: hogeiko hamarkadatik (orduan emakumeak zituzten xedetzat) gaurdaino: umeei zuzenduak (ikerketek agerian uzten dutenez, gai dira 2 urtetik aurrera markak identifikatzeko eta eragina dute gurasoen erosketan 2-3 urteko adinetik aurrera). Gainera, marketinak kontsumitzaileen baitan leialtasun-sentimendua eragiten duen arren, kontsumoari buruzko diskur-

tso-suposamenduetarako oinarria da “norberaren aukeran” dagoela giltza. Horrelako indibidualtasuna errespetatzen bada, orduan zaila izango da beste herritarrak kontsumitzaile aukeratzailerat ez jotzea.

Bigarrenik, antzekotasun kontsumistaz gain, desberdintasunaren logikak (afroamerikarrak, latinoak, etorkinak, juduak etab.) adierazten duenez, bada arrazoi bat estatubatuarrek zainketa balio publikoa dela ez onartzeko. Azken batean, zainketa publikoa, berau baliatzeko euren burua maiz ezgai ikusten duten “beste” horiekin konpartitu behar da. Zainketa publikoaren dimentsio batzuek, segur aski, era erretorikoan “askotarikoa bateratzeko” nahitik etekina atera duten arren, (adibidez, asimilazio-beharrak hezkuntza publikoarentzako babesaren eragin zuten), oro har, “besteak sortzeko” prozesua historikoki kaltegarria izan da baztertuta zeudenentzat. Iragan horri aurre egiteko gai ez izatearen ondorioetako bat da estatubatuarrek nahiago dutela euren beldur horri lotzea ulertuak ez izatea baino, ahaztuak edo baztertuak izatea baino. Elkarrekikotasunean sinisten badugu, orduan zentzua du gaizki tratatuak izan direnek, aukera dutenean, lehengo euren oinazera eragilean jasotako tratua bera emanez mendeku hartzea. Jada Thomas Jeffersonen *Hausnarketak* idazlanaren garaian, estatubatuar psikearen zati batek auresuposatzen zuenez, Jainkoa bidezkoa bazen, orduan estatubatuar zuriak maiz aitortu gabeko euren egintzengatik ordaindu egingo zuten.

Beste alde batetik, ordea, frogaren enpiriko batzuek aditzera ematen dutenez, estatubatuarrek ez dute ezagutzen ez pertsonen euren baitan oinarritzeko senak eta ez besteen bizitza partikularrekin dituzten ezinikusiak. Steve Kelmanek argudiatzen duenez, adibidez, norberaren interes indibidualaren kultura egon arren, frogaren ugarik aditzera ematen dutenez, pertsonak “espiritu publikoa” erakutsiz portatzen dira (Kelman 1988). Gainera, komentatzen duenez, zenbat eta pertsona gehiagok jokabide altruista izan, hainbat eta joera handiagoa izango dute altruista jokatzeke (52-3).

Horrenbestez, galdera da zein baldintzatan alda daitezkeen esparru bertutetsuetan zainketa gai indibidualtzat jotzen denean gertatutako sorgin-gurpilak eta, hartara, Nancy Folbrek “persona onaren dilema” deitzen duena saihestu (presoren dilemari kontrajarrita; Folbre 2001).

Helburua da abiapuntutzat hiru suposamendu edukitzea: denok dugu eskubidea bizitzan zainketa egokia jasotzeko; denok dugu eskubidea bizitzari zentzua emango digun zainketa-harremanetan parte hartzeko; denok dugu eskubidea gizarteak bi premisa horiek bermatzeko era juzkatzeko prozesu publikoan parte hartzeko.

Lehenengo puntuak “gizarte-eskubide” klasiko bat dakarkigu gogora, T. H. Marshall-ek adierazi bezala. Berberak deskribatu zuen herritarrak gizarte-eskubideen jabe egiten dituen ereduak (hau da, horren bidez, pertsonen estatuari erreklamazioak jar diezazkiokete gizarte-ongizateko estatuen prestazio-eskubidea erabiliz), pertsonen eskuetatik boterea kentzen amaitzen duen ereduak:

Eta gizarte-eskubideak (ongizate-eskubideak terminoaren zentzu zabalenean) ez dira diseinatu inondik ere boterea erabiltzeko. Duela urte asko nabarmendu nuen bezala, masa-gizarteko elementu indibidualista kementsua adierazten dute, nahiz eta giza-banakoak kontsumitzailetzat jotzen dituzten eta ez partehartzailetzat. Kontsumitzaileek

gutxi egin dezakete, salbu eta Oliver Twistena egin eta "gehiago eskatu", eta politikariek herritarren gain izan dezaketen eragina, emango zaiela promesa eginez, handiagoa da herritarrek (edo gauza horiekin kezkatuta daudenek), exijitzean, politikariren gain izan dezaketena baino (Marshall 1981: 141).

Arrazoi horiengatik, ez da nahikoa zainketa-eskubide bat erabiltzea banatua izatea ona balitz bezala. Hurrengo bi puntuak ere oso garrantzizkoak ziren.

Bigarren puntua oso garrantzizkoa da, pertsonen zainketa onari buruzko iritziak aldakorrek direlako arraza, klase, arraza, etnia, erlijio, ideologia, baita nortasunaren arabera ere. Horrenbestez, zainketa-eredu bat guztiontzat baliagarria dela uste izatea ez da zentzuzkoa. Pertsona ahulak eta zaharrak zahar-egoitza batean sartuta egon omen beharko lirakeela edo familia bakoitzak bere kideak zaindu beharko lituzkeela txotxolokeriak dira, eta urratu egiten ditu gizakiek zainketak eman eta hartzeko orduan dituzten askotariko gaitasun-erak. Ez genuke inor behartu behar berak iraingarri irizten dion zainketarik hartzera eta, era berean, ez genuke gizartea ontzat joko, adibidez, familiako kideak zainketak ematera behartuta baleude; Janet Finchek "ez zaintzeko eskubidea" deitzen dio horri (Finch 1996).

Hirugarren puntua ere oso garrantzizkoa da; izan ere, esatea jendeak "besteak" gogoan izango dituela era altruistan jokatzeko dutenean soilik (Kelmanen hizkeraz) ez du esan nahi besteen beharizanei buruz benetakotasunez hausnartuko dutela, zainketa-gaietan besteek behar dutenari buruzko euren ustea inposatzeari kontra jarrita. Lehenago ere ikusi dugunez, jende guztiaren premiak eta desioak norberaren berdina direla uste izateak eragiten du pertsonak gaur egun jokatzen dutela zainketari buruzko sorgin-gurpilak betikotzeko moduan. Horrelako jarrerak aldatzeko era bakarra, pertsonak euren premiei buruz egiten dituzten benetako kontakizunei buruzko hausnarketak baliatzea da. Prozesu demokratikoak behar ditugu pertsona guztien ahotsak entzun daitezzen, eta ez boteretsuena, klase ertainekoena eta abarrena soilik.

Beharbada ez dirudi oso errealista prozesu demokratiko bat eskatzea, ikusita Estatu Batuetan erakunde politikoak ez direla oso ordezkatzailak. Hala ere, zainketa gehienak tokian tokikoak dira: ez da beharrezkoa prozesu demokratikoak gogoan izatea maila altuenean soilik funtzionatuko duen zainketa bat sortzeko. Julie Whitek erakutsi duenez, zainketa-ingurune jakinetan, era demokratikoagoan antolatu direnak arrakasta handiagoa izan dute (White 2000).

Atal honetan defenditu dudanez, badago modurik zainketa publikoaren kontzeptura iristeko eta horrek zainketa-harremanak eta zainketa-lanaren (ordaindu eta ez-ordainduaren) balioa berriro planteatzeko oinarri bat jarriko luke. Buka dezagun ondorengo galderari helduz: zergatik izango litzateke erabilgarria zainketa balio publiko bihurtzea zainketa desorekatuko distantzia gero eta handiagoaren arazoa konpontzeko orduan?

5.

Defenditu dudanez, zainketako desberdinkerien sorgin-gurpilak gurpil bertutetsu bihur daitezke. Hori adieraztean, ez dut esan nahi zainketa berdina bihurtu behar denik, zainketako desberdinkerien arazoa axola digun arazo kolektibo bihur daitekeela baizik.

Aldaketa hori burutzeko, ironikoa bada ere, gure zainketen hartzaile izaera, funtsean pasiboa, aitortu behar dugu. Horretarako, zainketei buruzko politikei informazioa hornitzen dieten egozpen-kategoria ugari baztertu behar ditugu: pertsona gaituak vs. ezgaituak, gaixoak vs. osasuntsuak, helduak vs. haurrak, heldu produktiboak vs. zahar ahulak, zerbitzuen enkargu-emaileak vs. zerbitzuen behardunak. Desberdintasun horiei lotuta, generokoak, klasekoak eta arraza-estatuskoak daude. Aldiz, beharrezkoa dugu guztiok geure buruak eta hurrekoak zaintzeko erak aurkitzea.

Ironikoa bada ere, zainketak jasotzen dituztenen taldean beti egotearen ahuldade hori onartzeak kausa komun bat aitortzearen sendotasuna ematen digu: segurtatzea pertsona guztiek zainketa onak jasotzen dituztela. Hemen adierazi ditudan zainketa kolektiboko lanak ez dira erraz burutzen eta herritarrei exijentziak dakarzkie. Exijentzia horiek maiz ordena publikoak ezartzen dituen ez bezalakoak izaten dira, eta elkarren lehian diren bi eliteren arteko bi gaitzen artean aukeratu behar da eta, beraz, soziologo politikarien suposamenduak ez dira horrenbesteko sendotasunez aplikatzen (suposamendu horien arabera, pertsonak ez daude prest parte hartzeko).

Baldin eta hainbat adituk aditzera eman dutenez, zainketetako desberdinkeriak oinarritzko balioetan, adibidez, aukera-berdintasunean eta justizian, kalte handia eragiten badu, orduan garrantzizkoa da testuingurua garbitzeko urratsa ematea desberdinkeria hori argi eta garbi mehatxua dela senti dadin, mehatxuak ez bailuke utziko zainketaren balioan behar aldaketa burutzen. Gaur egun, estatubatuarrek zainketari buruz duten ikuskerak modua ematen dio gizarteko jende askori "barne-hautematearen kontrako txertoa" hartzea (W. O. Brownnek deitu bezala). Ezin dugu erraz ikusi nola "gure buruaren aldeko eta gure familiaren aldeko onena egitea"ren balio pribatua gizarte-desberdinkeria handiagoa bihurtzen den. Sorgin-gurpil hori gurpil bertutetsu bihurtzeak eskatzen du zainketa giza ezaugarritzat hartua izatea, gure balio publikoen osagaitzat eta herritartasuna zer den eta zer egiten duen ulertzeko gure eraren osagaitzat (9).

(9) Aditzera eman nahi nuke, hitzaldi hau prestatzen nuen bitartean, Pamela Stonekin eta Theresa Arendellekin posta elektronikoko bidezko elkarrizketa eta iritzi-truke interesgarri batzuk izan ditudala. Hala ere, horiek ez dira inondik ere nire ondorioen edo argudioen erantzule. "Zainketa lehiakorrari" buruzko atala, *Boston Review*-n (2002ko martxoan) argitaratutako nire testuan oinarritzen da.

- Beauvoir, Simone de. 1968. *The Second Sex*. Estatu Batuetako 1. argitaraldia. New York: Modern Library.
- Bridges, Amy. 1979. The Other Side of the Paycheck. In *Capitalist Patriarchy and the Case for Socialist Feminism*, Z. Eisensteinek argitaratuta. New York: Monthly Review Press.
- Cancian, Francesca M. 2000. Paid Emotional Care: Organizational Forms That Encourage Nurturance. In *Care Work: Gender Labor and the Welfare State*, M. H. Meyer-ek argitaratuta. New York: Routledge.
- . 2002. Defining 'Good' Child Care: Hegemonic and Democratic Standards. In *Child Care and Inequality: Rethinking Carework for Children and Youth*, argitaratzaileak F. M. Cancian, D. Kurz, A. S. London, R. Reviere eta M. C. Tuominen. New York: Routledge.
- Duncan, Greg J., Mary C. Daly, Peggy McDonough and David R. Williams. 2002. Optimal Indicators of Socioeconomic Status for Health Research. *American Journal of Public Health* 92 (7):1151-1157.
- Finch, Janet. 1996. Family Responsibilities and Rights. In *Citizenship Today: The Contemporary Relevance of T. H. Marshall*, argitaratzaileak M. Bulmer and A. M. Rees. London: UCL Press.
- Fisher, Berenice and Joan C. Tronto. 1990. Toward a Feminist Theory of Caring in E. Abel and M. Nelson, eds., *Circles of Care* (Albany: SUNY Press, 1990): 36-54. In *Circles of Care*, argitaratzaileak E. Abel eta M. Nelson. Albany, NY: SUNY Press.
- Folbre, Nancy. 2001. *The Invisible Heart: Economics and Family Values*. New York: New Press.
- Foucault, Michel. 1997. The Ethics of the Concern of the Self as a Practice of Freedom. In *Ethics: Subjectivity and Truth*, argitaratzaileak P. Rabinow. Harmondsworth: The Penguin Press. 96-116.
- Frankfurt, Harry G. 1988. *The Importance Of What We Care About: Philosophical Essays*. New York: Cambridge University Press.
- Garey, Anita Iltta. 1999. *Weaving Work and Motherhood*. Philadelphia: Temple University Press.
- Gilens, Martin. 1999. *Why Americans Hate Welfare: Race, Media, And The Politics Of Antipoverty Policy*, *Studies In Communication, Media, And Public Opinion*. Chicago: University of Chicago Press.
- Han, Wen-Jui, Jane Waldfogel and Jeanne Brooks-Gunn. 2001. The Effects of Early Maternal Employment on Later Cognitive and Behavioral Outcomes. *Journal of Marriage & Family* 63 (2):336-354.
- Hays, Sharon. 1996. *The Cultural Contradictions of Motherhood*. New Haven: Yale.

-
- Heymann, Jody. 2000. *The Widening Gap: Why America's Working Families Are in Jeopardy and What Can Be Done About It*. Nueva York: Basic.
- Hoagland, Sarah Lucia. 1988. *Lesbian Ethics: Toward New Value*. 1. arg. Palo Alto, Calif.: Lesbianismo Azterketen Institutua.
- Hondagneu-Sotelo, Pierrette. 2001. *Doméstica: Immigrant Workers Cleaning And Caring In The Shadows Of Affluence*. Berkeley: University of California Press.
- Jencks, Christopher. 2002. Does Inequality Matter? *Daedalus* 131 (1):49-65.
- Kelman, Steven. 1988. Why Public Ideas Matter. In *The Power of Public Ideas*, argitaratzaileak R. B. Reich. Cambridge, MA: Ballinger Publishing.
- Kittay, Eva Feder. 1999. *Love's Labor: Essays on Women, Equality and Dependency*. Argitaratzeilak L. Nicolson, *Thinking Gender*. New York: Routledge.
- Lareau, Annette. 2000. Contours of Childhood: Social Class Differences in Children's Daily Lives. Berkeley: Familia Langileentzako Zentroa, Berkeleyko Kaliforniako Unibertsitatea.
- MacIntyre, Alasdair C. 1999. *Dependent rational animals: why human beings need the virtues, The Paul Carus lecture series*; 20. Chicago, Ill.: Open Court.
- Marshall, T. H. 1981. Reflections on Power. In *The Right to Welfare and Other Essays*. New York: Free Press. Original edition, 1969.
- Mills, Charles. 1997. *The Racial Contract*. Ithaca, NY: Cornell University Press.
- Narayan, Uma. 1995. Colonialism And Its Others: Considerations On Rights And Care Discourses. *Hypatia* 10 (2):133-40.
- Omolade, Barbara. 1994. *The Rising Song Of African American Women*. New York: Routledge.
- Ostrove, Joan M., Pamela Feldman and Nancy E. Adler. 1999. Relations Among Socioeconomic Status Indicators and Health for African-Americans and Whites. *Journal of Health Psychology* 4 (4):451-463.
- Parreñas, Rhacel Salazar. 2001. *Servants of Globalization: Women, Migration, and Domestic Work*. Stanford, CA: Stanford University Press.
- Postsecondary participation: the effects of parents' education and household income. 2002. *Education Quarterly Review* 8 (3):25-32.
- Rubenstein, Caren. 1993. Consumer's World: Finding a Nanny Legally. *The New York Times*, urtarrilaren 28a, C 1.
- Ruhm, Christopher J. 2000. Parental Leave And Child Health. *Journal of Health Economics* 19:931-960.
- Schwarzenbach, Sibyl A. 1996. On Civic Friendship. *Ethics* 107 (1):97-128.

-
- Sen, Amartya. 1992. Missing women. *BMJ: British Medical Journal* 304 (6827):587-88.
- Sevenhuijsen, Selma L. 1998. *Citizenship and the Ethics of Care*. London: Routledge.
- Shapiro, Ian. 2002. Why The Poor Don't Soak The Rich. *Daedalus* 131 (1):118-129.
- Slater, Don and Fran Tonkiss. 2001. *Market Society: Markets and Modern Social Theory*. Cambridge, RU: Polity.
- Tilly, Charles. 1998. *Durable Inequality*. Berkeley: University of California Press.
- Valian, Virginia. 1998. *Why So Slow?: The Advancement Of Women*. Cambridge, Mass.: MIT Press.
- Waerness, Kari. 1990. Informal and Formal Care in Old Age: What Is Wrong With the New Ideology in Scandinavia Today? In *Gender and Caring: Work and Welfare in Britain and Scandinavia*, argitaratzaileak C. Ungerson. London: Harvester, Wheatsheaf.
- Wagstaff, Adam. 2002. Poverty and Health Sector Inequalities. *Bulletin of the World Health Organization* 80 (2):97-105.
- Walker, Margaret Urban. 1999. Getting Out of Line: Alternatives to Life as a Career. In *Mother Time: Women, Aging and Ethics*, argitaratzaileak M. U. Walker. Lanham, MD: Rowman and Littlefield.
- White, Julie Anne. 2000. *Democracy, Justice and the Welfare State: Reconstructing Public Care*. University Park, PA: Penn State University Press.
- Williams, Joan. 2001. *Unbending Gender*. New York: Oxford University Press.

CHIARA SARACENO

**Gizarte Zientzietako Saila.
Torinoko Unibertsitatea. Italia**

*Zein eskubide
eta betebeharrak,
zein baliabide
mota?*

*Herritarren
ikuspegiak
generoaren
ikuspuntutik*

1.

Herritarrak generoaren ikuspegitik aztertzeak lan banaketarekin eta genero gaitasunekin zerikusia duten teoria eta praktikak nola eraiki diren erakusten digu, bai eta publikoa denaren eta pribatua denaren inguruko kontzeptu espezifikoek buruzko teoriak zein diren ere (batzuk bereziki dagozkie nazio jakin batzuei). Eraiki diren teoria horiek ikusita ikus dezakegu nola, batetik, emakumeen ardurua nagusia familia zaintzea izan den eta, beraz, denbora askoan eta, hein batean baita oraindik ere, herritar gisa dituzten gaitasunak izatea eta bizitza sozial eta politikokoan partaidetza osoa izatea mugatzen zaien eta mendekotasun ekonomikoa jasaten duten. Bestalde, herritarren hitzaldi eta praktikek alde batera utzi dituzte zainketa beharrak eta mendekotasun eta elkarmendekotasun harremanak. Hori dela eta, generoari dagokionez, itxuraz neutralak diren erreformak daude (edo generoa neutralizatzen dutenak), EBeko herrialde askotako pentsio-sistemetan sortu direnak bezalakoak, hain zuzen ere, familian lana generoaren arabera banatzeak eragiten dituen eragin asimetrikoak baztertzeko direlako eta, zaintzearen betebeharre dagokionez, emakumeen zahartzaroko egoera ekonomikoa okertzea arriskatzeko delako. Laneko denbora antolatzea, laneko ardurak familien eta gizartearen artean banatzea, etxean eta familian lanak generoaren arabera banatzea, horiek dira, oraindik orain, emakumea finantza mailan autonomo bihurtzeko gaitasunen mugatzailak nagusi, txirotasunaren aurka babesteko (eta bertan ez erortzeko) eta, askotan, baita gizarte osoan parte hartzeko oztopo nagusi ere (1). Izan ere, EUROSTATeko emaitzek nahiz Europako beste 28 herrialdeetan orain gutxi egindako azterketa batek emakumeak lan-merkatutik kanpo geratzeko arrazoi nagusia familia-ardurak direla erakusten dute. Halaber, hori bera da emakumeek gizarte-bazterketa eta txirotasuna jasateko arrazoi nagusia, nola lan egiteko adina dutenei hala nagusienei dagokienez (2). Familia-ardura horien ondorioz, emakumeek "normala baino maila baxuagoko" lanak hartzen dituzte nagusiki eta euren lanbide profesionalak etengabekotasunarekin jasaten dituzte (3). Era berean, Europako emakumeek jasaten duten lan-gaunkarga eta zainketa-aren lan gehigarria kezkatzeko arrazoi izan beharko litzateke.

Berdintasunak eta aukera berdintasunak aurrez aipatutako horri guztiari aurre egiten ez dien bitartean, emakumeek ezin izango dituzte euren helburuak guztiz asebetu.

Herritarrek generoa izateak ez du esan nahi herritar-eredu ezberdinak garatu behar direnik gizon eta emakumeentzat, ez eta eredu horretatik eratorri behar diren eskubideentzako oinarri ezberdi-

(1) ELGE konferentzia, *Bebés y jefes, conciliar la vida laboral y la familiar*, 1. lib.: Australia, Danimarka eta Holanda. Ekonomi Lankidetzaren eta Garapeneko Erakundeak, Paris, 2002, ELGE, *Bebés y jefes, conciliar la vida laboral y la familiar*, 2. lib.: Austria, Irlanda eta Japonia. Ekonomi Lankidetzaren eta Garapeneko Erakundeak, Paris, 2003.

(2) Ikus adibidea in Ginn J., D. Street, S. Arber, *Women, Work and Pensions. International issues and prospects*, Open University Press, Buckingham, 2001.

(3) Ikus, adibidez, Sarfati H. eta G. Bonoli (Ed.). *Labour Market and Social Protection Reforms in International Perspective: Parallel or converging tracks?* Abingdon, Ashgate, 2002.

nak jarri behar direnik ere. Oinarri horiek zabaltzea esan nahi du, horrela behar (eta gaitasun) gehiagori erantzuteko eta lanaren nahiz arduren esparrutik generoaren arabera banaketa zurrun hori desegiteko.

2.

Generoari buruzko xedapenak gerra osteko gizarte-hitzarmena (4)

Colin Crouch-en arabera, mendebaldeko mundu industrializatuan gizartearen, politikaren eta komunitatearen arteko harreman eta orekak, nahiz pribatuaren eta publikoaren artekoak definitzen zituen gizarte-hitzarmena garatu zen. Gizarte-hitzarmen horrek honako lau ezaugarrien arteko oreka zekarren: a) industria egitura, nekazaritza-egitura, egitura okupazionala eta ekonomikoaren orde; b) batez ere kapitalista den esparrua; c) erkidegoko erakunde tradizionalak dagokienez, soziologikoki liberalak diren erakunde-egitura; d) gizarte horretan bizi den ia pertsona heldu bakoitzak herritar gisa eskubide jakin batzuk dituela dioen ideia (5). Ezaugarri horiek orekatuak zeudenez, mendebaldeko herrialde horiek jabetza eta ikuspegi komunak elkarbanatzen zituzten; hala ere, oreka hori ezartzeko aniztasunak herrialdeen arteko aniztasuna sortu zuen. Gainera, oreka horiek ez ziren tentsiorik, gatazkarik eta barne-kontraesanik gabe erdietsi. Gizarte horiek tentsio haiei aurre egiteko izan zituzten moduek are gehiago banandu zituen herrialdeak elkarren artean, eta bide bitxiak ireki ziren aldaketarantz.

Leialtasun pribatuaren eta merkatuaren eskakizunen arteko balizko tentsioak konpontzeko, familia-harremanen arabera arau eta munduaren partaide izatea lantoki batetako partaide izatetik banandu zen. Familia barnean lana generoaren arabera banatzea ezinbesteko bihurtu zen aipatutako banaketa hori burutzeko, nola modu sinbolikoan nola praktikoan. Ongizate-estatuaren xedapenak tentsio horiei aurre egiteko bigarren modu bat izan ziren. Gatazka kudeatzeko bi "modu" horiek (familia-xedapenak eta ongizate-estatuarenak) elkar gurutzatu eta jardun zuten. Familiak ziren, nola etxeak hala senideen sareak, diru-sarrerak banatzeko gunea eta ongizate-estatuaren laguntzak jasotzeko kate-maila adina edo generoagatik horiek zuzenean eskuratu ezin zituztenentzat. Era berean, genero-ereduek eta belaunaldien arteko jarrerak eta, bestetik, familien isla eta

(4) Garatuago: Saraceno -"Changing Gender and Family Models: Their Impact on the Social Contract in European Welfare States", in O. Zunz, L. Schoppa and N. Hiwatari (ed.), *Social Contracts under Stress*, New York, Russel Sage Fundazioa, 2002, 204-31 or.

(5) Colin Crouch, *Social Change in Western Europe* (Oxford: Oxford University Press, 1999), 34-35.

ongizatearen xedapenatarako ezinbesteko ziren elkartasun- eta betebeharrereduek, ongizate-erregimenak ezberdintzen zituzten (6).

Ongizate-estatuaren aurreikuspenek familiek zituzten genero eta belaunaldien arteko xedapenei eragin zieten familia-mendekotasunak instituzionalizatzean. Hain irmoki ezarri ziren hirurogeiko hamarkadan, ezen azkenerako naturalak ziruditelako, herrialde bakoitzean maila ezberdina baldin bazuten ere. Lan-harremanak eta baldintzak arautu zirenez eta sozialki zein behar onartu eta bultzatu zitezkeen zehaztu zenez, legediak eta ondoren gizarte-politikek familia eta etxeen osaketa arautu zituzten inplizituki. Hori bi modutara gertatu da: batetik, generoen eta belaunaldien arteko mendekotasun harremanak berrezarri dira eta, bestetik, ugalketa baldintza eta kostuak aldatu dira, horrela, familia-eredu bereziak atzera bota edo orekatu egin dira. Sistema horren eraginak mende hasieran hirugarren adinekoentzako pentsioak ematen hasten direnean suma ditzakegu. Izan ere, pentsioen bitartez, lana utzi ondoren etorkizuna segurtasunez begiratzeaz gain, hirugarren adineko pertsonak ez zuen zertan senideen hain mendeko izan behar. Emakume eta haurren lan-esku murrizketak eta derrigorrezko eskolatzea sartzea *de facto* bitartekoak izan ziren pertsona langileen etxeetako genero-harremanak eta belaunaldien arteko harremanak arautzeko, horrela, senideak "lan-esku" gisa edota "familiaren mendeko" bezala ezberdindu ziren.

Industrializazioa zabaldu zenean, batetik, soldata batekin lanaldi osoz lan egiten zuten gizonezkoen proportzioa handitu zen, eta horrek estatuko ongizate-hornidura lortzeko bide eman zien gizonezkoek eta, bestetik, lan ordaindu postuak betetzen zituzten emakumeen proportzioa (batez ere ezkonduena) izugarri jaitsi zen, baita eskulanaren barneko haur proportzioa ere (7). Hori berezi-

(6) Ikus, Gøsta Esping Andersen, *Three Worlds of Welfare Capitalism* (Bristol: Polity Press, 1990). Ikus baita ere beka feminista: Jane Lewis, ed., *Women and Social Policies in Europe: Work, Family and the State* (Cheltenham: Edward Elgar, 1993); idem., "Gender and Welfare Regimes: Further Thoughts," *Social Politics* 4 (Summer 1997): 160-177; Mary Langan eta Ilona Ostner, "Gender and Welfare: Towards a Comparative Framework," in *Towards a European Welfare State?*, ed. Graham Room (Bristol: SAUS, 1991), 127-50; Diane Sainsbury, ed., *Gendering Welfare States* (London: Sage, 1994); idem., *Gender, Equity and Welfare States* (Cambridge: Cambridge University Press, 1996); Barbara Hobson, "No Exit no Voice: Women's Economic Dependency and the Welfare State," *Acta Sociológica* 33 (1990): 235-50; Ann Orloff, "Gender and the Social Rights of Citizenship: State Policies and Gender Relations in Comparative Research," *American Sociological Review* 58 (1993ko ekaina): 303-28; Julia S. O'Connor, Ann S. Orloff, and Sheila Shaver, *States, Markets and Families* (Cambridge: Cambridge University Press, 1999); Arnlaug Leira, *Welfare States and Working Mothers: The Scandinavian Experience* (Cambridge: Cambridge University Press, 1992); Goran Therborn, "The Politics of Childhood: The Rights of Childhood in Modern Times," in *Families of Nations: Patterns of Public Policy in Western Democracies*, ed. Francis G. Castles (Averbury: Aldershot, 1993); Anne H. Gauthier, *The State and the Family: A Comparative Analysis of Family Policies in Industrial Countries* (Oxford: Clarendon Press, 1996).

(7) Hans Peter Blossfeld y Catherine Hakim, ed., *Between Equalization and Marginalization: Women Working Part-Time in Europe and the United States of America* (Oxford: Clarendon Press, 1997); Crouch, *Social Change in Western Europe*.

ki nabarmen geratu zen herrialde industrializatuenetan edota lehenik industrializatu ziren horietan. Era berean, etxeko eta familiako lan ez ordaindua igo egin zen. Prozesu hori mende Erdiko hamarkadetan burutu zen, mendebaldeko herrialdeek historian emakumezko helduetan erabateko arduraldia zuten etxekoandreen proportziorik altuena zutenean.

Prozesu horren oinarri jarduten zuen etxe-eredu idealak zuen premisa gizonen ekonomia-euskarrian oinarritzen zen, gizona emakumeak eta haurrak babesteko bitartekari izatearen eta diru-sarrerak ekartzearen arduradun den horretan (8). Eredu horren arabera, emazte eta amaren egitekoa noizik behin beharrezko diru-sarrerak ekartzeaz eta, modu sistematikoan, zaintzeaz arduratzea da, batez ere adin txikiko haurrak eta hirugarren adinekoak zaintzeaz, hain zuzen ere. Esan genezake lan-merkatuarekin lotutako gizarte-eskubideen garpenarekin batera, familia-loturen eta mendekotasun oinarrien zabalkunde mailakatu bat gertatu zela. Emakume, haur nahiz hirugarren adinekoen gizarte-eskubideak "etxekotzea" gaitasun fisikoa duten gizonezko heldu eta langileen gizarte-eskubideak bereiztearekin batera eta nahasirik etorri zen. Etxekotze horrek "familia-soldata" terminoa bera bultzatu du eta langile klasearen mugimendu askotan egin da ezagun.

Baina "familia-soldata" terminoaren esanahia zehaztea gizarte eragileen arteko gai gatazkatsua zen (terminoak soldata nork eman behar duen eta nork jaso behar duen zehaztu beharko luke). Horrek gatazkak sortu zituen lan mugimenduaren eta enpresarien artean, sindikatu eta talde feministen artean eta, Frantzia bezalako herrialdeetan, enpresarien eta Estatuaren artean. Iritziak adierazteko, alternatibak negoziatzeko eta gatazkak konpontzeko moduek herrialde guztien gizarte politiketan eragin dute guztiz. Familia eta beronen mendekotasun eta elkarmendekotasunak aurkezteko egungo moduan ere eragin du (9). Hasiera batean ongizate-estatu guztietan euskarri gizonezkoen ekonomia-euskarriaren eredia nagusitu baldin bazen ere, nagusitasun maila hori familiaren gaia aurkezteko eta negoziatzeko moduaren arabera zen. Halaber, familiaren gaia aurkezteko eta negoziatzeko modua, onartu eta/edo proposatutako neurrien ageriko eta ezkutuko helburuen arabera izateaz gain, botere harremanen arabera zen, nagusi zen balioaren arabera eta familia antolatzeako kultur ereduaren arabera.

(8) Feminismoa aztertu dutenek beti erabili izan dute "gizonezkoen ekonomia-euskarri" kontzeptua ongizate-estatuan nagusi diren azterketa eta tipologiaren interpretazio urritasunen kritika nabarmen gisa, batez ere Gøsta Esping Andersen egilearen, *Three Worlds of Welfare Capitalism* lanari. Ikus, Jane Lewis, "Gender and the Development of Welfare Regimes," *Journal of European Social Policy* 2 (1992 udazkena): 159-73; idem., "Gender and Welfare Regimes: Further Thoughts"; eta Sainsbury, ed., *Gendering Welfare States*, Cambridge, Cambridge University Press.

(9) Ikus, halaber, Susan Pedersen, *Family, Dependence and the Origins of the Welfare State: Britain and France, 1914-1945* (Cambridge: Cambridge University, 1993).

3.

Gerra osteko gizarte- hitzarmenaren oinarri aldakorrak: generoari eta familiari buruzko xedapen aldakorrak

Biztanleria zahartzen ari da, zainketa eskaria ugartzen ari da, emakumearen partaidetza lan-merkatuan handitzen ari da eta ugalkortasuna jaisten (bi fenomeno horiek teorikoki erabilgarri diren zaintzaileen kopurua murrizten dute), ezkontideen egoera geroz eta ezegonkorragoa da eta aita-oinordeko loturak ahultzeko arriskua dago. Horiek guztiak orain arteko erakundeek xedapenak zalantzan jartzen dituzten alderdiak dira. Hain zuzen ere, fenomeno horiek eta lanaldi osoko nahiz industriako lanpostuetan gizonezkoen kopurua jaitsi izanak gizonezkoen ekonomia-euskarriaren eredia ahuldu dute Europa osoan. Gizarte-eskubideak lortzeko bide berriak eskatzen dira, eta zainketa zerbitzuak familia eta senideen bitartez nahiz horiez kanpo izatea. Generoari buruzko xedapenetan oinarrituko naiz batez ere.

3.1

EMAKUMEEN PARTAIDETZA LAN-MERKATUAN GEROZ ETA HANDIAGOA DA

Gerra osteko urteetatik hona emakumeen bizitza erabat aldatu da herrialde industrializatuetan, batez ere azken bi hamarkadetan. ELGEko herrialde guztietan emakumeen jarduera-tasa nabarmen igo da hirurogeita hamarreko hamarkadatik hona eta, enplegu librean, emakumeen partaidetza kuota gizonezkoena baino erritmo biziagoan hazi da (10). Era berean, orain gutxi jaiotako emakumeak lan-merkatuan geratu ohi dira heldu diren bizitza osoan zehar, baita seme-alabak izaten dituztenean ere. Laurogeita hamarreko hamarkada amaieran hamar urte baino gutxiagoko seme-alabak zituzten emakumeetatik erdia etxetik kanpo ari zen lanean (11). Oraindik ere ezber-

(10) Europako Batzordea, *Employment in Europe* (Luxembourg: Office for Official Publications of the CEC, 1993); ELGE, *Employment Outlook* (Paris: ELGE, 1995); Europako Batzordea, *Women and Men in Europe*, Luxenburgo: Europako erkidegoen publikazio ofizialen bulegoa, 2002.

(11) Laurogeita hamarreko hamarkada erdialdean Italian ere, Espainian bezala etxeoandre eredu iraunkorra egokitzen zaion herrialdean, eskolaurreko haurrak zituzten ama gehiengoak lanetara itzuli ziren.

dintasun nabariak daude herrialde batetik bestera jarduera-tasari dagokionez, sektore informala-
ren garrantziari dagokionez, lanaldi murriztueto partaidetzari eta generoen arteko soldata ez-
berdintasunari dagokionez. Dena den, laurogeiko hamarkada amaieratik aurrera haur txikiak di-
tuzten emakumeen partaidetza lan-merkatuan ugartu egin da orokorrean. Modu egonkorrean
ugaritu dira bi ezkontideek ordutegi murriztuko edo lanaldi osoko lan egonkorra duten familien ko-
puru. Fenomeno horrek berrogeita hamarreko eta hirurogeiko hamarkadetan zegoen joera han-
kaz gora jartzen du, lan-merkatutik kanpo zegoen talderik handiena ama gazteena izatearen joe-
ra, alegia. Aldaketa hori hainbat arrazoiengatik gertatu da. Lehenik eta behin, emakume gazteek,
oro har, emakume helduek baino hezkuntza-maila altuagoa dute. Genero berdintasunaren itxaro-
penarekin jaio direnez, lanpostu hobe eta erakargarriagoak dituzte helburu. Bigarrenik, gizonez-
koen langabezi geroz eta handiagoaren gizarte-esperientziak eta, ondorioz, gizonen ekonomia-
euskarriaren eredu geroz eta ahulagoa izateak, normalizatu egin dute diru-sarrera bikoitza duen
familiarren irudia eta auto-babesteko estrategia bihurtzen du. Azkenik, dibortzio-tasa geroz eta al-
tuagoak dira eta horrek lan-merkatuan sartzeri eta bertan gelditzeri bultzatzen ditu ama gazteak.
Ikuspuntu horretatik, lan bat izateak ziurtasun pertsonala dakar, seme-alaben alde eta ezkontzak
eragiten duen ziurgabetasunaren aurka.

Horrela bada, gizonezkoen ekonomia-euskarriaren eredu oinarritzen den gizarte-legedirako au-
rebaldintzetatik, bi hauek ahuldu egin dira: lan ordaindua eta familia-bizitza elkarrengandik be-
reiztea, eta familia barnean eta senideen artean (emakumezkoen) doako zainketa eskura izatea.
Hori, batetik eta batez ere, hogeigarren mendearen lehen erdian gizonezkoen ekonomia-euskarria
eta lanaldi osorako zainzaile bat zuten klaseen eskutik etorri zen, hots, erdi mailako klaseen es-
kutik. Izan ere, lan-merkatuko partaidetza altuagoa da orain hezkuntza-maila altuagoko emaku-
meen artean. Era berean, emakumeak lan-merkatuan parte hartzeak familien arteko ezberdintasu-
nak ugaltu eta are sendotu ere egin ditzake, bikoteko gizarte-homogamiak lan-merkatu sartzeko
eta gizarte-baliabideak eskuratzeko ezberdintasunak bikoiztu egin baititzake.

Hala eta guztiz ere, emakumeen lan-merkatuko partaidetza igo den kultura- eta gizarte-testuinguru
horretan, generoari buruzko xedapen tradizionalak emakumeei lan ez ordaindua egokitzen die
asimetrikoki, batez ere zainketa lanak. Horrela bada, familia-ardurak dituzten emakumeak muga-
tuak daude oraindik ere lan-merkatuan parte hartzeko garaian eta horrek ondorio ekonomikoak
dakartza, nola epe laburrera hala epe luzera (lasaitasuna pentsioetan eta segurtasunean), ondo-
rioak emakumeak finantza-autonomia erdiesteko gaitasunean, euren babesean (eta seme-alabene-
an), txirotasunaren aurka eta, hainbatetan, baita gizartean osotasunean parte hartzeko garaian
ere. EBeko herrialdeek berehala sinatu zuten Lisboan emakumearen partaidetza lan-merkatuan
handitzeko helburua, baina hori gehiago da partaidetza horrek familia eta lan-merkatuaren anto-
laketan esan nahi duena azaletik ulertzea, emakumeak gizonen baldintza berberetan lan egitea
hain zaila eta konplexua egiten duten egiturazko baldintzei aurre egiteko benetako borondatea
baino. Lan ordutegiaren antolaketa, zainketa ardurak familiari eta gizartearen artean banatzea,
lana generoaren arabera banatzea etxe eta familietan, horiek dira, oraindik orain eta kasu gehie-
netan, oztopo nagusi. Ugalkortasunaren jaitsiera Europako herrialde guztien adierazgarri da eta,

bereziki, generoari buruzko xedapen asimetriko edo kontraesankorrenak dituzten horietan (Mediterraneokoetan gertatzen den bezala) edo, komunista ohiak diren herrialdeetan gertatzen den bezala, kultur eta erakunde-ereduen aldaketa anbibalenteak direla eta, tentsio handia jasaten duten horietan. Horrelakoetan, ugalkortasun jaitsiera hori erantzun bat nahiz estresaren adierazle ere bada.

3.2

EZKONTZA- -EZEGONKORTASUNA ETA AITAREN ETA SEME-ALABEN ARTEKO LOTURA AHULTZEA

Banaketak eta dibortzioak haurren gutxiengo bati eragiten dion arren (baita banaketa eta dibortzio tasa oso altuak dituzten herrialdeetan ere (12)), ugaritu egin da aldi baterako aitarekin edo amarekin bakarrik bizi diren haurren proportzioa, baita haur horiek zaindu eta mantentzearen arduradun bakarrak amak diren kasuak ere. Normala den bezala, aldaketa nabarmenak daude herrialde batetik bestera. Probabilitate gehiago dago Erresuma Batuko, Danimarkako eta Suediako haurrenganako eragina handiagoa izatea Frantzia, Alemania eta, batez ere, Portugal eta Espainiakoenganako eragina baino (13). Hala ere, joerak oso antzekoak dira munduko herrialde industrializatu guztietan, Europa erdialdea eta ekialdea barne. Gainera, dibortzioan amaitzen di-

(12) Greg J. Duncan eta William Rodgers, "Lone Parent Families and their Economic Problems: Transitory or Persistent?" in ELGE, *Lone Parents: The Economic Challenge* (Paris: ELGE, 1990), 43-68; eta Kathleen Kiernan eta Malcom Wicks, *Family Change and Future Policy* (London: Familia-Politiken Azterketarako Zentroa, 1990).

(13) Laurogeiko hamarkada erdialdean, Suedian haurrak zituzten familien ehuneko 17 guraso bakarreko familiak ziren, Danimarka eta Erresuma Batuan kopuru hori ehuneko 14koa zen, Farntzian eta Alemanian gutxi gorabehera ehuneko 13, ehuneko 10 eta 12 bitarte Belgika, Luxenburgo eta Holandan, ehuneko 5 eta 10 bitarte Irlanda, Italia, Portugal eta Espainian eta ehuneko 5 baino gutxiago Grezian. Ikus, Kiernan eta Wicks, *Family Change and Future Policy*; Ikus, halaber, Yin-Lin Irene Wong, Irwin Garfinkel eta Sara McLanahan, "Single Mother Families in Eight Countries: Economic Status and Social Policy," *Luxemburg Income Study Working Paper Series*, 76. zk. (Luxemburgo: LIS, 1992); Sheila B. Kamerman eta Alfred J. Kahn, "Single Parent, Female-headed Families with Children in Western Europe: Social Change and Response," *International Social Security Review* 42, (1989): 3-34; eta François Hopflinger, "Haushalts-und Familienstrukturen in intereuropäischen Vergleich," in *Die Westeuropäischen Gesellschaften in Vergleich*, ed. Stefan Hradil and Stefan Immerfall (Opladen: Leske und Budrich, 1997), 97-138. Datu horiek zuhurtziaz hartu behar dira, herrialde bakoitzak irizpide ezberdinak erabiltzen baititu "haurren presentzia" definitzeko (adina oinarri hartuta) bai eta guraso bakarreko familia zer den definitzeko garaian ere. Ikus, adibidez, Linda Hantrais eta Marie-Therèse Letablier, *Familles, travail et politiques familiales en Europe* (Cahiers du Centre d'Etudes de l'Emploi, Presses Universitaires de France, 1996).

ren ezkontzen kopurua jaisten joan denez, tartean gelditzen diren haurren adina ere txikiagoa izan ohi da orain, nahiz eta ezkontzaren banaketaren erdian egotearen probabilitatea ere murriztu den, geroz eta gehiago baitira seme-alabarik izan gabe dibortzioan amaitzen diren ezkontzak (14).

Banaketa eta dibortzioa izan baldin badira azken urte hauetan guraso bakarreko familiak ugari-
tzearen arrazoi nagusiak, gaur egun, ezkontzaz kanpo jaiotzen diren haur kopurua handitu izana ere arrazoietakoa bat da. Mediterraneoko herrialdeetan izan ezik, kopuru hori nabarmen igo da azken hamarkadetan, nahiz eta haur gehienak izatezko bikoteenak diren. Esate baterako, Erresuma Batuan jaiotzen diren haurren heren bat ezkongabe diren amenak dira; Irlandan seitek bat da horrelakoa. Proportzio hori oso altua da Eskandinaviako herrialdeetan ere. Bizikidetza ezkontza baino ahulagoa izan ohi denez, izatezko bikoteen hurrek euren etxeetako haustura bizitzeko arrisku handiagoa dute bikote ezkonduetatik jaiotzen diren hurrek baino.

Kasu horretan emakumeek hartu dute zama. Alargun izan gabe guraso bakarrez osatzen diren familien ehuneko laurogeita hamar baino gehiago emakumeek gidatzen dituzte. Ondorioz, berez, guraso bakarreko familiak amaz bakarrik osatutako familiak dira (15). Herrialde guztietan guraso bakarreko familiak, batez ere ama ezkongabeenak, bi gurasoko familiak baino txiroagoak izan ohi dira, baita ama ezkongabe langileen proportzioa bi gurasoko etxeetan bizi diren ama ezkondu langileen proportzioa baino handiagoa baldin bada ere (16).

Ama ezkongabeen familiek jasaten duten txirotasun arrisku handi hori, hein handi batean, ezkontzaren barnean lana eta ardurak generoaren arabera banatzearen emaitza da, baita lan-merkatuaren ondorioa ere. Ama ezkongabeek ekonomia-euskarri eta zaintzaile nagusi izatearen ardurak bikoitzari egin behar diote aurre, ekonomia-euskarri izateak zaintzearen ardurarik ez izatea esan

(14) William Goode, *World Changes in Divorce Patterns* (New Haven: Yale University Press, 1993).

(15) Ikus, halaber, Kauffman et al., *Structures and Trends in the 1980s*.

(16) Ikus, esate baterako, Europako Batzordea, *Joint Report on Social Inclusion*, Bruxelles, 2003ko abendua. Alargunak eta seme-alabak babestuagoak egoten dira gizarte-segurantzaren bitartez bananduta eta dibortziaz dauden amak baino, era berean, bananduta eta dibortziazutako amek senarren laguntza maizago izan ohi dute oinordekotzarako, ezkongabeak diren amek baino. Ikus, Irwin Garfinkel eta Sara McLanahan, *Single Mothers and their Children: A New American Dilemma* (Washington, D.C.: Urban Institute Press, 1986); Richard V. Burkhauser eta Greg J. Duncan, "Economic Risks of Gender Roles: Income Loss and Life Events Over the Life Course," *Social Science Quarterly* 70 (1989ko martxoa): 3-23; Mavis MacLean, "Lone-Parent Families: Family Law and Income Transfers," in ELGE, *Lone Parents*, 91-100; Judith A. Seltzer, "Legal Custody Arrangements and Children's Economic Welfare," *American Journal of Sociology* 96 (1991ko urtarrila): 895-929; eta Demie Kurz, *For Richer, For Poorer: Mothers Confront Divorce* (New York: Routledge, 1995); Jørgen E. Larsen, "Lone mothers. How do they work and care in different welfare state regimes?", in Thomas P. Boje eta Arnlug Leira, ed., *Gender, Welfare State and the Market* (London, Routledge, 2000), 206-225 or.

nahi duen merkatu batean. Era berean, ama ezkongabeek bidean aurkitzen dituzten gizarte-erakundeek hasieratik uste dute ama batek denbora-malgutasuna eta aukera handia izango dituela (hori eskola-ordutegietan ikus daiteke, haurrak zaintzeko zerbitzuen aukeran eta baita denda, bulego publiko eta abarren ordutegietan). Hori dela eta, guraso bakarreko familiek txirotasunean erortzeko arrisku txikiagoa dute Eskandinaviako bezalako herrialdeetan, baina baita Frantzia bezalakoetan ere, amek lan egitea zabalduagoa baitago eta gizarte zerbitzuek kontuan hartzen baitute hori (17).

Ezkontza-ezegonkortasunak eta guraso bakarreko familiak ugaritzeak gizarte-politikaren oinarri den gizonen ekonomia-euskarriaren eredia ahultzen dute bi modu hauetara: ekonomia-euskarri izatearen zeregina gehitzen zaie zaintzeko ardurei amen kasuetan eta, era berean, aitei zaintzeko edozein arduetatik libre uzten zaie. Seme-alaben amarekin bizi ez diren aitek askotan haurren kostuen zati batekin bakarrik laguntzen dute, euren diru-sarrerara maila edozein dela ere; amarekin zuten harremana bukatzean seme-alabekiko dituzten finantza-betebeharrak ere ez dituzte onartzen (18).

(17) Ikus, esaterako, Hobson B., "No exit no voice: Women's economic dependency and the welfare state", in *Acta Sociológica*, 1990, 33, or. 235-50; Hobson B., "Solo mothers, social policy regimes and the logic of gender", in Sainsbury, D., (ed.) 1994, or. 170-87; Millar Jane eta Karen Rowlingson (2002), *Lone Parents, Employment and Social Policy*, Bristol, Policy Press.

(18) Paul Festy, "Après la separation: diversité et stabilité des comportements," *Population* 3 (1988 maiatza/ekaina): 517-36; ELGE, Lone Parents; An Magritt Jensen, "Gender Gaps in Relationships with Children: Closing or Widening?" in *Gender and Family Change in Industrialized Societies*, ed. Karen O. Mason eta An Magritt Jensen (Oxford: Clarendon Press, 1995); William Marsiglio, ed., *Fatherhood: Contemporary Theory, Research and Social Policy* (Thousand Oaks, Calif.: Sage, 1995); Terry Arendell, *Fathers and Divorce* (Thousand Oaks, Calif.: Sage, 1995); Claude Martin, *L'après divorce. Lien familial et vulnérabilité* (Rennes: PUR 1997); eta Marzio Barbagli eta Chiara Saraceno, *Separarsi in Italia* (Bologna: il Mulino, 1998).

*Faintzen dutenen
jardun anbibalentea
herritartasun sozial
baten oinarri gisa (19)*

Ongizate-estatuaren azterketaren zati handi bat (batez ere Eskandinavian, baina baita Italia eta Ameriketako Estatu Batuetan ere) emakumeen gizarte-eskubideak zaintzaile gisa (batez ere ama gisa) nola eta zein puntutaraino pilatu diren aztertzean oinarritu da. Beharbada ez gaude guztiz ados Skockpol-en (20) tesiak AEBetako ongizate-estatuaren jatorri maternalistari buruz dioenarekin, baina emakumeek, ama gisa, babes eta baliabideak jasotzeko nolabaiteko eskubidea dutela dioen ideia ez zen eskakizun feminista bat soilik izan. Herritarrengana iristeko politika zehatzak egitera ere eramán zuen, nahiz eta normalean bigarren mailakoak izan (21). Politika horien aldaerek ongizate orokorraren tipologietan eragiten dute, baita gizonezkoan ekonomia-euskarriaren kategoria oinarri dituztenetan ere (22), hain zuzen ere emakumeen eskubide eta baliabideak zein puntutaraino pilatzen diren erakusten dutelako, ez bakarrik euren senarren oinordekotza duten ama gisa edo gaixo dauden senarren emakume gisa edo alargun gisa, baizik eta ama gisa eta/edo familiaren zaintzaile gisa (23).

Ama langileak eta ezkongabeak izan dira eta dira, oraindik orain, zaintzaile gisa eskubide motaren bat onartzen zaizkien gizarteko bi figura nagusienak. Zehazkiago, ama ezkongabeen eskubi-deak gizonezkoen ekonomia-euskarriaren ereduaren praktika nahiz ideologiarako erronka bat di-

(19) Paragrafo hau eta hurrengoa A. Leirarekin idatzi dudan atal batean oinarritzen dira batez ere: A. Leira and C. Saraceno "Care: Actors, relationships and contexts", in B. Hobson, J. Lewis, B. Siim (ed.), *Contested Concepts in Gender and Social Politics*, Edward Elgar, Cheltenham, RU, 2002, 55-83 or.

(20) Cfr. T. Skockpol, *Protecting Soldiers and Mothers. The Political Origins of Social Policy in the United States*, Cambridge, MA, Harvard University Press, 1992.

(21) A. Leira eta C. Saracenoren ikuspegi orokorra "Care: Actors, relationships and contexts", in B. Hobson, J. Lewis, B. Siim (ed.), *Contested Concepts in Gender and Social Politics*, Edward Elgar, Cheltenham, UK, 2002, 55-83 or.; Ikus, halaber, G. Zincone *Da sudditi a cittadini*, Bologna, il Mulino, 1990.

(22) Cfr. Lewis Jane (1992), "Gender and the development of welfare regimes", *Journal of European Social Policy*, 2 (3), 159-73 or.; Lewis Jane and Ilona Ostner (1995), "Gender and the evolution of European social policy", in S. Leibfried eta P. Pierson (ed.) *European Social Policy: Between Fragmentation and Integration*, Washington D.C., Brookings Institution.

(23) Ikus, esate baterako, Sainsbury Diane (1996), *Gender, Equality and Welfare States*, Cambridge, Cambridge University Press.

rela adierazi da, eta ongi adierazi ere baina, era berean, garrantzizko aldaera dira beste zentzu batzuetan, Alemania, Holanda eta Erresuma Batuan bezala gizonezkoen euskarriaren eredia oinarri hartuta (24). Dena den, bi adibideek erakusten dute emakumeek zaintzaile gisa pilatutako eskubide gehienak beste adibideren baten arabera direla: edo lanean egon edo diru-sarrerarik eta/edo diru-sarrerak ekartzen dituenik ez izatea.

Herralde askotan amatasunagatik (edo aitatasunagatik) ematen diren zerbitzuak eta baja ordainduak ez daude eskuragarri baldintza jakin batzuk betetzen ez baldin badira, eta lan ordaindua duten emakumeei bakarrik ematen zaizkie. Bada salbuespen nabarmen bat, iparraldeko herrialdeak. Herralde horietako aseguru etxeetako zerbitzuek oinarritzko ordainketa bat ematen die, baita lanik egiten ez duten amei ere. Dena den, herralde gehienetan, guztietan ez bada, amatasunagatik ematen diren zerbitzuak eta baja ordaindua izateko eskubidea ematen duen lana zein den erabakitzearen gaia hamarkadatan zehar eztabaidatu den zerbait izan da. Nahikoa ezberdintasun handiak daude emakume langileen kategorien artean, hala nola, langileak eta auto-langileak, lan finkoa dutenak eta finkoa ez den lana dutenak, lanaldi osoak edo murriztukoak, etab. Aldaketa handia dago, halaber, Europako herrialdeen artean gizarte-segurantzako arauak eta eskubideei, estaldurari eta iraupenari dagokienez (25). 1996ko Guraso-bajei buruzko arteztarauak aita eta amek baja ez ordaindu bat hartzeko eskubidea ezarri zuen, dena den, estatu-kide gehienetan ordezko soldataren bat eskaintzen da.

Hala eta guztiz ere, azken aldi honetan eremu horretan izan diren aldaketa garrantzitsuenak ez dira izan zerbitzuen zabalkundea ama langileen kopuru handiago batera iristearren, baizik eta aiten eskubideak zabaltzearen. Estatuak bajen bitartez aitek haurren zaintza hartzea bultzatu izana berrikuntza bat da eta zainketaren betebeharrak eta eskubideen definizio berri bat ematen du. Eskubide hori eskaini zuten lehen herrialdeak eskandinaviarrak izan ziren, hirurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera. Genero neutroko guraso-bajak generoaren arabera eskabide kopuru altu bat ekarri zuen eta, ondoren, bajaren aldi berezi batzuk aitek har zitzaten utzi ziren "aiten kuota" edo "aiten baja" moduan. Legediak ezarritakoaren arabera, presio apur batez zainketa aiten ardurak izatea bultzatu nahi da, horrela, aitek kuota ez baldin darabilte, familiak baja aldi hori erabiltzeko eskubidea galtzen du. Italiak dagoeneko bazuen ama langileentzako sistema eskuzabale netako bat eta 2000ko martxoan Eskandinaviako legearen oso antzekoa zen bat onartu zuen, bajaren zati bat aitek hartzen bazuen baja aldia handitu egiten zuena, hain zuzen ere (26).

(24) Ikus aurreko 19. oharra

(25) (Ikus, halaber, ikuspegi orokor konparatiboa Gornick J. C. Meyers M. C. eta Ross, K. E., "Supporting the employment of mothers: Policy variation across fourteen welfare states", *Journal of European Social Policy*, VII, 1, 1997, 45-70 or., Moss P. eta Deven F., (ed.), *Parental Leave in Europe. Progress or Pitfall?* Brusela, CBGS/NIDI Publications, 2000 ELGE, *A Caring World / Pour Un Monde Solidaire*, Paris, ELGE, 2000.

(26) Suediako legeak ez bezala, aitatasun-bajak ez du finantza-estaldura osoa, eta horrek baja hartu nahi duten aitei egiten die kalte, euren soldata izan ohi baita etxeko handiena.

Aitatasun bajei buruzko planak onartzeak generoaren ikuspuntutik zainketa kontzeptualizatzeko politikan inflexio-puntu bat sortu dela adierazten du, nahiz eta gaur egun batez ere maila sinbolikoan gertatzen den.

Herrialde gehienetako ama (eta aita) ezkongabeek laguntza gehigarriak izan ohi dituzte edota lehentasuna izan ohi dute zerbitzuak jasotzerako orduan, nahiz eta hori askotan behararren arabera izaten den. Baina zehaztutako atalasea, eskaintzen den laguntza ekonomikoaren maila, baldintza gehigarriak (esate baterako, lan egiteko libre egotea) adin txikiko seme edo alabaren adina... ezaugarri horiek guztiak nabarmen aldatzen dira herrialde batetik bestera. Eskubideen baitan, baliabide multzo ezberdinak eskaintzeaz gain, politikek hainbat eredu ematen dituzte beharrak onartzeko eta lanaldi osoko ama izateak zein puntutaraino "merezi" duten jakiteko (Hobson 1994, Sainsbury 1996).

Amatasunari eman zitzaion lehenik zainketaekin lotutako eskubide motaren bat. Azken urte hauetan gizonaren eta maskulinitasunari buruzko bibliografia profesional ugari aterata da eta "aita zaintzaile" kontzeptua hainbeste eztabaidatutako "ama langile" kontzeptua ordezkatzen ari dela adierazten du (27). Zabaldu egin da haur jaio berria zaintzeko aiten eskubidea, eta herrialde batzuetan aitek duten zaintzeko eskubidea kontuan edukitzeko auzia da banaketa edo dibortzio kasuetan. Aitatasuna hein batean barne hartzeaz gain, herrialde askotan gizarte-eskubide batzuk ere barne hartu dira pertsona elbarrituak eta hirugarren adinekoak zaintzen dituztenentzat eta, zenbaitetan, baita gaixotasun terminalak dituzten familiakoak zaintzen dituztenentzat ere. Hori emateko, batzutan ordainketa moduan egiten da, Erresuma Batuan pertsona elbarrituak zaintzeagatik ematen diren zerbitzuekin gertatzen den bezala, Norvegiar pentsioaren zerbitzu gehigarri gisa ematen diren kredituak bezala edota Italiako baja ordaindua bezala, edota aukera horien guztien konbinaketa bat egiten da (28). Agian, ordainketa horiek laguntzak emateko aukerak zabalitzeko modu bat edo lan ez formala onartzeko modu bat bezala ikus daitezke, edota, modu ez-korragoan ikusita, lan ez formalaren ordaintetan, zerbitzuak eman beharrean dirutan ordaintzeko modu bat bezala. Ez dago zuzena den interpretazio bakar bat; abiapuntuaren arabera da, herrialde bakoitzeko herritarren gizarte-eredu orokorraren arabera eta eskuragarri diren zainketa sozial multzo osoaren arabera.

Ezberdintasun politiko eta kulturalak badirela ohartzea are garrantzitsuagoa da, izan ere, zainketa mota batzuen ardura, batez ere oso mendekoak diren pertsonak zaintzearena, ezinbestekoa da

(27) Ikuspegi orokor oso bat lortzeko ikus, Leira A. "Caring as a Social Right: Cash for Child Care and Daddy Leave", *Social Politics*, Fall 1998, 362-78 or. , B. Hobson (ed.) *Making Men Into Fathers: Men, Masculinities, and the Social Politics of Fatherhood*, Cambridge: Cambridge University Press, 2001.

(28) cfr. Evers A., Pijl M., Ungerson C. (ed.) *Payments for Care. A Comparative Overview*, Avebury, Aldershot, 1994 , Ungerson C., "Social politics and the commodification of care", *Social Politics*, 4, 3, 1997, 362-82 or. , Lewis J., *Gender, Social Care and Welfare State Restructuring in Europe*, Ashgate, London 1998.

estatua eta familiaren arteko mugak zehazteko, eta hori horrela dela sumatzen da familia zereginen definizio formaletan. Garrantzitsua da, beraz, "zainketa-erregimenak" zein diren pentsatzea (Anttonen eta Sipilä autoreen terminologia erabiltzearen (29)). Mendebaldeko ongizate-estatuetan ezberdintasun harrigarriak daude zainketa pribatu-publikoetan eta estatu-familia zainketetan nahasten diren arduetan; hori dela eta, zerbitzu publikoen multzoa aztertzeaz gain, "zainketa taldeak" edota zainketa modu ordaindu edo ez ordainduak, familiakoak eta ez familiakoak, publiko eta pribatuak, formalak eta ez formalak, bai eta "zainketa kulturak" aurkezteko moduak ere aztertu behar dira. Testuinguruaren zehaztasun horiek alde batera uzten ez baldin badira, kultura eta nazio ezberdinetako zainketa-erregimenen azterketek nabarmen hobetuko dute ongizate-estatua eta zainketa, herritarren gizarte-eskubide gisa, ulertzeko dugun modua.

5.

*Emakumezkoak
mugatzera dituen
zainketaren azterketatik
herritarren eredu
"zaindugabeak"
kritikatzen*

Zainketa (mendebaldeko) teoria klasikoen nukleoan sartzen saiatu diren figura erretoriko gutxi horien jarraipen historikoa egin dezakegu: herritarrak, justizia, arrazoiketa. Bada Carole Pateman autoreak "Wollstonecraft-en dilema" (30) gisa identifikatu zuena; teoria horrekin, herritarren oinarri bikoitza bilatzen zuen. Jean Ehlstain autorearen Antifonaren dilemari buruzko metaforarekin egiten saiatu dena da, azken finean: legearen inbertsonaltasunaren, errukiaren eskakizunen eta maitasunaren betebeharren arteko gatuzka (31). Azken teoriak zainketa modu positiboan burutu beharko

(29) Ikus, Anttonen A., and Sipilä J., "European social care services: Is it possible to identify models?", *Journal of European Social Policy*, 2. lib., 1996, 87-100 or.

(30) Ikus, C. Pateman Pateman C., *The Sexual Contract*, Stanford, Stanford University Press, 1988

(31) Ikus, Ehlstain J. B., "Antigone's daughters: reflections on female identity and the state", in I: Diamond (ed.), *Families, politics and public policy*, New York, Longman, 1983, 300-311 or.; Ikus, halaber, Gilligan C., *In A Different Voice*, Harvard University Press, Cambridge, EEUU, 1982.

litzatekeen ezinbesteko giza jarduera gisa dakusate, harreman pribatuen mugez haratago eta, are generoari dagozkien konnotazioez haratago; horrela bada, oraindik ere euren eztabaidagaiak direla eta, borrokan diharduten genealogia luze horren emaitza diren teoriak dira.

Nancy Fraser egileak emakumeak errespetatzen dituen gizarte bat edo, hobe esanda, ongizate-estatuan generoen ezberdintasunik egiten ez duen gizarte bat erdiesteko garatu duen programa, berez, Wollstonecraft-en dilemaren hausnarketa moderno bat da baina, oraingo honetan, herritartasunera iristeko bi modu aurkezten ditu (32). Lana generoaren arabera banatzearen desabantailen eztabaidatik sortzen diren bi herritar eredu aztertzen ditu Fraserrek: bat gizonezkoen ekonomia-euskarriaren eredu unibertsalean oinarritzen da eta, honi kontra eginez, gizonezko eta emakumezko zaintzaileen arteko berdintasunaren eredu. Lehenak emakumezkoen enplegua zabaltzea defendatzen du eta bigarrenak, berriz, zerbitzuak eta gizarte-eskubideak eskaini nahi dizkie zaintzaileei. Zaintzaileen arteko berdintasun-ereduaren helburua ez da emakumeen bizitza gizonezkoenaren antzekoa izatea, baizik eta euskarri izatearen edota zaintzearen ardurua ezberdintasunek "ordainik izan ez dezatela" lortzea (606 or.). Badirudi jatorrizko dikotomia ez dela oraindik konpondu, baina euskarri direnek eta zaintzaileek eskubide antzekoagoak dituzte orain. Fraserrek hirugarren aukera bat adierazten digu: emakumeen bizitza-ereduak arau gisa hartu eta gizonezkoak zaintzeko euren lanaren zatia bete dezatela bultzatu; hori lortzeko estrategiak urte askotan eztabaidatu dira, esaterako, Eskandinavian.

Fraserenak ez diren ikuspegietatik, hainbat esfortzu burutu dira zainketa dimentsio nagusi gisa barne hartzen duen herritar bat zer den azaltzen duen ideia eraikitzeko. "Herritar zaintzailea" (33) adierazpenak ematen digun ideiak herritarren lan ordaindu nahiz ez ordaindua burutzen duten langileak direla adierazten digu, eta politika eta gizarte-eskubideek bi dimentsio horiek aztertu behar dituztela bi generoetarako. Antzekoa den ildotik baina ikuspuntu teoriko ezberdin batetik, Nussbaumek herritartasunaren ezinbesteko definizioan eta herritar kontzeptuaren definizioan zainketaren elkarmendekotasunak barne hartzea proposatzen du (34). Horrela, herritarren eskubideak oinarri gisa hartu eta ez lirateke soilik zaintzaileak barne hartuko, baizik eta baita zainketak behar dituztenak ere. Knijn eta Kremer-ek aholkatu duten moduan, zaintzearen eskubideak ez du soilik zainketak eskaintzearekin edota zainketa horiek beste jardueren gainetik lehenestearekin ze-

(32) Ikus, Fraser N., "After the family wage: gender equity and the welfare state", *Political Theory*, 44 (4), 1994, 591-618 or.

(33) Leira A., *Welfare States and Working Mothers. The Scandinavian Experience*, Cambridge, Cambridge University Press, 1992; Knijn T. and Kremer M., "Gender and the caring dimension of welfare states: toward inclusive citizenship", *Social Politics*, IV, 3, 1997, 328-61 or.

(34) M. Nussbaum, "Bisogni di cura e diritti umani", en id., *Giustizia sociale e dignità umana*, il Mulino, Bolonia, 2002, 27-50 or.; Ikus, halaber, id., *Women and Human Development. The capabilities Approach*, Cambridge, Cambridge University Press, 2000.

rikusia, behar denean zainketak jasotzeko eskubidearekin ere du zerikusia. Bi alderdi horiek "herritargo barneratzaile" deritzana osatu beharko lukete. Nussbaum are urrunago doa; autore horren arabera, pertsona batek zaindua izateko beharra eta bizitzan zehar pertsonak zainduak izateko senti dezaketen beharra Rawls-ek, herritarrez ari denean, "jatorrizko jarrera" deritzonaren barne egon beharko lirateke. Egia esan, autore horrek herritarrei buruz nagusi diren teoriaren aurka egiten duen kritikaren arabera, teoria horiek oinarritzat hartu ohi duten pertsonaren kontzeptuari dagokionez, pertsona guztiz mendekoa izateaz gain, gainerako pertsonen mendekotasunek ez diote guztiz mugatzen. Horrela, ez zaintzaileen beharrak ez eta zainketak jasotzen dituztenenak ere, ez dira herritartasunaren teorietako teoria edo praktikan azaltzen. Zainketa emakumeei "ezarritako" betebeharraren baten moduan ageri da eta emakumeak herritartasun osotik at uzteko erabiltzen da. Eskubiderik gabeko, eta askotan eskubideen aurka doan betebeharraren bat da. Gainerako pertsonen zainketen mende diren pertsonen beharrak ez dira ikusten gizarte- edo hiritar-eskubide zehatz batean errotuta dauden zerbait bezala. Alderantziz, pertsona horiek sare informalaaren barnean, beste pertsona baten erabilgarritasun individual eta pribatuaren soilik eta erabat mende diren pertsona gisa ikusten dira.

Eskandinaviako herrialdeen talaian ibili ondoren, hona Leirak sumatutakoa: "zainduak izateko eskubidea ez da erabatekoa. Behar hori agian ez da batzutan "eskaintzaren arabera eskubidea" bezala deitzen dena, gobernuaren asmoak zein diren islatzen duena, hain zuzen ere, baina ez da nahitaez hemen eta orain aldarrika daitekeen eskubide bat. Hein handi batean, oraindik ere, zainketak behar dituztenen beharrak aurrekontu publikoetatik kanpo asetzen dira, erakunde ez publiko edo pertsona pribatuaren eskutik, beharragatik edo hala egitea aukeratzen dutelako, zainketa horiek ematearen ardura onartzen baitute" (35).

"Zainketa" erantzukizun moral eta sozial moduan eta eskubide batzuen oinarri gisa hartu behar izateak bultzada berri bat jaso du azken hamarkadetan, mugimendu feminista eta beronen eragina eremu akademiko feministetan berpiztu baita, eta gizarte politiken eta ongizate-estatuen politiken azterketan islatu eta indartu egin baita, ongizate-estatuan zainketa politikak etengabe berreraiki ondoren. Laurogeita hamarreko hamarkadan, zainketek eta horiek generoan zuten eraginek, lehen postua bete zuten agenda politikoan, Europa mendebaldeko ongizatearen herrialdeek zainketarako baliabide gabezi arin eta handia ezagutu baitzuten; zainketa beharren eta eskura zegoen eskaintzaren arteko aldea handiagoa zen. Azken hamar urteetan, "zainketen defizita" erronka larri bat bihurtu da, erreforma politiko bat egotea eskatzen du, bai eta azterketa bat ere: nork zaindu beharko luke nor, eta nork hartu beharko luke kostu hori bere gain. Zainketa-zerbitzuak sakoneko berreraikitze bat behar izateak estatuen familiarren aurrean duen subsidiariorotasunari bu-

(35) Leira A. "Reflections on Caring, Gender and Social Rights", ESA Kongresuan aurkeztutako hitzaldia: Will Europe Work?, Amsterdam, 1999ko abuztua

ruzko eztabaidak dakartza, edota zainketa publikoa den zerbait edo merkatuko ondasun edo hirugarren sektoreko erakundeen zerbitzu gisa bihurtzeari buruzkoak. Ez da politika erreforma-planik garatu oso mendeko diren pertsonen zainketa beharrak asetzeko edota zaintzaileak zaintzeko. Zainketak jasotzen dituztenen beharrak zaintzeko betebeharraren aldeko edo kontrako arrazoi gisa erabili badira ere, orain gutxi arte ez da euren “ahotsa” entzun, pertsona ezgaitu eta adinekoren artean hainbat erakunde sortu diren arte. Bilakaera horren ildotik, hainbat behar eta interes komun sortu dira, eta ezberdinak badira ere, lehengoak baino garbiago ikusten dira zainketetan parte hartzen dutenen harremanen mordoiloan: zaintzaileen artean, zainketak jasotzen dituztenen artean (esate baterako haurrak eta hirugarren adinekoren artean, senide ezgaituen eta gainerako senideen artean), zaintzaileen eta zainketak jasotzen dituztenen artean (esate baterako, zainketengatik nori kobratu behar duenaren inguruan: zaintzaileak edo zainketak jasotzen dituenak; gatazkak daude, halaber, erabakitzeko nori zaindu behar duen ordu arte zaintzen arituta-koak atsedean har dezan, etab.). Gainera, hainbatetan eztabaidatutako beharren izaera zainketan inplikaturako partaideen arteko balizko gatazketara zabal liteke, eta horrek, ugaritu egin beharrean, murriztu egingo lituzke iragarpen eta aukerak, batez ere helburu mugatuago batzuk ezartzen direlako.

Zainketa zerbitzuen eskaintzak ez du onartzen emakumeen artean ordainik gabeko zainketa informalik dagoenik eta, beraz, eragileak, testuinguruak eta harremanak aldatzen ari dira. Zaintzearen ez arduraren ez eta gaitasuna ere, ez dagozkie genero jakin bati, baina zaintzearekin zerikusia duen lan guztietan emakumeen ordezkariak askoz handiagoa da eta, beraz, zainketa erreforma-politikek ezberdin eragingo diete gizonei eta emakumei. Atal honetan aztertu den moduan, zainketa beharrak dituztenak zainketez hornitzea gizartearen arduraren kolektiboa eta pertsonen arduraren moralak da. Hala eta guztiz ere, gizarte zainketa berreraiki egin da, eta hartu duen itxura berriak generoaren arabera lan banaketa tradizionala sendotzeko baina, era berean, aurre egiteko ere balio lezake.

Ikuspuntu horretatik, zainketaren etika garatzeko proposamenak emakume askoren jardueren balioa, nola jarduera ordainduen balioa hala ez ordainduena, erabat onartzeko modu bat lirateke. Baina arreta eta energia erabili eta jarduera horiek banakako orok dituen eskubideetatik urruntzeko arriskua dago, batez ere emakumeen eskubideetatik urruntzeko arriskua. Alderdi berdearen eta Aita Santu katolikorena bezain ikuspuntu urrunduaren arteko gehiegizko indibidualismoa eta burokraziaren eta konektibotasun ezaren kontrako kritikaren barnean “herritarraren goi etika hori” onartzeak, zainketaren etikaren eztabaida zein sendoa izan daitekeen erakusten du. Baina anbigua ere izan daiteke, baldin eta ez badira aldi berean askatasun eta banakako eskubideen gaiak jorratzen, botere eta aukeramen harremanak. Zainketaren lan dimentsioa berriz ere “maitasunetik” desagertzeko arrisku handia ere badago, orain “etika” gisa definitu den horretatik.

Emakumezkoen aniztasuna herritarren artean

Inongo zalantzarik gabe, herritarrak izan dira, mendebaldeko herrialdeetan gutxienez, eskubideen unibertsaltasunaren eta (maila baxuagoan bada ere) betebeharren bidean berdintasuna proposatu, eskatu eta lortzeko jarduteko tresna teoriko eta politiko indartsua. Tresna intelektual eta politiko boteretsu horrek berdintasuna ezberdintasunak deuseztatu gabe erator daitekeela ulertzeko ere balio du eta, bestalde, eskubideen berdintasun eta unibertsaltasunak, ezberdintasunak baldintzatzen baditu ere, ezberdintasuna bera euren gain zein puntutaraino har dezaketen ere frogatzen du.

Ikuspuntu horretatik, herritartasunak kategoria unibertsal antzeko zerbait dirudi eta demokraziak balioesteko esparru komun gisa eta irizpide komun gisa erabil liteke. Feminismoa bera XVIII. mendean sortu zen lehen aldiz Europan, herritartasunari buruzko hitzaldiaren barnean, banakako eskubideen unibertsaltasunaren inguruan, eta toki guztietan herritartasunari buruzko hitzaldi horren kontrakontua izan da (ekialdean eta mendebaldean, iparralde eta hegoaldean) eta eskubideei buruzko hitzaldiak hasia bultzatu du.

Aitzitik, zehatzago begiraturaz gero, herritarrak esperientzia historiko gisa eta sozialki esperientzia espezifiko gisa aztertzen direnean, hemen ala han, herrialde honetan eta hartan (ez soilik talde honi edo hari dagokionez), herritarrek euren argitasun intelektualaren eta unibertsaltasun argiaren zati handi bat galtzen dute.

Ez da interpretazio teorikoaren kontua soilik (esate baterako, eskubideak eta parte hartzeko tradizioa aurrez aurre (36)), baizik eta lehenik eta batez ere, herritarren praktika ezberdinen kontua. Izan ere, estatu-nazio batzuen historia politiko eta kultural espezifikoek denborarekin "herritarren konplexu (edo erregimen)" deritzogunak sortzen dituzte, nazio bakoitzaren espezifikoak, barneko ezberdintasun espezifiko eta guzti, baina baita herritarrak barneratzeko eta kanporatzeko modu bereziekin.

Erraz ondoriozta genezake horixe bera gure azterketa mendebaldeko herrialde kapitalista demokratikoetara mugatuko bagenu ere, herritarrek, praktika instituzional gisa eta kultura multzo gisa, bertan aurkitzen baitituzte euren erro historikoak.

(36) Bada pentsamendu feministaren aniztasunaren barnean herritartasunari buruzko eztabaiden laburpen bat, in B. Hobson and R. Lister, "Citizenship", in Hobson, Lewis and Siim (ed), *Contested concepts*, 23-54 or.

Estatu-nazio bakoitzaren herritarrak zehazte hori errazagoa izan daiteke gizarte-eskubideak erkatzen direnean, hau da, ongizate-estatu-erregimenak erkatzen direnean. Egia esan, horixe bera da ongizate-estatu/erregimenen ikerketa esparrua. Baina zehaztaperen berbera topatzen dugu eskubide zibiletan eta, hein batean, baita politikoetan ere. Azter genitzake, esate baterako, ezkontza eta bizikidetzaren arautzeko moduak, ugaltzeko askatasuna, genero paperak eta familia barneko harremanak, elizei emandako paperak eta boterea (finantzaketa bitartez edota erlijioa eskola mailan irakasten utzita, hain zuzen ere), hezkuntzaren banaketa publikoa/pribatua, "familiaria" onartzen zaion paperak eta boterea (izan senarrak edo aitak) *vis a vis* banakakoak, batetik, eta hauteskundeak eta politikako ordezkariaren prozesuak gobernatzen dituzten arauak, bestetik. Gizarte zibilaren edukia eta paperak ezberdin onartzen eta "osatzen" dira nazio bakoitzaren lege-esparru zehatzetan. Jar dezagun, esaterako, Holanda eta Belgikako "zutabe" deritzatzenen adibidea, edota Erresuma Batuko elkarte boluntarioena, edota Ameriketako Estatu Batuetako elkarte zibila.

Herritarrek maila bakoitzean, zibilean, politikoan eta gizarte mailan, zehatz-mehatz osatzen dutena, nazio estatuak oso berea duten zerbait da eta erro historiko propioak ditu. Maila ezberdinetan zabaltzen da, ez soilik dimentsio asko dituelako, baizik eta denboran eraikitako praktika eta esparru instituzional bat delako, oreka eta desoreka gutxi asko kontziente eta agerikoak barne, era berean, identifikazio eta itxaropen eredu zehatzak eta herritargoaren eta herritargoaren zati ez diren arteko kritika eta gatazkak dakartenak. Hori erakunde mailan nahiz maila subjektiboan gertatzen da. Gutako bakoitza herritargo baten zati eta nazio jakin batekoak garela sentitzen gara, eta nazio horren barnean genero, klase, etnia talde eta abarretik eratorritako zehaztasun gehigarri oro baztertzen dugu, ondorioz, baita kanpoko eta barneko mugak herritargo osoaren gain jartzeari, barneratze eta kanporatze prozesuak nahiz ezberdintasunak eraikitzeko hartutako oinarriak. Nazio-estatu bakoitzaren herritar multzo jakin bakoitza aldatu egin da denborarekin, inondik inora ere, eta konbergentzia eta dibergentziak sortu dira aldaketetan. Hala eta guztiz ere, aldaketatik bakandutako puntuak edota aldaketari kontra egin diotenak, ezin dira modu independentean interpretatu, baizik eta azpiko multzo horren zati gisa. Nazio-estatu bakoitzak nahiz bertako gizon eta emakumeek nazioz gaindiko erakunde eta araudien aurrean duten erreakzio edo aurre egiteko moduak nazio-estatu bakoitzak nazioarteko botere-harremanetan betetzen duen postuaren ondorioz (horrek herritarren multzoari eta euren ikuspuntuari eragiten die). Baina herritarren multzoa osatzeko moduaren arabera ere badira, dimentsio zehatzetatik hasi eta ezaugarri identifikatzaileetara. Esate baterako, Danimarkako gizon eta emakume askok nahiz Norvegiako biztanleriaren gehiengoak EBak izango duen betebeharrak politiko handiagoaren aurrean erakusten duten erresistentzia, hein batean, partaidetza maila altuko herritargoa izatearen esperientzia dutenez, EBaren prozesu politiko mugatuaren mehatxua sentitzen dutelako gertatzen da.

Ondorioz, emakumeek edo herritartzat dute euren burua, edo maskulinoa dena oinarri hartuta, herritargoaren definizioa barne hartu edo aldatzeko borrokatzen dute, edo herritar bihurtzeko borrokatu eta herritarren baztertzea ere bizitzen dute espezifikoki eta bereziak diren kulturen eta he-

rritar praktiken talaiatik, bizi diren, bizi nahi duten edo bizitzera behartuta dauden herrialdean finkatu direlako.

Herrialdeak generoaren ikuspuntu batetik erkatzen ditugunean, garbi izan behar dugu herritargo ereduak erkatzen ari garela, eta ez herritargo eredu hierarkia mota bati jarraiki; dena den, emakumeentzat ereduetatik erosoena zein izan daitekeen proposa genezake edota, generoari dagokionez, zein den besteak baino neutroagoa, bederen. Hain zuzen ere, azken kasu horretan ere, ereduak mekanismo konplexuak direla ohartu beharko ginateke, istorio eta nortasunak pertsonifikatzen dituzten orekak; horrela bada, ezin dira herrialde batetik bestera horren aisa pasa, nahiz eta norabide batetik edo bestetik garatzera behartuak izan.

Hori dela eta, herrialde ezberdinetan bizi diren emakumeek agenda eta lehentasun politiko ezberdinak izan ditzakete, bai eta horiek aurrera eramateko baliabide ezberdinak ere. Bestalde, emakumeak, herritar multzo jakin baten aldean, egoera ezberdinetan daude adin/talde/bizitza zikloaren aldiari dagokionez, klaseari, hezkuntzari, kokapenari, etniari, arrazari, jatorrizko herrialdeari eta abarri dagokionez. Botere harremanen inguruko auzia da, baina baita biografia kolektibo eta indibidualen artekoa eta baliabideak erabili eta izatearen artekoa ere.

Horrek ongizate-estatuaren xedapenetan izandako aldaketekin du zerikusia, izan ere, lehen ongizate-estatuak aurrez ikusitakoa bultzatzen baldin bazen, aldaketa horiek bizitzako estrategia eta aukerengan izan dute eragina. Horrela, esate baterako, garai batean emakume-ama holandarrei euren etxeetan jarrai zezatela animatzen bazitzairen, behar bada euren ama betebeharraren gainetik laguntza ekonomiko batzuk jasota (hots, lan ordaindu baten betebeharratik libre ziren euren seme-alabak 18 urte bete arte), orain salbuespen askoz gutxiago onartzen zaizkie zainketa betebeharrak oinarri hartuta (nahiz eta Europako batez bestekoa baino gehiago onartzen zaien). Hain zuzen ere alderantziz, lanera animatzen dituzte edota lan egitera behartuak ere ikusten dira (37). Inongo zalantzarik gabe, politika aldaketa horrek Holandako emakume guztien herritargo sozia- laren oinarria berriz ere zehaztea dakar (zaintzetik soldata baten truke lan egitera, zaintzaile gisako herritar izatetik langile gisako herritar izatera). Eta agian arrazoiak modu ezberdinean ezta- baidatzen eta interpretatzen dira. Gainera, herritargoaren definizioan joera maskulino nabari bat ikus daiteke, mugimendu horrek berak bultzatua, batez ere emakumeei lan ordaindua eta zainketa lanak eraman ahal izateko laguntza egokiak ematen ez bazaizkie. Hori guztia, eta gehiago ere, egia da. Baina hemen adierazi nahi dudana da hori bezalako aldaketa politiko batek maila ezberdinetan eragiten dietela emakumei, ez bakarrik euren gizarte-maila eta hezkuntzaren araber, baita euren adinaren eta bizi duten bizitza fasearen arabera ere. Behar bada emakume gazteenek paper berrien arabera pentsatu eta antolatuko dituzte euren bizitzak. Aurkakoa gerta li-

(37) Ikus, Knijn, T., "Fish without bikes: Revision of the Dutch Welfare State and its consequences for the (in)dependence of single mothers", *Signs*, 1, 1, 1994ko udaberria, 83-105 or.

teke adinean aurreratuagoak diren emakumeekin, ez baitute prestaketa profesionalik eta bat batean dirulaguntza jasotzeko eskubidea galdu eta lan-munduan edozein egoeretan sartzera behartuta egon litezke (eta esperantza gutxirekin).

Ginn eta beste batzuek (38) arrazoitu dutenaren arabera, gauza bera gertatzen ari da Europa guztiko pentsio sistemen erreformekin: inoiz baino gehiago ikusten dute herritarra langile gisa (ordaindua), eta horrek guztiak ahultzen ari ditu emakumeek burutzen duten eta pentsio-sistemen zati den zainketa lan ez ordaindua onartzeko modu bakanak eta, era berean, ez da aldatzen lana bi generoen artean zatitzearen banaketa.

Bada beste fenomeno bat, euren karrera profesionala eta familia ardurak mantentzen dituzten emakumeena; horiek lanaldi eta bizitza osorako etxeko andre diren emakumeetatik bereizten dira, jarrerari, osatu eta defendatu beharreko interesei, adierazpen propioei eta abarrei dagokienez. Baliteke ezkutuko eta batzuetan ageriko interes-gatazkak sortzea emakume "langile" eta "ez langileen" artean. Baliteke lanaldi osoko etxeko andreek nolabaiteko soldata edo pentsio bat eskatzea etxeko zereginen trukean, diru publikoa ama langileen seme-alabentzako haur-zerbitzuetan gastatzeari uko eginez. Eta lanaldi bikoitza duten emakumeek, berriz, baliteke begi onez ez ikustea euren kontribuzioetatik lanaldi osoko etxekoandreei gutxieneko pentsioak ematea eta etxeko lanak eta familiak zainketa lanaldi osoko etxekoandreek burutzen dituztenean bakarrik onartzea. Bada hirugarren fenomeno bat, ongizate-estatuaren hornidurek eta lan-merkatuko aukerek herritar guztientzat duten garrantziarekin zerikusia duena, baina batez ere emakumeentzat, eragin handiagoa sumatzen baitute lana eta zainketak bete eta eurentzako denbora izateari dagokionez. Badira tokiko gobernuen arduraren zainketa zerbitzu asko (esate baterako, haurrentzako, elbarrituentzako, hirugarren adinekoentzako), eta badira agentzia publikoen eta irabazi edo merkatu asmorik ez duten agentzien arteko akordio lokalak. Era berean, lan-merkatu lokalak, gehiago edo gutxiago, emakumeen partaidetzara zabalik egon litezke. Ildo horretatik, esan genezake herrialde batzuetan gutxienez, nazionalitate jakin bateko herritarrak egoteaz gain, tokian tokiko herritarrak ere badirela. Eta hori emakumeei aplikatzen zaie, nahiz eta ez emakumeei bakarrik.

Bada inmigrazioarekin zerikusia duen laugarren fenomeno bat. Emakume etorkinek, nahiz eta ez diren batere talde homogeen bat, modu sinple eta unibokoan uzten dituzte agerian euren generoa barne hartzen duten barneratze eta kanporatze dimentsio anitzak. Baina nik esango nuke berriz ere itzuli egin dela emakume etorkinen lan-eskuaren "erabilgarritasuna" tradizionalki emakumezkoenak izan diren zereginetarako (zainketa, etxeko-lanak baina baita prostituzioa ere), eta horrek berriz ere sartu ditu maila sinboliko eta praktikoa emakumezkoen hainbat hierarkia kultural eta sozial espezifikoak, iraganekoak zirela uste genituenak eta iraganean klase moduan osatu zirenak. Halaber, pentsatu beharko genuke arraza eta etnia ezberdintasunetako klase ezberdinta-

(38) Ikus aurreko 2. oharra.

sunak eta botere harremanak xurgatu eta ezabatzeak zein puntutaraino aberasten duen edota, alderantziz, ezberdintasunez eta gizarte hierarkiez ulertzen duguna iluntzen duen eta horrela bate-tortze faltsuak sortzen dituen (berdintasunak?), nola emakume "ixuri eta indigenen" hala emakume "etnikoen" artean.

Emakumeen arteko interes-unitatea ez da, beste hitzetan, *a priori* emandako zerbait, baizik eta alderantziz. Elkarrizketan nekatu beharra dago eta proiektu politiko moduan aukeratu beharra dago (ez besterik gabe emakumeena den proiektu politiko gisa, baizik eta euren artean batzea erabakitzen duten emakumeena, agian gainerako emakumeen edota gutxienez gainerako emakumeen interesen kontra). Historian kokatuta eta politikan negoziatua den herritartasunaren izaerak berak elkarbanatutako proiektu bat egon litekeela adierazten du, koalizioak eraiki eta planak ezartzeko esparru bat (berdintasun perfektua edo erabateko unibertsaltasun edo barneratzea lortzea amestu gabe, baizik eta abian den lan gisa, balioetsi, kontrolatu behar dena, aldaketa eta negoziaketa orori beti zabalik eta gatazkaren nahiz adostasunaren bitartez eraikia).

Ikuspuntu horretatik, esango nuke koalizioak eraikitzeke oinarri hori (39) agian ez dela soilik emakumeek gizarte-talde guztietan eta mundu osoan jasan duten zapalkuntza eta bazterketa iraunkor eta zabaldu horren ondorio, egin den azterketatik ateratako ideien ondorio ere bada, hain zuzen ere. Batetik, talde batekoa izateagatik kanporatze eta esplotazio prozesuei buruz hausnartu da, erkidegoko ikuspuntuari eta emakumeen zainketa ardurei buruz eta, bestetik, pertsonaren izaera erlazional eta kokatuari buruz. Herritartasunaren esanahi liberalaren desabantailak ez datoz, nire ustez, pertsonen buruzko ikuspegitik (ikus, halaber Nussbaum egileak dioena), baizik eta bi talde-en arteko bereizketa eta aurkakotasunetik, hain zuzen ere, ardura erlazional eta sozialak izateagatik herritar boterea dutenen (familia buruak, zergadunak, soldata iraunkorreko langileak, kolo-noak, komunitate buruak, eta abar, denbora eta tokiaren arabera) eta, alderantziz, ardura erla-zional eta sozial jakin batzuk izateagatik boterea galdu eta eskubide pertsonalak eta, beraz, he-rritartasun osoa lortzeko eskubidea galtzen dutenen artean, emakumeak nagusiki, baina baita tal-de gutxituak ere, baztertuak dauden zereginetan dihardutenak, etab., berriz ere tokiaren eta une-aren arabera.

(39) Ikus, Yuval-Davis, N. (1996), *Women, Citizenship and Difference*, Background paper for the conference on "Women and Citizenship", Greenwich-eko Unibertsitatea, uztailak 16-18.

